

HITZAURREA MORALISTAK

Shaftesbury potentzia bizia zen XVIII. mendearen hasieratik azkena arte. Garaiko hoberenek entusiasmoz eta esker onez gorai patua. Haren izena aipatzen ez zuen hamaikatzeko idazkitan ere, haren espirituak ziharduen eraginkor. Etsaien zelo hisiatuek berek, gogoz kontra izanda ere, haren influentzia zein sakona zen erakusten zuten.

Hamarkada gutxi batzuk geroago, eskolatuen tropak ahaztua zuen. Orainaldiak halaber, bestela altxor literarioen induskari hain ahaleginduak, ozta-ozta ezagutzen du, ezagutzaile bakanen epaiak hainbat aldiz ohartarazi izan arren hango harribitxi ezkutuak.

Halako iraulketa bat, bera da problema eta, Shaftesburyren obra nagusia orain bizi berria pizteko saioak, hortaz, xede bikoitzeko balio lezake. Denbora iraganen ondasun preziatu bat berriztatzen du eta gurekoaren gogapena sustatu. Shaftesbury baitan, bere garairene handitasun liluragarria bezala argaltasun arriskutsuak, modu tipikoan ageriratzen dira. Hura ulertzen duenak mirespenez balora dezake, errealitatearen arazoaren hondora, nolako baliabideen gehiagotasun beregainetako doan aro modernoa. Baina azaleko aurrerapenaren erlazioa barrukoarekin beharko du aurreiritzi gabe haztatu orobat eta seriozki etsaminatu galdera, zientziaren garaipenak eta kultura materialaren hazkunde itzelak ea balio ote duen XVIII. mendeko espiritu hautak jada zebiltzaneko eta ziharduteneko atmosfera garbi eta epel gizatasun jatorreko haren galera konpentsatzeko.

I

Anthony Ashley Cooper, Shaftesburyko Kondea, 1671ko otsailaren 26an jaio zen Londresen, loba baitzen ospe handi eta zori gutxiko lehen Shaftesburyko Kondea, gero Ingalaterrako Kantzelari Handiarena, zeinen adiskide banaezin, mediku eta aholkulari, egun argi zein beltzetan, John Locke filosofo bikaina izan zen.

Gurasoen esposarioak nola bideratu omen ziren, honela deskribatu du Shaftesburyk berak Le Clerc-i egindako gutun batean: “Nire aita ia mutikotatik osasun makalekoa zen, horren kariaz ahalik goizena haren ezkontzaz artatzera mugitu zen gure aitona, bere leinuaren arduraz. Hura gazte eta eskarmentu gabeegia zen, ordea, emazte bat beretzat hautatu ahal izateko, eta nire aitona lanpetuegia, harentzat hautatzeko. Zeregin labainkorra zen, nire aitona eskuarte handirik ez baitzuen galdatzen, garrantzia erabakigarria ematen zion baina askazi onari, planta onari eta osasunari, eta batez ere hezkuntza onari eta ahalik eta Gorteko edo hiriko damengatik urrutikoena izan behar zuen aztura onari. Hau guztia eman zitzaion eskizian Locke Jaunari, artean gizakumeen ezagutzaile hain guztiz ona agertua zenez gero, nire aitona ez baitzuen dudatzen, emakumeena era halakoxean izango zela ezagutzaile doia. Hala bidaiatu zen, bada, aginduaz eta zinaz obligatua, Abrahamen etxeko zaharrenaren, haren guztiaren kargudunaren antzera, eta heldu zen urrungo lurralde batera (Ingalaterrako iparraldera), bere jaunaren semearentzat emazte bila, aurkikuntza berari bezain ongi harako hari atera baitzitzaion”.

Kontakizunaren azkena, paralelo biblikoaren gustuagatik, noski, egiatik pixka bat apartatzen da. Lockeren taktuari eta begiramenduari, ezkontzaren bideratzea gomendatu

baitzitzaion, ez haatik (gero ia biografo guztiek errepikatzen dutena) andregaiaren aukera. Haren mandatua Rutlandeko Kondearentzat zen espresuki, Belvoir Castlen, eta halatan da haren alaba etxejauntzako Pair gaztearen emazte bilakatu. Zazpi ume ekarri zizkion, Anthony Ashley primua zela. Hari buruz besterik ez dakigu deus. Ez hark eta ez aita buruz bezainbat gorputzez mengelak, bizi osorako preso baten antzera bere geletan ohi zetzanak, izan dute semearen hazieran nabaritzeko moduko eraginik. Hiru urte zueneko, aitonenera etorri zen. Lockek, gurasoen ezkontza bideratu eta haurgintzakoan amari emagin egina zionak, haurraren hezkuntza zuzendu orain, eskolarik eman berak egin ez bazion ere.

Latina eta grekoa, Elizabeth Birch maisu-alaba eskolatuarekin ikasi zituen Lord gazteak, geroago bere idazki pedagogikoetan, Lockek deskribatu duen elkarrizketa metodoaz baliatuz. Eskolako ariketen pedanteria jasan behar gabe dastatu ahal izan zuen, beraz, literatura klasikoa. “Shaftesburyk bere hamaikagarren urtean, grekoa eta latina hizkuntza biziak bezala ikasteko aldiona izan zuen”, esaten da Herderren Adrastea-n, “irakurtzen ari zen autorearekin, horrela, biziarekin bezala elkar-gogoetatzekoa, onura handiko abantaila horixe. Hezkuntza horrek eman zion haren arimari zalantza gabe, haren idazkiak oro ezagutarazten dituen hutsegite politen batzuetarainokoxe, antzinakoen gustua. Jenofonte eta Platon, Epikteto eta Marko Antonio, Horatio eta Luziano, bere gaztetako eta bizitzako lagun zinezkoak horiek izan zituen, gizakume biziak zituen, horien gisara taxutu ziren berak filosofia eta moralak, gustua eta solasketa, gauzak begiratzeko eta tratatzeko bere moldea, hitz batean.

Iragaitan bakarrik ezagutu zuen garai hartako irakaskuntza, errota publiko atsekabea. Azkengabeki samintzen zuten ikaskideen ohitura zakarrek, hainbatenaz gehiago, aitonaren epaiketak eta ihesak makina bat ereti eskaintzen zutenean irri mingarritarako. 1686an eskola utzi egin zuen hortaz eta, bi lagunekin, maiordomo eskoziar baten ardurapean, Frantziara eta Italiara bidaiatu zen urte batzuetarako.

Lehenagoko bere ikasketen osagarri dohatsuena erdietsi zuen horrela. Hizkuntza klasikoaren ezagutzari, modernoaren ariketa gaineratu zion; halako berbetaren zuzentasun erabatekoraino eta elegantziaraino eramane zuen, Frantzian usu frantsestzat hartzen baitzuten. Italian geroago bere mundu-ikuskerari aire karakteristikoa emango dioten artearen ezagutza eta zaletasuna bereganatu zituen. Zoritua eta guztiz aberastua itzuli zen 1689an atzera Ingalaterrara, eta lan zientifiko isilean eman zuen ia bost urte, batez ere literatura antzinatarraren barnerapen sakonago eta mamiagoan.

1695ean bakarrik irten zen Shaftesbury bere ikastun-zulotik borroka politikoaren burrunbara. Komunen Etxean kide bilakatu zen, Poole herrixkako ordezkari. Anekdota polit bat dago, zenbaiten zalantzak gorabehera franko bermatua, bere karrera parlamentarioaren hastapenari eransten zaiona. Traizio handiaz salatu orori abokatu bat hartzeko eskubidea aitortzen zion lege-proiektu baten alde nahi omen zuen mintzatu. Bere jatorrizko herabetasunak uzkuriturik, ordea, egiteko zuen diskurtsoaren lekuan, bat-batean naretuta, esaldi bakar honekin etsi omen zuen: “Ni, aurkezturiko proiektuaz neure iritzia adierazteko baino zutitu ez naizen hau, nahastuta bainago, esateko asmoa nuen guztiaren mendreenik ateratzeko gauza ez naizela: zein egoeratan ez ote da egongo, bere bizitzaren alde hitz egin beharrean dagoen gizonea, inoren laguntza gabe eta hura galtzeko larriaren zamapean?”. Hitz gutxiok inpresio bortitzagoa egin zuten erretorika distiratsuenak baino, eta proiektua, Komunen Etxeak onartua, handik berehala lege bihurtu zen.

Jazoera hauxe beste Shaftesburyren arrakasta parlamentariorik ez zaigu transmititu. Ez bedi pentsa, ekintza politikoak ez zuela erakartzen. Politikaren bere interesa bizia zen, iraunkorra eta ez batere itxurazkoa. Hainbat gauzak sustatu zuen txiki-txikitatik hartara: estatu-gizon handi baten etxean bizitako gaztaroak; aitonaren asturuek; Lockeren eragipenak, laurogeigarren azken urteak ezkeror, geroz eta gehiago problema politikoekin eta analogoekin ibili baitzen arazotua. Asmo zintzoz hasi zen ere bera, eta partaide saiatu eta adienetakoa izaten zen biltzarretan. Garai batean beharbada eginkizun bikaintxo bat bete ahal izango zukeen. Baina Parlamentu ingelesean ekaitz amorratueneke zerauntsaten orduantxe. Alderdi gizona izateko ez zen alderdikoi aski, gatazka grinatsuetan eta trikimailuetan zuzenki parte hartzeko ez fisikoki, ez psikikoki aski suhar. Desengainuek eta ondoez fisikoak, horrela, jarduera parlamentarioa bukatutzat ematera behartu zuten 1698rako jada. Aita hil ondoren, 1699an, Earl of Shaftesbury titulua eta, bide batez, Lorden Etxean hari zegokion aulkia jarauntsi zituenean ere, gutxi agertu zen. 1701eko bozketa urtean ekinaldi bizkorra erakutsi zuen oraindik eta erregeak esker onez behin eta berriz nahi zuen karrera politikorako irabazi. Anna Erreginaren tronu igoeraren ondoko burugainka politikoak alabaina, bere biziera pribatura bazterrarazi zuen behin-betiko. Handik aurrera sogile antzera bakarrik segitu zuen gorabeheren martxa, egunean-egunean begiespen ilunduagoz, karmin barnekorragez egunik egun. 1712ko uztailean bertan, bere heriotza baino hilabete batzuk lehen, Furllyri idatzi dio: “Zurekin deitoratzen dut gure herriaren lotsaizun tristea¹, sekula ez nuela ikusi behar izango espero nuena, eta nire ataka tristea eta osatzeko nire itxaropen urria hainbat gutxiago penagarriak agerrarazten dizkidana, zenbat eta horiek bitartekoak diren ahalke sentimendu honi amaia ezartzeko, nire aberriagatik bete beteko nauden honi, nahiz oraintxe bere eta munduaren gainera jaurti aginean dagoen harri horretatik noizbait lehenera baledi ere”. Berba eder harro hauekin ixten du: “Baina probidentziak inon den oro gobernatzen du eta bere saria norbere bularrean darama gizon zuzen orok. Nik badut nirea, Jainkoari eskerrak, ene eginahala egin izanaren eta nire gorputzaren egoera errukarri hau bere zinezko Ongiaren eta askatasun eta gizatasun aldeko arduraz, eta nekez bakarrik harrapatu dudanaren kontzientzia prestuan”.

Aurreneko aldiz 1698an ekin zioten asma atake zemaizkoekin, arrisku beldurgarria ziren sortalde-haize lakatzak eta Londresko gandua (“the pestilential smoke of this city” idatzia zuen, hark ere gaitz bera sufritzen zuen Locke). Handik hara Shaftesburyk Holandara aldatzea deliberatu zuen urtebeterako.

Bidaiaren helmuga hori ez zuen hautatu osasunarengatik soil, zeharo sinestuta zegoen arren han baino aire garbiagorik inon ez dagoela, Rotterdamen baino bereziki. Beste sentimendu sakonago bat ere bazebilen jokoan. Holandan iragan zituen exilioan aitonak, Locke leialak lagun egiten ziola, bere bizitzako azken urte mingarriak. Oroz gain, baina: Europa osoan trafiko kultural aske eta lehiatsuenaren erdigunea ze Holanda. Hemen ari zen, Rotterdamen irakasle, Pierre Bayle, zeinen jenialtasun kritikoak, erudizio alimale bare “Hiztegia”n erakutsi batekin, ikastunak oro artegasun sukartsuan baitzeuzkan. Le Clerc, haren alboan, Bibliothèque Choisie-aren argitaratzaile, aurreneko eta eragintsuenetakoa aldizkari zientifikoa; Benjamin Furlly, zeinen etxe abegikorrak jada Locke aterpetua zuen, eta hamaika gehiago, iritzi-truke bizi eta estekageak elkar lotuta,

¹ Espainiako Suzesio Gerraren azken alderako gorabeherak aditzen dira bereziki, Ingalaterran Ministerio Whigaren erorikora eta ondorioz ia bentzuturiko etsaiairekin ituna egitera eraman zutenak. Utrechteko Bakea (1713) Shaftesburyk ia ez zuen ikusi.

Izaera moral, politiko nahiz erlijiosoko auziei buruz.

Laster sartu zen Shaftesbury zirkulu guzti honekin tratu adiskidezkoan. Hemen gerizatuta sentitzen zen, kultura europar, inolako ez Estatu- ez Eliz hertsapenek trabatutako baten hoziduraren erdian. Gupidagabe argi agertu zitzaizkion bere erkideen aurreiritzi estuak. Bere barruan gizaki mota bat bakarrik sentitzen zuen ahaide : “Bere plazera munduarekin harreman zabal eta librean duen eta edozein aldetatik zolitasuna irabazteaz eta argia hartzeaz pozten den jendea”. 1702an ere, ekintza politikoaren saio errepikatuaren ondoren, barrua are sakonago muzindua eta osasuna seriooki jota geratu zenean, berriro Holandara joan zen eta orduan ia bi urte luzatu zuen han. 1704az gero Ingalaterrako bere ondasunetan erretiratuta bizi izan zen, arduraz eramaten baitzuen berak horien administrazioa, hainbat estudio eta proiektutan zereginduta.

Bere ekintza literario propiorako bultzada erabakigarria ere Holandan hartu zuen, agi denez- Nahikoa berandu iratzarri zen produziortasun osora; garrantzikoena bere bizitzako azken lau urteetan biltzen da. Ordura arte ez zen haren berezko ezer argitaratu, ez behintzat berak nahita. Atzetik arin batean jaurtitako bere gaztetako idazki bat argitara zioten 1699an. Shaftesburyk albait lehen argitalpen osoa erosi zuen, guztiz haserretua. Urte asko geroago agertu zen obra hori, estiloa goitik behera berrerraturik, edukia ia ukitu gabe, “Bertutea eta merezimenduari buruzko ikerketa” (Inquiry concerning Virtue and Merit) izenez.

Shaftesburyren egiazko idazle karrera, Lord Somersi helbideratuko “Entusiasmoari buruzko Gutuna”-rekin (berba honek hemen fanatismoaren buruberokeria, esan nahi du) 1708an hasi da. Gutun honetarako parada, protestante frantsesek eman zioten, Cevennesetako iheslari txiro, Luis XIV.aren tropek beren sorterriko mendietatik iraitziek. Jazarpeneko ankerkerian izugarriak eromen erlijioso antzeko bat sortu zuen askorengan; Espiritu Santuak betetzen zituela uste zuten eta profeziak egiten aritzen ziren. “Profetak” kaltegabekoak ziren artean, hor konpon utzi zituzten. Gobernuak partida batzuk esleitu ere egin zituen hain mugagabeko miseriaren sorospenerako. Ergelago jokatzeko eta Ingalaterraren hondamena iragarritz beren idazkiekin herria aztoratzen hasi zirenean, ordea, ugaritu egin ziren harramantza horien errepresioa eskatzen zuten ahotsak. Zuzemen gogorrak proposatzen ziren: kartzela, pikoa, urkamendia. Orduan Shaftesbury agertu eta adierazi zuen: tankera honetako entusiasten aurka baliabide hoberena iseka eta barrea zela. Txarlatan frantsesekin hobe zela, hezurak apurtu baino, azokako txotxongiloak baino ez serioago hartu. Aholku hau iritzi orokorretara hedatu zuen gainera. “Irrigarrikeria” edozein egiaren (erlijioa ere) probarri bilakatzen zen. Autentikoak edozein argitzapen jasan dezake; “test of ridicule” horrek ez du haren distira gehitu besterik egingo, sasibarioak erruki gabe desmarkatzen dituen artean.

Erraza da erakustea, adierazpenok zuzena eta okerra nola nahasten duten: irriaren armak, gaindiezinezkoak barrutik hildako fede formen sasiautoritate usurpatuaren aurka, ez dira berdin erabili ahal izatekoak seriotasun santuan nobletasun bereko printzipioen borroka erabakitzen ari denean. Baina lehen hartan kritika patxadatsurako ez zen betarik hartu. Ortodoxiak bere dogma santuenak arriskuan ikusi zituen, iseka lotsagabeenari entregatuak. Hiru kontraidazki koleratsu agertu ziren, horietan bat Shaftesburyrena baino hiru bider gutxienez lodiagoa. Aho guztietan zebilen Letter on Enthusiasm, autorearen karrera literarioa bikaina hasi zen.

Bigarrenak, *Epistola sensus communis* edo “Piper eta Umore Askatasunaz” (On the Freedom of Wit an Humour), 1709an, *Entusiasmo* gutuneko doktrinak osatzen eta sakontzen zituen. Urte berean inprimatu zen (lehenago paratua noski) *Moralistak*, Shaftesburyren ideologia eta mundu-ikuskera osoaren azalpen aberatsena eta xarmangarriena, bere arima garbi handiaren aitortza intimoena eta loriagarriena. Idazki guztiak, baita 1710ean argitaratu “Bakarrizketa edo Autore batentzako aholkuak” (*Soliloquy or Advice to an Author*) tratatua ere, anonimo agertu ziren.

Ordura arte argitara emandako denak, plus bitartean birmoldatutako *Inquiry*-a eta gai ezberdinetako artikuluko txikiagoen errenkada bat (*Miscellaneous Reflexions*), Shaftesburyk 1711n “Gizakien, Ohituren, Iritzien, Aldien Karakteristikak” (*Characteristics of Men, Manners, Opinions, Times etc.*) titulu orokorrean hiru liburukitan bildumatu ziren, horiek hortaz, haren lan filosofikoaren suma ia erabat jasotzen dutela. Bilduma honek ere ez autorearen izenik, ez inisialik zekarren titulu-azalean; inprimatzailearen izena bera ere falta zuen. Hitzaurrean bukaerako letra batzuek bakarrik argiabatzen zuten autorea².

Heriotza hurbilaren susmoak bilarazi zion zalantza gabe indar guztien azkeneko aroa hau. 1708tik 1711 arteko tenka itzelezkoari eustezinezko gainbeherak segitu zion. Oinaze beltzenek hagaranduta, Shaftesburyk eskualde epelagoetan behar izan zuen aringarria bilatu. Beste urte eta erdi bizi izan zen Napolin, Karakteristiken bigarren argitalpenerako prestakuntzekin eta arte estudioekin enplegatua. Bi saio labur osatzea ere lortu zuen oraindik etekinen batzuekin: pintura alegoriko batez gogoetak (Herakle bidegurutzean) eta Marrazketari buruzko gutun bat.

1713 hasieran indarren eroriko larri batek eman zion. Egoeraren oharren osoa eduki zuen azken momentura arte, bere adio gutun hunkigarriek adiskideei erakusten dutenez. Otsailaren 4an, berrogeita bi urte betetzeko aste gutxi falta zituela hil zen.

Handik gutxira honela idatzi zion bere idazkari Pole Crell gazteak Furlryri: “Bere Jauntasunak Jainkoaren nahiaren etsipen osoa erakutsi du: sufrimenduak eta agonia. Ez zituen eroapenez bakarrik pairatu, baina baita alaitasunez ere, eta ongizate osoko egunetan gozatu ohi zuen bezalakoxe gogo eztitasunez”.

II

Barneko bake hori, Shaftesbury bere buruaren hezkuntza lan sistematiko luze, bere aribidean ez estrabangantzia banan batzuk gabekoan erdietsia zuen. Berez histasunerako eta hipokondriarako joera zeukan, aita dohakabearen ondare zuena agian, bere gizaberasun propioak eta esperientziak mingotsek areagotua. 1708ko azaroaren 4an Molesworthi hau idatzi dio: “Jo naza melankoliakotzat, nahi badu. Aitortzen dut, neure jardunaldi publikoaren aro batean halaxe nintzela. Berori salbu, izan ere, eta besteren bat edo bi (zenbaki ahalik altuena aipatzen dut), ez neukan zeinek nirekin borroka egin alderdi bietako bidegabekeria eta ustelkeriaren aurka... Baina egun horiek aspaldi joanak dira”. Berezko bere melankoliaren nagusi eginga zuen burua eta konkistatua arraitasun eta onberatasun, arimako zohardi, informe guztiek harengan goretsi hura. Edonon harreman hurkorik harekin zuten guztien bihotzak limurtzen zituen. Adiskide

² Hauek ziren letra edo zenbaki horiek: A.A.C.A.N.A.AE.C.M.D.C.L.X.X.I. Esanahi dutenak antza: Anthony Ashley Cooper, Armiger, Natus Anno Aetatis Christi (edo: *Aetatis Christianae*) 1671.

zituenak, heriotzartekoak izan zituen. Eta etsaiek berek, inolako eskrupulu gabeko polemiken tenore hartan ere, haren jite pertsonalaz ez zuten susmo txarrik batere.

Bere hesigabekeria eta zarrastelkeriaren gorenera Anna erreginaren epokan goititu zen aristokrazia baten erdian, hark neurritasun bat gordetzen zuen, barauzaroa ondo esan ahalko litzaiokeena (haren semeak trazaturiko eskise bat espresatzen denez.). Rotterdamen asmoa egin zuen, urtean ez berrehun liberatik gora behar izateko, eta horretatik eta soberakinik geratzen zitzaion behartsuei laguntzeko. Haren filantropia ez zen sentimendu salokeria, jardun eginkorra baizik. Bere kontura ikasketak egitea ahaldu zien gazte dohaintsuei, eta arta paternalez berak zaintzen zuen haien prestakuntza-ibilera. Bere zerbitzuko familia pobre haur-ugari bateko seme bere kuttun Michel Ainsworthi egindako gutunak dauzkagu (“Several Letters written by a Noble Lord to a Young Man at the University”, estreina 1716an inprimatua); zoragarria da horietako freskoa eta maitazarrea, balorazio pertsonal intimoen eta gogoeta kilikagarrien joria. Goian aipatu Crell hori halaber, bere babespekoen andanakoa zen, horien atarramentuaz biziki axolatzen baitzen gero. Neurrigabea zen haren poza opari egiten. Hainbat idazle mereziduni ipini zion urtesaria eta ez zion kendu bere lañotasunari ezkertzarrez ordaindu izan zionean ere (bere atzetik Inquiriry-aren eskise amaitu gabe hura argitara eman zuen Toland deistarren kasuan esaterako). Ez zen, eskatzera joan zekiola, zain egoten. Londresera Des Maiseaux jakintsua heldu zelarik, mesede bezala galdegin zion baimena, zilegi izan zekion hari lagun etortzea. “Inolako zerbitzuaren bat Berorri nik esku-erakutsi ahal baniezaio, edo nire laguntzaren bat egin balezate premiazko Berorren zirkunstantziek, arren eskatzen diot, adiskide batez bezala libre-libreki balia dadila nitaz. Sutsuki bainuke desio, halakotzat har nazala Berorrek”.

Ahoberokeriarik batere ez da, Fowlerrek adierazten duena: Spinozagatik esan den eran, Jainkotasunaren ideiak mozkortuta egon dela, hala baiets daitekeela Shaftesburygatik, bertutearen ideiak mozortu duela hori; bertutearekin, aldiz, berak ongintza eta besteenganako ardura ulertu duela. Erants daiteke, berdin indarrezko zegoela haren baitan naturaren eta ederraren maitasun gorria bizi, eta zuela ernarazi munduaren ikuskerako haren moldearen kartsutasun hura, entusiasmo garden hura, filosofian ez ezik, bizitzan ere baliatu zitzaiona. Ezbai gabe Moralistak honetan lehen zatian, hirugarren ataleko Teokleren azalpen espresiboa Shaftesburyren beraren argazkitzat eduki daiteke haren hazpegi nagusienetan.

Hura ere “gizona bere kontraesanarekin” zen, ordea, eta irudiaren bizitasunaren kaltetan gertatzen da, jaramonik egiten ez zaionean hitz batekin ere kontraesan horri. Shaftesbury osoa ulertzeko, haren izaeran koska partikular bat ezagutu beharra dago. Kultura kosmopolitaren ekarle honen baitan, gizakume bihozbera eta sentimendu barrenkorretako entusiasta honen baitan, lantzean behin tipiko ingelesa, aristokrata tentela, pedante gatzila nabarmentzen zen modu estrainio batean.

Bere amodio- eta ezkon-bizitza da nahikoa adibide.

Ia berrogei urtekoa zen, eta, itxura dagoenez, erotikoak haren bizitzan ez zuen izan parterik. 1708aren azken aldera bakarrik konbentzitu bide zuten lagunak kondezkoaren leinu iraupenaz arduratu beharrean zela; bere gaizberatasun hazkorrearekin, apika bazuen erizaintza samurrago baten gogoia ere. Eta, miragarriro, hantxe agertu zen dama bat agertu ere, “Lord zahar” (izena ez da ezaguna) txit aberats baten alaba, Shaftesburyri arras gustatu zitzaiona. Lehen ikusiko maitemin egiazko bat huraxe. “Neska bat bizi da

hemen”, idatzi dio Molesworthi, “halabehar hutsak nire auzo egin duena eta joan den igandea baino lehen nik sekula ikusi ez nuena; justu bera da edozein aldetatik, pentsa litekeen zoriontasun handiena nik baldintza modu batzuetan gutiziatzen nuenean, nire irudimenean pintatzen nuen pertsonaren irudia”. Batto bakarra zuen akatsa bere begietan hautetsiak: berarentzat – aberatsegia zela! Dotezakurtzat har ez zezaten, ezkonsari orori uko egiteko pronto agertu zitzaion aitari. Alferrik. “Lord zaharrak” ukatu egin zuen, zioak ez dakizkigu, bere onespena. Desengainua ere ez dakigu Shaftesburyk nola eraman zuen. Nolanahi ere, andrea bilatzeko bere xedea ez zen kraskatu horregatik. Urte hartan bertan esposatu zuen Jane Ewer, urrutiko ahaide txiki bat, ez aberastasunik eta ez eskolarik, baina bai “lañotasuna, xumetasuna eta ama on eta inudetasun agerikoenak” zeuzkana. Bestenaz, ez du aukera damu izango. Janek hurrengo urtean jada eman dio oinordeko desiratua eta senarra arta maitatienaz zaindu du hil arte. Gutun berantiar batean, berotasun ez handiko baina intentzio oneko gorespen hau agertu dio: “Ezkontzaz mintzatu behar banu eta nire iritzia zuzen-zuzenean azaldu, umorez eta txantxaz ponpoxtu gabe, ziurrena jende ezkondu ondradu gehienak, baina damak batik bat, iraindu egingo nituzke: egoera berriko nire zoriontasunaren laudorio handia esan usteko bainuke neuk, esanez, lehen adinaxe naizela orain zorionsua”.

Sentimendu putzaldi bortitzaren eta gurbiltasun eratsuaren aldamentasun hori bezain miragarria kausitzen da, Shaftesburyk nolako zimentasun puntalakurloz begiratu izan duen batzuetan bere erronkaren dedua. Herderrek dioen legez, “Berorren Jauntasunak azpiratzen zuen” tarteka. Berak lagundurik formazio akademikora eta konfiantzazko karguetara heldutako gazteei berei (Crell bere idazkari pribatua esaterako), bere “morroiak” (servants) zeritzen hirugarrenei gutunetan, gehienez ere bere “morroi nagusiak” (headservants). Txikitasun txikienetaraino zehaztutako azalpenek morroi-mirabeentzat, gizatasun libreeneke hazpegien ondoan, alde sozialaren azpimarra nabarmenena erakusten dute bat-batean. Herri xumeari Shaftesburyk (Ilustrazio ingelesaren ia buruzagi guztiek bezalaxe) aske pentsatzeko eskubidea gogorki ukatzen zion. Mentalitate honegatik eta baita halako uzkurkeria bategatik ere³, esplikatzen da zergatik Shaftesburyk, haren filosofia ortodoxiaren doktrinari eta praxiari bekoz beko oposizioan egon arren, estatu erlijioari bere eraspenera espresuki behin eta berriz baieztatu dion eta, bere semearen lekukotzaren arabera, txit elizara joanzalea izan den, urtean gutxienez hiruzpalau aldiz jaunartzen zuena. “Populuxkari” ikasbide ona erakutsi nahi zion segur aski, haren bezatzeko kristautasun ofiziala guztiz erabilgarria aurkitzen baitzuen. Pentsaera erlijioso intimoaren eta kanpoko azalpen erlijiosoen artean doi bereizten, gazte-gaztetandik zizun noski ondo ikasia⁴

Idazkintza profesionalaz ez zuen bere estatukideek baino aurreiritzi gabeago pentsatzen, horientzat Lord Byronen garaian oraindik literaturak diru irabazpide bezala mesprezagarria edo behintzat guztiz gizagabekoa irudi baitzuen. Horregatik ziurtatzen

³ Robertsonek ohartarazten du, Estatu-erlijioari zuzenean atake bat arestian –1697ko *Blasphemy Law* pean alegia- kartzelamendua kosta zitekeela, eta horregatik Anthony Collins deistak ere, bere *Discourse of Freethinking*-ek harrotu zuen istiluaren bistan, 1713an zuhurragotzat jo izan zuela ospe egitea Holandara.

⁴ Hain zuzen bere aitona buruz kontatzen da, haren etxean hazi baitzen, John Tolandek jasotako anekdota karakteristikoa: solas-gizarte batean, lortua bide zen partaide guztien artean adostasuna, fedearen formetako diferentzia guztiek apaizen gezurretan eta herriaren ezjakintasunean zeuzkatela iturburuak; pertsona burutsu guztiek erlijio berdina baitute. “Eta zein erlijio da hori?”, itaundu omen zuen harridura pixka batekin, gelan presente zegoen eta ordura arte bere orratzei bakarrik jaramon egiten ziela ematen zuen dama batek. “Oi, ene hoberen hori”, osteratzen zion Shaftesburyk ezmezeko, “erlijio horri buruz pertsona burutsuek beren artean bakarrik hitz egiten dute”:

zuen hain gogotik ez nekesari legeztan eta ez irabazietan partaidetza legeztan zuela inolako sarrerarik bere liburuengatik, eta Letter on Enthusiasm berez zinezko gutun bat izan zela, ondorenean urtebete geroago inprimarazia. Bere iritzi literarioa ere hainbat puntutan ez zen bere garaiko uste ertainaren gainetik altxatzen. Miltoni txalotzen diona, blank verse-aren eraketan dituen merituak eta bere jarrera morala da ia bakarrik. Shakespearek, hala kausitzen dizu berak, espresioaren donarioa, finezia eta distira falta omen du; Hamleten, nolanahi ere, maisu moral antzatsua agertu ei da. Dena bat jota, Shaftesburyren estetika, Fechnerrek berriki “goitik beherako estetika” deitu dueneko da. Askoz gehiago oinarritua presupostu metafisikoetan, neoplatonismotik eratorrietan, gustu ziurrean eta inpartzialki aztertzailean baino. Hortik haren Christopher Wren arkitekto handiaren aurkako borroka, honen obra jenialenaren gaitziritzia, Londresek San Paul eliza, osoki “gotikoa” zeritzona, hitz honek bere garaikideentzat bezala harentzat edozer gauza barbaro gustugabeko esanahi baitzuen. Pintura Shaftesburyk ia irakasbide moralerako medio bezala bakarrik estimatzen zuen. Zentzuak limurtzea, garrazki debekatzen dio. Inoiz ez omen da gehiago bere izaeratik urruntzen, Napolin idatzi artikuluetako batean hala dio, xarma koloristiko bidez eraginkor izan nahi duenean baino; eta nolanahi ere koloreak ahalik gutxiena nabarmentzea omen da beti hoberena, oin-oharrak gaineratzen duenez. Tarteka, gero, egiazko pionero gogoetak argitzen dira, “Marrazketari buruzko gutun”-eko lerroetakoak adibidez, artearen garapen indartsuaren eta jende-oldeen gorapen kulturalaren arteko lotura etenezinaz- artearen jatorri eta eginkizun sozialaz gogarte modernoek alde aurrezten dituztela ematen duten ideiak.

Shaftesburyren idazkietako estiloa, haren jiteko urguritasun eta martinpuntoa, goitasun eta pedanteriazko nahasketaren ispilu zintzoa da.

Shaftesbury langile amorratua da eta limatzen eta berreratzen nekaezina. Badakigu lehendik, Inquiry-aren lehen eskualdiari buruz bere balioespen neurrigabe haserrea (“fetu informe edo hila bat” deitu zuen) eskiseko huts estilistikoengatik izan zela guztiz gain. British Museum-en gordetzen diren haren eskuizkribuek franko zuzenketa ageri dute. Prosaren erritmo ezkuarentzako entzumen fin hori zuen, orduan bezain bakana gaur; azentuaren dilinda subtilentzako sentiberatasuna, hori mediante silaba bakar baten puntutik eta pisutik baitago menpe zenbati aldiz periodo bihurtu askoren entzuedertasun guztia. Baina horretantxe ere ez zegoen pedanteria pixka batetik osoki libre. Esan ezin halako beldurra zion, adibide bat bakarrik aipatzeko, hamar eta gehiago hitz monosilabikoen omen gaiztoko pilaketari, hain aise suertatzen dena ingelesez eta orduan jada Drydenen, geroago Poperen trufekin, gaizki ikusita zegoen (“and ten low words off creep in one dull line”). Beraz, kolera zapuztu du pasarte batean “notwithstanding” patala “though” zurragoaz ordezkatzeko adiskide baten adierazpena; hori, tinkatzen du enfatiko, inoiz ere ez komentatzeko bera deliberatua dagoen bekatua da. Batzutan nahiago dizu espresio ulerterrazenaren lekuan makurra erabili, hitz doiaren lekuan perifrasi hutsal eta txandal bat. Bere estilo legearen jopu bilakatzen da, haren nagusi ibili ordezt. Maisu handien jokabidea noiz ez da hori izan. Robertsonek erakutsi du, poeta ingelesez esaldi famatuaren eta ederrenetarikoa asko, Shakespearengandik Tennysonenganaino, monosilaboen halakoxe kateazkoak nola diren. Hainbat kasutan espresioaren indarra eta melodia hortixe ilkitzen da hain zuzen. Shaftesburyk ez du halako libertaterik arriskatzen. Antzea bazuen arauak betetzeko behar izaten dena, adore ez, noizean behin haiek erdeinatze behar dena.

Shaftesburyren nortasun eta espresera arteko elkarrekikotasun hori ez da xehetasunetan bakarrik ageri, ezpada haren karaktere literario guziaren zabalean. Haren izaerako abantailetatik ilkitzen dira haren estiloko abantailak. Haren goitasun himniko arraptakorra, nora goititzen baita Teokleren apostrofe famatueta Espiritu unibertsalari, Naturari eta Ederrari, haren indusketa moraletako benetasun sakona, polemikako haren mailua buru-buruan eta haren zorrotza, haren elkarriketako solas-kultura dotorea-horrek denak egungo gizaki modernoak freskura eta naturaltasun berdinean hunki dezake, XVIII. mendeko irakurlea bezalakoxez. Ordea guri Shaftesburyren idazkeran arrotza eta deserosoa egiten zaiguna, doi-doi haren izaeran harrigarritsuak egiten zaizkigun nolakotasunei dagokiena da. Idazle gisa ere ohargutzizkoegi eta penosoegi ahalegintzen da jaun handiaren eta aristokrata gorengoaren postura gordetzen. (“He poses too much as a fine gentleman”, dio labur eta doi Fowlerrek). Deus ez du beldurrago eskolastikoaren, erudito idorraren eta pedantearen omena baino, -eta horrela behin baino gehiago beste muturreko pedanterian jausten da, kosta ahala kosta mundu-ikusi, eleder, jaregi agertzearen. Ekarrizko txirotasun horrek unagarriaren eta eztimetxaren inpresioa egiten du eta espresioaren betetasun oparoaren afanak berba-joko karroindatu eta irudi preziosistetara bulkatzen du. Naturaltasuna hain hisiatuki gomendatzen duen filosofia batean, egokiena mintzaera sotil naturala legoke. Horren ordez, espresioaren fazak eta artifizialkeriak maiz gogoetatik ederrenak lardaskatzen ditu; norbaitek denbora guztian faltsetean abestuko balu bezala da, arrazoiz esan izan den legez. Durduzarazkorrena umorezkoak izan nahi duten pasarte batzuetan jazotzen da. Aipatu dut gorago Shaftesburyk zein esanahi handia ikusten zion “irrigarriari” egiaren proba moduan. Kasu franko badago, azalpen modu hori primeran erabiltzen dueneko, non esku-eskura daukan zirto bertsolariena, ateraldi txispatsuena. Besteren batzuetan, alaitasun hori tenperamentu kontrario bati nekez eta astiro irabazia zuela gogoratzea behartuta aurkitzen zara bat-batean. Barreak orduan ez du aske eta askagarri irteten, ekarrizko ihakin antza du. Badaude kapituluak seguru ez dutenak argitu ezein kristauren begi oraindik sekula, autorearen ahaleginak efektu komiko bat lortzearen parizta xelebreenak ekoizten baditu ere, eta, noiz edo noiz, Shaftesburyk holako atalak gertatzeko eta nabarmentzeko gustu duen moduak harako profesorearen ohitura gogoratzen du, bere umorearen arrakastaz seguru egoteko, entzuleei badaezpada aldezturik abisatzen omen baitzien: hemen txiste bat kontatu ohi dut orain!

Horrela “le style, c’est l’homme” esalegearen zuzentasuna, Shaftesburyren baitan bereziki nabarmen ageriratzen da. Haren nortasun kontraesantsuaren ezagutzaileak bakarrik igartzen dio haren idazkien formari. Erakusketa nola haren filosofiarene ere ez den bestela eginkizun interesgarria da, hots, hori ere gizakiaren partikularitasunetik ulertzekoa eta, handi oro bezalaxe, zentzu propioenean bizipena eta aitortza dela.

III

Shaftesburyren kozkorra eta kaxkarra batera, kultura mundutar kriketa da, bizieran eta idazkeran bezala pentsaeran. Deblauki dio halaxe berak: jendetasun eta gustu molde berak egiten du gentleman betegina eta filosofo betegina. Edo, ideia beraren zorrozpen areago batean: filosofia, berbaren esanahi artezean, heziera onaren maila gorago bat besterik ez da.

Aldez aurretik hesiak ondo mugatuta dago horrela Shaftesburyren interes filosofikoen orubea. Mundu-bizitzako erdian dabilenari ardurazkoak zaizkion arazoak bakarrik ardura zaizkio, zentzu zabalean galde praktikoak hortaz. Filosofia “zoriontasunaren

ikasketa” da. Ikerketa teorikoak tresna lagungarri bezala bakarrik izan lezake baliorik: psikologiak moralari zerbitzatzen dio, metafisikak beharrian erlijiosoari. Honelako lotura bertakoxerik eta ezinbestekorik ez egotekotan, espekulazio ororen ostean dagoena, eskolastika hutsal eta jasangaitza baizik ez da. “Sistema” bat, “tentelkeriako bide eledertsuena” baino ez da Shaftesburyrentzat. Ez zaio, beraz, ia inoiz gertatzen, subtileria abstraktueta, giza espirituaren premia naturalenganako ukipena galtzea. Baina une berean, haren pentsamendu osoari azken sakonketa eta kontraesanetik libreko lotutasuna falta zaiola ukalezina da. “Metafisika” aberratzeko bere izuak arazoak erroraino kontsideratzea eragozten dio ia denean. Nahimenaren askatasunaren arazoan bertan, haren idazkietan ez da ikerketa berezitu bat bakarrik aurkitzen, berdingabeko kasua haxe, oroz gain bere gogoeta problema etikoei eskaini dien filosofo batentzat. Ikerketa teoriko soilarekiko antipatia gaitzak zenbait fenomeno garrantzitsuren ulerpena turbustu dio. Alegi, Cambridgeko “platoniko” deituen zirkulua txit estimatzen du, baina batez ere Hobbes arxietsaiaren aurkako borrokan eta funtsezko jarrera etiko-erlijiosoan haiekin bat datorrelako. Bestela ez da aspertzen metafisikoak (edo berak halakotzat jotzen dituenak) pedante antzuak direla-eta barregarri ipintzen. Sistemagile handien aroa pasatakotzat dauka: Leibniz eta Descartesen dorre babilonikoa eraitsia dela eta geroari ez diola utzi “zapo-erdara edozein gizakume burutik sanorentzat higuigarri bat” besterik. Lockeren buruhaustea ere (iritzi diferentzia hainbat nabariagoak apartatzen baitzuen arlo etikoan harengandik), eskrupulu batere gabe hortxe sailkatzen ditu; merezimendu ezaupide-teoriako fundamentalak, hala nola ideia innatoen aurkako gatazka eta substantzia kontzeptuaren kritika, hitz-korapiloen kontuak matraka ezdeus eta fastikagarriak iruditzen zaizkio.

Joera hau praktiko soilera, Shaftesburyk bere ondorengo filosofo moral ingeles ia guztiekin partekatzen du. Hemen, ordea, karaktere prosaiko belaxka bat laster hartu du, nondik Shaftesbury bera salbu egon den bere jitearen ganora bipilki artistikoari eskerrak. Distira eta aroma poetikoz igurtzia bezalakoa da dena honen baitan. Bere oldar esplendidoa, entusiasmoa, bizitzeko bere elementua eta filosofatzeko bulkada bortitza izan duena, ez da agortzen ia inon. Suharkeria burugabea, fanatiko eta zelote beltzuri guztien tresna moldaeraz eta galgarri hori, ez du inork Shaftesburyk baino kartsukiago borrokatu, jakina daukagunez. Hartatik, baina, entusiasmo jatorra zorrotz bereizten du, gizaki osoa hain eustezinki tarrakatzen duena, non antzinatekoek uste baitzuten, momentu horietan jainko bat haren jabetzen zela. Hori gabe ez da handirik ezer, ezohikorik ezer gauzatzen; hor dakusa Shaftesburyk indar motorea egiazko heroismoarena, egiazko bertutearena, eta berdin egiazko filosofia ororena. Pertsonalki, ikustea hain bakana eta hain pozgarria izaten den entusiasta noble horietakoa zen bera; bere doktrinak ez zituen borobildu eta ez azaldu adimena bidez bakarrik, bere bihotz garbi eta maitatiaren bero guztiaz baizik.

Goian aipatu abisua, irrigarria egiaren irizpide bezala erabiltzekoa, ez dago bera animatzen zuen seriotasun gotorrarekin kontraesanean. Handiaren eta baliotsuaren iturria den arimako txingar beretik, sarkasmo errabiatuena ilki daiteke okerraren eta galgarriaren aurkako gatazkan. Gertatzez baina, bat bederengan alde bata bestearen kaltetan garatu ohi da ia beti: satiriko handiek arruntean ezkutatu egiten dute, barne-barnean zer pentsatzen duten zinez fanatikoei buruz, eta entusiasta maitagarriak ez dira satiriko oso arriskugarriak izaten. Shaftesbury baitan ere esperientzia hau egiztatzen da. Ikusi dugu, tradizio politiko nahiz eliztarrekiko irreberentzia haren jendaurreko jokaerari ezlekukoa zitziola, tonu ironiko mingotsa haren estiloari bezanbatsu. Pipermina, zauritzen eta akabatzen duena, ez zuen emana. Begira-begiratu zen eta oso

trebea ez, haien efikazia berak hala goratzen zien armen erabileran. Hemen ageriratzen da edozein eratako joera suntsizaleekiko haren bere naturako higuina. Bizitu izan balu, nola bere “test of ridicule” teoria, Ilustrazio frantsesak, Voltairerekin buruzagi, antolatu zuen kanpaina kultural izugarri hura bihurtzen zen praxian; ikusi izan balu, gezi pozoinduen kazkabar hori Estatuko nahiz erlijioeko molde heredatu oro lazgarriki zartakatzen, bera izango zen lehena noski, espiritu isekari eskrupulu gabe eta pietate gabe hori gaitzesten eta are fanatismoaren molde berri bezala mesprezatzen, edozein tankera eta moztarro-janzkeratan gogaikarri zitzaiona.

Azken batean, barrearekin etsaia kaltegabeko bihurtzeko metodoa defentsako baliabide zen Shaftesburyrentzat, erasokoa baino gehiago. Balio behar zuen espirituko oreka berreskuratzeke, gogo arraitasuna (“good humour”), berak hor ikusten baitzuen filosofoaren funtsezko aldartea, hau berau izan ere alderdi bien gehiegikeria itsusi eta herragarrietatik urrun, kontenplazio baketsuaren erdiko zonan pausatzen baita. Entusiasmo filosofikoak ez arraitasun honen uherdura, baina goraldia dakar. Ez da handik fanatismoa jarraitzen, aldez bestekoa baino: zernahi jainkoazko nahiz gizakoren ezagutza orokorra eta harekiko bateratasun adiskidezkoa.

Shaftesburyren filosofia osoaren perspektiba libreagoa eduki eta gero bakarrik izango da posible, haren gizatasun-idealaren esanahiaz zerbait ebazkorrik esatea. Baina hazpegi erabakigarri batzuk desestaltzen dira jada hemen. Benetako filosofoak mundu-kume perfektua izan behar du; eskola-ikasia da pedanteria gabe, entusiastikoa fanatismo gabe, umoretsua isekari lotsagabea barik eta bertutetsu ez filistinoa. Irudi honi ahokatzen zaion gizakumeari, “virtuoso” deritzo Shaftesburyk izendapen kapritxoso eta ekarritxo. Aldez aurretik nabari dago zertan datzan halako nortasunaren misterioa, haren limurgarritasun ezinihardukia: harmonia, zeinean hemen osotasun aberats eta aldeorokorki orekatuan biltzen diren indar eta ahalmen guztiak.

Honekin, Shaftesburyren Weltanschauung osoa eusten eta argitzen duen kontzeptu zentrala jo dugu. Harmoniaren ideiak adierazten du haren filosofiaren gaia, orobat garapenak haren metodoa eta edukia. Harmonian datza bai Jainkoaren esentzia eta bai haren kreazioaren betegintzarrea. Harmonia horren atzemate bat heintsua adimen bidez, hori da ezagutza filosofikoa. Harmonia giza joera eta jardueretan, etikotasunaren esentzia da.

Shaftesburyren filosofiaren suma laburbiltzen dute esaldiok, horien zabalera eta elkarrekiko harremana erakustea baitugu orain egitekoa.

IV

Ez dago edozeinen esku beste gabe munduan harmoniari antzematea, baina elkarrekikotasunari landugabeenak berak igartzen dio. Hori medio, zer bakoitzak bere buruaz gaindi sumarazten du. Gizakia bai beste gizakien, bai eremu animalien eta begetalaren beharrean dago bere iraupenerako. Bizidun guztiak daude lurretik menpetasunean, hau bera eguzki sistemaren eraikuntzatik, bere aldetik hori harreman kosmiko unibertsalen katean zatitxo bat baino ez baita. Progresio hau munduaren osotasun absolutuaren kontzeptuan bakarrik iristen da atsedenera.

Osotasun absolutu hori (“Natura” adiera zabalenean) ez da banako izakien suma soila, batasun zinezkoa baizik. Honetan ere Shaftesbury bere hurkoenetik abiatzen da. Edozein gorputz organiko, zuhaitza esaterako, halabeharrezko edozein pilatatik bereizten duena, zatien akordio perfektua da xede nagusi baten meneko. Egitamu horri eskerrak bizitzen da, eta loratzen da eta geratzen da berbera, bere materiako partikula bat bakarra ja ez geratu arren. Adibide argigarriena geure niaren iraupenarena da, gorputza etengabe ahitzen eta berritzen aritu arren. Zatien halako “sinpatiarik” nonbait atzematen dugunean, “natura berezi” bat suposatzen dugu, printzipio forma-eratzaille bakoizkor bat, materiaren aldakortasunean batasuna bermatzen duena. (Badu zerikusiren bat, gizakumeak sortu artefaktuen analogiak. Horietan aldearez asmoa izandako xedeak erabakitzen baitu zatien forma eta funtzioa). Naturaren behaketa sakonago batek, ordea, miragarritzko akordioa, xederekiko bateratasuna, ez dela izaki banakoetan eta esfera bereziren batzuetan bakarrik ematen errebelatzen du, ezpada gure ezagutza noraino iritsi guztian, are, seinale ez-ekiboken arabera, mugon gaindi ere. Unibertsoa, bera denaz bezainbatean, batasun bat da beraz, banako edo indibiduo erraldoi bat, eta bere formaren printzipioa eduki behar du hortaz, bere “jeinua”, hau bera ezin atzera natura edo materia izan litekeena, etengabe aldatuz doan materiaren aldean berak bakuna eta iraunkorra adierazi behar duenez gero, eta lege naturalen menpetasunaren aldean kreatiboa. Espiritu unibertsal munduaren gidari baten burutapenak eskandalizatzen duena, bere existentzia propioagatik eskandalizatu beharko litzateke, gorputz banako espiritu-gidatuaren kontzeptua ez ulergarriago ez ulergaitzago baita beste hura baino.

Horrelakoxea da Shaftesburyren burutapidea, motz eskisatuta, Jainkoaren existentziaren frogak, “demostrazio” bat, entseatu dizunean. (Beste Jainkoaren frogak, filosofia antzinatarrean zein modernoan garatuta aurkitzen zituenak, “metafisikoegiak” eta korapilotsuegiak ikusten zituen). Zuzengabe esan da ondorioa, bestela samar entzuten diren esaldiren batzuk gorabehera, panteismoa dela. Hein batean bai, Espiritu unibertsala da Natura unibertsala berdina da, hori besterik ez baitago tutik ezer. Shaftesburyren “Jainu Gorena” ez da, beraz, teologoen aipatu ohi duten “kanpotik bulkada ematen duen Jainkoa”, munduaz haraindi tronuan eseritako subiranoa, baizik indar inmanentea, den guztiaren urasegarria. Jainkoaren eta Naturaren identifikazioa kontuz-kontuz saihesten da halere. Natura, agortezinezko biziaren ekoizle izanik ere bera, guztiahalmen gorenaren ahalez da kreatzaile (“empowered creatress”). Geroago Goethe baitan aurkituko den legez espresatuta, “Jainkotasunaren jantzi bizia” da, ez Jainkotasuna bera. Gizakumearen zozkoak eskaintzen du berriro konparazio egokiena: arima ez da zerbait gorputzetik landakoa, honek mugimendua eta bizitza harengandik hartzen dituela bakarrik, baina ez da gorputza ere. Horrelaxe jazotzen da Jainkoaz munduarekiko. Shaftesburyren doktrina ez da panteismoa, eta bai (derrigor formula bat nahi bada) “panenteismo monista”. Ez dago ezer aldrebesagorik, hur Spinozaren jarraitzaile zuzena bihurtzearen inoiz entseaturiko txandrio baino, harenganako oposizio zorrotzenean egonik beste arazo erabakigarri batzuetan ere. Haboro bai, influentzia akabaila izan, Estoaren mundu-ikuskerak izan du intimoki harenaren kide-kidea ia puntu guztietan.

Horrela Shaftesburyren Jainkoaren frogak ere, estoikoen antzera, teleologiko ezaguna da funtsean: munduan oharrikusi xedezkotasunak eta ordenuak, orojakile eta oroahalduna ondoriotzea haren autoreak, eskuratzen du. Ilustrazioa baino Aro nekagaitzagorik tema nagusi honen barietateetan beste bat ez da egon. Shaftesbury ez asmamenean eta ez kritikan da besteak baino aberatsagoa puntu honetan. Haren txalorako esan daitekeena

da, alabaina, bera ez zela behin ere hondoratu, hamaika garai hartako izkribu gure sentierarentzat hain eramanezin bihurtzen duen begiera utilitario arrunkeriazkoraino, naturaren iruzkina gizakumeon xede kaskarren araberako memeloa egiteraino alegia. Maizenean gogoeta guztiok Shaftesburyren izaerako elementu artistikoaren bitartez lortzen dute berotasuna eta koloretasun aberatsagoa. Ez zen inoiz naturarekin hala entusiasmatu izango haren organizazioaren xedezkotasun edo funtzionaltasun soilagatik. Ez akasgabeki funtzionatzen duen makina legez, baina artelan bikain agortezin bezala ageri zitzaion mundua. Ederraren esentzia harmonia da, harmoniaren esentzia askotarikoan batasuna. Natura unibertsalak batasun gorena (ezer ez baitago harengandik kanpo) askotasun handienarekin (den guztia baitago haren barruan) elkartzen du. Harmonia hutsa da beraz: betekiago eta originalkiago da bera ederra, ezein edertasun berezi baino. Eta nola bikain orok pizten eta herrestatzen dituen bihotzak, halaxe ditu iniziatuen arimak Lehen Eder honen ikusketak, presentimendu soilak berak, Jainkotasunaren argirapen bizi berehalakoa besterik ez denak, maitasunik sakonenaz, garbienaz, desinteresatuenaz, ez egoismok, ez desengainurik, ez gogaitek zemaitzen duenez. Maitasun hori ez daukanari, bere arima osotasunaren bikaintasun harmonikoaren ispilu arrai ez denari, jainkotasunaz alfer-alferrik da mintzatzea. Sinesgabea izatea zera da: bistamozki eta goza-gaizki “unibertso zaparrastroso” batean bizi uste izatea. Erlijiositate jatorraren esentziako muina da alaitasuna, ateismoa hipokondria besterik ez. Kontraste zorrotzagorik doktrina honekin ez dago, munduko negar-ibarra ahalik iluntsuena margotzen ahalegintzen den teologia ortodoxoarena baino, zeinen predikariak, Michel Ainsworthi gutun batean adierazten duenez, “beren ikastaro astunetan harrapatu zuten olde mingots eta marmartiaren erruz, beren gogo garraztuaren irudikoa pentsatzen baitute Jainkoaren kontzeptua”.

Gogartean inguruetan aurkitzen dira Shaftesburyren pentsamenduko gailur gorenak; ezagutza filosofiko originalenak eta ondoriotsuenak ez agian, baina ideia sublimeenak bai, zeintzuetan zuen altxatu den-guztiaren mirariak mozkor-txolindutako sentimenduak. Edonon islatzen da natur zientzien lasterketa triumfalak garaikide guztien gainean sortzen zuen lilura. Begi-bistakoak orobat neoplatonismoaren aztarnak, apenas ordea Plotinoren irakurketa pertsonaletik etorri ahal litezkeenak, zeharka helaraziak baino, Cambridgeko platonikoak bitarteko eta bitarteko beste italiar handiak, Giordano Bruno bezalakoak –azkengabearen perspektibarekin, Kopernikok zabaldu zion eran, mozkor-mozkor- Dena-Bata txingar entusiastikoz gurtzen baitzuten.

Mundua Jainkotasun gorenaren, jakintsuenaren, onberenaren agerkundea eta begiera grafikoa da. Premisa honi Weltanschauung batek bakarrik ateratzen dio bipilki ondorio osoa: optimismo erradikalak. Ez mugatu hark, Leibniz bera haren gainetik jauzi egiten ausartu ez zenak: posible guztien artean hoberena bakarrik dela mundua (posibilitateen orubea, aldiz, betiereko lege jakin batzuek ezinbestean murriztua). Ezpada, esan legez, optimismo erradikalak: inolako erreserba gabe eta kito, mundua ona da. Geroago Shaftesburyren doktrinak Alexander Popek bertso elegante, fin-fin xehatueta isuri zituenean, sonatua bilakatu den formula hau estanpatu zuen: Whatever is, is right. Laburtasun epigramatikoan ematen du, eman ere, filosofia honen printzipio gorena.

Haren aitorleei, erraldoi eta zemaikor, problema hauxe tontortzen zaie aurrean: nondik dator etorri mundu perfektu horretara gaitza, sufrimendu mugagabearen madarikazioa, edozein eratako zoritxarra eta gaiztakeria? Optimisten erantzuna da eta dauka izan beharra: ez dago zinezko gaitzik. Itxura engainagarri batek faltsutzen du gauzen gure burutaera, eta iritzi guk gaizkia deritzoguna, ongia da izan egiaz. Esplikatu beharra

dago, orduan “itxura”, guk halere gogor asko pairatzen dugun hori. Edo, ikuspuntu erlijiosotik begiratuta, dilema artxizaharra dago askatu beharra, labur-laburkien Epikurok honelaxe zehazturikoa: jainkoek nahi bai, baina ezin izan bazuten gaizkia saihestu, ez ziren ahalguztidunak; ahal bai, baina nahi izan ez bazuten, non da haien onberatasuna? Optimismoa sentimendu lauso hutsa ez izatekotan, bada, doktrina filosofikoa baizik, justifikazioa behar du Jainkoak, “Teodizea” bat.

Teodizea hainbat beharragoa izaten da, zenbat eta gorakiago goratu filosofia batek arrazoimen unibertsal kreatzailearen betegintasuna; eta konfliktoa hainbat latzagoa jazoko da, zenbat eta gehiago beste arrazoiaren batzuegatik, etikoengatik oroz lehen, azpimarratu behar munduko (giza munduko, bereziki) miseriaren eta ustelkeriaren izugarritzotasuna. Dualismo hori non tenkatu muturrenetaraino, han sortzen dira ebazpen izukaitzenak Teodizeako problemarentzat: Estoa, Neoplatonismoan eta (planteamolde zerbait aldatuarekin) Eliza kristauaren aurreneko mendeetan. Hiru pentsamendu korrante handiotan sortu izan da ideia original oinarritzkoen altxor iraunkorra ia osoki; geroagokoek funtsean jasotakoa osatu, zorroztu, bariatu egingo dute. XVIII. mendea, hortaz, kreatiboena izateko ohore ez dagokio apika Teodizea arloan; ahaleginean, halere, bera izan da arrazoi ezberdinengatik. Sistema filosofikoak, poema doktrinalak, are garai horretako literatura entretenigarria bera –tankera honetako auziekin beteta dago dena. Nekagaitz, formen aberastasun txundigarritzko, itaunen eta erantzunen zirkulu guztia behin eta berriz kurritzen da.

Leibniz alboan, Shaftesbury da hemen aldi honetako gogoetari eragintsuena. Oinarripen metafisiko azkentiarrak aparte, dakigun bezala sakontasun horietan Shaftesbury ez baitzen eroso sentitzen, Moralistak honek arestian gaizkiaren auziaren inguruan esan zitekeen gehientsua biltzen du. Optimismo unibertsalaren oinarripen zehatz-mehatzena eskaintzen du, eta ondorengo jarraitzaile elemeniaren araldetzar guztiak –pentsalari kritikoki orientatu handi batzuk salbu: Hume, Voltaire, Kant–, zuzen-zuzen ala zeharka hornitegi horretatik bazkatzu besterik ez du egingo.

Shaftesburyren Teodizea haren filosofiako ideia oinarritzkoarekin eransten duten puntu nagusiren batzuk seinalatuko ditut. Harmoniaren ideiak aldaskatzen baitira berriz ere arrazoibide garrantzitsuenak.

Bere osoan bakarrik egiten du obra batek harmonikoaren inpresioa. Koadroaren zati bat bakarrik edo ahotsak bakanka ezagututa, zeinek balioetsi ahal izango luke pintura bat edo sinfonia bat? Baina gu geu hantustekoak nahikoa izaten gara, Jainkoaren arte-lanari kritika egiteko, gure ikusmenak atzeman ahal duen izpitxo apurrean oinartuz! Kasurik inportanteenean hain zuzen araurik elementalena ahazten dugu: fragmentu zarratatu zentzugabe eta narriotsua ageri denak, osoaren bateratasunean duela esanahia eta ederra. Espiritu azkengabe batek bezala bere aurrean zabal-zabalik so egin ahal izango bagenu natura, gaizkin itxura oro ezabatu egingo litzateke, harmoniazko ibai zabal batean urtuko litzateke dena.

Gure jakitearen eremu meharrean bertan seinale garbiek egia indikatzen dute, “gaitz partikularra” beti “ongitasun orokorra” izaten dela. Bizidunek, adibidez, eskalazko erresuma eskerga bat osatzen dute, forma primitiboenetatik gorenetaraino behetik gora etenik inon gabeko iraganeretan burutzen dena. Izaki bakoitza bere lekuan dago (eta hortxe bakarrik!), baliozkoa eta ordeztetina. Nolakoxe ergelkeria, beraz, sorkari espezie bat adiakatzea, beste baten abantailak falta izategatik edo alde zuzenetik beste goragoko

espezie baten janaritako egoteagatik xedatuta. Sorkari bakoitza denaren harmoniako elementu bat da nolabait; haren galerak hutsune bat eragingo luke “vacuum formarum” bat, lehenagoko filosofoek esan izango zuketenez, eta osoaren betegintasunaren urritze bat horrela. Eta izaki apalen “etsipen” hori gabe, goragokoen premiei makurtu behar izateko (horiek ere beren aldetik atzera ibai zabalean isurtzen direnak, hala nola bazka ematen duen landareentzat eta harrentzat giza gorpuak ere!), ez lirateke bizitzaren zirkulazio bortitza, naturaren pultsu egundokoa eta erritmoa posible izango. Baina erritmo eternal horixe baita kontua; berak bermatzen du unibertsoaren harmonia. Lurrikarek, suteek, urakanek, izurriteek, milaka jende galtzen dutela salatu ohi da. Baina arauzkotasun berbera da, batean bizitzako baldintza beharrezko eta ongarriak ekartzen dituen, bestean guretzat zirkunstantzia jakin batzuetan hain nahitaezko efektuak. Ez hutsegite edo akatsen batengatik, eta bai natur legeen salbuespen gabeko aginteagatik, sortzen den itxuraz gaizkia. Egiaz gaizkia sortu, botere kili-kolo eta kapritxoso batek lege handion balioa partikularren faboretan hautsiko balu, sortuko litzateke. Ez dago irudi Jainkotasunaren dinagabeagorik, teologo ortodoxoen mirakulu-sinesmenak marrazten duen harena baino. Horixe bakarrik behar genuke, guk gizakiok pribilegio bat eduki behar izatea, kreazio osoa nolanahiko kasketaldi anarkikoen jolasleku bihurtuko lukeena eta ezinezkoa ezein ziurtasun, aurreikuspen eta zientzia. Ezagupen ororen faltsutzaile okerreana, gizakia eta bere atsegintxo mirrina unibertso osoaren erdigune bihurtu nahi lukeen zozokeria harroputza da. Harmonia, zati guztien atontzeak bakarrik goragoko osotasun baten azpian sortzen du; zati baten irtenkeriak besteen lepotik, apurtu egingo luke.

Baina objekzio bat gelditzen da: gaitz oro funtsean itxura hutsa bada ere, beteginagoa itxura horixe gabe izango litzateke mundua. Horren aldean, optimismo erradikala paradoxa izukaitz honetara ausartzen da: gaitza kentzea, gaizkoatzea izango litzateke mundua. Ez berdinaren askotzeak, baizik askotarikoaren bateratzeak dakar harmonia. Pinturan itzal zatiek, musikan disonantziek ez daukate faltatzea. Antzera da gaizkiaren egitekoarekin munduan: berak dagi kontrastearen nabarmena, harmoniaren aurrebaldintzakoa, eta oposizio bitartez pozgarriaren efektu gehitzen du. Minaren eztenak bakarrik eragozten du plazer-sentsazioaren lekuan sorgortasuna eta betekada nagusitzea. Gizakumeen desanparo negargarriagatik garatzen da gurasoen maitasun iraunkorra eta eginbidearen zentzu soziala. Munduaren zailtasunagatik goستن da bertutearen garaipena. Honetan ere, antzinatean landuta aurkitu zuen Shaftesburyk ganorazkoena. Berak aipatzen du noizbait, Kristo osteko lehen mendean idatziriko “Munduaz” izkributik parabola polit bat, autore ezezagun batek hor teismo aristotelikoaren eta panteismo estoikoaren betegintza entseatu baitu (Shaftesburyren oso antzeko zeregina hortaz): “Naturak maite ditu nonbait aurkariak, eta haietatik ateratzen du akordea....Koru batean zuzendaria hasten den bezala kantuarrekin, eta gero gizon guztien taldeak, emakumeena ere batzuetan bai, harekin batera abesten duen bezala, ahots altu zein baxu ezberdinek harmonia entzueder bat bakarria durundarazten dutela – antzeratsu da dena gobernatzen duen Jainkotasunarekin ere”.

Doktrina guztion flakiari ez da zaila igartzea. Hurbildik miatuta, Teodizeako ehun guzti hau, azalgainkeriaz eta zolitasunez, sofisteria traukilenez eta jakinduria barnekorrez dagoena bitxiro osatua, neke gabe askatzen da. Optimismo ondoriokorraren itsas jauregi distiratsuak inpresio txikia egingo dio, samatik bizitzaren esku burdinazkoak oratzen duen gizon makurtuari, eta gogoetari burutsuek, munduaren dolu neurrigabeak beren errukizko bihotza kiskaltzen zienak, mundu ahalik hoberenaren predikuan panpox pintaturiko gezurra edo (hala Schopenhauerrek) “inpietatea”, bihozgabekeria ikusiko

dute. Ikuskera horri buruz, gizaki modernoari, aldiz, kritika baino zailago justizia egitea zaio, berak erradikalismo pesimistara joera baitu, Shaftesburyren aroak entusiasmora bezala. Garrantzizkoa litzateke faltsuaren eta tribialaren nahaspilatik pentsamendu handi iraunkorrak banatzea eta nolabait berriro eskuratzea. Haiek gabe gure mundu-ikuskera txiroa eta ez-oso da. Bizitza bada aurkariak besarkatzeko lain aberatsa, eta horien gatazka eta gaindipena egia-zati txikienean ere atzeman ahal izan behar da.

V

Ikusia daukagu: unibertsoaren sistema, sistema partikular anitzek osatzen du, horiek berak mundu txiki batzuk izaki eta harmoniaren printzipioak gobernatuak. Halako sistema partikular bat da, halako mikrokosmosa, gizakumea. Honen izaeraren harmonia eta hori zuzentzen duten legeen suma, etika deitzen dugu.

Etika intelektualista zernahitatik, Shaftesbury zorrotz aldentzen da. Harentzat bertutea ez da jakintza, sentimendua da. Moraltasuna jatorriaren eta ekintzaren arloa jaidurena da. Oinarripenerako, afektuen teoria batek balioko du, hortaz (Spinoza baitan legez).

Giza gurarien hiru funtsezko norabide dago: jaidura egoistak, norbere ongiari; sozialak, elkartearen ongiari begiratzen diotenak, eta “ez-naturalak” bestelakoak. Hauen xedea lagunei kalte eta min egitea da. Arras ezabatzea da, horiekiko agindu bakarra. “Gizaki normalak” ez dauka holako jaidurak erabiltzerik: esan bezala, naturaren aurkakoak baitira. (Nondik datoz orduan, errealki den oro betegina bada? Hemen ageri da, ez hemen bakarrik haatik, optimismoaren eta moralaren arteko konfliktu gaindiezina Shaftesbury baitan). Etika ororen araua eta edukia izango da: afektu egoisten eta sozialen artean dendu bete-betegina lortzea. Ez batzuen edo besteen zapalketa. Hori eskatzen duten sistema moralak, makurrak eta arriskugarriak dira. Gizakume harmonikoaren baitan, bulkada egoistak zein altruistak garatuta egon behar dute, baina halako moldez araututa, non elkar sustatu behar baitute eta elkar osatu. Etika, izan ere, giza naturaren adierazpen garbi-garbia da, ez haren bortxapena.

Bizitza etikoa “naturaren arabera” dela, Shaftesburyk Estoatik hartu eta bere sentimendu propioaz barrendu zuen printzipio garrantzizko bat zen. Naturalak bere aurkaria artifizialean, nahierazkoan, antolamenduzkoan dauka. Ezer ez aldrebesagorik, bigarren kategoria bonetan sailkatu nahi izatea baino etika. Errealitatearen baldintzetan beretan dago hura, gizakiaren barne bizitzako arauzkotasunean, objektiboki oinarrituta. Ez dario ezein kanpotiko manuri, ezein subiranoren gogori, aginkorki ezartzen duela: honek, edo horrek, behar du ona izan! (Printzipioz berdin esan ahal izango lukeela, beraz: atzo zuzena eta ona zena gaurtik aurrera okerra eta gaiztoa izango da!). Aitzitik: ezein boterek tartetu ahal du hemen bere nahierara finkatuz ala aldatuz, ez Estatuaren legeak, ez gizarte zibilak, ez Jainkoak berak. Nabari nabarmentzen da Lockerekiko kontrakotasuna, honen ustean arau etikoak oinarritu, hiru botere horietako baten (bereziki Jainkoaren) ebazpen subiranoek, zigorraren mehatxuz gotorturik, oinarritzen baitituzte. Shaftesbury aspergaitz borrokatzen da irakaspen horren aurka. Zentzu autonomo oro ebasten dio etikoari, bertutea berba soiletan uzten du, deitura tradizioaletan, konbentzio historikotan. Berak, aldiz, bertutearen kontuan “errealista” bezala egon nahi du; berarentzat errealitatea baita hori, harreman naturalen bertatiko espresio.

Bulkada egoistez, oraindik inork ez du egin zalantzarik, horiek “naturalak” direla, bai ordea sozialez. Sistema materialistak, Hobbes alimaleak bereziki, sortu zuen protestarekin bakarrik mende bat osoa ernarazi zuenak, sentimendu altruistak norberezko egoismoaren sublimazio eta transformazio antzera edo esperientzia mingarri eta beharpeko itunen emaitza bezala esplikatzen saiatu ziren. Hor zegoen Shaftesburyren bigarren arerioa, berak maizago eta zakarrago borrokatu duena, esker oneko begirunerik ez zegoenez gero hemen, Lockerekin bezala, tonu neurritsuago bat agintzeko. Hobbesekiko polemikak haren ia idazki guztiak alderen alde zeharkatzen ditu, pizten ditu bere ideia argitsuenak, doizkoenak, betakorrenak. Ezin daiteke gizakiaren lehen egoera egoismo hesigabearena izatea, “guztiek guztiei gerra”-rena. Bulkada sozialak, onginahizkoak, maitatiak, besteak bezain sortzezkoak dira (animalia garaiek berek erakusten dutenez). Familiako lotura primitiboak, umeen egintzak eta hazkuntzak tinkatuak, hedatuz joan dira sozializazio forma goitarragoetara. Optimismoak bere modura ediren izana, esperientziaren emaitzak egiztatu egiten du. Natura Jainkotasun orojakile, onbera guztizkoaren begiera grafikoa da. Nola berdindu ahal izango litzaioke, bada, Hobbesek pintatu duen haren irudiari? “The state of nature was the reign of god” esaten da geroago Pope baitan. Shaftesburyk horixe uste zuen. Haren perpaus sarkor anitzek, ondorenean etorritako beste predikari bikainago hura gogarazten du: Jean-Jacques Rousseau..

Ez Shaftesburyren merezimendua kaskartzen, ikerketa prehistoriko berrienek lehen egoerari buruzko haren irakaspena gezurtatzen badute. Puntu nagusian bera atera da garaile: aspaldi gainditua dago, sozializaziorako bulkada eta eginbide moralen sentimendua hitzarmen politiko soilen ekarpena direlako iritzia. Haren borrokaren esanahia baloratzeko, bi fronteren aurkako borroka izan zela, hartu behar da kontuan. Hobbesekin itun bitxian teologia zegoen, giza naturaren korrupzio erabatekoaren doktrinarekin. Shaftesburyren merezimendu hilezkorra da, halako irmotasunez eutsi izana, etsai biak gorabehera, gizatasun jatorraren goitasun eta handitasunari (Leslie Stephenek puntuan formulatzen duenez, haren “vindication of the human nature” alegia).

Moralistarik ezin da optimista ondoriokorra inor izan; giza egintza guztiak berdind balioetsi beharko lituzke bestela. Biziera etikoa “naturaren arauzkoa”-rekin berdintzen bada, beti esanahi bikoitza ezkutatzen da Natura berba horretan: gizakumearen “egiazko” natura okerretik eta itsusturik bereizten da. (Doktrina estoikoa, gizakume zinezko guztiei “egiazko” giza naturaren edukitasuna ukatzeraino iritsi zen hasieran). Hartara, egiazko natura hori zein ezaugarritan ezagutzen den, galdera sortzen da. Edo, Shaftesburyren adieran zehazkiago mintzatuz: nola bereizten da afektuetan erlazio harmonikoa eta ez-harmonikoa kasu konkretuan?

Shaftesburyren aburuz: geure barruan dakargu irizpidea. Zer den ongia eta gaizkia, sentimendu hutsezin batek irakasten dio bakoitzari. Haurrak nahiago izaten duen bezala pilotari eta datuei eskuarekin heldu, irudi irregularrei baino, halaxe erazkoa instintiboki hobesten diogu eragabekoari giza egintzetan ere. Onirizte eta gaitzirizteko “gogarteko afektuak”, iritzitako afektuak berak bezain sortzezkoak dira. Balio etikoak atzemateko eta bereizteko zentzu natural bat daukagu: “zentzu morala” (moral sense). Zer da, alabaina, zehazkiago ikertuta, zentzu moral hori? Nola-halako aieru horrek zehaztapen zorrotz-zorrotza behar du, eta hori Shaftesburyren ondorengoek bakarrik eman ahal izan dute gogobetegarriro. Sakaldi erabakigarria halere, hark eman zuen. Hark eragin zuen bere aberriko pentsaera etikoan biragunea. Aurreneko aldiz esperientzia psikologikoa

etikaren oinarri bakarra bilakatu zen. “Moral sense” adierazpenak berak⁵ ia espazio txit labur-laburrean programa bat barne hartzen du nolabait. Gizakiaren sortzezko gaitasun moralaren oinarritzapena eta analisisa, filosofia moral ingelesaren arazo nagusia suertatuko da.

Afektuen harmonia da jokaera etikoaren iturburua; baina jokaerak berak, kanpoaldera eragiten duen nahimenak, xede bat edo helburua eduki behar du. Ikuspegi honekin, bulkada altruistek berebiziko garrantzia irabazten dute. Honela formula liteke hau: barneratzea (gizakume onaren aldarteari doakion adinean) egoistekin ahokaturik dago, kanporantza (egintza onaren arrakastari begira) zentzu hertsia eta propioenean etikoak beraiek dira. Shaftesburyk oso abilki txertatzen du hau munduaren bere irudian. Banakoak eginkizun bikoitza jotzen du, dakigunez: sistema bat da bere baitan, aldi berean ordea, zatia da beste sistema handiago ezberdinetan (familia, aberria, gizadia, gutzia). Arabera, bikoitza dagokio harmonia: indibiduoaren eman betea gizarteari eskatzen duena. (Inquiry-ak, konparazio aldera, instrumentu baten, bera gozatua egotea eta orkestraren guztian bere eginkizuna edukitzea, alegatzen du). Nik ez dut ikusten hemen batzuek Shaftesburyri egotzi nahi izan dioten kontraesanik: faboratu bai, autoiraupen eta autogoitipeneko jaiduren eskubide berdintasuna altruistekin, faboratu omen duela, baina berak aitortu ez. Itxurazko ondoriogabetasun hau ikuspuntuaren aldaketatik sortzen da. Bururatzen bada gizakia antolakunde handiagoetako elementu eginkorra bezala, esanahi nagusikotara motibo altruistak goititzen dira: Ni-bedera harmonikoa bera, kultura gizatiarraren lorapen gorena, bitarteko soila bezala ageri da, banagaindizko elkarrekikoan gauzatzen diren helburuetarako. Shaftesburyrentzat arrazoi pertsonal bat gehitzen zen. Bere izaera propioaren ezaugarri nagusia espresatzen zuen, onginahia (“benevolence”) bertute garrantzizkoenera, nolabait κατ' ἐξ ὄχην bertutera, altxatu zuenean. Egintza bat on bilakatu, hoberen orokorra edo, Shaftesburyk nahiago esan ohi duenez, “espeziaren ongitasuna” (good of the species) eragiten duelako, bilakatzen da. Formula hau berebat, gogoetari ingeles batzuek Shaftesburyren aurretik erabili bazuten ere, hark bezain hunkigarriro inork iragarri ez zuena, harrigarri emankorra ateratzen da. Hutcheson hari atxiki zaio. Hume eta Adam Smith baitan esanahi zentrala iritsi du. Benthamek “ahalik gehien ahalik ongizate gehiena”-ren esakune eraginkorra koadratu zuen. Eta soziologia modernoak, esperientziazko material izugarri gehitu baten gain, onura soziala kontzeptu moralen etorkirako lehen motibo gisa historikoki funtsatzen ahalegintzen da.

Shaftesburyren etikako pentsamendu joera ezberdinak puntu batean bateratzen dira. Harmoniko orok atsegina sortzen du; bertuteak, arimako harmonia gisa, ere nobleeneko, espiritual hutseko atsegina. Edozein izaki, bere barneko natura trabagabe garatu ahal duenean, gogara sentitzen da; hala, gozamen gorena eta iraunkor bakarra, biziera etikoak erdiesten du, besterik ez denak naturaren araberrako biziera baino. Ongiaren joera espeziearen ongia jasotzea da; beste hitz batzuekin: jarduera moralak atsegintasunaren suma gizartearen barruan gehitzen du, horrek atzera poztasunezko sentimendua pizten baitu jardulearen beraren baitan. Ikusgune guztietatik zuzenesten da hortaz, Shaftesburyk etika antzinatarretik zeukan berdinketa: bertutea zoriontasuna da. Doktrina hori Shaftesbury baitan oraindik bere taxu garbienaz ageri da. Plazeraren kontzeptua, aztertzen da kritikoki, bereizten da sentigarritzotik, oinarritu jaidura

⁵ Shaftesburyk asmatutako espresio hau, Hutchesonez gero filosofoen *terminus technicus* ohiko bilakatu zena, mintzaira korrientean franko astiro arruntu zen. Bere *Theory of moral sentiments* baitan Adam Smithek 1759an oraindik ohartarazten zuen: “*Moral sense* hitza ezin da oraindik mintzaira ingelesekotzat jo”.

azpikoenen gaindipenean oinarritzen da. Ez da bertutea bitarteko eta ongizatea helburu, baizik nolabait bertutearen zehar-ondorioa bezala ongizatea, eranskina soil, halere gogotik desiratua noski eta ez batere gutxiestekoa. Eudemonismo zarpaila, zoriontasunaren irrika bihurtzen duena jokabide etikoaren karia, Shaftesburyk inoiz ez du sostengatu. Baina ia oharkabeki labaintzen da pentsaera batetik bestera batzuetan. Horrela inoiz esamoldea azalgaineratzen da, biziotsua une berean ergel handiena dela. Orobat, bere onurari baino beste ezeri jaramon egiten ez dionak, ezer zuhurragorik ezin duela egin bertutetsua izan baino. Zeren eta: “zernahi gaiztori amore ematea edo eranstea, norbere interesari kalte egitea da eta gaitzik handienetara daramana; alderantziz, bertutea betegiteko, eta prestutasuna eta plegu ona sendotzeko, laguntzen duen orok norbere interesa sustatzen du eta zorion eta gozamen handienara eta ziurrenara darama”. Aiurri martzalenak eta ez-berekoienak nobletzen ez baditu holako ikusbideak, arrunt eta zirtzilean endekatzen dira erremedio gabe. Shaftesburyren jarraitunek eman zuten horren proba. Horiek sortu zuten Ilustrazioko filosofiako zoriontasunaren doktrina belaxka eta dinagabea, azkenean Kant ezabakorki jarki zitzaiona, eta hala etorri zen, haiek bidegabeki beren maisu gisa inbokatzen zutenak, zirudiela endekapen horrentzat erantzunekoa. 1770eko Kanten disertazio inauguralean, Shaftesbury Epikuroren ondoan moral eudemonistaren ordezkari tipikoa bezala dago, honek “etikoaren ezaugarriak atseginaren eta atsekabearen sentimenduan bilatzen baititu” eta horregatik “eskubide osoenaz jazartzen” baitzaio.

Bertutea zoriontasuna baldin bada, zer pasatzen da orduan “Joben arazo” artxizaharrarekin, justuaren zoritxarrarekin alegia? Teodizea betidanik ari da bere burua konfliktu honekin tormentatzen. Shaftesburyk ere ez du askatu. Baina ausartu egin da ukatzen, eta horrela, gertakarien zama ikaragarritzkoa gorabehera, optimismo erradikalaren ondorio beldurgabeena ateratzen. Arrazoibide axolatsuz eta bokantza sutuz permatu da Shaftesbury oinarritzen tesia: “gaiztoa eta biziotsua izatea, dohakabea eta zorigaiztokoa da izatea”, ostera baina “bertuteak, propietate bakan oro har gizarte bakoitzari eta gizadiari hain onuratsu zaionak, beste hainbeste bereziki kreatura bakoitz banaren zoriona eta oparotasuna adierazten du”⁶. Esangura fundamentaleko ondorio bat segitzen da hemendik. Bertuteak berekin badakar bere saria, bizioak bere zigorra, beste mundu haraindikoren premiarik ez dago lur honetako injustizien konpentsaziorako. Shaftesburyk ez du, etsaiek setatsu egotzi nahi zioten bezala, arimaren hilezkortasunean zalantzarik egiten; espresuki aitortu izan zaio doktrina horri, eta berorren esanahikortasun sakona azpimarratu. Bakarrik, bizitza etorkizun baten sinesmena erabat ezdeusa iruditzen zaio moralaren oinarritako. Zeharo bestelakoa zen Lockeren aburua, zeharo bestelakoa teologiaren irakaspena batez ere. Shaftesburyren pentsamendu oinarritzakoetako bat dago hemen; lotura estu-estuenekoan dago, ezaguna dugun harako beste, kontzeptu moralek beren existentzia Jainkoaren nahierazko egintzen batzuei zor ez dietelako iritziarekin. Aspergabe ahalegindu da beti Shaftesbury, moralaren menpegabezia edozein aldetatik ziurtatzeko. Haraindikoaren alegazioa arbuigarri, ez da bertuteak zoriona jada lur honetan aseguratzen duelako soil, ezpada guztiz gain bertutea bera baliogabetzen eta dinagabetzen duelako. Puntu honetan Kantek berak ez zuen zorrotzago eta gardenago pentsatzen. Zigor beldur edo sari esperantzazko obedientzia, jopuaren obedientzia da, makurra, arruntzarra, inmoral aldenik alde. “Zintasun, pietate edo santutasun berdin gutxi dago era honetan hobeturiko izaki batengan, kateaz loturiko tigre batengan bihozbera eta samurtasuna adina, edo azote artean tximu batek inozentzia eta ondradutasuna adina”. Ongiaren motiboa ez da abantailaren karia (egoismoa,

⁶ Ik. *Inquiry*-ko azken kapitulua. Gaiztoan bere atsegina aurkitzen duen jendea badela, onartzen du Shaftesburyk, baina holakoetan, bere teoriari jarraiki, afektu “ez-naturalen” arazoa da.

hortaz), bihotzeko garbitasuna bakarrik baino, bertutearen eta Jainkoaren maitasun interesgabea. Moralaren eraikuntza bere baitan osoki menpegabe sostengatzen da; erlijioak, koroa dezake, ez dezake zimenta. Bertutearen “betegintzarrea eta gailurra” da gero, noski, jakitea Jainkotasunaren nahiarekin bat zatozela, norbere barneko harmonia naturaren harmonia orobiltzaile eta ordenu betierekoaz bateratasuna bezala sentitzea. Haraindizko zigorren mehatxuak aldiz, gehienez ere diziplina eta heziketa medio gisa, eginbide etikoan betetze librerako gaitasuna garatu ez den artean balio lezake. Drastiko asko adierazten da Idazki Ezberdinen hirugarren liburukian: “Populu arruntean mirariak eragin daitezke horrela. Deabruak eta infernuak oraindik inpresioa egiten dute beharbada, ziegak eta urkabeak ja egiten ez dutenean ere. Gizajende prestu, onikasi, landuaren izaera beste honelakoa da haatik. Haurtxo txikien eta bularrekoen sinpletasun neurrigabetik hain urrundua dabil jada, ezen, oraingo bere jokaera gizartean geroagoko zigor edo sarien jaramonez arautu barik, bere bizieraren martxa guztiarekin ahalik garbi-garbiena erakusteko lehiatua baita, istorio deboto horiek ez dutela bere ustez umeentzako ipuinek edo populuaren denbora-pasek baino gehiago esanahi”

VI

Harmonia, askotarikoaren batasuna da. Definizio hau edozein objekturi buruz baliagarria da. Ikusmenpeko elementuak izan arte-obraen batasunean biltzen direnak, ala psikikoak nortasunaren batasunean, ez dago printzipiozko diferentziarik. Kasu hartan objektu eder batez, beste honetan karaktere etiko batez mintzo ohi da. Atsegina eman, biek ematen dute eta biek arrazoi berdinengatik. Ikuspegi morala ez da estetikoaren ezberdina. Hobeto esan, ebazpen morala, ikuspegi estetikoaren aplikazioa da giza jaidurei eta afektuei. Bertutea edertasuna da. Arte-lan beteginena, hunkigarriena gizatasun harmonikoa da: zerk lilura lezake sakonkiago giza espiritua izan ere, bere izaera propioaren garapenik puruenak baino? Horretan datza Shaftesburyren asmo gorena eta azkena: Ederkiaren eta Ongiaren batasuna, Kalokagathia-ren ideal grekoaren berriztapena, aro berrien eskolaz eta higikortasun animikoaz aberastuta.

Harreman horretan argiago ulertzen da “zentzu moralaren” zerizana. Arazo estetikoetan, batean txalora, bestean purrustada, behartzen gaituen sentimen fin eta seguruaren mota partikular bat da. Bizioaren ikuskizuna atsekabea da, berdin-berdin irudi gaizki marraztu bat edo musikan tonu faltsu bat diren bezalaxe. Morala ere gustuaren kontua da. Hortik ageri da, “moral sense”-aren jatorrizkotasuna zein adieratan aipatzen zen. Forma eta kolore batzuetan atsegin hartzea, beste batzuetan atsekabe, geuk dakargu geurekin mundura, baina handik artearen ulerpen umu bateraino, luzea dago bidea. Etikaren soroan ere hazia bakarrik dago emanda. Ernaraztea eta indartzea, hezkuntzaren eta kulturaren egitekoa da. Bizi-arau guztien kopurua, horrela, agindu bakar batean kondentsatzen da Shaftesburyrentzat: nobletu ezazu zeure gustua! Hau da gizakiaren edozein jardun-alorretan bidea betegintasun gorenera. Artearentzat sentimen finena duena, aditu konpetentea da moraleko auzietan eta erlijiozkoetan ere (hau ez baita, badakigunez, munduko harmonia Jainkoak sortuaren oharrena besterik). Ez du harritu behar, gaizki hezitako jendearen jokaera berdina izaten bada desonestu, okerrak haren iritzi estetikoak bezala; gustuaren landugabetasuna da kasu bietan gaitzaren muina. Artean, Shaftesburyren gardiz ere, inon zehazki nabaritzen ez duen arren, leku pribilegiatua okupatzen du etikak. Arazoaren naturak berak, izan ere, arlo estetikoan hain usu dagoena, hemen baztertu egiten du: ezagutza, ekoizpena gabe. Pinturak balioets litezke pintatu gabe, poesiak poesiarik egin gabe. Baina inork ez luke jokaeren

epaile izaten ausartu behar, etikotasunerantz bera ahalegindu gabe. Moralean, bera kreatzaile izateko eginkizuna dauka bakoitzak. Materiala bere barruan dakar, eta bere bizitzaren arte-lanak erakutsi behar du haren “gustu” purifikatua. Aldiz batasuna estetikoaren eta etikoaren artean, hainbatetaraino bederen gordetzen da, edozein aurrerapen moralek une berean gaitasunaren hobekuntza adierazteraino, halaber edertasuna sentitzeko, gozatzeko eta espirituko kultura gorenean eta manera adeitsuetan egiztatzeko. “Mundu-kumearen eta filosofoaren karakterea zerk eta, edertasunaren gustuak eta non-zer den gisako, zuzen eta maitagarri sentimenduak, betegiten du”. Horra dagoeneko ezaguna dugun “virtuoso”-ren tipo ideala, non Shaftesburyk antzinateko nahiz oraineko kultur elementu desberdinenak guztiz pertsonal propioekin urtu dituen gizatasunaren irudi singular berealdiko batean. Ilustrazio aroaren misterio etikoa desestali du hark, Windelbanden irizpide aproposaren arabera, modu horretan. Indibidualismo estetikoki mamituaren hezkuntza ideala, hortxe baitatza aro haren galanta eta baita (laster erakusteko arrazoiengatik) mirrina ere, beste inork ez du argitu halako argitasun grafiko, are –esango genuke- programatikoz.

Erreparo astun bat gaineratzen da: ebazpide moralak benetan gustu estetikoak bezain kili-kolo eta kontrolaezina izan behar ote duen. Emanda, gizakume ideala “virtuoso”-a dela: “virtuoso”-ak berak zein neurrien arabera neurtzen dira? Esaterako, batek arkitektura grekoaren alde zin egiten du, gotikoarenean bestea. Kuestio etikoetan beste hainbestekoak badira desakortak, zeinena da arrazoa? Ez ote da harmoniaren sistema hori, gogor samar oratu orduko, kapritxo fantastikotan gesaltzen?

Shaftesburyrentzat horrelako problemarik ez zegoen. Berak ulertzen zuen eran, errealitatea objektiboa dauka harmoniak. Eskolapena behar da, bai, bertantxe eta eskierki ezagutzeko; baina oharrikusle eskolatu guztien ebazpenak bat etorriko dira nahitaez. Afektuen “oreka” baldinkizun jakin batzuetan gauzaturiko natur errealitatea da, ez giza asmamenaren edo interpretazioaren ekoizpena. Konparazioek ikustarazten dute zer esanahi zuen Shaftesburyk. Moda musikala nahi adina alda bedi, harmoniaren artea horregatik ez da kapritxoaren sorpen bat, tonu erlazioen arauzkotasun objektiboak finkatzen du-eta. Arkitekturan gustua egon daiteke nahi adina lorrindua, simetriaren eta proportzioaren arauetan, matematikoki frogatutakoak, deus ez du horrek aldatzen. “Gauza bera da”, esaten da “Solilokio”-aren hirugarren liburuan, “bizitzaz eta ekanduez aritzean. Arau berdin eskierrak agintzen du bertutearentzat. Neurria, harmonia eta proportzioa, moralean berdin aplikagarriak dira; giza karaktereetan eta afektuetan hantxe aurkitzen dira, non baitaude ipinita oinarrika arte eta zientzia baterako, giza ezagupen eta ekintzaren beste ekoizpenik batere baino esanahitsuagorako”. Aisa harrapatzen da Shaftesburyren autoengainua. Beti irudia baizik ez dena, gauzatzat hartzen zuen. Arima arloan “harmoniaz” mintzatzea, giza karakterearen “arte-lanaz”, alegoria sakon, egiaz argigarria da, baina ez da gehiago. Teoria delikatuak ehundu honekin zer egin behar du jende olde zakarrekoak, gogo basakoak, grina oldartsukoak? Kasu konkreturako handik ez dago arau positiboak ateratzerik. Konfliktu gogor artean borrokan dabilenari ebazpenaren bila, urrun “arima ederraren” baretik, honen jokaera etikoa barru zohardi batetik borroka batere gabe eta mara-mara isuri baitaroa, -paralelo estetikoaren seinalekin horri deus gutxi laguntzen zaio. Hezkuntza, “zentzu moralak” Shaftesburyren arabera ere beharra duena, sentimendu kordoken purifikazio eta gotortzea da, arrazoimen aztertzailearen bitartezkoa; zer egin behar du, ordea, arrazoimenak printzipio objektiboak gabe, zeintzuen arabera epaitu? Besterik ere bada oraindik. Pertsonalitate handien pribilegioa, beren erabaki moralak izaera propioaren legeen arabera zedarritzeko, maiz-sarri gaitzulertzen da, hain zuzen XVIII. mendeak

adibide franko eskaintzen duen modu batean. Jeinuaren kultuitsuak itsututa, “egunoroko moral”-aren beharpenik libre uste dizu edozeinek bere burua eta interes estetikoaren oldar subiranoari opaltzen dio obligazioaren ideia xume lakarra. Hori ez da inola ere Shaftesburyren iritzia, autohezkuntza gogor, luze baten barruan zoritua bera. Haren doktrinak halere, halakoxe ondorioak iradokitzen zituen, aintzakotzat apenas hartzen du-eta inperatiboa etikan. Hala kausitu zuen Herderrek berak, Shaftesburyren miresle entusiastikoak, “Gizatasunaren Gutun”-etako hogeita hamaikagarrenean idazterakoan: “Eta hala eta guztiz ere, ene adiskidea, haren moraleko sistema gutxitxo iruditzen zait, sentimenduaren gainean bakarrik oinarritua den aldetik... Oro har, bere morala maitagarria egitearren, pixka bat gehiegi ibili da, nirekiko, lausengutan giza naturarekin. Azkenean, izan ere, filosofia estoikoarekin, Jainkoaren esan zaharrera itzuli beharra baitago hemen: Egin behar duzu! Ez duzu egin behar!, hori komenentziak, gustuak eta atseginak ez, baina eginbideak eta arrazoimenak agintzen duten ginoan”. “Virtuoso”-aren irudia, bertutearen aldera bihotz guztiak irabazteko adelatua dago. Ordea ez du, nahimen mokotea menperatzen duen sublimitate latz eta garratz hartatik deus ageri. Arimako “harmoniaren” liraintasuna eta agindu moralen larderia gupidagabea etikoaren aberastasuna biok elkarrekin bakarrik agortzen dute, beren arteko harremana zuzen bururatuta. Halako bateratasun bat, nolabait Shaftesbury eta Kanten sintesia, Schillerren intuizio jenialak entseatu zuen⁷. Alegia, arazo mugaturen batzuekin bakarrik lotu zuen bere kezka, eta horiekin ere iraunkorki ez. Baina, alor etikoan etorkizunaren jabea izango den norabidea erakusten dute haren iradokizunek.

VII

Behin eta berriz adierazia dugu Shaftesburyk bere aroaren gainean izan zuen eraginaren bortitza. Aipatu dut “Entusiasmoari buruzko gutuna”-ren arrakasta. Inquiry-ak bere aurren eskualdiko tankerarekin sortu zuen zirraraz, Moralistak honetan Shaftesbury bera mintzo da. Idazlanen bilduma ere arrapaladan zabaldu zen. Hogeitaz inguru barruan, bost aldiz berrargitaratu zen Characteristics hori. Ez zen pentsamenduzko edukiagatik bakarrik estimatzen, ezpada ia beste hainbeste esamoldearen elegantzia eta narotasun exuberanteagatik. Ozta-ozta zegoen batere gehiegitua, 1733 urteko argitalpenaren hitzaurre batek baiesten bazuen. “ezagutzaile hoberenak ados dira, halako liburu ederrik, halakoxe xarmagarrikerik, irakasgarrikerik egundaino ez dela egon hizkuntza ingelesean”. Aurkako idazkien andanak ere Shaftesburyren eragipena testigatzen du. 1751 oraindik, Characteristics-en errefutazioan ez bestetan enplegatzen zen oso-osorik liburukote lodi bat; gainerakoan, haren autore John Brown elizgizon liberalaren molde ulerkor, dotorea, atsegingarriro besterakotzen da ohiko modu herrakortasun pasionatuzkotik, nola baitziren gudukatzen arestian auzi teologikoak edo teologikoekin mugakideak. Tonu dinagabe honetara Berkeley bera, jada zaharkuldutxoa, laprastu zen, hirugarren dialogoan “libre-pentsatzaileen” aurkako bere idazkian (Alciphron or the Minute Philosopher, 1732) Shaftesburyri erlijioaren izpi gabeko (“without one grain of religion”) eta moral arazoetan bentasun batere gabeko gizonari bezala eraso dionean. Baina Shaftesburyren antipoda zinezkoa Bernard Mandeville izan da, “Erleen fabula”-ren idazle aipu gaiztokoa, bere aldiko eta aldi guztietako espiritu menpegabeenetako eta mutirienetakoa. Haren mundu-irudia ia puntu guzti-guztietan justu alderantzizkoa zen, Moralistak-en hain fedetsu eta suhar trazatuaren aldean. Irribarre mefistofeliko batez zirpildu zuen oihal optimista, hein batean “mundu hoberenaren” goresleak bezain

⁷ Nolanahi ere Schillerrek ez zituen ezagutzen 1789 aurretik Shaftesburyren izkribuak. 1788ko azaroaren 27an idatzi dio hau Caroline von Beulwitz: “Plazer dut Shaftesburyz gozatu ahal izatea: beharbada udako zeregina izango dut hori”. Zeharbidez bai, askoz lehenagotik zuen ezaguna Shaftesburyren zenbait ideia.

aldebakarra eta neurritz gorakoa, baina estimulu positiboan eta intuizio baliotsutan aberatsa.

Jeneralean Shaftesbury osteko filosofo moralista ingelesak, Hutcheson batez ere, haren problemei atxiki zitzaizkien –eraberrituz, osatuz- eta haren Weltanschauung-a berenganatu zuten –Humeren salbuespenarekin, handitasun bakartian goiti – ikerketa puntualaren atzean hondo grekoz eta margulduago baten antzera. Baina zabalkunde efikazena jendaurrean Shaftesburyk XVIII. mendearen hain propioa den filosofiaren eta literatura ederraren uztardura intimoari zor dio. Alexander Poperen “Gizakiari buruzko saioa” (Essay on Man) Shaftesburyri koldarkeria kiskilez uko ere egin dio geroago espresuki⁸. Baina Poperen azpikeria goiz asko izan zen igarria eta erasiatua⁹. Ez txingar eta ez indar gabeko, baina leun-leun ondu eta buruan erraz itsasteko sententzietan biribildutako haren bertsoen arrakasta europarra, libre-pentsamenduaren kredo bat irudi baitzuten, Shaftesburyren gogoeten triunfoa zen. Inondik ere poetak sentitu dira Shaftesburyren bereziki ahaide. “Gorazarrerako Jainkoari naturan”, aro hartan onarpen handieneko gaia hauxe, ereduzkoa zen Moralistak-eko prosa-himnoa. Thompson, “urtaroen” autorea, eta haren jarraitzaile ugariak, Teokleren espirituak animatuta zeuden denak.

Frantzian ere irakurtzen zen eta ospatzen zen Shaftesbury. Itzulpen osoa, egia da ez zela agertu 1769 aurretik. Baina Voltairek hogeita hamargarren urteetan jada ekarri zuen Ingalaterratik haren irakaspenen ezagutza eta haiek Newtonen natur filosofiarekin elkar-josi zituen artikulua eta poema sail batean. Shaftesburyz miresmenezko benerezio terminotan mintzo ohi da tenore hartan, eta zinezko errespetuz beranduagoko urteetan beretan ere, haren pentsamenduko irauli erabakigarriak aspaldi “Tout est bien!” predikaria izatetik printzipio horren kritikatzailerik amorratuena eta nekagaitzena izatera bihurtua zuenean ere. Dideroten aurreko epoka orobat Shaftesburyren guztiz influentziapen egon zen. Haren Essay sur le mérite et la vertu (1745), tituluak berak aski erakusten du, Inquiry concerning Virtue or Merit-aren birlantze libre bat da. Encyclopédie obra erraldoiak artikulua mordo batean aipatzen eta aupatzen du “Lord” sonatua, eta Montesquieuk, zientzia politikoez gehiago ulertzen bazuen ere apika poesiaz baino, txundigarriro samar, esku batean bildu ditu Platon, Malenbranche, Shaftesbury eta Montaigne “lau poeta handiak”, bere “Pensées diverses”-etan.

Eraginik bortitzena Alemania eduki zen Shaftesburyk. Bere emanarekin sentimenduaren hegada ameslaria, naturaren eta gizatasunaren maitasun gainezkorra, Ilustrazio

⁸ Essay-aren argitalpenaren ondoren, haren ortodoxiari buruz duda-mudazko zurrumurruak zabaldu zirelarik, santuzurikeria maltzurrez ahalegin zuen Popek behin eta berriro, inolako zerikusirik zuenik Shaftesbury, Leibniz, Spinoza bezalako libre-pentsaileekin arras ezezten. Warburton teologo ortodoxo polemistari, zeinekin beretzat aseguraturik zeukan ituna, eman dio aditzera tenore honetan, “bere ustez *Characteristics*-ek erlijio errebelatuari Ingalaterran kalte gehiago egin diola, sinesgabekeriaren liburu guztiek batera baino”. Handik hara Warburtonek, John Brown, haren liburua goian aipatu dugun horri, eman zion, Shaftesbury galbidezkoa errefusatzeko enkargua.

⁹ Hala dio Voltairek, adibidez *Lettres Anglaises*, 22. Gutunean, Poperen poesiaz: “*Il est vrai, que le fond s’en trouve tout entier dans les Caractéristiques du Lord Shaftesbury; et je ne sais pourquoi. M. Pope en fait uniquement honneur à M. de Bolingbroke, sans dire un mot du célèbre Shaftesbury, élève de Locke*”. Eta Lessingek in “*Pope ein Metaphysiker*” (1755), eranskinean, baieztatzen du areago, Popek nabariki Shaftesbury irakurri eta aprobetxatu duela, baino askoz hobeto aprobetxatu izango zuela, hobeto irakurri izan balu. “Hartaz baliatu dela, Shaftesburyren *Rhapsody*-ko pasarte bat baino gehiagorekin frogatu ahal izango nuke, Popek bere gutunetan tartekatutakoa, bererik ia ezer gehiago ipini gabe silaben neurrak eta errima baino” [Ik. itzulpena gaztelaniaz, in Lessing, G. E., *Escritos filosóficos y teológicos*, Madrid 1982, 247-281. Itz. ohar.]

alemanak bere burua “entusiasta” noblearen kide-kide sentitu zuen, eta epoka horretako pertsonalitatearen askatasun eta zoritasun miragarria goititu zirenak, “virtuoso”-aren irudian beren buruaren zati bat berrezagutzen zuten.

Leibniz jada, bere sentiera hamazazpigarren mendekoa gehiago duena, nahiz eta pentsatzaile bezala hemezortzigarrenaren heraldo jenialena bera izan, ia espiritu paregabe bitxi eta aberats horrek, Moralistak irakurri ondoan, bere harridura gorespenezko esaldi gogangarritan adierazi zuen, ia puntuz puntu bere Weltanschauung propioa azalduta aurkitu zuela-eta. Eskola wolffianoan, bere sistematika exhaustibora eta arrazionaltasun biluzira emanarekin, influentzia ingelesa zerbait gibelatu zen; ordea deistak eta filosofo popularrak (hain zuzen esanahitsuenak, delikatuena estetikoki. Mendelssohn eta Sulzer adibidez) goitik behera Shaftesburyz ase-aseak daude. Batez ere Zarten ikerketek, literatura neurrigabeko gutxi-ezagutu baten miaketa arduratsuz, agerrarazi dituzte harremanok banan-banan. Dena den, Kantek berak, “1765-1766 negu-urterdiko bere eskolen antolamendua”n, oraindik gomendatu egiten zituen “Shaftesbury, Hutcheson eta Humeren saioak, horiek baitira, ez-osoki eta akatsez nahiz izan, etikotasun ororen lehen erroen bila aurrerena heldu direnak”.

Alemanian ere gogotik itsatsi zitzaion poesia artista-filosofoaren pentsamenduari. Aire edifikanteko naturaren deskribapen poetikoaren mareagora, literatura ingelesean baino are gehiago hanpatu zen hemen. Poesia berariaz didaktikoak Leibnizen teodizea Shaftesburyren eta Poperen (Brockesek itzulia) eragipenarekin konbinatu zuen. Albrecht von Halleren alexandrino astun, solemneentzat, in “Gaitzaren jatorriaz” (Ursprung des Übels) eta “Giza bertuteen faltsutasunaz” (Falschheit menschlicher Tugenden), oraintsu bakarrik frogatu ahal izan da sinesgarriro Shaftesburyren influentzia bertakoxea. Lessing eta Wielanden gaztaroko obrek gogoetari ingelesaren ezaguntasun mami-mamia erakusten dute. Anakreontikoek ere preziatzen zizuten, eta Hainbund-en¹⁰ inguruetik jalgi zen 1776ko itzulpena.

Leialena, baina, Herderrek beneratu du “Shaftesbury noblea”, bere lehen-aro trumoiatsutik xahar buruzurieneraino. Teologo gazteei haren idazkiak aholkatzen zizkien estudiorako, eta aspergabe defendatu zuen panteismoaren eta ateismoaren salaketetatik. Wimarko lehen urte zoriontsuetako obra biribilduena eta helduena, “Jainko”-ari buruzko solasak (Gott), Goethek onespen sutua manifestatu zienak, luzaro gogoan erabilitako asmo baten fruitu bezala erne zen, hots, noizbait “Leibniz, Spinoza, Shaftesbury”-ren azalpen konparatu bat idaztekoa. (Egia esan, zirkunstantzia partikularrengatik, Spinozaren apologia antzeko zerbait bihurtu zen gero, eta ez zuela interpretazio gutxi-asko bortxatuen guztiz gabe irten, Herderren aitortzatik beretik barruntatzen da, alegia, beretzat Shaftesbury bilakatu dela bai Leibnizen eta ba Spinozaren doktrinako interpretea Jainkoaz hala moralaz). Herderren “Jainkoa”-ren bigarren argitalpenean, Teokleren Natur himnoaren itzulpen erritmikoak eranskina osatzen zuen. Adrastea (Filosofiaz eta Historiaz, 11 atala) eta “Gutunak gizatasunaren faboretan” haiek Shaftesburyren erreseina xehekatuak eman zituen. “Gizadiaren historiaren filosofia baterako ideiak” hartaz esan du Herderren ikerle aleman sakonenak,

¹⁰ “Hainbund” [Zuhaiztiko elkargoa] edo “Göttinger Bund”: hastapenetan Göttingengo Unibertsitateko estudiante multzo batek 1772an eratutako poeten elkargoa, estekadura arrazionalistaren aurkako erreakzioa; hainbat idazle gazte edo txikiagoren ondoan, autore ezagunak ere jotzen dira gero, elkargoko ez bada haren ingurukotzat, mugimendu berriaren adierazgarri, Klopstock, Bürger, Mathias Claudius, etab (Itz. oharra)

“hitzaurretik azkeneraino rapsodia handi bat, ingelesarenaren kontrapare hedatsuago bat” omen dela.

Osoki egiztatzen dira horrela Hettnerren, ahaztuari buruz berrietatik goizena eta bipilena atentzioa deitu zuenaren, hitzak: “Shaftesbury XVIII. menpeko agerpen esanahitsuenetako da. Epoka horretako espiritu handienek, ez ingelesek bakarrik...hazkurri indargarriena zurrupatu dute harengandik”. Eta darrai: “Xarma beti berriak dira haiek. Oso oker egiten du gure orainaldiak, hura bazter utziz”.

Azken galdera hori geratzen da ikuskatzeko oraindik: denbora modernoaren behartasunentzat, zein balio bizi gordetzen du Shaftesburyren irakaspenak?

Mundu modernoan botere eragintsuenak –natur zientzia, teknika, mugimendu soziala- beren jitez antiindibidualistak dira. Teknikaren ideala da, produktu eitebatekoen ekoizpena indar ez-gizatiarren bitartez, haren arazoa ez da hondargabeki ebatzi, harik eta singularitasun aurreikusezin pertsonalezko esku-hartzea erabat alderatu ezin izan mekanismoaren uneraren batean. Mugimendu sozialaren gorak, aurrerapenaren ekarlea zein helburua masa bihurtzen du; haren zirrarako eskergak bide batez pentsaera historikoa hala moldarazten du, non bizitza banakoa eta ekintza banakoa harentzat konta ezin ahala hariren gurutzagunea soil baita, hauek batera etorri jarduera sozialaren zabalera guztitik datozela eta gero atzera hantxe galdu. Natur ikerketarentzat, azkenik, indibiduala ez da arauzkotasun orokorraren aplikazio kasua baino, berak bilatzen duena hori baita eta horren egiztapen erabatekoan baitatza bere garaipena. Erkaezina, banakoaren kasu (adiera honetan) “menturazkoa”, hondargabeko azalpenari jarkitzen zaiona, hori traba da, ahal dela baztertu egiten dena eta bestela ezikusiarrena.

Horrela sentitzen da gizakume modernoak halako botereek setiatuta, bere determinazio indibidualaren mailan eliminatzen saiatzen ari zaiona bakoitza bere erara. Lehiatzen bada bere nia kementsu baiesten, beste arrisku batek amenazatzen du. Material pilaketa erraldoiak eta harako lan-partiketa arrafin hark, kultur arloan produkzio industrialaren alde onak eta gaitzak landatzen dituenak, “berezilaria” munduratzten dute, horren ezagutza barruti zehatz hesitu eta argitsuak, bere muga-mugan ilunbeltzik sakonena baitu. Geratzen bada ordea nonbait gizakume haustezinen bat barrera guztietatik salbu, edo lortu duena horietatik askatzea, bere kontrastea besteen lotuta ibiltzearekiko aski zaio halakoari maiz-sarri; orduan bere izaeraren bakuntasunaz alegeratzen da, eta bere kapritxoaren edozein txilibitukeria txakur-amets aintzat hartzekoa iruditzen zaio, lokarri orotatik bere askatasuna probatzen dion edo probatu ahal lezakeen heinean.

Gida apropos baten antzera seinalatzen du, XVIII. mendeko gizatasunaren idealak, Shaftesburyren “virtuoso”-ak, estutasun hauetatik libratzeko bidea. Fedea “banakoaren” garrantzian, nortasunaren esanahian, gizakume berri bakoitzean berriro hedatzen den horretan, ezin da aski sakon bizia izan gudan, gure nia itotzea mehatxatzen digunean iraganak, irenstea orainaldiak. Indibidualismo autentikoa, ordea, edozein berezilaritzaren protoetsai da. Azkenean, noiz edukiko du gizatasun harmonikoak idealaren erakarmena, behialako moduan? Azkenean, noiz ulertuko da berriro, horrekin ez dela unibertsalismo diletante bat suspertzen, baizik eta gogoaren trinkotasun eta askatasun, zeintzuekin ahal duen gizakume bakoitzak, bere jardun-alor efektiboa estua bada ere, erlazio garden orekatu bat eduki munduko eta zientziako bere ingurumari guztiaiekiko? Espirituko txanbelintasun eta gaintasun hori, inork ez du lortzen bridagabekeriaz. “Zoria izatea da dena”: instintuen eta intelektuaren anarkia ez da

askatasuna, eta hezkuntza, kultura, bere buruaren nagusitasun hutsezinaren bitartez bakarrik gailentzen da “virtuoso”-a, naturak dohatsuki dotatuak soil edo baldintza dohatsuetan altzoratuak izan direnen gainetik. Ahultasunetan maitagarrien hartatik, mundua ederregi ikusetik, gu gaur-egundarrok salbu gara, eskerrak ilusio gabeko gatazka gogorak orainaldian harekin une berean bedeinkatzen eta madarikatzen gaituen eskola mingotsari; salbu gara orobat, errealtatearen ezagutzen zientzia modernoari eta lotezinezko garapen sozialari zor diogun irabazi neurrigabekoari eskerrak ere. Shaftesburyren funtsezko ideiak, zinez handia entusiasmoak bakarrik sortzen duela, ukigabe dirau. Litekeena da eginahal gatzilak eta egoismo setatsuak miresgarrikerik erdiestea; gorena, garbiena, iraunkorra, garai guztietan erne izan da entusiasmotik, zeinek eramaten duen gizakumea interes pertsonalen eta beldurraren mundutik erpin libreagoetara, landura legez eta hodeien itzalak bezala pasatzen baitira han besteen bizitzan nagusi izaten diren kezkak eta tentazioak behean urruti. Zenbait “buruberokeriaz” guk argi-iturriok irri-mirri egiten dugu, eta Ilustrazio epokan puntuzkoenak zinegotzen zitzaizkion maitasun hartatik gizadiarenganako, errealtatearen zentzu gupidagabe batek urruntzen bide gaitu. Eta halere, so bakar batek erakutsiko liguke, errealtatearen gure zentzu hori, XVIII. mendeko egurats garbiagoan hozitzen ez zen mamu kimeriko elementu batekin ondo asko etortzen dela: Alderdien sloganak eta jaiotzezko pribilegioak, arraza arteko gorrotoak eta gizatasun hutsezkoa etikan itxuragabetzen duen erokeria erlijiosoa. Ai halakoari gure aldia Shaftesburyren mendeaz alderatu eta lotsaz gorri aitortzen ez duenari, ondasun kanpoko nahiz intelektualen irabaziek zein gutxi konpentsa ditzaketen kultura etiko, maitasun aurreiritzietatik garbi eta tolerantzia zinezkotako galerak! Egunean-egunean areago bedi, geuk lortutakoa zertan galdu gabe, ulertzen eta ahalke gabe aitortzen dutenen kopurua, zein izarigabe anitz ikasteko daukagun, egon bere bizkarren gainean gauden haiengandik!

Karl Wollf

LEHEN ZATIA

Filoklek Palemoni

Zu bezalako gizonik ezagutzen ez duenak ezingo du ulertu nola izan dezakeen hain interes handia filosofiarako eta ikasketarako, arazorik handienei aurre egiteko gauza den adimen batek, gorte eta gerla zelaietan hezia. Izan ere, nork sinetsi dezake mundu dotorean zure izena eta onespina duen norbait hain etorri handikoa izango dela mundu ikasitako gauzetan, eta hain interesatua egongo dela jendearen arazoetan, gure garaiaren umoreari erabat desatsegina bazaio hori guztia?

Atzo zure kotxean parkean geundela, inguruan genuen etxe oneko jendearen artetik, uste dut zu zinela ondo hezitako gizon bakarra filosofiarari buruz hitz egiteko irudimena izan zezakeena. Ezin da erraz adierazi nola elkar zenitzakeen halako gaiak giro harekin. Nik zera ondoriozta nezake bakarrik: ala filosofiarekiko grina xelebrea zenuela, lilura haiek guztiak gutxiestera bultzatuko zintuena, ala hango lilura goxoek eragin xelebrea zutela zuregan, filosofiarari bultzatuko zintuena askatasun bila.

Nolanahi ere gupidatzen nintzen zutaz; nire ustez patu arinagoa zen maitale axolagabea izatea, ni nintzen bezala. "Hobe da -esan nizun- edertasuna eta jakituria era apalagoan mirestea". Hobe da, pentsatu nuen nik, kontuz konprometitzea, horrela bihotz osasuntsu batekin irauteko eta munduko dibertsio eta entretenimendu ederren aurrean beti

bezalako zaletasun handia izateko. Izan ere gauza hauek ezin dira nahita alde batera utzi, bertutetsu deritzen gizaseme horien grina erromantikoagatik.

Izen hori ematen diot zure baitango maitale eta filosofoari. Berdin da zein den gaia: poesia, musika nahiz filosofia ala emakumeen xarma; honetaz edo besteaz maitemindua den edonor egoera berdinean dago, eta jabetu ahal izango zara bere begiradengatik, bere mirespenagatik, bere pentsakortasun sakonagatik; beti amets batetik esnatzen bezala ikusiko duzu, beti gauza berari buruz hitz egingo du, ohartu gabe beste edozein gauzari buruz esango dutenaz -seinale txarrak!-.

Baina hau guztia ez zen aski izan zuk amore emateko. Arriskuak izutu baino animatzen duen zorioneko horietakoa baitzara, Palemon. Eta orain, gainera, gehien asetuko zaituena izango da gure abentura filosofikoak inprimatuak izatea. Dena zure aurrean azaldu eta kontakizun oso batean bildu beharko da, iraun dezan garaitik kanpoko elkarriketa horren gorazarre bezala, egun nagusi diren plazer eta galaniaren jiteari hain oposatua zaiona.

Benetan onartu behar dut modako gauza bihurtu dela gure nazioan politikari buruz hitz egitea edozeinen aurrean, eta estatu arazoei buruzko ihardunaldiak plazerrari eta atsedeneri buruzkoekin nahastea. Filosofian, aldiz, ez dugu begi onez ikusiko askatasun hori, eta ez dugu kontsideratuko politika bere arazoen artean, eta ezta ere, sikiera, berarekin harremanatua. Hainbestearino gaitzetsi baitugu modernook filosofia eta hainbestearino deuseztu ditugu bere eskubide nagusienak.

Utziko didazu, Palemon, filosofiaz gupida nadin, bere izena hain beheti dagoen garai batean behartu nauzu eta berataz arduratzera. Guk horma artean sartu dugu, eskoletan eta geletan (andereño koitadua!), eta izendatu dizkiogun lanak mehatagietakoak bezain lotuak dira. Enpiristak eta sofistak dira bere ikasle nagusienak. Silogismo eskolastikoa eta elixirra dira bere ekoizpenik aukeratuenak. Dagoeneko ez du estatu gizonik hezitzen, lehen egiten zuen bezala, eta, beraz, nekez aurkituko dugu gizarte arazoetan nabarmentzen den gizonik berarekiko zorrik txikiena onartuko duena. Bakarren batek bere zaletasuna mantentzen badu, eta noiz edo noiz berarengana hurbiltzen bada, isilpean eta gauez izango da, ikasle zintzoa bere jaun eta maisuarengana etortzen den bezala.

Baina filosofiaren arloa nahi hainbat murriztuta ere, onartzen bada morala bere esparrukoa dela politika ere, ezinbestean, berari dagokio. Zeren gizakiaren ohiturak eta erakuntza ulertu nahi baditugu, beharrezkoa da gizabanakoa aztertzea lehenago, eta sorkaria berez zer den ezagutzea, taldean kontsideratu aurretik (hau da, estatuan integratua edo hiri baten edo komunitate baten partaide bezala). Gizakiaz arrazoitzerakoan zabalduena da gogartzea bere gizarte egoeran eta bere nazio harremanean, hau da, gizarte honi ala besteari, jaiotzez ala adopzioz, lotuta dagokion neurrian. Baina espekulazio bihurri eta finegitzat jo behar da -hala ematen du behintzat- munduko hiritar edo kide kontsideratzea, bere aurrekoak naturan bilatzea, eta bere xede eta erakuntza ere bertan behatzea.

Moralari buruzko ikerketekiko beldur hau azaltzeko zera eman daiteke arrazoi bezala: gai hauez arduratu direnek harridura besterik ez dutela sortu eginbehar horrekiko familia onenekoen artean, landu duten era dela eta. Eskolastikoak -beste inor ez -egin direnez kezka hauen jaun eta jabe euren kutsu eta taxua ezarri diote gaiari. Nire ustez, gai larri hauei buruz nahiko hitz egingo zen eta nahiko irakatsiko zen zenbat leku aproposetan, baina lagun ohoretsuen artean ezin dugu horrelako ezer onartu. Halako gaia aipatze hutsak atsekabe bat emango digu eta egoera ez erosoan jarriko gaitu. Erudizioaren aurrean gaudenean pedanteriatzat joko dugu eta moralitateari sermoi egitea deritzogu.

Onartu behar dugu, dena den, hau gure egungo elkarrizketen benetako desabantaila dela, zeren halako fintasun zorrotzarekin erudizioaren eta arrazoimen sendoaren giza laguntza galdu egiten baita. Are sexu xarmantak ere erdeina gaitzake arrazoi guztiarekin, eta guri farre egingo digu euren malgutasun berezia irrikatzeagatik, nahiz eta, gure iritziz, euren mesedetan egindako amore ematea besterik ez izan. Ez baita emakumeekiko urguritasuna euren manierak gureganatzea eta emetuak izatea. Gure sentipenak, hizketak eta estiloak, nola gure ahotsak eta pertsonak gizon izaeraren kutsua eta berezko laztasuna izan behar dute, horren bidez bereizten baita gure sexua. Eta edonolakoa dela guretzako nahi dugun dotoretasuna, gure iharduna hain adeitsua bihurtzean bera desitxuratu egiten dugu, benetan gardendu baino.

Ez dago adimenaren lan perfekturik ez badu eskuaren gogortasun eta adore hau, gorputza eta proportzioa ematen diona. Koadro on batek, pintoreek diotenez, giharreri ona nola kolorea eta apainketa egokiak izan behar ditu. Eta, seguruez gero, edozein garai handitako idazki batek edo ihardunaldi batek sumindu antza izango du ez badira bere osagarriak: ez arrazonamendu mardul bat, ez gizakiaren historia naturala, eta ezta ere ezagupen dei daitekeen ezer; hauek ez lirateke beharrezkoak izango ohitura irrigarri batzuen kasuan, baina horrela joko edo dibertsio kutsua hartuko luke.

Honek dakar nire burura sarritan aztertu dudana arazoa: "traktatuak" eta "idatz-saioak" lantzen baditugu zergatik ekiditen diegu, modernook, elkarrizketei? Izan ere, beste garai batzuetan hau kontsideratzen baitzen arazo sakonena aztertzeko bide onena eta dotoreena. Egia hau da: gure garaiafaren faltsukeria higuingarria eta kontraesana izango litzateke, halako zentzu handia eskatzea ordubeteko elkarrizketa batean, gaia razionalki aztertu gabe (honek eskain dezakeen zintasuna eta koherentzia garbia galduz).

Ez pintoreek, ez poetek, ezin dute baimena hartu naturaren itxuraren aurka lan egiteko, ez koloreak zabaltzean, ez marraztean, ez zerbait deskribatzean. Are gutxiago egin dezake hori filosofoak, batipat bere adimenari dagokionean. Bere filosofia elkarrizketaren bidez azaltzen badu eta eztabaidan bera agertzen bada garaile, eta bere jakituria munduaren jakituriaren gainetik jartzen badu, dioena adar jotze bat bezala uler daiteke. Eta, seguru aski, alegia bat atera liteke hortik.

Badiote, lehoia eta gizona solasaldi lagunkoi batean zeudelarik, lehenak, zuhurki, ukatu egin zuela gizakia bera baino indartsuagoa zenik; honek, bereari eusteko, egiteetan oinarritu ordez, lehoieriafaren gainean izandako garaipenen irudiak eta antzezpenak erabiltzen zituen, besterik ez. Piztiak eriden zuen artelan goren hauek giza faltsupen hutsak zirela, eta hortik aurrera, eskubide osoarekin, zera ihardetsi zion: gizonak artearen bidez antzesten zizkion liskarren lekuko izan bazen inoiz, adibideak beste iritzi batera bultzatuko zuela. Baina Herkule edo Theseo edo beste edozein piztia menperatzaileen irudi zaharrek indar txikia izan zezaketen bere gainean, ez baitzuen berak inoiz ez ikus ez igar halako aurkaririk bizirik, berarekin lurrarengatik liskartzen.

Ez da harritzekoa, bada, elkarrizketen bidez azaldutako moralari buruzko koadroak modatik kanpo egotea, eta ez dezagula ikus, gaur egun, halako argazki filosofiko gehiago. Non daude, bada, originalak? Ala ez ote dugu bizi-bizian halako batez gozatu? Burura dezakezu geuk sor genezakeela koadro on bat?

Badakizu, gainera, nik aurkeztu dizudan filosofia akademiko honetan badagoela galdetzeko eta zalantzak egiteko modu bat, inondik ez zaiona egokitzen gure garaiko izaerari. Gizonek beti partidu hartu nahi dute. Ezin dute jasan airean egonazten zaienean. Azterketak oinazetzen ditu eta zama hori ahalbait eta azkarren kendu behar dute gainetik. Ematen du gizonek ito beharrean sentitzen dutela euren burua arrazoiaren jarioaz fidatzen ausartzen direnean. Zalaparta batean ematen dute, ez dakitela nora doazen, eta gertu daude lehen abarrari heltzeko. Hor zintzilik geratzea aukeratzen dute, nahiz eta oso kolokan egon, eta ez dira fidatzen, aldiz, uretatik atera ditzaketan euren

indarrez. Hipotesi bati eusten diona, oso ahula bada ere, asetzen da. Izan ere, eragozpen guztiak erantzun ditzake, eta hitz tekniko bakar batzuekin eta trabarik gabe edozein arazoz kontu eman dezake.

Ez da harritzekoa garai honetan alkimisten filosofia nagusi izatea: gauza miresgarriak agintzen baititu, eta eskuen lana eskaintzen du buruarena baino. Kreatzaileak izateko gutizia xelebrea dugu edo, behintzat, ezagutu nahi dugu naturak gauza guztiak egiteko erabiltzen duen maina edo sekretua. Alkimistek praktikan irrikatzen duten helburu bera bilatzen dute filosofoek gogoetaren bidez. Izan ere, horietako batzuek bezala, aztertu dute nola sor daitekeen gizakia naturak eskaini dituen baliabideak alde batera utzi eta beste batzuk hartuz. Sekta bakoitzak bere errezeta dauka. Zuk bera ezagutuez gero natur-maisua izango zara; bere fenomeno guztiak argitu ahal izango dituzu; bere asmo guztiak ikusiko dituzu eta bere lana egiteko gauza izango zara. Noizbait beharko balitz bere laborategian sartu eta bere lana egin ahal izango zenuke. Pentsa daiteke gutxienez handikeria honetan erortzen direla sekta moderno guztien partaideak. Guztiak Arkimede dira, bakoitza bere erara, eta errazago zaie mundua sortzea aldatzea baino.

Labur esanda, badira arrazoiak gu hain azaleko eta hain dogmatiko izan gaitezen filosofian. Nagiegi eta ematuegi gara eta baita ere koldar samarrak zalantza egiten ausartzeko. Bide erabakitzailea da gure ohiturei ongien datorkiena. Gure hobenei nola gure sineskeriei egokitzen zaio. Gogoko zaigun guztia bermatuko du. Erlijioaren aldeko hipotesiari lotzen bagatzaizkio -gure fedea berari menperatuz- arreta eta sineskeria handia dugu hipotesi hori ez indargabetzeko. Gure moral maltzurragatik erlijiotik urruntzen bagara gauza bera gertatzen da: berdin gara zalantzak egitearen beldur. Oso seguru egon behar dugu esateko: "ezin da horrela izan" edota "hori frogagarria da, bestela nork daki ezer?"; eta ezagutzea amore ematea da"

Beraz, dena jakin nahi izango dugu baina ezer aztertzeke lana hartu gabe. Filosofia guztien artetik, beraz, ezatseginena honela agertuko zaigu: ez da oinarrituko ezarritako hipotesietan; ez digu aurkeztuko batere eskema lausengarririk; beti hitz egingo du gertakortasunei buruz edo azterketari edo ikerketari buruz, eta kontu izango du ez inposatua eta ez engainatua izateko. Gazteria disziplina akademiko honetan trebatua izan ohi zen lehenago: ariketetarako leku publiko bat izatea ez zen zaldiketaren eta arte militarren zerbait berezia, baizik eta filosofiak ere bazituen bere lehiatzaile ospetsuak. Arrazoimenak eta zentzuak bazuten euren akademia, eta auzitan jartzen baziren ez zen era formal hutsean, mundutik at, baizik eta nabarmenki, familia onenekoan ahotik eta dotorezia handiko ariketa bailitzan. Gizonik handienak ez ziren lotsatzen horretaz iharduteaz, eta horri ematen zitzaizkion arazo publikoen ardurak libre uzten zien astian, garai eta lanbide gorenenetan, eta euren bizitzaren azken orduetan. Hortik dator elkarriketaren bidea, eztabaida barea eta arrazoiketara; gure garaiko solasetan hain bakan agertzen direnak.

Kontsidera ezazu, zuk bera azaltzeko aukeratu duzun argipean, Palemon, zer frogatu duen gure koadroak eta zein itxura izango duen. Nork parekatuko du bestela filosofia gure garaiko pozkeria, zentzu eta umorearekin? Dena dela, poztuko naiz hau guztia zure probetxurako baldin bada. Egitasmoa zurea da. Zuk parekatu duzu filosofia hain era desorekatuan. Zure gainean uzten dut lan honen arrakastaren erantzukizuna; nik babesik gabeko lan honi ekingo diot, nire patu gaixoak eta zuk izendatu didazuena. Eta eginbehar honetan oso era poetikoan hitz egitera behartuta nagoenez, ez naiz ia ausartu ere egingo Musen laguntza eskatzera.

II. Atala

"Oi gizadiaren egoera dohakabea! Zoritxarreko natura hori, handia izan zen zure errua zure sorkaririk handiena zertzerakoan! Nondik sortu zen ezbeharreko ahulezia hau? Zein asturu edo halabehear salatu behar dugu? Poetei egin behar ote diegu kasu,

Prometeoren tragedia abesten dutenean? Berak, zerutar sua ohostu eta gizakien bustin arruntaz jantzita, zeruko nahiari iseka egin zion, eta gizakiari hilezkorren antza eman zion; horrela hilkor dohakabeari kaltea ekarriz, eta halaber beste gauza guztiei ere."

Zer deritzozu, Palemon, orain berriro pentsatu behar dugun aldarrikapen honi? Ahaztu al duzu (gauza guztiek atseginak ematen zuten egun batean, eta gizadia ere inoiz baino ederrago agertzen zenean) gizadiari eraso egin zeniola era horretako ahalegin erromantiko batean?

Baina ez zinen gatazkatu kreaio osoarekin: ez zenuen edertasun oro erdeinatzen. Zuregan zirrara sorraraz zezaketen eguzkia ezkutatzear sortzen den zelai berdeak, ikuspegi urrunek, ortzemuga urreztatutak eta zeru purpuraren xarmak. Utziko zenidan, Palemon, gauza hauek guztiak miresten, baina, era batera, ez zenuke onartuko nik hitz egitea gure giza izaerari dagozkion edertasunez, nahiz eta guretzako hurbilagoak diren, eta, nire ustez, gure garaiko gizakien mirespena errazago lortuko duten. Alabaina, zure zorroztasunak ezingo ninduke isilarazi gai honetaz. Edertasunaren aldeko kausa defendatzen jarraituko nuen, eta giza edertasunaren xarmak naturazko beste edozein edertasun guztien gainetik jarriko nituzke. Eta oposaketa honetaz baliatuz abantaila hartu nahi izango bazenu, eta frogatu nahiko bazenu nik miresten dudan horretan ezer gutxi dagoela naturaz eta asko arteaz, nik ahalik eta defentsarik onena egingo nuke edertasunaren alde, eta horri eutsiko nion aurrean emakume eder bat nuen artean.

Zure poesiarako zaletasuna kontutuan izanik, asko harritu ninduen nola handitzen zen zuregan poeta modernoekiko eta idazle adeitsuekiko erdeinua; hauek aipatzen nizkizun nik sexu xarmantaren eta bere eskubideen alde, antzinako beste edozein baino jakitunagotzat hartzen nituelako. Oraingo garaietako zenbatek oharrarazi du adeitasuna gauza moderno dela eta zuk ere onartu egin zenuen hori benetan egia dela. "Bai, baliteke horrela izatea -pentsatu zenuen zuk- eta honek ez ditu antzinakoak desohoratzen, ondoegi ezagutzen baitzuten hauek egia eta natura asmaketa harrigarri hori onartzeko"

Alferrikakoa zen, beraz, nik ezkutu hau hartzea nire defentsan. Ez nion nire helburuari inongo mesederik egingo, era erromantiko honetan hitz egingo banu emakume xarmanten alde eta euren onurarako, eta eskuarki esaten diren gauzak aipatuko banitu. Adeitasunaren gordeleku bera eraso zenuen; ohorearen gaia irrigarri utzi zenuen bere sentipen atseginak eta bere zeremonial arau guztiak gutxietsiz. Guk gogokoen genituen nobelak, lan gozo eta maitatu horiek, gehienak sexu xarmantari zor dizkiogunak, haiek ere kondenatu egin zenituen faltsu, itxuragabeko eta gotikoak bailiran; naturatik kanpoko eta zalduneria erratuaren ondakinetatik sortuak izango balira bezala. Adeitasunaren misterioak zaldun adoretzuaren ideia ginetik zeuden; emakume xarmantak arma-ausardien lekuko ziren, eta nolabait parte hartzaile ere; eta gudu eta liskar arazoetan sartzen ziren; eta lantzen indarrez eskuratuak ohi ziren. Halako garaian ez zen guztiz zentzugabea, zure ustez, emakume xarmantak gorazarretu eta adoratzear, zentzuaren eta ohituren eredu bihurtzea, eta gizadia euren legee menperatzea. Baina erlijio agintariak emakume sainduak adoratzeko ez dituzten herri batean, zentzugabea hala nola profanoa izango litzateke sexua jainkotzea, emakumea maila goren batera altxatzea -naturak baimentzen duena baino gorago- eta emakumeak tratatzea begiramendu desagoki batekin, honek emango liekeelarik kexatzeko aitzakiarik handiena maitasunaren modu natural baten ikuspegitik.

"Moralaren aldetik harrigarriena zen -zuk esan zenuenez- ikustea izaera koartelari harro honek munduan ezarri zuen lizunkeria". Ez zenuen ulertzen zer zentzurekin trata zitezkeen emakume guztiak era lausengarri honetan, ez baziren gizon guztiak emakume ororen jabe egiten, eta emakume eder bakoitzari ez bazitzaion irakasten

mundu guztiak haren gain eskubidea zuela; edertasuna ezin zitzaioa gizon bakar bati eman jainkozkoezia eta eragin handiegiko gauza zelako.

Bien bitartean, berandutu egin zela eta, gure lagunak joaten hasi ziren; "Beau-Monde" delakoa, hain modu zorrotzean maiseatu zenuena, urrundu egin zen arin. Ohartu nintzen zuretzat atseginena hurbiltzen ari ziren gaueko astroak zirela. Izan ere orduantxe hasi zinen hitz egiten poztasun handiarekin gauza naturalez eta baita ere edertasunaren maila guztiez, bakarrik gizakia utzita alde batera. Ez nuen ordura arte sekula entzun deskribapen finagorik zeruko argi iturriez, planeten zirkuluek eta euren sateliteez. Eta zuk ez zenituen abegi nahi argi lurtar eder hauek gu sartu berriak ginen zirkuluetan; zuk, Palemon -itxuraz behintzat-, lehen antzezleku horren harrotasuna gutxiesten zenuen eta beste honi begiratzen hasi zinen sorgorturik, eta mundu ezezagunei buruzko alor filosofiko berri honetan nagusitu egin zinen. Orduan, zure irudimenaren lehen leinurua ia guztiz ahitu zenean, bultzatu egin zintudan gogoeta egitera kreazioaren beste aldeari buruz, zuri ere zegokizun giza izaerari buruz alegia. Baina gai honekiko erakusten zenuen ikusezinagatik edonork pentsa zezakeen Timon edo giza-gorrotatzaile hutsa zinela.

"Benetan uste al duzu, oi Filokle -esan zenuen erabat suminduta eta grina antzarekin-, benetan pentsatzen al duzu ez nuela giza eraspentak sentitzeko behar den gizatasuna izango, ni gizakia izanik eta nire izaeraz jabetzen naizenez? Ni bezalakoentzat naturala dena sentitzen dudanez, uste al duzu ez nintzela arduratuko euren kezkek eta aiherga izango nintzela euren eragina duenarekiko edo eurei benetan dagokienarekiko? Hain gutxi maite al dut nire herria? Ala uste al duzu hain lagun eskasa naizela? Zer dira, bada, giza harremanak guzti hori baino? Zer izango lirateke adiskidetasun pribatuaren arteko loturak gizatasunarekiko lotura beharrezkoa izango ez balitz? Egongo al litzateke naturan lotura bat bakarra lehenago gizatasunarekiko hori egongo ez balitz? Oi Filokle, sinetsiezadazu esaten dudanean guzti hori sentitzen dudala eta bere indarra nire barruan igartzen dudala. Ez pentsa nire katea hori nik nahita hautsiko dudarik. Nik giza era hau izan eta giza bihotz hau daramadan artean ez nazazu kontsideratu hain eznaturala: maitasuna, gupida, atsegintasuna errefusatzeko edo gizadiarekiko adiskidetasuna galtzeko. Baina zenbat tradizio dagoen, nolako nahasketa, zein ustela den dena! Konturatu al zara zein baketsu ematen zuen leku honek ere oraintxe jende algaratsuz beteta zegoen arren? Zein adeitasun dagoen jendaurrean gaudenean! Zein harmonia gortetan eta gorte lekuetan! Zein poza azaltzen den aurpegi guztietan! Zein gizakoia eta sotila den gehiengoaren portaera eta tratua! Nork ez luke pentsatuko gure lur hau paradisua dela gizadia osotik gu bakarrik ikusiko bagintu? Zein atzeritarrek (eman dezagun planeta hurbil bateko biztanle batek), hona etorrita, pentsatuko luke moztararen azpian dagoenari buruz gauzen kanpoko azala aztertuko balu? Baina egon dadila apur bat. Emaiozue astia ikuspegi hurbilago batera heltzeko. Taldeak desegiten direnean jarraituko balie gizakiei euren bakarlekuetaraino itxura berri batekin ikusi ahal izango litzuke. Hemen begiratu ahal izango litzuke ministeritzako gizon handi horiek -ordu bete lehenago hain adiskide ematen zutenak- elkarren ondamenarako azpilanean maltzurki, estatuaren hondamena ere dakartelarik, hau euren irritsaren ordaina izango delarik. Eta baita ere ikus ditzake maila apalagokoak, beste irritsik ez dutenez, maitasunaren bila, besterik ez. Baina, Filokle, nork pentsatuko luke halakorik?"

Hitz hauek entzunda nire buruarintasuna eta ergelkeria azaldu nuen, eta farre egin nuen ozenki. Nekez barkatuko zenidan kontatuko ez banizu zein izan zen farrearen benetazko arrazoiak. Ez zen izan zuk esan zenuenagatik. Baizik eta bururatu nuelako arrazoi berezi batek bultzatu zintuela, handinahiak aipatu ondoren, grina apalagoko jendeari erasotzera. Hasieran erabat malenkoniatsu ikusi zintudan, baina gero atera nuen maiteminduta zeundela eta zoritxarreko amodio horrek emango zizun arrazoiak

infideltasunaz kexatzeko. "Honek bultzatu du Palemon horrela pentsatzera -bururatu zitzaidan niri-. Horregatik da mundua hain tristea! Hemen daude berak deitoratzen dituen ustelkeria eta desordenak."

Nire pozkario zakarragatik barkamena eskatu nizun, nahiz eta horrek bere gauza ona ekarri zuen; hain zuzen zure aldartea aldatzea, eta ondoren arrazoiketa orokor eta bare bat sortu zen berez gaitzaren izaera eta zergatiari buruz: zer gertakizunen bidez etorri zen mundura, zer halabeharrez, zer beharkizun gaitzez, zer nahiez edo oniritziz? Behin etorrita iraun beharko ote du? Zure juzgamen zorrotz eta sarkorreko norbaitek, nire ustez, gogor ekingo lioke ikerketa honi, pentsalari arinak, aldiz, azkar gainditutzat emango lukeelarik. Eta honek ia ohartu gabe naturaren kritika zorrotz batera garamatza. Izan ere zuk zentzugabekeria ugarirengatik salatu zenuen natura, eta gizadiaren egoera bereziaren erruduntzat hartu zenuen.

Limurtu nahi izan ninduzun naturaz era orekatuagoan pentsatzera eta bere akatsak piska bat hobeto neurtzera. Nire iritziz, oster, arazoa ez zetzan alderdi bakar batean, zuk jartzen zenuen bezala, baizik eta gauza guztiek zeukaten euren desagokitasuna neurriren batean. Plazerra eta oinazea, edertasuna eta itxuragabezia, ona eta gaitza alde guztietan elkarrekin lotuta agertzen zitzaizkidan; eta denak elkarrekin, nire ustez, nahasmen eder bat eratzen zuten, oro har nahiko atsegina. Gauza bera gertatzen zen -horrela bururatzen zitzaidan- oihal aberats batzuetan; loreak eta barrena era xelebrea nahasten dira eta araugabeko lan horrekin eta kolore ezarmoniatsuekin ereduan zakarra ematen duenak oso naturala eta egokia ematen du behin moldatua.

Baina, hala ere, oraindik zeureari eusten zenion. Ez zegoen aitzakiarik gizadiaren (krezioaren zati horren) huts eta akatsentzako; gainerako guztia zuzena, akasgabea, izan arren. Ekaitz eta erauntsiek euren edertasuna zuten, zure iritziz, ez baziren giza bular-bihotzean sortzen zirenak. Bakarrik hilkorren arraza uher honegatik zeunden natura salatzeko prest. Eta honela jakin nuen zergatik Prometeoren historiak ikaratu zintuen hainbeste. Horrelako sortzaile bat nahi zenuen gizadiarentzako: historia hori jainkotasun modernoan oinarriturik baieztatua aurkitzeko nahiak tentatu zintuen; horrela, gizalan nekezei legokiekeen indar gorenak argituz, libre izango zinateke haren aurka gaitzesanetan iharduteko urrikigabekeriari ibili gabe.

"Baina hau -esan nuen nik- antzinako poeta erlijiosoen ihesbidea besterik ez zen. Erraza zen edozein bainari Prometeo batekin erantzutea; esaterako, zergatik zuen gizakiak jatorriz halako eromena edo gaiztakeria? Zergatik halako harrokeria, halako irritsa eta gurari xelebrea? Zergatik etorri zitzairen bera eta bere ondokoei hainbeste izurrite eta madarikazio? Prometeo izan zen guzti honen zergatia. Artisau moldatzaileak, bere zoritxarreko eskuarekin, dena argitzeko balio zuen. Bere asmazioa izan zen -zioten poetek- eta bera da arduraduna. Jokoa irabazitzat ematen zuten urrats bakarra emanez gero eta gaitzaren zergatia urrutiagotuz. Jendeak galdera bat egiten bazuen ipuina kontatzen zieten eta pozik aldentzen ziren. Bakarrik filosofo bakan batzuk -hala uste zuten eurek- izango ziren nahiko sarkinak areago joateko eta bigarren galdera bat egiteko."

"Eta, egia esan -jarraitu nuen nik- ezin da imajinatu zein baliagarria den ipuin bat haurrak ez diren zenbat dibertitzeko; askoz errazago ordaintzen baita dirupaperarekin ontzako urrearekin baino. Ez diegu, bada, horrela farre egin behar indiar filosofoei nola eusten den mundu eskerga hau galderari erantzuteko -euren herriko jendea lasaitzeko- elefante baten gainean zegoela ziotenean. Eta nola eusten da elefantea? Zuhurra galdera! Baina ez da erantzunezina izango. Puntu honetan gaitzetsi beharko genituzke indiar filosofook. Elefantearekin nahiko izan beharko lukete areago joan gabe. Baina dortoka zeukaten gordeta, bere bizkarra zabala baita euren ustez: eta horrela arazoa okerrago gertatzen da."

"Prometeoren alegia paganoak -esan nizan- oso antz handia zuen indiar honekin: alde bakarra zen mitologo pagano jakitsuak ez zirela lehen urrats hau baino haruntzago joaten. Nahiko zen Prometeo bakar bat Joverengandik zama hartzeko. Jove ikusle hutsa bihurtuko zen. Zirudienez, berak neutrala izatea erabakiko zuen, eta ikusi nahiko zuen zer ateratzen zen esperimentu nabarmengarri honetatik, nola jokatu ote zuen gizamoldatzaile ausart horrek, eta zein izango zen bere azpijokoaren arrakasta. Kontakizun bikaina jende pagano arrunta asetzeko. Baina, nola liserituko luke hori filosofo batek? Izan ere, honek zera ihardetsiko luke: ea jainkoak Prometeoren kreazioa eragozteko gauza izango ziren ala ez. Gauza izango balira, eurak izango lirateke ondorioen erantzule; gauza izango ez balira ez ziren inola ere jainko izango eta, beraz, mugatuak eta zerbaiten menpeko izango lirateke. Eta edozein gauza adierazi nahi dela Prometeo izenarekin -bai halabeharra, bai patua, bai izaera aldakor bat, bai deabru gaizto bat- berdin izango litzateke kasu horiek guztietan ahalguztiaeren mugapena."

Zuk ere aitortu zenuen ez zela zuhur, ez zuzena kreazioarena bezain arriskutsuak ziren arazoak uztea aurrikuspenik eta aginterik gabekoen eskuetan. Baina aurrikuspenari eusten zenion. Onartzen zenuen indar kreatzaileek ezagutzen zituztela ondorioak euren lanari ekin aurretik, eta, hala ere, ukatzen zenuen ondorio horiei ekidin baliote ezer hobe aterako zenik. "Gizadiari edozein gauza gertatu ahal bazitzaion ere, hobe zen asmoa burutua izatea, nahiz eta kreazio hori oso latza gertatu giza arrazaren gehiengoari. Ezinezkoa baitzen -hala zeneritzon- zeruak ekitea ez bazen onari begira. Eta giza miseria eta gaitz honetatik nolabaiteko ontasuna sortu beharko zen zalantzarik gabe; ontasun honek dena orekatuko zuen eta gaitz guztien ordaina izango zen."

Benetan harritzen ninduen nola ateratzen ote zuen nik aitorkuntza hau zuregandik: baina piska bat beranduxeago berarekin kezkatsu ikusi zintudan. Zeren hemen zure argudiapenak zure aurka jarri baintuen, eta giza izaeraren bilaukeria eta ustelkeria guztiak nabarmendu nituelarik (zuk piska bat lehenxeago egin zenuen bezala), eskatu nizan esateko zein izan zitekeen hortik sortzen zen abantaila edo ontasuna, edo zein gorentasun edo edertasun etor zitekeen bizitza ondoan zuk zeuk hain ondo marraztu zenituen irudi tragiko horietatik. Eta baita ere eskatu nizan esateko ez ote genuen beharrezkoa izango fede filosofiko oso sendoa, sinesteko zuk agertzen zenituen gune goibel horiek koadro bikain baten ezinbesteko itzalak zirela, kreazioaren edertasunerako beharrezkoak gainera; ala, bestela, pentsatzen ote zenuen honako araua: "egin ezazu gaitza, bere ondoren onak etorri beharko du eta", egokia izango zela zerurako baina ez zela onargarria gizadiarentzako.

"Honek -esan nuen- gogorazten dizkit egungo Prometeo berriaren manierak. Era askotako zenbat gauza egiten dituzte gure egoitza lurtar hauetan. Gaixotasunak eta kalteak sortzeko gauza izango lirateke, ondoren dena sendatu eta birkonpontzeko. Baina, hori al da zeruaren jokabidea? Bihurtuko al ditugu jainkoa eta natura bata halako petrikilo eta bestea halako gaixo? Hau al zen naturaren izaera gaixotiaeren arrazoia? Bestela, nola gaixotu eta galduko da (errugabe koitadua)? Osasuntsua ote zen jatorrian, edo osasuntsu sortua, eta horrela jarraitu beharko ote du orain ere? Ez zen jainkoen ohorerako izango natura akastun uztea, edota konpontzeko gaitza izango litzatekeen akats batekin, horrela jainkoak euren erruen pairatzaile bihurtuz."

Homero ekarri nahi izan nuen Joveren arazo ugarien lekuko izan zedin, eta baita ere Sarpedonen heriotzaren lekuko egin nahi izan nuen, hala nola zorigaitzoko ahizpek zeruan sorrarazitako mukerraldiena. Baina jabetu nintzen ihardunaldi hau ez zenuela batere gogoko. Banuen, jadanik, nire eszeptizismorako joera agertua garbiro. Eta puntu honetan erlijioa jarri zenidan eragozpen bezala, eta une bat lehenago adeitasunari buruz defendatu nuen jarrera ere bota zenidan aurpegira. Bi eragozpenok elkarrekin lotuta zeuden nire aurka egin zenuen salaketan, zeren ikusi baitzenuen ez nuela

konpromezurik hartzen: prest nengoela une batean emakume xarmanten aurka hitz egiteko, lehenxeago euren kausa eta maitaleen moralak defendatzeko prest egon nintzen bezalaxe. Nire ohizko jokabidea zen hau -zenioen- eztabaida guztietan: berdin nituen gogoko alde bateko arrazoiak nola bestekoak; ez nintzen kezkatzen inoiz argudiapen baten arrakastaz, baizik eta farre egiten nion hartzen zuen edozein bideri; eta are norbait konbentzitzen banuen ere, ez zuen ematen inoiz ni neu konbentzituta nengoenik.

Onartu nizun, Palemon, nahiko egia zela zure salakizuna. Gauza guztien gainetik erosotasuna nuen maite, eta filosofo guztien artetik nahiago nituen eurentzat erosoena zen eran arrazoitzen zutenak eta -zuk onartu zenuenez- ez zirenak inoiz haserretzen, ez aztoratzen. Horrela egiten zuten eszeptikoek, eta filosofia mota hau iruditzen zitzaidan adimenarentzako ariketarik arinena, atseginena eta ederrena. Beste motakoa neketsua eta gaitza zen nire ustez; beti bide baten mugei jarraitu beharra; beti helmuga batera zuzendu beharra; azken finean gizakiek, ahal iritzira, "egia" deitu dutenari lotu beharra, nahiz eta, itxura osoz, oso gauza egongaitza eta bereizteko zaila den. Aldiz, nire bideak ez zuen inor zauritzen, ni nintzen beti etsitzen zuen lehena, eta erlijio kontutan ni nengoen doktrina profano eta okerretatik urrutiena. Ezingo nuen inoiz ausardia izan nire gainetik zeuden buru izpiritual jakintsuen aurka joateko. Ez zegoen beste inor bere buruaz ni baino gutxiago fidatuko zena. Ez nuen nik arrazoia fedearen gainetik goratzen eta ez nuen asko intxistitzen dogmatikoek "frogapena" deitzen duten horretan, ezta ere ez nintzen ausartzen erlijioaren misterioen aurka joaten. "Eta -jarraitu nuen nik- zuri erakus diezazudan zein ezinezko den gure motako gizakientzat fede orokor eta aurrezarritik aldentzea har ezazu, faborez, honako hau kontutan: besteek erlijio arazoetan ikusi nahi dutenean, euren begiekin, zer den eurentzat egokiena eta onena, guk, gure aldetik, gure aitzindarien begiekin baino ez dugu ikusi nahi. Eta ez gara ausartzen aitzindari horiek epaitzen, haatik, gure nagusiek ezarri digutenez, haiei menperatzen gatzazkie. Laburbilduz, zuek, razionalistak zaretenok eta gauza guztietan arrazoiaren eskutik zabiltzatenok, dena ezagutu nahi duzue, baina, artean, oso gauza gutxi edo ezer ez duzue sinesten: guk gure aldetik ez dugu ezer ezagutzen eta dena sinetsi egiten dugu."

Hemen bukatu nuen nik, eta zuk ihardespene bezala zera besterik ez zenidan erantzun hotz-hotz: ea nire eszeptizismo fin horrekin ez ote nuen, argudiapenetan egiten nuena baino, bereizketa handiagorik egingo, ekintzei zegokienez, zintasun eta zintasun ezaren artean, egia eta faltsutasunaren artean, zuzena eta okerraren artean.

Ez nintzen ausartu galdegiten ea nora joan nahi zenuen zure galderarekin. Izutzen ninduen hori argi eta garbi ikusteak; eta, jende finarekin izandako elkarriketa arin batzuetan ikasi nuen hizkera nahasi hau zela eta, aukera eman nizun ni eszeptizismo motarik okerrenaren aldekoa kontsidera nintzazun; ezeren aurrean gelditzen ez direnetakoa, moral hastapen guztiak eraisten dituzten horietako.

"Barka iezadazu on Palemon -esan nuen nik-; irainduta zaude, badakit, ez zaizu arrazoirik falta. Baina nola saia ninteke orekatzen nire jokabide eszeptiko galdua, orain arte ukatu izan dudana jarrera baietsiz, horretarako pribilegio eszeptiko batez baliaturik? Ez bekizu burutik pasa hain irrika handia dudarik erlijio errebelatua edo kristau fedearen misterio sainduak defendatzen ausartzeko. Ez nago halako helburua betetzeko dohaitua eta gaia profanatu egingo nuke. Filosofiaz baino ez dut hitz egiten, eta nire asmo bakarra da beraz baliatzea ateismoaren argudiapen nagusienei aurre egiteko eta teismoaren sisteman astintzen saiatu naizena birrezartzeko."

"Zure asmoek -esan zenuen- zure izaerarekin adiskideratzen naute berriro, horren itxaropena galtzen hasita nengoen arren. Teismoa errebelazioaren zentzu hutsean hartuez gero, bere aurkako edo teistak deitzen direnen aurkako naiz; baina, hala ere, kontsideratzen dut, zentzu hertsia batean, teismoa dela gauza guztien erroa eta kristau

finia izateko beharrezkoa dela lehenengo teista ona izatea. Teismoa bakarrik kontrajarri ahal baitzaio politeismoari eta ateismoari. Eta jasanezina egiten zait, gainera, entzuten dudanean "teista" izena baliagabetua eta kristautasunari oposatua erabiltzen. Emango luke gure erlijioa magia moduko bat litzatekeela, izaki bakun eta goren baten sinesmenean oinarrituko ez zena; edota honelako izaki batenganako sinesmen arrazoitsu eta sendoa (filosofian oinarriturikoa) gainerako dogmak sinesteko abiapuntu desegokia izango litzatekeela. Aitzakia ederra errebelazioaz ez sinesteko joera duten horientzat, edo harrokeriagatik horrelako askatasuna hartzen dutenentzat.

"Baina esaidazu -jarraitu zenuen- ea serioski eta zinez hitz egiten duzun, honen alde aurrerapausoren bat emateko saiatzen ari zarenean, erlijio ororentzat oinarritzkoa dela eta; ala zure asmo bakarra arazoarekin dibertitzea den, orain arte egin duzun bezala. Berdin da zeintzuk diren zure iritziak, Filokle, erabakia dut horiek azaltzera behartuko zaitudala. Ezin izango duzu aitzakia bezala jarri ordua edo lekua desegokiak direla hain arazo larria aztertzeke. Ikuskizun ñabarra ezabatu da egunarekin. Aspaldi egin dugu alde landatik. Eta honelako gau baten maiestate arranditsuak guztiz egokia izan behar du gogoetarik sakonenerako, edo ihardunaldirik serioenerako."

Honela jarraitu zenuen ni zirikatzen, azkenean, ezinbestez, honako entusiasmo filosofiko oldartsu honetara bultzatu ninduzularik.

III. Atala

"Ohar zaitezke, beraz -esan nuen aurpegi zorrotza jarritz- serioa ere izan naitekeela, eta balitekeela behin eta betirako seriotzeko bidean egotea ni. Agian, zuk pixka bat lehenago erakutsi duzun seriotasun handiegiak eraman nau beste muturrera, zure aldarte malenkoniatsuari aurre egiteko, baina orain iritzi zuzenagoa dut malenkonia horri buruz, eta seguru nago zuk eman nahi izan diozun kutsu alaitsuaren arrazoiak ez direla inondik ere nik suposatu ditudan zergati fantastiko horiek. Maitasuna dago sakonean, zalantzarik gabe, baina edertasun arruntek iradokitzen dutena baino maitasun sotilagoa da."

Orduan ahotsa altxatzen hasi nintzen irakatsi zenidan hizkera arranditsua imitatuz. "Badakit zu nolakoa zaren -jarraitu nuen-. Edertasunaren maila eta mota guztietan, hala nola bere era banakoetan ondo ikasia eta jantzia izanik, orokorrenaren mailara altxatzen zara eta mota honetan gorena dena ikertzen duzu, bihotz zabalagoarekin eta oparo. Ez aurpegi eder baten marrei, ez giza gorputz baten proportzio harmoniatsuei menperatuta; bizitza bera behatzen duzu eta besarkatzen duzun adimenak gaiari distira gaineratzen dio eta maitagarri bihurtzen du.

"Baina halako edertasun hutsaz gozatzea ez da nahikoa zure arima gorazalea asetzeko. Halako arimak edertasun ugariak nola konbina daitezkeen ikertuko du eta baita ere elkarketa horretatik nola sortu gizarte eder bat. Erkidetasunak, adiskidetasunak, harremanak eta eginbeharrak behatuko ditu eta aztertuko du nola osatuko den harmonia orokorra adimen banakoen harmonian oinarrituz eta nola ezarriko den denon ontasuna.

"Baina gizarte bateko herriaren ontasunarekin ez ase, bere burua helburu sotilago bateruntz zuzenduko du, eta grina handiagoarekin bilatuko du gizadia osoaren ontasuna. Elkartasun eder honetan eta ontasunarekiko joera funtsatuko duten arrazoimen eta ordenan gustura aurkituko du bere burua. Legeak, konstituzioak, errito erlijioso eta zibilak, gizadia zakarra jendatu eta leunduko duen guztia, zientzia eta arteak, filosofia, morala, bertutea, giza eginbeharren egoera loratsua eta giza izaeraren perfekzioa: hauek guztiak dira bere ikusmira gozagarriak, bera erakarriko duen edertasunaren lilura.

"Ahalegin honetan badirau ere (hain handia baita bere ordenarekiko eta perfekzioarekiko joera) ez da horretan gelditzen, eta ez da asetzen zati baten edertasunarekin, baizik eta bere esku zabal emankorra luzatuz, denaren ontasuna bilatuko du eta, halaber, osotasunaren interesa eta aurrerakuntza. Bere jatorrizko herriari

eta aberri nagusienari leial izanik, bertan ordena eta perfekzioa bilatuko du, onena irrikatuko du, eta gobernu zuzen eta jakintsua espero.

"Adimen eskuzabala osotasunaren interesa segurtasunez ekarriko duen indar ongarria ahaleginduko da bilatzen, eta baita ere gauzen edertasuna eta ordena unibertsala funtsatuko duena; zeren adimen unibertsala egongo ez balitz alferrikakoa izango bailitzateke gobernu zuzen eta jakintsua itxarotea; eta horrelako adimen gorenik gabe, eta jainkozko ardura baten ezean, unibertso galdua amaigabeko ezbeharrak jasatera kondenatua izango bailitzateke.

"Hau da, Palemon, zure arimaren eginbeharra eta hau bere malenkonkia; bere ikusmira eragotziko duten hodeiak topatuko ditu alferrik ari denean edertasun gorenaren bila. Mamuak sortuko dira baina ez libiar desertuko horiek, baizik eta gizakiaren bihotz emankorrenetik datozenak, zeintzuk islada laidagarria zabaltzen duten naturan euren itxura izugarriarekin. Arima, horrela, inork laguntzen ez diolarik (horrela erabaki baita), eta, beraz, zentzugabeko lanean arituz, kondenatua izan ohi da, munduko gobernu salatzen da eta jainkotasuna hustu.

"Arrazoi ugari eman da argitzeko zergatik erratzen duen naturak eta zergatik sortzen den hain ezindua errurik gabeko esku batetik badator. Baina nik ukatzen dut erratzen duenik, eta, nire iritziz, zenbat eta ezjakinago eta maltzurrago ematen duen bere egintzatan orduan eta jakintsuago eta begiratuago da. Izan ere, gizakiak ez dira kexatzen munduaren ordenaz, eta ez dute gaitzesten gauzen itxura ikusten dutenean interes desberdinak nahasten direla eta elkar oztopatzen dutela, edo elkarren menpeko izaerak (mota desberdinekoak) kontrajartzen direla, edo euren eginkizun desberdinetan nagusienak apalena menperatzen duela. Haatik, munduaren edertasuna miresten badugu gauza nagusi eta menpekoen arteko ordenagatik izango da, mundua aurkakotasunean funtsatzen delarik eta oposatuetatik harmonia unibertsala ezarriko delarik.

"Gauza lurtarren maila desberdinen artean beharrezkoak dira, beraz, etsipena eta izaera desberdinen sakrifizioa eta elkarrekiko menpekotasuna. Landareek euren heriotzaz animaliak elikatuko dituzte eta animali gorputzek, ustelduta, lurra aberastuko dute berriro landareen mundua sorreraziz. Egazti eta piztiek intsektu ugariak suntsituko dituzte, haiek mota nagusiagokoak baitira, eta gizakiak hauek garaitu egingo ditu; eta gizakia ere, era berean, beste izaera batzuen aurrean makurtuko da eta bere itxura galdu egingo du gainerako gauza guztien legezko sakrifizioa eginaz. Eta elkarren artean hain gutxi nabarmentzen diren izaeretan -ia lehentasunik ez dagoelarik- interes desberdinen sakrifizioak hain zuzena ematen badu, nola ez da, bada, izango arrazoizkoagoa azpiko diren izaera guztiak munduaren izaera gorenari menperatuak izatea! Zu garraiatzen zaituen mundu honi menperatuak, Palemon!, are orain eguzkiaren argi motelduak konstelazio distiratsu hauei lekua uzten dienean eta sistema zabal honi begiratzea zilegitzen digunean.

"Lege hauek ez zaizkio menperatu behar gutxiago den ezeri. Orbita iraunkorrak orekan eta mugimendu zehatzean iraunarazten dituzten indar nagusiak ezin dira arduratu era iheskor bat edo animalia xume bat amildegitik salbatzeaz; azken honen egitura hauskorra, nahi hainbat zaindu arren, ondo azkar desegino bailitzateke berez. Inguruko airea, barreneko lurrinak, gure gaineko meteorak edo lur hau elikatzen edo babesten duen beste edozein gauzak bide naturala segitu behar du bere eginbeharrean; eta erakuntza desberdinak dena funtsatzen duen lur-globoaren erakuntza eta ohitura onari menperatu behar zaizkio.

"Ez gaitezen, bada, harritu sarritan animalia mota desberdinek, lurrikarak direla, ekaitzak direla, izurriteak direla, lur azpitik eta goitik etorritako suak direla, kalteak jasaten badituzte; eta ezta ere espezie oso batzuei ondarena badatorkie denei batera. Eta are gutxiago harritu behar dugu animalia bakar batzuk jaiotza-jaiotzatik

itxuragabetuak gertatzen badira (bai kanpotik jasotako erasoagatik, bai materia arrotz batek eragindako barne zauri batengatik), gaixotasunak sortzapenaren organoak erasotzen dituenetan eta haien zatiak zaurituak eta euren lan zehatzean eragotziak direnean. Bakarrik orduan ikus daitezke izaki itxuragabekoak: naturak lehen bezala egiten du lana, eta ez maltzurki ez oker, ez ahul ez ahalegin makalekin, baizik eta lehiakide nagusiago batek, eta natura zuzen menperatuko duen indar batek, indarberritua.

"Era berean, ez dugu harritu behar barne izaera ere (arima eta jitea) behin-behineko itxuragabetasun honekin elkartzen bada eta sarritan bere kide minarekin bat egiten badu. Harreman honen estutasuna kontutan izanik: nor harri daiteke jatorrian lohia, ustela eta bihurria den gorputz batetik halako arima bat sortzen bada? Edo nor harrituko da hain ahulak eta hain organo galduen menpeko diren gorputzak zentzumen gaixotuz eta adimen gaiztoaz hornituak badaude?"

"Hemen dago, bada, eskatu duzun irtenbidea eta hemendik datoz naturaren gainean eragiten duten akatsantzekoak. Beraz ez dago berezkoa eta ona dena baino. Ontasuna da nagusi, eta ustelkorra eta hilkorra den izaera orok, hilkortasun eta ustelketa horretatik, hobe den beste zerbaiteko izango du. Eta natura hoberean eta goren horrekin (ustelezina eta hilezkorra) batzen duen guztia ere."

Hitzok bukatu besterik ez nuen egin eta zuk, miretsirik, galdetu zenidan ea zer gertatu zitzaidan niri, bat-batean nire jitea aldatzeko, eta ea nola murgildu nintzen pentsamendu horietan -zeintzuk, zure ustez, nigan izan behar baitzuten euren funtsapena- gauza izan nendin halako eraspen nabarmenaz adierazteko.

"O Palemon! -esan nuen- zein zorioneko izango nintzatekeen aurkitu izan bazintut lehengo egunean landetatik itzultzeko momentuan, bertan lagun batekin egon ondoren. Honen solasak hainbeste ikaratu ninduen egun batean edo bitan, ezen irudituko zitzaizun mirari bat gertatu zela nirekin. Zuk pentsatuko zenuen benetan sendatuta nengoela nire eszeptizismotik, eta ez nintzela gehiago bide basati horretatik abiatuko hain gai serioetan ez besteetan."

"Benetan -esan zenuen- gogoko izan nezakeen une hartan zurekin topo egin izan banu, edo, bestela, zure lagunak sorrarazitako zirrara on eta serioek orain arte iraun izan balute zuregan etenik gabe."

"Nolanahi ere, Palemon, -ihardetsi nizun- ez zeuden zirrara haiek hainbestearaino galduta, eta, ikusi zenuen bezala, behar izanez gero, erraz berpiztu nitzakeen berriro, beldur izango ez banintz."

"Beldur! -esan zenuen- baina noren beldur, faborez, nirea ala zurea?"

"Biena -erantzun nuen nik-. Zeren nire eszeptizismoaz erabat sendatuta banengoen, entusiasmo baten bidez zen, nire iritzirako okerragoa zena. Zuk ez zenuen sekula ezagutu entusiasia atseginagorik."

"Nire laguna izango balitz -esan zenuen- nekez tratatuko nuen hain begirune gutxirekin. Eta ez nuen entusiasmotzat joko zuk hain arin horrela izendatu duzuna. Susmoa dut bera iraintzen duzula. Eta ez naiz pozik geldituko entzun arte zergatik deritzozun elkarriketa hari entusiastikoa."

"Aitortu behar dut -esan nuen- entusiasia atseginago honek ez duela izaera arruntekoaren kutsu basatia. Dena zen harengan leuna eta harmoniatsua. Bere egikerak gehiago du antza askotan liluratu zaituen antzinako poeten goialdiarekin, egungo fanatikoen jokabide zaputuz eta piztiarekin baino; gizaseme zurrin eta betoskodun hauek erlijioa gordetzen dute gaurko harropuz batek bere maitea bezala (horrela bere andereñoaren merituez eta bere buruaren agudeziaz oso iritzi zalantzarria ematen digutelarik), eta, era horretara, ez diote uzten beste inori eurek jauresten dutenari begiratzen eta ez dira arduratzen, gainera, maite hori egunargitan aztertzeaz. Baina

hemen ez zegoen ez engainorik ez itxurakeriarik -erantzungo nizun nik-. Dena zen gardena, irekia eta benetazkoa, natura bera bezala. Naturaz zegoen bera maiteminduta; naturari abesten zion; eta baten batez esan bazitekeen maitasun naturala zuela, nire lagun horretaz ere esan zitekeen gauza bera, hain liluratua baitzegoen bere bihotza. Baina maitasunaren gaia oso sotila bazen ere, eta berak sorrarazten zuen grina oso gorena izanik, hala ere askatasuna -nire iritziz- gauza guztiak baino sotilagoa zen. Eta ni, amodio kontu iraunkorretan sartu nahi izan ez dudana, ni neu -esan nizun- izan nintzen ikaratuena nire lagun gixajoa munduko entusiasta handiena bezala agerrarazteko gauza zen indar horren aurrean; entusiasta horien artetik izaera bihurrikoak kentzen baditugu. Baina zera zen berarengan berezia: bete-betean entusiasta bazen ere, ez zen inolaz ere fanatikoa. Dena entzuten zuen goxoki eta atseginez, eta jasaten ninduen bere pentsamendu guztiak ametszekotzat jotzen nituenean eta, eszeptikoa nintzenez, bere sistema guztiak zirpiltzen nituenean."

Hain gogoko izan zenuen izaera eta deskribapen hau ezen nekez onartuko zenuen honi guztiari amaiera eman niezaion. Ezinezko zen (ohartu nintzen horretaz) zu ase uztea ondo zehaztu gabe, bi egun hauetan, landan egindako erretiroan, nire lagunarekin eta nirekin gertatu zenetik garrantzitsuena. Behin eta berriro adierazi nizun: "ez zara ondo jabetzen grina filosofiko honen arriskuaz, eta ez dakizu ondo zer ekar diezaiokezun zure buruari, gero ez niri errua bota." Ni zegoeneko sartuegi nengoen arazoan, eta zuk zure arriskuaz gehiago bultzatu ninduzun.

Esango nizun edozein gauzak ez zizun ikararik txikiena sortzen. Baina gau hartan bertan aurrera jarraitu beharrean agindu nizun zure estimagatik idazle bihurtuko nintzela, eta bi egun filosofiko horien oroimenak idatziko nituela; azken egun honetan zure eta nire artean gertatutakotik hasita. Eta hori egin dut (ikus dezakezunez) nire kontakizunaren sarrera modura.

Ordurako, herrira berandu helduta -gure lagun guztiak baino ordu batzuk beranduago- nire etxe ondoan utzi ninduzun eta gabon esan genion elkarri.

BIGARREN ZATIA

Filoklek Palemoni

I. Atala

Gaitza irudituko zitzaidan halako egun baten ondoren, hurrengo goizean esnatu eta gero, kemena izatea bide filosofiko berari ekiteko, etenaldirik gabe eta era zorrotzago batean. Ez bainuen gozatzen jadanik lagun baten presentzia atseginaz. Zure solasa, ordura arte eutsi ninduen, bukatua zegoen. Bakarrik nengoen orain, nire ikasgelan bakarreratua, gogoeta nirez egitera behartuta, eta idazlea edo historialaria gai zailenaz arduratzean aurkitzen den egoera latzean.

Baina orduan, nire ustez, zeru faboragarria etorri zen niri laguntza ematera. Ametsak Joveren tronutik badatoz, Homerok dioenez, onartu beharko nuke egunsenti aldera amets lagungarri bat izan nuela, egia diotenetakoa, eta berak eman zidan ideia argi eta perfektua hain gogo handiz gogoratu nahi izan nuenaz.

Nire burua lurralde urrun batera garraiatua sentitu nuen, nekazal eszena arranditsu batera. Itsasotik ez oso urruti zegoen mendi bat zen, bere gailurra antzinako basoz hornitua eta bere oinean ibai bat eta ez oso jendeztatutako lautada: horren atzean itsasoa agertzen zen ikusmira hertsiz.

Lekua begiratu bezain laster, ohartu nintzen Teoklerekin landan hizketan egon nintzen bigarren eguneko leku ber bera zela. Begirada bat bota nuen nire ingurura, ea nire laguna aurkituko ote nuen, eta "Teokle!" deituz iratzarri nintzen. Baina hain sakona izan zen nire ametsaren zirrara, hain perfektua nigan nire lagunaz sortu zen ideia, bere hitzez eta izaeraz, ezen oraindik irudika bainezake nire burua iradokitzen filosofiko baten eragipean bailitzan; erromatar jakintsu hura bere Egeriak iradokitzen zuen bezala. Izan ere, zuzena zen nik espero nezan halako laguntza Teokleren eskutik, berak asko maite zituen eta musak, eta hauek, nik uste, oso maite zuten bera.

Dena dela, jatorrizko nekazal eszenara itzuliko naiz, jeinu heroiko horrengana; bera izan nuen gai sakon honi buruzko nire lehen pentsamenduen lagun eta gidaria. Lehen goizean aurkitu nuen bere mantuar musa maitearekin zelaietan zebilela; bere ohiturari jarraituz hara joana baitzen irakurtzera, bere etxean jakinarazi zidatenez. Ikusi ninduen momentuan bere liburua gorde zuen eta arin eta adiskidekor etorri zen nirekin elkartzera. Elkar besarkatu ondoren jakin nahi izan nuen zer ari zen irakurtzen eta galdegin nion ea zerbait sekretua ote zen, niretzako debekatua izango zena. Bere poeta erakutsi eta begirada atseginarekin esan zuen:

"Filokle, ez al zenuen espero liburu hau baino zerbait misteriotsuagoa?"

Nik onartu egin nuen, bere izaera kontutan hartuz, oso tankera kontenplarikoa iruditzen baitzitzaidan

"Eta uste al duzu -esan zuen- benetan goza daitekeela jainkozko poeta hauetaz kontenplaria izan gabe?"

"Egia esan -gaineratu nuen- ez dut inola pentsatu bat kontenplari bihurtu behar denik edo mundutik aldendu behar denik Virgilio edo Horatio irakurtzeko."

"Izendatu dituzu bi -esan zuen- nekez kontsidera daitezkeenak antzekoak, nahiz eta biak lagunak izan eta halaber poeta onak. Baina horiengana hurbilduz, zuk gogo onez egin duzun bezala, nahiko nuke esan zeniezadan ea badagoen, zure iritziz, jarrera berezirik eurak irakurri ahal izateko idatzi zuteneko tenore berarekin. Azken honi dagokionez seguru nago biak bat zetozela, bihotz-bihotzez, bakarreraketa maitatzean. Zuk kontenplari deritzozun bizimodu eta ohitura hori dela eta, prest baitzeuden alde batera uzteko abantaila handienak, plazerra eta gortearen faborea. Baina bakarreraketaren alde zerbait gehiago esatera ausartuko naiz: baldintza hau ez dela bakarrik beharrezkoa egile onentzat, baizik eta baita ere lagunarte onenarentzat. Ezin da gizarteaz ondo gozatu ez badago nolabaiteko ukaziorik eta pentsamendu bakartirik.

Dena bihurtzen da motel, aspergarri eta nekoso bakarreratze tarte batzuk gabe. Esaidazu, Filokle, ea ez duzun zure burua sarritan horrela aurkitu. Uste al duzu bere gogoz inoiz separatuko ez liratekeen maitaleak ulertuko dutela euren amodioaren arrazoa? Izango al dira lagun urguriak, zure ustez, beti elkarrengandik banandu gabe bizitzea aukeratuko dutenak? Zer gustu izan behar du munduak (adiskidetasun nahasi eta berezigabeko gure mundu honek) bakardade apur bat gabe? Zer gustu noizean behin urrats bat eman gabe bide zapaldutik kanpo, zarata eta itzalen zirkulu horretatik, zeinak behartzen baituen gizadia urratua atsegintasuna bilatzera edozein dibertsio negargarritan?"

"Zure arauera -esan nuen nik- ezingo litzateke egon zoriontasunik bizitzan. Zoriontasun oro oso agudo bukatzen da, eta nekoso bihurtuta beste zerbaiten bidez ezabatuko da eta azken hau beste zerbaitek ezabatuko du eta horrela beti. Baina, munduan ematen den beste zerbaiten erremedio edo ezabailerik baldin badago, seguru nago, oster, ez dagoela ezer bakardadearen ezabaile izango denik, eta berarentzat da beste ezerentzat baino beharrezkoagoa. Eta, beraz, ezin da ontasunik egon iraunkorra eta arauzkoa ez dena. Zoriontasuna bidetik kanpo dagoen zerbait da eta noraezean ibilita aurkitzen da."

"O Filokle -ihardetsi zuen berak- pozten naiz zu zoriontasunaren eta ontasunaren bila ikustean, noranahi ere zabiltzala. Bai; nahiz eta zalantza egiten duzun halako zerbait ba ote dagoen pentsatzean, arrazoitzen baduzu zerbait da, badago oraindik itxaropenik. Baina begira nola, ohartu gabe, hartu egin duzun jarrera bat. Zeren ontasun oro suntsitu baduzu, argudiatu duzularik ez dagoela ezer etengabe ontzat jo daitekeena zuk burura ditzakezun gauzetan, zera ezarri duzu dagoeneko arau bezala (eta oso zuzenki nire ustez): ezin dela ezer izan ona iraunkorra dena baino."

"Onartzen dut -esan nuen nik- ezagutzen dudan asetasun mundutar oro iraupegabea dela. Bera dakarten gauzak ez daudela inoiz geldi: eta ontasun bera, edozein gauza dela, umorearen eta zoriaren menpeko dela neurri berean. Zeren askotan halabeharrak alde batera utziko duena, ez baitu denborak utziko. Urteak, jite aldaketak, beste pentsaera batzuk, zaletasun desberdin bat, konpromiso berriak, bizimoduaren aldaketa, edo elkarrietzeta bat, hauetariko sinpleena zorigaitzoko da eta bera bakarrik da nahikoa gozamina suntsitzeko. Gaiak bat badirau ere, zaporea aldatzen da eta bizitza laburreko ontasuna hiltzen da. Baina pentsatzen dut nik nire artean ea adieraz zeniezadakeen bizitzan zerbait izango ez dena izaera aldakor horretakoa, eta lotuko ez zaion asetasunaren eta atsekabearen patu berdinari."

"Ikusten dut -ihardetsi zuen berak- ez dela nahikoa zu asetzeko ontasunaren nozio arrunta. Lor dezakezu eszpetiko bezala azaltzea beste inork zalantzarik egingo ez duen lekuan. Zeren ia denek dogmatikoki filosofatzen baitute arazo honetan. Denek ikuspegi positiboa hartzen dute hor: gure benetako ontasuna plazerra da."

"Gehiago aseko ninduke agian -esan nuen nik- horiek jakinaraziko baligute zein edo zer motatako plazerra aipatzen duten, eta adieraziko balute, behingoan, zein espezie eta mota berezikoa den beti bera iraungo lukeen plazerra eta edozein momentutan aukeratu ahal izango litzatekeena. Baina nahia eta plazerra sinonimoak direnean, gustatzen zaigun edozein gauzari "plazer" deritzogunean, eta bakarrik gustatzen zaiguna aukeratzen edo hobesten dugunean alferrikakoa izango da esatea: "plazerra da gure ontasuna" Zeren hori esatea ondoko hau esatea bezain zentzugabea baita: "aukeragarria iruditzen zaiguna hautatzen dugu" edo "plazerra aurkitzen dugu atsegin edo gogoko zaigunarekin". Galdera zera da: ea benetan plazerra lortzen dugun eta aukeratu beharko genukeen bezala aukeratzen dugun. Zeren haurrek tankera horretako plazerra hartzen badute bitxikeriekin edo euren zentzu urgurietan eragiten duen edozein gauzarekin, guk ezin dugu zinez eta bihotzez miretsi euren gozamina, edo ezta ere pentsatu eurak direla aparteko ontasun baten jabe. Alabaina, badakigu euren zentzuak gureak bezain

zorrotzak eta plazerrarekiko sentiberak direla. Gogoeta bera egin behar da animalia hutsei dagokienez, zeren sentipenaren bizitasun eta urguritasunaren aldetik gaintitzen baikaituzte horietako askok. Eta gizadiaren plazer lizun eta arrunt batzuei begira, beraietaz etengabe gozatu ahal balitz eta euren gozatzaileek estima handienez izango lituzketen arren, nik ez nieke atxekiko “zoriontasun” edo “ontasun” izenik.”

"Aipatu nahi ote duzu, bada -esan zuen-, berak gozatzen duenarekin asetzen denaren eta gustura dagoenaren sentipen zuzena eta esperientzia?"

"Bai, horrelaxe da -esan nuen nik (Teoklek ni plazerraren dogmatizatzaileen aurka ahalegiteko jarri zuen ardura berarekin)-. Zeren ba al da munduan sorkariren bat hain lizuna bere gozamina balioztatuko ez duena? Ez al du hori egiten sorkaririk bihurrienak, arrenkuratsuenak eta ernegatuena? Ez al dira gaiztakeria eta krudelkeria gozamenik gorenena izaera berezi bateko direnentzat? Ez al da gizaki batzuen nahirik gorenena zerrikerian bizitzea? Seguruena ez duzu nahi izango nik aipatzea gizaki batzuen sentipen mota desberdinak, euren plazer eta gozamen nagusienetarako erabiltzen dituztenak. Izan ere, zenbat gizakik gaixotasunak ere baliagarritzat jo ditu, eta pentsatu izan du merezi zutela, besterik ez bada sentipen gogaikarri bat arintzean aurkitzen den plazerragatik. Eta horiek badute antza taxugabeko epikurotar batzuekin, zeintzuk nahita sorrarazten baitzuten egarria eta gosea aurretik prestatutako eragingarriekin; eta betekada berri baterako lekua egiteko bazkalosterako okarazleak prestatzen zituzten, horrela, ahalik eta azkarren, berriro festa hasteko. Esan ohi da, badakit, gustuak desberdinak direla eta horietaz ez dela eztabaida egin behar. Eta gogoratzen dut esandakoari egokitzen zitzaien irudi bat eta horren antzeko esaera bat zekarrela azpian. Irudian gorotz apur batetik elikatzen ari zen euli bat aurkezten zen. Elikagaia oso bilaua bazen ere animaliaerentzako propioa gertatzen zen. Ez zegoen kasu horretan zentzugabekeriarik. Baina erakutsiko bazenit gizatxar kiten bat gauza bera egiten eta gozatzen; erakutsiko bazenit mozkorra bere gehiegikeria bakartiari emanda edo tiranoa bere krudeltasunaz baliatzen, esaera hori euren gainean zeukatela, nik nekez onartuko nuke bere gozamenaren egokitasuna; eta ezin dut ezta suposatuta ere negargarri lizun batek (arima doilor batekin eta munduko aberastasun handienak dituela) horrelako zerbaitez benetan goza dezakeenik."

"Hipotesi oker bat errefusatzeko erakutsi duzun kemenagatik -ihardetsi zuen Teoklek-burura daiteke baduzula zuk benetan hipotesi zuzen bat buruan, eta pentsatzen has gaitezke azken batean egon ahal dela ontasuna den gauzaren bat."

"Prest nago onartzeko -esan nuen nik- badagoela zerbait ontasunari gehiago hurbiltzen zaiona eta berarekin beste edozein gauzak baino antz handiagoa duena. Baina oraindik ikertzeko nago ontasuna zer den, eta gainera itxaron behar dut zuk gehiago irakasten didazun arte. Hau besterik ez dut ezagutzen: edo plazer guztiak onak dira, edo bakarrik batzuk. Denak onak badira, orduan zentzukortasun mota oro preziatua eta desiragarria da; bakar batzuk badira soilik, orduan ikertu behar dugu zein motatakoak, eta eriden behar dugu, ahal izanez gero, zerk bereizten duen plazer bat bestetik, eta zerk egiten duen bata aiherga, baliagabea, kaskarra, eta bestea baliagarria eta duina. Eta halako ezaugarri bat edo izaera bat lortzen badugu, bere bidez definitu beharko dugu ontasuna, eta ez plazer hutsaren bidez; hau oso handia izan daiteke, baina oso erdeinagarria ere. Eta ezingo du inork juzgatu berehalako sentipen baten balioa ez bada bere adimenaren egoera juzgatuz lehenago. Zeren guk adimenaren egoera batean zoriontasuntzat jotzen duguna, beste batean bestela estimatzen baita. Kontsideratu beharko da, beraz, zein egoera den zuzenena; nola iritsiko garen, segurtasunez, ongien bereiztea zilegituko digun ikuspuntura; eta nola lortu egoera inpartzial bat horrela juizio egokia eman ahal izateko."

"Oi Filokle -ihardetsi zuen berak- hori bada zure beneztako iritzia; litekeena bada zuk oraindik indarra izatea zure iritziari eusteko arazo honetan eta ikertzeko zer ezagutzen duen egiatan gizakirik umilenak; orduan, zure izaera egungo edozein eszeptikorena baino nobleagotzat jo behar da. Zu horien solaskidea eta ikaslea izan zara eta euren pentsaera ezagutzen duzu dagoeneko, eta, oker ez banago, nekez aurki daiteke inon jende zalapartatuagorik eta ona aukeratzeko orduan gogoeta gutxiago egiten duenik horiek baino. Beste nabarmentasun batzuen aurrean hainbeste ikerketa egiten duten arren, gero munduko engainatzaile handienaren nabarmentasuna (euren grinena) onartzeko gertu daude. Euren ustetan erlijioaren zenbait loturarekiko askatasuna lortu badute ere, suposatzen dute askatasun horretaz baliatzeko modurik beteena zera izango dela: euren nahiaren lehen bultzadari jarraitzea, eta onartzea gogoko duten edozein fantasia, agindu edo arau, hala nola ontasunari buruz aurrezarritako edozein iritzi edo auresuposapen. Horrela eurek izango duten pribilegioa beti dibertiturik bizitzea izango da; eta euren askatasuna izango da hautaketarik garrantzitsuenetan zerbaiten menpeko izatea. Nik uste dut zera esan daitekeela segurtasun osoarekin: benetan ezjakinik handiena dela pentsatzen duena badakiela oraindik aztertu gabe duena, eta arazorik larrienen hori ezartzen diona bere buruari nahiz eta ezer jakin ez. Askoz jakintsuagoa da ezjakina izanik bere ezjakintasunaz jabetzen dena. Baina modan dauden gizon bizkor hauekin zuzena izateko, aitortu behar da ez direla denak hain zentzugabeak ez dezaten igar, neurriren batean, euren itsutasuna eta aldrebeskeria. Zeren sarritan, euren iraganeko helburuez eta konpromisoez gogoeta egiten dutenean, badira gauza onartzeko ez dakitela bat etorriko diren euren buruarekin aurrerantzean bizi izago diren denbora guztian, eta ezta ere, plazerraren arloan, ez ote duten aukera desberdin bat egingo, euren fantasia, umorea edo grinak direla eta; horrela lehenago gozatu duten guztia errefusatuko lukete. Erosoa gogoeta!

"Adimenaren asetasunari -jarraitu zuen- eta arrazoimenaren eta irizmenaren gozamenari "plazer" izena ematea nahasketa besterik ez da, eta, halaber, hitzaren zentzu arruntaren murrizketa. Horiek, filosofiari lotzen zaienean, ez dute garbi jokatzeko gurekin, zeren plazerrari ematen dioten zentzuak ez baitu zerikusirik handirik bizitza arruntan ematen zaionarekin. Ez omen dute plazerra bilatzen ez bere buruketekin lan egiten duen matematikoak, ez bere eginbeharrean saiatzen den liburuzaleak, ez bere gogoz eragozpen eta neke handienak jasaten dituen artistak. Eta plazerzaleak ez ditu inondik ere bera bezalakoen arteko kontsideratuko. Adimen hutsezko diren asetasunak (pentsamenduaren mugimenduaren menpeko direnak) finegiak izango dira, nabarmenki, gaur egungo Epikuroek atzeman ditzaten, hain lotuak baitagozkio plazer mota materialago bati. Euren burua ontasun sentigarri eta sendar baten ideiaz betearen ezin dute fantasia ahul bat baino izan gogo eta dimen hutsezko motako plazerrez. Baina haxe da gero eurek baieztatuko eta goraipatuko dutena premia dutenean, besteek ekar diezaikekeen lotsari ekiditeko. Horrela egiten badute adimen motako plazerra horien gogora moldatuko da eta bere balioa galdu egingo da. Zeren egiaztagarria da honako hau gertatzen dela: mota honetako gizonok adimenaz gozatzea aholkatu dutenean -plazer izena eman diotelarik eta bere barruan adimenerako ona edo bikaina den guztia biltzen dutelarik- ondoren lasai jaitsiko dira, kezkarik gabe, izenaren zentzu arrunt eta jatorrizkora; zeren zentzu horretatik goratu badute ez da izan euren komenientziagatik baino. Eta plazerra auzitan jarri eta erasotzen bada, orduan arrazoi eta bertutea deituko dute euren laguntzarako eta haren osagarri nagusienak bihurtuko dira. Forma konplexu bat sortuko da eta berak bilduko du, zailtasun handiekin, giza bizitzan eskuzabala, onesta eta ederra den oro. Baina eraso bukatu bezain laster, eta behin gaudituta, mamua aihenatuko da; plazerak bere aurreko forma hartuko du berriz; plazer izan daiteke atzera, eta arrazoi huts eta garbiarekin izango duen zerikusia txikia izango da;

biek euren izaeraren (eta ulerkuntza arruntaren) ikuspegitik benetan dutena bezain txikia. Zeren ontasunaren nozioaren barruan arrazoimenezko nozio hau onartzen bada, nola onar daiteke gainera gozamen honi kontrajarriko zaion sentipen mota hau? Egia da plazer hutsaren antsia eta narritadura, nola minak dakarren traba eta nekea, berdin direla gogaikarriak adimenari eta bere gozamenei dagozkienean. Batak nahiz besteak ateratzen dute adimena bere orekatik eta kentzen diote bere berezko ihardun eta erabilpenetik datorkion asetasuna; horrela denean arimak batarekin nahiz bestearekin sufritu egin beharko du. Baina ez bata, ez besteak, ez badute sufrimendurik sorrarazten orduan ez dago kalterik inon."

"Ohar bat tartekatu behar dut -esan nuen nik bere hizketa moztuz-. Zintasunez jokatu badut galdegitean ea plazerra benetazko ontasuna den, neurri berean ez naiz eszeptikoa izango zalantzatan jartzeko oinazea benetan gaitza den ala ez."

"Mingarria den orok -ihardetsi zuen berak- gaitza izan behar du eta besterik ez. Baina batarentzat mingarria dena ez da hain eragozgarria bestearentzat; har ditzagun honen lekuko bezala kirolariak, soldaduak eta bizimodu gogorreko beste batzuk. Badakigu jakin, batarentzat mina dena bestearentzat plazerra izango dela eta alderantziz: zeren gizakiek era desberdinean atzematen baitituzte sentipenok eta sarritan nahasten baitituzte bata bestearekin. Naturak berak ere ez al ditu nolabait elkarrekin lotzen eta (behin gizon jakintsu batek esan zuen bezala), bataren muturra bestearenari oso poliki elkarturik, ez al dira biak erabat nahasten eta bereizezinak bihurtzen?"

"Laburbilduz orduan -esan nuen nik-, plazerra eta mina elkarren artean bihurtgarriak eta nahasiak badira; nire azalpenaren arauera orain plazerra dena mutur muturrera eramanda min bihurtzen bada, eta min handiena, behin desagertuta, plazer handiena bihurtzen bada; eta bata besteari berez jarraitzen badio; plazer batzuk batzuentzat min badira eta min batzuk beste batzuentzat plazer: honek guztiak, oker ez banago, nire iritziaren alde jokatu du eta erakutsiko du ez dagoela ezer ontzat jo daitekeena. Zeren plazerra ez bada ona, ez dago ezer onik. Eta mina gaitza bada (nik ziurtzat hartzen dudana) badugu gaitzaren aldetik irtenbide egokia, baina ez, oster, onaren aldetik. Hau dela eta, zalantza egin dezakegu arrazoiz ea bizitza bera ez ote den miseria hutsa izango, zeren garaile izan ezin bagara inoiz, galtzaile, berriz, gure bizitzaren edozein ordutan izan ahal gara eta. Horregatik gure poetisa ingelesak ontasunez dioenak zuzena eta egokia izan behar du: "ona da jaiok ez izatea". Eta bizitzan espero daitekeen edozein ontasunez naturari barkamena eskatu beharko genioke, eta oparia berriro bere eskuetan jarri bere deia itxaron gabe. Zeren, zer eragozpen egongo bailitzateke horretarako? Zer hobeagorik atera daiteke bizitzatik?"

"Galdera -esan zuen berak- zuzena da. Baina zergatik halako zalaparta gauza oraindik zalantzarria bada? Hemen, seguruenez (nire on Filokle), zure eszeptizismoaren mugak hausten dituzu bete-betean. Nahiko dogmatikoak izan beharko dugu halako jarrera sendo bat hartzeko. Halako erabaki batek bizitza eta heriotza hartzen dit kontutan, eta honako galderari erantzungo dio: zer egon daiteke beste munduan eta zer ez? Seguru egoteko ezin garela kezkatu beste munduko ezertaz, argi eta garbi ulertu behar dugu zerk ukitzen gaituen edo zerk lotzen gaituen oraineko edozer gauzatar. Gure burua ezagutu behar dugu benetan, eta jakin behar dugu zertan datzan "buru" hori. Aurrexistentziaren aurka azaldu behar dugu, eta defendatu nahi badugu gure jaiotzaren aurretik ez gaituela batere beharkizunik eragin, ez du balio esateak "gogoratzen ez garelako eta horretaz ez dugulako kontzientziarik", eta arrazoi hobea eman behar da. Zeren badira gu jabetuta mugatu izan gaituzten zenbait gauza, guk orain gogoratzen ez ditugunak eta dagoeneko gure kontzientzian geratzen ez direnak. Eta horrela gertatu ahal zaigu behin eta berriz, betirarte, berdin dela horren aurka azaltzen dugun edozein arrazoi. Dena da iraultza gure baitan. Ez dugu irauten ekai bera edo ekai sistema bera

egun batetik bestera. Ez dakigu nola jarraitu ahal izango dugun aurrerantzean, zeren are orain ere, bilakaeran murgilduta bizi baikara, eta suntsitzen eta birregiten ari gara. Alferrikakoa da gure burua lausengatzen ibiltzea gure interesak nolabaiteko era edo itxura bateruntz abiatzen direnaren segurtasunaz. Ez dakigu zer dela eta interesatu zitzaigun hasiera batean era hori; ezta ere nola eusten diogun oraindik eta nola diraugin partikula iheskorren multzo horri loturik. Era berean ez dugu ezagutzen zer beste lekutan edo zer beste ezerekin izango dugun zerikusirik etorriko diren garaietan; eta ezin dugu esan ezta ere nola jokatu duen gurekin aurrerantzean patuak edo probidentziak. Eta probidentzia bada kasua, orduan arrazoi handiagoarekin aztertu beharko dugu nola ekin gure buruaren jabe izan gaitezen. Beste gizaki guztiak baino eszeptikoago bihurtu behar du batek aldaketaren kontuak zalantzatan jartzeko. Eta bizitzan ez badu aitortzen oraineko ontasunik edo gozamenik, hala ere, seguru egon beharko du bere egoera hobetzeko saiatzeko hasi aurretik. Baina dagoeneko, Filokle, oraindik honako puntua geratzen da gure artean erabaki gabe: ea gure bizitza honetan badagoen benetazko ontasunaren moduko zerbait."

"Izan zaitez, bada, nire irakaslea -esan nuen nik- Teokle zoli hori! eta jakinaraz iezadazu zer den ontasuna, edo non eskura daitekeen poz eta asetasun iraunkorra, ez aldatzen ez gutxiagotzen dena. Zeren egoera batzuetan eta gai batzuen aurrean, adimenak erakutsiko dituen joera handiak eta grina biziak ezingo baititu aldatu ez gorputzaren sufrikarioak, ez minak. Haatik, honako hau gerta daiteke noizean behin, eta denbora asko luzatu gabe: ez badago ez minik, ez eragozpenik, grinak apur batean bere eginbeharra beteko du, adimenak bere egoera laxatuko du eta gogoak, errepikapenaz aspertuta, ez du gehiago gozamenik aurkituko, beste zerbaiten bila abiatuko delarik."

"Entzun, bada -esan zuen Teoklek-. Ez baita nire asmoa zuri esatea bat-batean zein den ona deitzen dudaren izaera; baizik eta nahikoa dut ikustarazten badizut, zure baitan, ona den zerbait, eta ikusiko duzu hori dela, berez, orain arte bururatu duzun gauzarik finkoena eta iraunkorrena. Esaidazu, ene lagun!, ea noiz nekatu zaren maite dituzunei on egiteaz. Esaidazu ea noiz izan zaizun atsekabea adiskide bati zerbitzatzea. Ala, ez al zenuen sentitu plazer oparo hau orain baino indar apalagoarekin lehenengo aldiz dastatu zenuenean? Sinets iezadazu, Filokle: plazer hau beste edozein baino liluragarriagoa da. Ez dago arimarik ona egin ondoren berriro itzultzen ez dena gauza bera egitera, berehala eta gozamen handiagoarekin gainera. Maitasuna, eskerrona edo esku zabala ez dira inoiz gauzatu, ez bada izan eurek dakarten atsegina gehituz; horrela, era honetara jokatzen duena, gehiago maiteminduko da ekintza eder horietaz. Erantzun iezadazu, Filokle, edertasunari buruzko gauzatan hain epaile ona zaren horrek, eta plazerrari buruz hain gustu ona daukazu horrek: ba al da zerbait adiskidetasuna bezain ederra miresten dituzun gauza guztietatik? Edo ekintza eskuzabala bezain liluragarria den zerbait? Zer gertatuko litzateke, bada, bizitza, bere osotasunean, etengabeko adiskidetasuna besterik izango ez balitz, eta ekintza eskuzabal oso bat bihurtu ahal izango balitz? Hemen bilatuko genuke, seguruena, zu bila zabiltzan ontasun finko eta iraunkor hori. Ala bilatuko al zenuke beste inon?"

"Beharbada ez -esan nuen nik-. Seguruena, ezin izango nuke harantzago joan, kimera baten bila, zure ontasun hori guztiz kimerikoa izango ez balitz. Zeren ahalezkoa bada poeta batek halako ekintza bakun bat gara dezala, horrela artelan bat funtsatuz, oso nekez burura dezaket, oster, nola bidera daitekeen adiskidetasunerako ahalegin handi hau bizitza oso bat bete dezan. Eta ezin dut ezta ere irudikatu non datzan halako grina heroiko eta goren baten gaia."

"Ba al da inon -esan zuen berak- adiskidetasunik gizadiari zuzendutakoa baino heroikoagoa? Uste al duzu lagunen maitasuna, oro har, eta norberaren herriarekikoa ez direla ezer? Edo iraun dezakeela adiskidetasun zehatz batek maitazarre hori gizartera

zabaldu gabe, eta berari zor zaion eginbeharraren senik gabe? Esan ea balitekeen lagun izatea eta, era batera, zure herria gorrotatzea. Esango al didazu lagun baten interesagatik egia izango zarela baina gezurti gizartearen interesagatik? Sinetsiko al diozu zure buruari? Ala zure gizaki izaera errefusatzan duzunez uko egingo al diozu "lagun" deitua izateari eta baztertuko duzu izen hori?"

"Nire ustez -esan nuen nik- "lagun" izena bereganatu nahi duen batek ezin izango du auzitan jarri badagoela zerbait gizadiari zor zaiona. Nekez deituko nuke inor "gizaki" edo "lagun" berak ezin badizkio izen horiek inori eman edo ezin baditu inorengandik jaso. Baina bere burua lagun bezala azaltzen duena, hori bai izango da nahiko gizaki, eta ez du gizadiarekiko borondate falta azalduko. Adiskidetasun bakarrarekin aski zaio. Adiskide bat irabazita gizakiaren laguna da, nahiz eta zentzu estuan (edo zure zentzu moral goitiarraren arauera) ez den izango gizadiaren laguna. Zeren, egia esan, buru jainkotsuagoek kontsidera baitezakete adiskidetasun mota hau gizatiar hutsa baino zerbait gehiago, eta are heroikoa ere zuk diozun bezala. Baina nire aldetik hain balio eskasa dakusat gizadian eta hain iritzi aihergakoa naiz jendeari buruz, ezen oso asetasun urria eman ahal izango diodan nire buruari horietako edozein maitatuz."

"Jarriko al zenituzke, beraz, esku zabala eta eskerrona adiskidetasunaren eta izaera onaren ekintzen artean?"

"Zalantzarik gabe, izan ere, eurak dira garrantzitsuenak."

"Eman ezazu mesedea jaso duenak aurkitzen duela bere ongilearengan zenbait erru; lehenaren eskerrona kenduko al du honek?"

"Ezta gutxiagotik ere."

"Edo kenduko al dio eskerrak ematearen plazerra?"

"Nik gehiago uste dut ostera dela. Zeren mesedea itzultzeko beste biderik izango ez banu, nire ongileari nire eskerrona erakutsiko nioke bere erruak lagun bezala pairatuz, eta gozatu ahal izango nuke bide honetatik."

"Eta eskuzabalari dagokionez: esaidazu, erregutzen dizut, merezi dutenei bakarrik egin beharko genieke on? Bakarrik auzoko on bati, edo senide bati, edo guraso on bati, edo ume edo anaia bati? Ala ez al digu irakasten naturak, arrazoiak eta gizatasunak, on egin behar diogula gurasoari guraso izateagatik, eta umeari ume izateagatik, eta era berean gizabizitzaren beste harreman guztietan?"

"Nire ustez -esan nuen nik- azken hau da zuzena."

"Oi Filokle -ihardetsi zuen berak-, ekar ezazu gogora, giza ahulezia zela eta, esan duzuna gizadiarenaganako maitasunaren aurka; ematen zuen jendea gutxiesten duzula bere ezbeharrengatik. Begiratu ea sentipen hau elkar daitekeen zurea egiten duzun eta usatzen duzun gizatasunarekin. Zeren non existi baitaiteke eskuzabala ez bada hemen? Non balia gaitezke adiskidetasunaz ez bada gai nagusi honi lotuta? Zerekin izan gaitezke munduan egiati eta eskerroneko ez bada gizadiarekin eta gizartearekin, zeinarekiko hain zor handia dugun? Zer akats edo erru izan daiteke aitzakia halako utzikeria baterako? Edo, eskerroneko adimen batean, gal al daiteke sekula eskerroneko sari batek dakarren asetasuna? Jendetasun hutsa alde batera utzita, eta zeurezko duzun izaera bat dela eta: poz al zaitezke gizabidea, sotiltasuna eta adeitasuna erakutsiz?, bila al ditzakezu gupidarako gaiak?, eta jende ezezagunari zerbitzatzeko gauza zaren bakoitzean, atseginik hartu ahal duzu? Goza al dezakezu etxetik kanpoko lurralde arrotzetan, edo hemen, gurean dauden atzeritarrei laguntza emanez, behar duen guztiari ezbeharrak arinduz, erarik atseginenean, abegikoienean eta adiskidetsuenean? Eta zure herriak, edo are gehiago zure motakoek, zuregandiko atsegintasun txikiago behar al dute, edo begiramendu gutxiago merezi al dute, kasualitatez aurkitzen dituzun izaki horiek baino? Oi Filokle, zein gutxi ezagutzen duzun izaera onaren indarra eta hedadura! Ez dakizu zein maila heroikoa lor dezakeen arima batek indar hori oso-osoan ezagutzen

duenean, eta nola, bera ondo banatuz, moldatzen duen bere baitan adiskidetasun orokor, zuzen eta orekatua!"

Hitzok bukatu bezain laster, zerbitzari bat etorri zen zelaira guregana, lagun batzuen berri ematera, pentsatu genuen bezala gurekin bazkaltzera etorriak zirenak. Horregatik etxeruntz abiatu ginen. Bidean gindoazela esan nion Teokleri beldur nintzela ez ote zen ezinezkoa izango niretzako berak esaten zuen motako lagun edo maitale bihurtzea. Nahiko eskuragarria izango nuen, hala uste nuen, edozein sexutako pertsona bakar baten maitasun betea; baina beste mota orokor eta konplexu hori nire eskutik kanpo zegoen. Banakoa maite nezakeen baina ez espezieak. Gai misteriotsuegia eta metafisikoezia zen hori niretzat. Laburtuz, ezin nuen maite ezer berataz irudi sentigarria eta materiala izan gabe.

"Baina -ihardetsi zuen Teoklek- ezin al duzu era horretan baino maitatu? Nik badakit zuk miretsi eta maitatu izan duzula lagun bat bera pertsonalki ezagutu aurretik. Ala ez al zuen inolako garrantzirik Palemonen izaerak, gutun-truke luze horretan lotu zintuenean bera pertsonalki ezagutu aurretik?"

"Gauza horrela dela onartu behar dizut nahitanahiez -esan nuen nik-. Eta orain uste dut ulertzen dudala zure misterioa, eta konturatu naiz nola gertatu behar naizen horretarako. Zeren Palemon maitatzen hasi nintzenean gai material bat sortzera behartua izan nintzen bezala, eta berataz pentsatzen nuen bakoitzean nire buruan beti bere irudi moduko bat marraztua izan behar nuen bezalaxe; horrela saiatu behar dut jokatzen kasu honetan ere. Zure laguntzarekin, ahal balitz, halako irudi edo espektro bat modutu ahal izango nuke, zuk nire maitale bihurtu duzun izaki hori berraurkeztuz."

"Nire ustez -esan zuen berak- Erromako antzinako herriarekin duzun barkamen bera izan beharko zenuke naturarekin edo gizadiarekin; zeren nik badakit haietaz era askotara maitemindua zaudela, euren akats eta guzti; bereziki "Herriaren Jainua" deituriko gazte baten irudiaz. Izan ere, gogoratzen naiz ni behin antzinateko artelan batzuei begira geundela, jendea era horretara azaltzen zelarik, onartu zenuela gogoko zenituela irudi haiek."

"Egia esan -ihardetsi nuen nik-, ahalezko izango balitzait inprimatzea nire buruan zuk esaten duzun tankera horretako irudi bat, seguruena bere eragina izango luke, berdin izango litzatekeelarik zer ordezkatzeko zuen: gizadia nola natura. Zuk zehaztu duzun erako maitale bihurtuko nintzateke. Eta are gehiago moldatu ahal izango bazenu ni eta izaera horren arteko kontuak elkarrekikotasun giro batean, eta eramango baninduzu bururatzera berak nire maitasuna onartuko lukeela eta itzultzeko gauza izango litzatekeela; hau guztia gabe ni maitale txar bat izango nintzateke, baita munduko edertasunik beteenaren aurrean egonda ere."

"Ederki -esan zuen Teoklek-, onartuko ditut zure baldintzak. Zuk agintzen badidazu maitatuko duzula, ni saiaturiko natzaizu erakusten nire ustez beteena eta maitagarriena den edertasuna, eta itzultzeko orduan huts egingo ez duena. Bihar sortaldeko eguzkiak, poetek dioten bezala, bere lehen uhinekin hango muinoaren aurrekaldea edertuko duenean, gogoko baldin baduzu nirekin ibiltzea ikusten dituzun baso horietan, hor bilatuko ditugu gure amodioak. Oihaneko ninfak gure lagun izanik, eta lehena lekuko jainuei dei eginda, saiaturiko gara erdiesten lehen edertasunaren eta jainu gorenaren islada, ahula eta urrutia bada ere. Hau behatzera etorri ahal bazara naturaren nahiz gizadiaren itxuragabekeria eta ezaugarri gaitzak aienatu egingo dira bat-batean (nire hitza ematen dizut), eta nik nahiko nukeen maitalea bihurtuko zara. Baina aski dugu oraingoz! Elkar gaitezen gure lagunekin eta alda dezagun gure elkarriketa mota hau gure laguneri eta mahaiari dagokion beste zerbaitez mintzatzeko."

II. Atala

Hemen dakusazu, Palemon, nola jartzen den oinarria nik hitz egin dizudan entusiasmo horretarako, zeina, nire ustez (horretaz ere hitz egin dizut), hain berezia eta ohiturazkanpokoia izateagatik oso arriskutsua den. Baina ohartu nintzen jakinminez beteta zeundela, ni lehenago egon nintzen bezala. Onartu behar dut, gainera, ez nuela beste gauzarik buruan, hurrengo eguna eta goizalderako hitzartutako basoko ibilaldia baino.

Lagun bat edo beste baino ez genuen izan otordurako, eta denbora luzea eman genuen gai berri eta axolagabeei buruz ihardunean, baina nik, une batean, nire burua beste gai haiekin nahastuta nuenez, kasualitatez adiskidetasunarekin lotuta bota zen hitz pare bat hartu nuen atsegintasun osoz eta zera esan nuen: niri zegokidanez garai batean pentsatu nuela benetazko adiskidetasuna ezagutu nuela, eta benetan kontsideratu nuela lagun ona izango nintzela nire bizitza osoan zehar, baina, hala ere, une horretan seguru nengoen ez nintzela ikasle bat baino ezer gehiago, zeren Teoklek ia limurtu ninduen pentsatzera gizabanako baten laguna izateko beharrezkoa zela lehenik gizadiaren laguna izatea. Baina nire iritziz ez zen lan makala halako adiskidetasun batera iristea.

"Egitan -esan zuen Teoklek- horrela hitz egiterakoan zure buruaren ezaugarriketa oso lausengarria ematen diguzu. Hitz egin izan bazenu horrela gorteko gizon baten adiskidetasunaz edo gorte berarenaz, eta arrenkuratu izan bazina esanaz zaila zela zuretzako giro horretan sartzea eta han nagusi zirenen artean zurekiko interesa sorraraztea, orduan zure alde ondorio hau aterako genuen: bazirela han betebeharreko zenbait baldintza zure duintasunari desegokiak zitzaizkionak. Baina gizartearen mesedea lortzeko eta "gizadiaren laguna" izena eskubide osoarekin irabazteko, ez da besterik behar ona eta bertutetsua izan baino, baldintza hauek bakoitzak bere onerako gutiziatuko dituelarik."

"Nola gertatzen da, bada -esan nuen nik-, baldintza hauek ere gogo txarrez onartzen direla, eta ez direla sekula betetzen beste baldintza batzuei menperatuta ez bada? Bertutea, berez, ez da bururatzen arazo gaitz bat baino, eta ezagutzen dudan jende gehienek, erlijioso eta elizkoien artean ere, jasaten dute umeek botikekin egiten duten bezala; hauentzat zigorra eta azukre tontorra baitira motiborik handienak."

"Haurrak dira bai -erantzun zuen Teoklek-, eta haur bezala tratatu behar dira eurei osasuna eta ona dakarkiena egin dezaten, horretarako indarra eta pertsuasioa behar direlarik. Baina esan, erregutzen dizut, zeintzu zertzelada beldurrerazleren indarrez jarri beharko litzatekeen bertutea hain behean. Besteak beste, ez al zara beldur pentsatzean bide honi jarraituez gero, gure egungo Epikuroen mahai gozoetatik eta janari garestietatik baztertua izango zarela eta beti gaur bezalako janari eskasa jatera behartua izango zarela, plater bakarrarekin edo gehien jota birekin?"

"Hori nitaz pentsatzea iraingarritzat jotzen dut -arrenkuratu nintzen ni-. Horrela ez nuen jan nahi izango orain egin dudan bezala baino, zeren antz handiagoa baitu (nire ustez) mahai honek Epikurorenarekin, gaur egun, inolako zentzurik gabe, bere izena hartzen duten horien mahai guztiek baino. Izan ere, bere iritzia kontutan hartzen badugu, munduko plazerrik handienak neurritasunetik eta moderapenetik etorriko dira."

"Plazerraren aztertzailek nagusienak -erantzun zuen Teoklek-, Epikurok berak, neurritasunaren aldeko jarrera hartu bazuen (horrela bere gaur egungo ikasleengandik bereiziz); ausar bazitekeen esatera baratze txiki batek emango zion ondasunarekin nahiko zuela bere zoriontasuna jainkoenarekin parekatzeko; nola esan dezakegu bertutearen alderdi honetaz beste baldintza batzuen menpeko dela? Neurritasunaren praktika zuzena hain kaltegabekoa bada, irainkorrak izango ote dira bere ondorioak? Ahulduko al du adimenaren kemena? Ahituko al da gorputza? Bihurtuko al ditu bata nahiz bestea desegokiak euren eginbeharrerako, alegia, arrazoimenaren edo sentipenaren gozamenerako eta hiri bizitzaren eginkizunetarako? Okerragotuko al da

bere eraginez gizaki baten egoera, bai bere adiskideekin bai gizartearekiko harremanetarako? Urrikgarria al da horrelako gizaki bat, bai bere buruarentzako bai besteentzako gogaikarria izango delako? Ihes egin beharko ote diote gizaki guztiek lagun txarra eta gizartearen eta modu onen galerazlea bailitza? Eman dezagun gure gizonak herrilanean diharduela eta azter dezagun: emaitza hobeak lortuko al ditu ezaugarri larderiatsu horrekin ala bere irritsak handiak direnean eta plazerra deitzen dugunarekiko joera gogorra duenean izango da fidagarriagoa eta garbiagotzat joko al dugu? Eman dezagun soldadua dela, gudaldi batean edo ingurapen batean dagoena; nola defendatuko gaitu hobeto halako egoera batean? Zein ofizial izango litzateke hobe bere soldaduentzako; zein soldadu ofizialentzako; zein armada bere herriarentzako? Onartuko al zenuke gure gizona bidaide bezala? Aukera txarra izango al litzateke gizon neurtu bat? Aukeragarriagoa edo laketgarriagoa izango al litzateke lagun bezala, edozein gertakizunen aurrean edo premiatan, lehena berea egiteko eta bere sentipenen gogoak betetzeko antsitsu agertuko litzatekeena? Ez dakit zer esan edertasunari dagokionean. Agian galai maitaleak eta plazer mota honetako gozozale bikainak hain biribilduak izango dituzte euren adimena eta jitea, ezen gauza diren gozamina alde batera uzteko, ez hausteagatik ohorea, fedea eta zuzentasuna (horrela behar izanez gero eta euren ohizko irrikak gaindituz). Eta, beraz, bertute edo meritu eskasa atxeki ahal izango zaio izaera pairakor eta zuhur honi. Gizaki neurtua ez da lizuna baino fidagarriagoa izango. Berdin utz daitezke azken gizaki honen eskuetan inozotasuna, gatzetasuna eta aberastasuna; lagun ona izan daiteke eta neurri berean azken nahien zaina, asetzalea eta jagolea. Berataz fidatu den familia seguru egon daiteke, ez baita etorriko plazerzale onestarengandik inongo ohoregaltzerik."

Teoklek hau guztia esateko erabili zuen seriosotasunak atsegingarriagoa egin zuen eta gure mahaikideak bultzatu zituen gai berari buruz gauza on ugari esatera, bizitza neurtua aholkatuz. Afaria jadanik bukatuta zegoenez eta, ohiturari jarraiki, ardoa mahai gainean jarri zutenez, ohartu nintzen ez geundela gu orgia bati ekiteko bidean. Bakoitzari gogoia eman zion neurrian edan genuen, ordenarik eta topa eta opa egin gabe. Beste ikuspegi moral bateko gizaki lagunkoi batek gaitzetsiko lukeen eran, arau onen kontrako eta adiskidetasun zuzenaren galerazketa izango litzatekeelako.

"Onartzen dut -esan nuen nik- neure iritzietatik urrun dagoela pentsatzea neurritasuna ezatsegina denik. Bertutearen alderdi hau zentzu batean baino ez da ulertu behar; alegia, neurrigabetasunetik eta beharrezkoak ez diren gauzak nahi izatetik salbatzen gaituen abantaila bezala."

"Baina -esan zuen Teoklek-, hainbeste aurreratu al duzu? Halako egoera eta ohore gorena atxekitzen diozu neurritasunari ezen zekenkeriari eta irritsari kontrajartzen diozun? Orduan benetan esan daiteke gogoz hartu duzula arazo honen untzia. Ubidea iragan duzu eta itsaso zabalaren barrena sartu zara. Bertuteari dagokionez ez dago beste kezkarik, baldin eta ez baduzu zure burua koldartzat jotzen edo ez baderitsozu zorionekoa koldarra jaio izanari. Bizitzan ere neurtua izan ahal bazara eta ez badiozu garrantzi handirik ematen bera luzeago edo motzago izateari; bizi izan zarenarekin aseturik atera ahal bazara olgeta liberegi horretatik, eskerroneko maizterra bezala: ez al duzu horrela helburu bikainena beteko? Ez al da hori bertutearen azken urratsa eta betetasun osoa? Adimena horrela moldatua, zerk eragotz diezaguke gure burutik nahi adinako nortasun heroikoa ateratzea? Ba al da zerbait ona, eskuzabala edo handia berez isuriko ez dena neurritasun apal honetatik? Guregana dezagun behingoan bertute sinple eta laino hau eta ikus dezagun ea ez datozen berarekin bertute distiratsuenak. Ikus dezagun zer ekoitziko duen adimenaren erresuma honek legegile horren lege osasuntsuetatik askatasuna lortu duenean. Zuk, Filokle -gizarte askatasunaren miresle handia zaren horrek, eta bera mila dohainez hornitua burura dezakezun horrek-; ezin al

duzu bururatu dohairen bat edo edertasunen bat jatorrizko askatasun natural horretan, jaiotzeko zenbait tiraniaz libratuko gaituena, gure eskubideak emango dizkiguna, eta gure buruaren jabe eta inoren menpeko egingo gaituena? Nire ustez honelako ezaugarri bat gure lurak eta errentak aseguratuko lituzkeena bezain garrantzitsua izango litzateke."

"Pentsatu beharko nuke -esan zuen berak bere aire umoretsuari eutsiz- moral andere honen erretratua margotu ahal izango litzatekeela politika bere ahizparen abantailekin. Zuk miresten duzun azken hau amazona jantziekin irudikatua izan ohi da, itxura aske eta gizontsuz; bere jagoleak, bera babestuko duten armarriak, oholetan idatziriko legeak izango dira; bere otseinak aberastasuna, merkatalgoa eta ugaritasuna, euren apaingarri guztiekin; eta bere atzetik arteak eta zientziak, aurkituko dira, jolasean haurrak bailiran. Koadroaren gainerako guztia erraz burura daiteke: tiraniaren eta araugabeko lizunkeriaren eta grinaren gaineko garaipena. Baina zein handia izango litzatekeen bere ahizpak lortutako garaipena! Zer grina basatiko mamutzarrak agertuko lirateke bere menpean! Euren irrits basatia, lizunkeria, zalaparta, araugabekeria eta giza magalean amorratzen diren beste deabru guztiak kateatuak izango dira seguruez gero. Eta asturua bera, lausenguen erregina, bere gurdia gainean egongo balitz (terrorearen printzea den heriotzarekin batera), zein naturala izango litzatekeen ikustea indarra, bihotzanditasuna, zuzentasuna, ohorea eta talde eskuzabal hori gure andere kuttunari laguntza ematen! Berak, jainkosa jaio berri baten gisara, bere ama den neurritasunaren gurdia ederreztatuko luke; azken hau, bertuteen elikatzaileria, jainkoen gurasoa bezala agertuko litzateke, Zibele zahar gurgarriaren eran; bridatutako lehoi otzanek garraiatuko lukete, bere buru gainean dorreantzeko koroa batekin; hau izango bailitzateke, hain zuzen, botere defendatzailearen eta adimenezko indarraren irudia."

Gure kideek gozatu egin zuten Teoklek eman zien irudi honekin, eta zirriborro latz horretatik abiatuz, gai berari buruz irudi berriak sortzen hasi ziren era zaharrera, Prodiko Zebe eta antzinako guztietan oinarrituz.

"Jaunok -esan nuen nik-, zuek egin dituzuen deskribapenak munduko bikainenak dira zalantzarik gabe, baina bertutea erabat aintzagarri eta garaile egin duzuen artean, nik beste mota bateko benetazko koadroa emango dizuet, garaipen horren beste alde ikusi ahal izateko. Erakutsiko dizuet bertutea bera gatibatua, garaile harro batek menperatua, doilortua, bere ohore guztiez gabetua, eta hain desitxuratua ezen ez duen gordeko bere benetazko edertasunaren izpirik ere."

Aurrera jarraitzeko asmotan nengoen baina ezin izan nuen; nire bi lagun gonbidatuek erdeinu egin zidaten bortizki, eta jaukikatu zidaten inork ez zituela sekula bultzatuko halako irudi gaitzesgarria onartzera. Eta horietako batek, gizon edadetu eta itxuroso xamar batek, niri zorrozki so eginaz zera esan zuen haserre antzarekin: ordura arte bazuela nigan itxaropen apur bat jarria, nahiz eta ohartua zegoen nire pentsatze askatasunaz eta entzun zidan arren nire burua askatasunaren maitale amorratua bezala azaltzen nuela. Baina deitoratzen zuen nire askatasun hastapen hori hastapen guztiekiko askatasun bihur nezala -hala zioen berak-; libertino batek baino ezingo baitzuen onetsi bertutearen aurkako irudi hori, eta bakarrik jainko batek izan zezakeen halakorik egiteko ozartasuna.

Teokle, bien bitartean, eserita egon zen isilik, nahiz eta ikusi zuen nik ez niola kasu handirik egiten nire aurkariari, eta berari so nengokiola begia bere gainetik kendu gabe, zer esango zuen zain: "Oi Filokle, zer trebetasun handia hartu duzun zure helburua defendatzeko! Zer ondo ezagutzen duzun helbururik okerrenea ona bihurtzeko modua, bide onena defendatzen dutenen zuhurgabekeriaz baliatuz! Nire aldetik ez naiz ausartuko esaten, nire lagun preziatuek egiten duten bezala, bakarrik jainkoa dela bertuteari halako zama ezartzeko gauza eta berak bakarrik irudikatuko duela hain era

dohakabeen. Ez! Badira beste esku batzuk harenak bezain trebatuak eta ez hain susmagarriak, aurpegi hobea jarritz irain handiagoa egingo dutenak."

"Harrigarria irudituko zitzaidan, zalantzarik gabe -jarraitu zuen bere gonbidatuei zuzenduz-, entzungo banu, arrazoi antzaz, bertutea biktima bihurtu litekeela, Filokleri baieztatzen entzun diozuen segurtasunarekin. Zuek ezin duzue bururatu halako ikuskizun baterako bat ere funtsapen onargarriarik. Garaipen hori iraulita esperoko duzue, agian, konkistatzaile arrotz bat goraipatua ikustea: bai bizioa bera edo plazerra, bai zorrozatasuna, sasifilosofia, edota egiaren edo naturaren irudi faltsua. Nekez jabetzen zineten bertuteari kontrajarritako etsai krudela erlijioa bera izango zela! Baina gogoratuko zineten bertutea horrela tratatzen dutela giza bihurtzaren ustelkeria handitatzat jotzen dutenek, eta giza bertutearen faltsutasuna nabarmentzean erlijioa goraipatzen dutela uste dutenek. Zenbait autore erlijiosok, zenbait hizlari sakratuk, euren labainak honuntz zuzentzen dituzte eta bertute moralari erasotzen diote, erlijioaren amordea edo lehiakidea izango bailitzan! Moralitatea ezin da aipatu; naturak ez du eskubiderik; arrazoiak etsaia da; zuzentasun orokorra erokeria da eta bertutea miseria besterik ez. Zein ez litzateke izango biziotsua aukera izango balu? Zeinek ekidingo lieke behartua ez balitz? Zeinek izango litzuke kontutuan bertuteak beste bizitza bat egongo ez balitz?"

"Egitan -esan zuen jaun edadetuak bere solasa moztuz- erlijioaren garaipena hau bada, uste dut bere etsaierik handienak ere ez duela ia ukatuko; eta, Filokleren baimenarekin, honako iritzia honi eutsi behar diot: alegia, ez dela erlijioarekiko laztentasun handia bera bertutearen kaltetan ohoretzea gartsuki."

"Baliteke horrela izatea -esan nuen nik-. Onartuko duzu badirela munduan halako fanatiko asko. Eta Teoklek onartu du, entzun duzunez, badela nolabaiteko harmonia fanatismoa eta jainkogabetasuna deitzen duzunaren artean. Baina entzun diezaiozun gehiago, ea adierazten digun, zinez hitz eginda, zer deritzon gure erlijio idazleen gehiengoari, eta eurek jainkogabeei (horien guztien etsaiek) erasotzeko erabiltzen duten metodoari. Gai honek argitasun handiagoaren beharra izan dezake. Zeren nabarmena baita jainkogabetasunaren aurka dauden idazle garrantzitsuenek elkarren kontrako hastapenetan oinarritzen dutela euren argudioa, horrela, neurri batean, elkar errefusatzen dutelarik. Batzuek bertuteari eusten diote gartsuki eta errealistak dira puntu horretan. Beste batzuk moral kontuetan moralistak besterik ez direla esan daiteke, eta bertutea ez da berez ezer izango euren ustez, bakarrik nahiaren sorkaria edo modan dagoen izen hutsa. Gauza bera gertatzen da natur filosofian: batzuek hipotesi bat defendatuko dute, besteek bestea. Poztuko ninduke aurkituko banu behingoan benetazko oinarria, ikusteko azkenean zeinek errefusatzen dituen, behin eta betirako, beste guztiak hala nola jainkogabeak, horrela modu zuzenean ezartzeko bertutea eta erlijioa batuko dituen arrazoiak."

Horrekin, Palemon, nire nahia bete zen, urratsez urrats bultzatu nuelako Teokle gai hauetaz buruz bere iritzia guztiak adieraztera, eta hau hurrengo egunean lotu behar gintzaizkien beste gaien preludea besterik ez zen izan, hain pairugabe aztertzea irrikatu nituenak. Bere espekulazioak razional erakoak izango balira, lagunduko lidakete, dena dela, berarekin ahalik eta egonaldirik laketgarriena izaten.

Ondoren autore desberdinen kritikari ekin zion, piskanaka etengabeko ihardunaldia bihurtzen joan zena. Unibertsitate batean izan balitz, Teokle teologia irakasletzat edo etikako maisutzat hartuko zuten erraz, bere ikasleei arratsaldeko eskolak ematen ariko zena.

III. Atala

"Zalantzarik gabe -esan zuen berak- zorioneko helburua izango litzateke hau, eta irabazia ekarriko luke, bere aurkariari inongo abantailarik ematen ez dion merkataria ateratzen duenaren antzekoa. Gustatuko litzaidake erlijio kontutuan horrela harrotzeko

arrazoaia izatea. Baina ahalezkoa denez, are helburu gorenei buruz idaztean ere, oker egotea, nahiago dut pentsatu erlijio kontu bikainean ere arriskua gutxienez parekoa dela; izan ere, bere alde idazten duten horiek, oro har, arreta txikiagoa izaten dute zenbait eta seguruago sentitzen duten euren burua maiseoaren eta egingo zaizkien kritiken aurrean. Aurkaria eurek nahi duten bezala tratatu eta isilarazten dute, eta bultzatuko dute garbi hitzik egin ezingo duen arlo batera. Euren armak ezkutuak dira eta helburua bete dezakete jarraitzaileekin arazorik izan gabe; eta, artean, ez ditu ustezko garaipenetik aterako inongo eraso zuzenik. Euren probetxurako nagusitzen dira eta berdin zaie zer kalte egin dioten eurek helburu horri."

"Agian -esan nuen bere hizketa moztuz- egia izango da, orduan, erlijioaren garra zuen batek esan zuena: alegia, jainkogabeen aurka ez duela inork zuzen idatziko, ez bada eurak hiltzeko agindua eskribatzen duen epaileak."

"Hori balitz egiaren idazkia -erantzun zuen berak- arazo honi buruzko eztabaida edo arrazoiketa guztien amaiera izango litzateke. Zeren indarra beharrezkoa denean arrazoaia alferrikakoa da. Baina, bestalde, arrazoaia premiazkoa den artean indarkeria alde batera utzi behar da, arrazoaia indartzeko arrazoaia nahikoa baita. Eta jainkogabeekin eztabaidatu nahi badugu beste edozein gizonekin bezala arrazoitu beharko dugu, ez baitago munduan beste biderik horiek konbentzitzeko."

"Halaxe da -esan nuen nik-, arrazoigarria eta zuzena ematen du: baina beldur naiz elizkoi gehienak ez ote diren gertuago egongo bide jasanbera alde batera utzi eta beste laburragoa hartzeko. Eta nahiz eta indarrak, arrazoi gabe, gogor samarra dirudien, nik pentsatzen dut jarraitzaile gutxiago izango duela zure beste bideak, indarrak gabeko arrazoiarenak alegia."

"Baina beharbada -ihardetsi zuen Teoklek-, kezkatzen gaituena hotsa besterik ez da. Jainkogabe hitza edo izenarekin baliteke nahasketa sortzea bera bi izaera desberdin zehazteko baldin badarabilgu: hau da, Jainkoa erabat ukatzen duenarena eta Jainkoaz zalantza baino egiten ez duenarena. Zalantzatan dagoenak deitoratzen du, seguruenik, bere zorigaitza eta desiratuko luke bere burua konbentzitzea. Ukatzen duena, aldiz, handiuste ausartia da eta gizadiaren eta gizartearen aurkako iritzi bati eusten dio. Erraz ikus daiteke hauetatik batak epailearenganako eta legearekiko behar den errespetua erakutsiko duela, baina besteak, osterak, epaileak nahiz legeak erdeinatzen ditu, eta horregatik zigorra merezia izango du. Baina, nekez esan daiteke nola zigortu ahal izango duen lehena gizakiak, epaileak ez badu nagusitasunik gogoan gainean (ekintza eta jokabideen gainean duen bezala), eta ez badu ahalmenik gizakion bihotzaren sakonean eta pentsamendu ezkutuenetan arakatzeko."

"Bai, ulertzen dizut -esan nuen nik-, eta zure ikuspegitik, jainkogabe deitzen direnen artean bi jende mota dagoenez, bi eratara idatz daiteke euren aurka, eta egoki da bi idazkera hauek banaka erabiltzea, baina nekeza, aldiz, biak elkartzea. Mehatxu hutsak alde batera utziz filosofoaren lana epailearenaz bereizi beharko zenuke, segurutzat hartuz bakarrik filosofiaren luma xedatsu eta bareagoak hunki ditzakeela sinesgabeen artetik urguri eta neurtuak diren horiek (zeintzuk epailearen luma erabakiorraren eragipean sartzen ez diren). Bada, aitortu behar dut, epaileen hizkerak ezer gutxi daukala zerikusirik filosofiarenarekin. Ez baitago ezer desegokiagorik epaigizonaren aginbiderako idazkera filosofikoa baino, eta ez da ezer filosofiatik urrunduko epai-idazkera baino. Bien nahasketak derrigorrez bata eta bestea alferrik gal ditzake. Eta, beraz, gure helburuari begira, eta epailea alde batera utzirik, baten batez ondo idazten duela esan behar bada filosofikoki idazten duenaz izango da (zure arauera); eztabaidatzeko askatasunarekin eta aurkariarenganako zuzentasunez."

"Ederki -ihardetsi zuen berak-. Zer izango da bada legezkoago? Ezer ez. Baina mundu guztia iritzi berekoa izango al da? Idazteko metodo hau erabili al daiteke egokiro?"

Zalantzarik gabe posible da. Eta hau frogatzeko antzinatetik adibide asko azal ditzakegu. Bide filosofiko honetan hartzen den askatasuna ez zen inoiz irainkortzat jo erlijioarentzako, eta ezta ere kaltegarritzat herri xehearentzako, zeren ikusten baitugu erlijiozale eta bertutetsu ziren zenbait gizon handiren artean oso erabilia izan dela idazterakoan nahiz ihardunean, eta are aldarean aritzen zirenek eta jendartearen jaurespenaz arduratzen zirenek ere parte hartzen zutela eztabaida hauetan."

"Barkatu, Teokle, -esan nuen nik- nire ausardia baieztatzen badut honek ez diola oraindik aurrean dugun arazoari heltzen. Kristau aroa, gaur agertzen zaigun eran, hartu behar dugu kontutan. Badakizu zein den euren burua alderdigabeko agertzera ausartzen diren egileen patua. Zer gertatu zitzaion The Intellectual System of the Universe idatzi zuen gizon elizkoi eta jakintsuari? Aitortzen dut nahiko irrigarria zela gogoratzea mundu guztia bat zetorrela bere gaitasun eta jakiteaz, hala nola bere zintasunaz jainkotasunari dagokionean, eta hala ere salatu egin zutela jainkogabeei abantaila emateagatik euren arrazoiak eta euren aurkakoak batera eta alderdikieriarik gabe azaldu zituelako. Eta tankera honetako beste idazki batzuen artean gogoratuko duzu nola hartu zen alderdigabeko beste ikerketa (zuk deitzen zenuenez) hura, zer irain sorrarazi zuen."

"Sentitzen dut -esan zuen Teoklek- ondorio honetara heltzea. Baina orain, benetan, aurkitu duzu puntu honetaz luze ihardutera behar nazakeen bidea, askatasun filosofiko honegatik bidegabeki maiseatua izan zen lagun baten defentsa harira ekarririk."

Aitortu nien Teokle eta besteei hori zela nire benetazko helburua, eta arrazoi horregatik, besterik ez, bihurtu nintzela egile horren salatari: "eta egiaz leporatzen diot Jainkotasunari eta geroko bizitzari buruz hain kezkagabe eta pairakorki (inongo adore edo grinarik erakutsi gabe) arrazoitzea, beste idazle erabidetsu eta bareei leporatu nien legez."

"Eta ni, oster, -ihardetsi zuen Teoklek- prest nago arrazoitzeko era pairakor horren bidez, eta saiatuko naiz nire lagunari egiten zaion egozketa hori argitzen, hain zabalera handiko gaian niri aditzeko nahiko eroapen baduzue."

Denok onetsi genuen eta berak honela ekin zion.

"Erlijioaren defentsan diharduten idazle ugarietatik gehiengoa ahalegiten da, nire ustez, hala kristau fedearen egia oinarritzen bere orokortasunean, nola eliza kristauak berrikuntzat jotzen dituen doktrina jakin batzuk gezurtatzen. Pentsatzen da, oster, ez dagoela jende asko munduan erlijioaren oinarri hutsen eta hastapenen bila, eta egundaino, egia esan, ez dugu idazle askorik aurkitzen horretaz arduratzen direnak. Beharbada pentsatuko dute ia mundu guztiak higuinez eta izuz tratatzen duen jendearekin soseguz ihardutea eginkizun doilor eta behea dela eurentzako. Baina, gure erlijioak gizaki guztiak maitatzea eta karitatea agintzen dizkigunez, ezinbestekoa izango zaigu, seguruena, errurik larrienean erori diren horietaz benetan kezkatzea, esperientziaz dakigun arren oso nekez ekar daitezkeela berriro bide onera. Eta, gainera, zuhurak izanik, ez litzaieke hain arreta gutxiarekin begiratu behar, zeren euren kopurua, txikia izan arren, ematen duenez handitzen baitoa; eta hau gertatzen da behe mailako ez den jendearen artean ere. Beraz, merezi dezake nolabait zera gogotan hartzea: ea gure garaian eta herrian balio izango duten orain arte erabili diren erremedio berdinek, ala ez ote den hobetsi beharko besteren bat, egokiago izango dena erlijio kontutan hertsitasun txikiagokoa den garaietarako, eta autoritateari gutxiago makurtzen zaion lekuetarako."

"Hau nahikoa izan liteke egile bat jar dadin bururatzen nola arrazoi litekeen atzipetuak dauden horiekin, eta hori izango da eraginkorragoa hauen mesederako, euren aurkako argudioak indartzeko erabili ohi diren oihuak eta antarraldiak baino. Eta ez litzateke, gainera, guztiz zentzugabea izango irudikatzea proba daitekeela hain desberdina den metodoa; horrela idazle batek arrazoimena eskaini ahal izango lieke gizaki horiei, askoz abantaila handiagoarekin -aurreiritzirik gabe jokatzeko duelako -eta gauza guztiak, arraz

axolagabe eta aiherga, aztertzeke grinarekin. Zeren beti etor daiteke eta pertsona hauengandik halako erantzuna: Sekula zalantzatan jarri ez dena ez dela inoiz frogatu; eta noizbait aihergatasunez aztertua izan ez den edozein gai, ez dela sekula zuzenki aztertua izan eta ezin dela zuzenki sinetsi. Eta era honetako traktatu batean, idatz-saio edo ikerketa hutsa bezala eskainia, egileak erakutsiko balu alderdi bateko ondorioekiko joera eta beste alderdiko ondorioekiko higuina, eta ez balego gertu halako azterketa batek, eta arrazoimenaren ihardunak ekarriko lukeen zeinahi ondorio onartzeko, nekez aurkitu ahal izango genuke beharrezkoa den alderdigabetasun eta aihergatasun hori, .

"Beste batzuk, oster, (beste egoera batzuetan) beharrezkoago eta euren nortasunarentzat egokiago kontsidera dezakete jende horren hastapenekiko eta pertsona horienganako era guztietako erdeinua erakustea. Gure egilea, aitzitik, (izatez laiko bat baino ez dena) mota horretako gizonen aurrean gizabidetsu eta arretatsu agertzen ahalegiten da, ahal den jarrera atseginena azalduz, eta are Jainkotasunaz ere guztiz axolagabe ihardukituz. Ez du berak inolako ondorio positiborik eskaintzen, baina besteei uzten die bere hastapenetatik ondorioak ateratzen. Bere helburu eta asmo nagusia zera izango da: lehena pertsonok bertutearen hastapenekin adiskideratzea, hala non, bide horretatik, gizakien hobea eta grinetatik sortzen diren traba nagusienak (bakarrak ez badira) iraitziez gero, erlijioari bide bat ireki ahal izango zaion.

"Helburu horrekin nagusiki bertutea hastapen batzuetan oinarritzen du, horien bidez oraindik Jainkoa eta Geroko Bizitza onartzera makurtu ez diren horiek konbentzitu ahal izango dituelarik. Nola izango zaie, bestela, ulergarria Ontasun Gorena Ontasuna berez zer den ez dakitenei? Nola ulertu ahal izango dute bertuteak saria merezi duela ez badute ezagutzen bertute horien meritua eta gorentasuna? Mutur okerretik abiatuko ginateke, seguruena, meritua graziaren bidez eta ordena Jainkoaren bidez frogatuko bagenu. Hau gure lagunak zuzendu egingo luke. Zeren, bertuteari dagokionez, arestian errealista deitu duzuna bada, frogatzen saiatuko da ezen: bertutea benetan zerbait dela bere baitan eta gauzen izanean; ez dela nahikeriazkoa edo artifiziaia (horrela hitz egin badezaket); ez dela sortzen bertuterik ez dagoen lekutik; ez dela ohituren, asmamenaren edo nahiaren menpeko, eta ezta ere nahi gorenarena ere, haatik, halabeharrez ona izanik onaren gobernupean dago eta beti eraberekoak dira biak. Eta bertutea bere gairik nagusia bihurtu badu ere, eta neurri batean erlijiotik banandu duen arren, bururatzen zait azken finean moralista den adinako teologo bikaina bilakatuko zaigula seguruenik.

"Nik ez nuke gogoz eskainiko ondoko arau hau: alegia, bertutea izen hutsa bihurtzen dutenek gauza bera egiten dutela Jainkoarekin, eta ezin dituztela erlijioaren oinarriak aihergatasunez defendatu; baina ausartuko naiz, aldiz, zera baieztatzen: bertutea zinez defendatzen duen eta moral kontutan errealista den edonork teologian ere derrigorrez errealista izan behar duela neurritan batean, arrazoitzeko era berdinari jarraituz.

"Itxurakeria oro, bereziki filosofian, barkaezina dela deritzot. Eta zuk, Filokle, arrazoiketa okerrei amore ematen ez diezun horrek, funts gabeko eta sendotasun gabeko hipotesiak jasaten ez dituzun horrek, hain tolesgabekoa izango al zara gure jainkozaletasun modernoaren baztertzeke, eta erronka egiteko euren filosofiak inondik ere baimentzen ez dien izena hartzen duten horiei?

"Nire agurra Epikuro prestuari, bere jainkoak irudimenezko eremutan jartzen baititu; eta mundutik eta gauzen izaeratik bananduta jartzen dituelarik, hitz hutsa bihurtzen ditu. Jokabide hau tolesgabekoa eta garbia da, filosofatzen duen edonork erraz uler dezake eta.

"Tolesgetasun berdina dagokie, Filokle, zuk onetsi bide dituzun filosofo horiei. Eszeptiko batek galdegiten duenean ea benetazko teologia atera ote daitekeen filosofia hutsetik, errebelazioaren laguntzarik gabe, erlijiotik jaso duen autoritateari lausengu dotorea baino ez dio egiten. Ezingo dizkio bere ideiak ezarri sakonki arrazoitzen duen inori, zeren horrela egiten duenak erraz burura baitezake teologiak ez duela era

horretako inongo oinarririk izan behar. Errebelazioa berez, badakigunez, jainkozko existentzia baten aitorpenean datza, eta filosofiaren lan bakarra da frogatzea zeintzuk diren errebelazioaren auresuposapenak.

"Uste dut, orduan, ez dela bide zuzena eraikitzaile eta frogatzaile izan nahi duten horientzat oinarri eskasegiak botatzea euren egiturari eusteko. Inoren lekua hartzea eta azpijokoa lehiabide egokiak izan daitezke kasu batzuetan, baina eztabaida filosofikoetan ezin da azpilanean eta inguraketan ibili. Ez da ezer desegokiago izaera goren batez, amaigabe batez eta jainko batez maisuki eta era gurgarrian hitz egitea baino, probidentzia sekula aipatzen ez den artean eta ez denean onartzen adimen batek zuzendutako ordena dagoela munduan. Zeren gauzak ulertzen direnean, eta benetazko teologia ezagutzen denean, bere jakintza ez baita lehorra eta antzua; alderantziz, beretik ezinbestez ateratzen diren ondorioek gu ekinbidean jarriko gaituzte eta gure eraspen sendoenei norabidea emango die. Erlijioaren betebeharrak guztiak hemendik ateratzen dira, argi eta garbi, eta ez dago salbuespenik errebelazioak ezarritako arau nagusienei dagokienez.

"Orain, bada, jakin nahi baduzu ea gure laguna, benetan eta zinez, azken teologo hauen artekoa den, bere hipotesien ondorioei begiratu beharko diezu. Ikusiko duzu ea espekulazio hutsean geratu beharrean ekintzara daramaten. Eta poztuko zara, seguruenak, ikustean jendeak, oro har, erlijio handitzat jotzen duen egitura jaso dela, zeina bakarren batzuk, noski, entusiasmotzat baino ez duten jotzen.

"Zeren zuri galdegiten dizut, Filokle: ba al dago ezer teologian zure ustez entusiasmoarekin antz handiago duena jainkozko maitasunaren nozioa baino? Lurtarra, sentipenezkoa eta berekoia den orotik urrundua dago. Maitasun bakuna, hutsa eta nahasigabea da; bere baitango izatearen goitasun soila baino ez du hartuko gai bezala, eta zoriontasunezko pentsamendu bakar bezala bere bakarkako gozamina hartuko du. Orain suposatzen dut, ausarta izanez, onartuko duzula nire laguna erlijioezatik nahiko urrun dagoenaren froga mamitsu gisa zera: balio duela erakustea nozio hori bereganatu duela, eta pentsatzen duela teologiaren arazo nagusi hau argitu egin daitekeela, are erlijioari kontrajartzen zaizkion horientzat ere ezagunak diren argumentuekin.

"Hortaz, bere hipotesiaren arauera zera azalduko lizuke, badaezpada ere, lehena: badakiela berak jakin, jainkoarenganako maitasun interesgabea, hastapen bikainena izanda ere, behartuegia izan dela jainkotiar gogoneko batzuen gar zentzugabeagatik, agian nabarmenkeria eta entusiasmoraino; antzinako elizako mistikoen eran, zeintzuei jarraitu baitiete orainagokoek. Bestalde, badirela beste batzuk bide mistiko horren kontra, eta entusiasmo deitzen dutenaren etsai azalduz, sorgor bide hori gutxietsi dutenak debozioa bera ere galtzeraino; eta erlijio razional deitzen duten horretan hain gar, eraspen, edota bizitasun urria jarri dute hauek, ezen euren zintasuna beti ere susmagarria egiten den. Zeren (esango lizuke berak), idazle politiko soil batentzat erlijioari buruzko argudio nagusia oinarritzeko nahiko naturala bada ere geroko sari edo zigorrean sinetsi beharra, zintasun seinale gaitza da erlijioa, eta bereziki kristau erlijioa, horretara murriztea, maitasunaren hastapenerako lekuri utzi gabe, eta entusiasmotzat joaz bai interesgabezia deitzen den oro, bai jainkoarenganako maitasuna edo berezko bertutea.

"Hemen, bada, (nire lagunaren iritziaren arauera) bi jende mota dugu, bi muturretan kontrajarriak, eta erlijioa bere arerioek irain dezaten bidean jartzen dutenak guztiak. Alde batetik, nekez defendatu ahal izango da maitasun goren honen nozioa deboto mistiko horiek azaltzen duten era sutxuan; beste aldetik, beste gizaki hotzago horien hastapenetan oinarrituz gero, eginkizun neketsua izango da erlijioa mertzenari eta izpiritu morroia izatearen salaketatik libratzea. Nola esango du inork, bada, ez dela mertzenarikeria eta morroi-bihotza jainkoari bortxaturik edo interesagatik zerbitzatzea.

Ez al da nabarmena edozein izaki goren zor zaion zerbitzua (jator eta liberala) maitatua den pertsonarenganako estimatik edo maitasunetik datorrela, hau da, betebeharraren edo eskerronaren zentzu batetik, eta betebeharraren edo eskerronaren hori berez ona eta maitagarria kontsideratzetik? Eta non egongo da erlijioarentzako iraina honetan amore ematean? Eta zertan ahulduko da sariaren eta zigorraren sinesmena, onartzen badugu eurek dakarten mesedea ez dela borondatezkoaren eta zaletasunezkoaren parekoa, baizik eta toleskeria eta morroiakeria? Ez al da jarraitu behar gizadiaren eta munduaren onerako zuzenbidearen araua, modurik onenean ez bada bai behintzat era inperfektu honetan? Ez al da azaldu behar beldurrari zerbitzatzea behea eta zitala izan arren (erlijioa diziplina eta arimaren perfekzioarako aurrerabidea izanik) saria eta zigorra motibapen oinarritzakoak eta handiak direla; baina, heziketa gorenago bat jasotzeko gauza garenean, morroi egoera horretatik eraspenaren eta maitasunaren zerbitzura iragaiten garela?

"Honek izan behar du, gure lagunaren iritziz, denon helburua, eta ahalegindu behar dugu helburuaren bikaintasuna izan dadin mugituko gaituena eta ez saria; alabaina, baliteke, gure izaeraren ustelkeria dela eta, lehena ez izatea nahiko motibu gu bertutera bultzatzeko; bigarrena izan daiteke, orduan, lagungarri, eta ezin da inolaz ere bera gutxietsi edo baztertu.

Behin hau finkatua, nola leporatu ahal izango zaio erlijioari mertzenarigo hori? Hala ere, badakigu maiz egiten dela salaketa hau. "Jainkotasunak, esaten da, irabazpen handia dakar, eta ez zaio zerbitzatzen ezerezen truke." Maiseo bat al da hau? Onartzen al da zerbitzatze hobe bat edo maitasun oparoago bat egon daitekeela? Ederki, ez dugu gehiago behar. Gure lagunak suposatzen du oinarri hauekin erraza dela erlijioa defendatzea, are bere alderdi grinatsuenean ere, fedearen paradoxatzat jotzen dena. Zeren naturan eraspenaren eta maitasunaren gisako zerbitzapena egonez gero, bilatu behar dugun gauza bakarra zera da: ea benetan existitzen den, guk suposatzen dugun izaki goren hori. Zeren gauzen baitan jainkotasun bikain bat baldin badago, naturan adimen edo jainkotasun goren bat baldin badago, badaukagu orduan gai bat ona eta bikaina dena, gauza guztiak bildu eta osatzen dituen. Eta gai hau izango da ezinbestez maitagarriena, erakarleena, eta asetasun eta atsegintasun handiena emango duena. Munduan horrelako gai nagusirik dagoen ala ez, bakarrik munduak (horrela esan badezaket) ager dezake bere ordena jakintsu eta perfektuaren bidez. Ordena honek, benetan perfektua bada, gaitz oro baztertu du. Eta hain zuzen horrela gertatzen dela mantentzen du gure egileak hisituki, mundu honetan (itxuran hain era desberdinean banatuta dagoen bertutearen multzoan) probidentziak arautik kanpo sortzen dituen fenomeno eta ikur txarrei ahal duen erantzun onena emanaz.

"Egia da erraz eraso daitekeela hemendik sortzen den jainkotasunaren kontrako erreparoa, eta gauzak bere onera ekar daitezkeela gero bizi suposatuz -nahiz eta itxurek beti bertutearen kontra eta hobeen alde jokatzeko duten-. Kristau batentzat, edo puntu handi honetaz jadanik konbentzita dagoen batentzat, nahikoa da probidentzia iluntzen duen edozein goibelaldi atertzeko. Zeren heriotzondoaz seguru dagoena ez da mundu honetan gehiegi arduratu behar bertutearen patuaz. Baina alderantziz gertatzen da aurrez aurre dugun jendearekin. Galdu samar daude probidentziaren kontuan eta bera lurrean bilatzen dute. Munduko arazoek erakusten duten desordenaren handiagoketak, eta gizarteari buruz eta giza izaerari buruz erakusten duten ikuspegi beltzak, nekez lagunduko die iritzi horretan. Zaila izango zaie probidentzia aurkitzea ikur horien artean. Beheko gauzen aurpegi zakarraren ondorioz, goiko guztiez ez dute aldeko iritzirik izango. Ikusten dituzten ondorioen bidez zergatia juzgatuko dute, eta bertutearen patuz probidentzia zehaztuko dute. Baina behin konbentzita oraineko gauzetan ordena eta probidentzia dagoenaz, agudo onartuko dute gero mundu bat. Zeren bertutea berez sari ederra izanik, eta

hobenak neurri handi batean bere zigorra badakar ere, oinarri irmoa baitugu aurrera egiteko. Zuzenbide banatzailearen oinarri soilak, eta mundu honetako beharrezko ordenak eraikuntza gorenago bat bururatzera bultzatzen gaitu. Antzezleku zabalago bat igarriko dugu eta erraz argituko dugu, gure artean, zergatik ez diren gauzak betetzen mundu honetan, eta zergatik geratzen diren geroagoko garai batean osatzeko. Zeren gizakien artean onak eta bertutetsuak direnentzat bizitza hau oparoa izango balitz; ontasunak sekula aurkituko ez balu trabarik, eta merezimenduarentzako itzalik egongo ez balitz; non egongo lirateke bertutearen zailtasuna, garaipena eta koroia? Non izango lukete bertuteek euren antzezlekua, nondik euren izena? Non egongo lirateke neurritasuna edo norberari uko egitea? Non pazientzia, otzantasuna eta bihotzandia? Nondik izango dute hauek euren izana? Zer meritua euren eskasia ez bada? Zer bertute egongo litzateke gatazkarik gabe, eta bai barrutik, bai kanpotik, sortzen diren arerioekin topo egin gabe?

"Baina bertuteak mundu honetan aurkitzen dituen zailtasunak asko badira ere, handiagoa da oraindik bere indarra. Hemen azaldu den eran azalduta ere, ez da zapuzten edo miserian uzten. Bera gauza da gupidaren gainetik altxatzeko, baina ez gure nahien gainetik: eta hemen zoriontsu ikusten dugun arren, bere izenean gauza gehiago itxaron dezakegu oraindik. Bere oraina aski da erakusteko probidentzia bere alde dagoela. Eta hain da ugaria hemen, halako zoriontasuna eta abantailak ematen ditu bizitza honetan bertan, ezen, seguruena, arreta probidentzial hori zabalduko den baita bizitza arrakastatsu eta heriotzondo perfektu batera.

"Hau esan dakieke (nire lagunaren iritziz) errebelazioa zalantzatan jartzen duten horiei, geroko bizitza bati buruz. Jainkoarengan eta probidentzian sinesteak bihurtuko du errebelazioa egiantzeko, eta berarenganako lehen urratsa bermatuko du. Probidentzia mundu honetako gauzetan ikusten dugun ordenan oinarrituz frogatu beharko da. Ordenaren alde lehiatu behar dugu, bereziki bertuteari dagokionean. Ez dugu dena heriotzondoari begira egin behar. Zeren egoera nahasi batean gauzekiko ardura baztertzen denean, hobena ez denean kontrolatzen eta bertuteaz arduragabetzen garenean, anabasa hutsa besterik ez baitago, eta jainkogabeen bihotzeko atomo, halabehear eta nahasketara murriztuak gara.

"Ba al da zerbait kaltegarriago jainkotasunaren defentsarako, desordena goraiatzeko eta (zenbait pertsona gartsuk egiten duen bezala) bertuteak dakarren ezbeharra gehiegitzea baino, horrela bertute hori mundu honetarako zorigaiztoko aukera bihurtuz? Huts handia egiten dute, mundu honetaz iritzi txarra zabalduz gizakiei mundu hobeago batez pentsarazi nahi dietenek. Zeren fede ahulagoa dutenen aurrean bertutearen aurka horrela iharduteak jainkoarenganako sinesmena galaraziko du, baina ez du, oster, indartuko geroko mundu batez sinestea. Eta ezin da ezta ere benetan pentsatu edozein gizakik geroko mundu batez sinesteko joera txikiago izango duenik, nahiz eta bertuteaz eta berak sortzen duen zoriontasunaz iritzi gorenena duen. Haatik, ikusiko dugu, hobenaren aldeko direnek geroko existentziaz hitzik ere entzun nahi ez duten legez, bertuteaz maiteminduta daudenak gertuenak direla bertutea hain ohoretsu bihurtzeko eta bere helburua garaitzaile egingo duen iritzia besarkatzeko.

"Horrela, antzinakoen artean jakintsuenetako askok eurei errebelatu ez zitzaient doktrina hau sinetsi bazuten ondoko arrazoi honegatik besterik ez zen izan: gizartearen fundatzaile, defendatzaile, legegile, abertzale, askatzaile, eta heroiengan gauzatzen zelako bertutearekiko maitasuna eta horien guztien bertuteak iraunarazteko eta betikotzeko nahia alegia. Eta gaur egun ere on eta bertutetsuek sinesmen honekin bat egin dezaten ez dago adiskideen maitasuna baino ezer egokiagorik; heriotzarekin elkarrengandik guztiz urrunduak izan ez daitezen eta heriotzondoan gizarte dontsu berdinez gozatu ahal izateko irrika sortzen baitu berak. Nola, bada, jo daiteke geroko

bizitzaren areriotzat inor bertute hutsa goraipatzeagatik? Nola jo daiteke gure laguna erlijioaren traidoretzat hastapen bat defendatzeagatik, jainkoaren eta ontasunaren nozioak hastapen horren menpeko direnean? Izan ere berak honako hau besterik ez du esaten laburbilduz: geroko mundua bertutearen hondarretan eraikitzean, erlijioa oro har, eta jainkotasunaren defentsa, sakdu egiten direla: eta eginbeharraren motiborik nagusienak sarian eta zigorrean ezarriz, kristau erlijioa bereziki agintegabetzen dela, eta bere hastapenik nagusiena zapuztu eta ohoregabetu.

"Hau guztitik zera ondoriozta dezakegu zuzen eta karitatez: gure egilea hain adiskidetsu hurbiltzen zaienean hastapen ahulagoko gizakiei, bere benetazko nahia dela horien baitan gizadiaren erakuntzaz eta giza arazoez ulerkuntza jakin bat sorraraztea; eta horren bidez posible egitea gauzen ordenaren nozioa sor dadila eurengan, eta hortik ateratzea jakituria, ontasun eta edertasun gorenaren ezagupena. Behin honetara ekarri dituela, gure erlijioak irakatsiko dien jainkoazko maitasun horretarako gertu egongo dira, bere aginduak besarkatu eta bere izaera sakratuan heziak izan eta gero.

"Horra hor -jarraitu zuen berak- nire lagunaz egin dudana defentsa. Beharbada horrela, moralista on baten legez ikusiko duzue, eta, nik espero, ez erlijioaren etsai legez. Baina uste baduzue ez dela oraindik agertu hor nik agindu dudana teologoa, ez deritzot, orduan, solasaldi arrunt batean asetuko zaituztedanik. Aurrera jarraitzea eskainiko nizueke; izpirituzko arazo sakonetan murgilduko nintzateke eta bere teologia sistemaz sermoi mota berri bat egitera behartuta egongo nintzateke. Dena dela, espero dut, gai serioetan ia predikatzerara heldu naizenez, barkatuko didazuela dagoeneko esan dudanaagatik."

IV. Atala

Bera isildu besterik ez zen egin eta bisitari batzuk etorri ziren, eta arratsaldeko gainerako orduak eurekin eman genituen beste ihardunaldi batzuei loturik. Baina behin horiekin bukatuta eta gure lagunak joanda (jaun edadetuak eta bere laguna ezik, hauek gurekin afaltzera geratu zirelarik) hasi ginen Teokleri bere sermoia erregutzen, eta behin eta berriz eskatuz bere bide teologikoaz era zehaztuago batean hitz egin ziezagun.

Kexatu zen esanaz jarraitzen gintzaizkiola gizartea kantari ospetsu bati jarraitzen zaion bezala: ez musikaren liluragatik, jakinmin gaizto bat asetzeko baino, eskuarki maiseaketan edo ikusiezinean bukatzen dena.

Edozein modutan ez genuela amore emateko asmorik esan genion. Eta gure adiskideei ziurtatu nien, bihotzez lagunduko balidate nik bera premiatu nahi nuen bidetik, erraz lortuko genuela gure helburua.

"Baina mendeku gisa -esan zuen berak- baldintza hau jartzen dut: nik teologoarena eta sermoilariarena egingo dudana artean, Filoklek egin beharko du fedegabearena eta sermoia jasotzen duen pertsona ordezkatzeko du."

"Benetan -esan zuen jaun edadetuak- hain berezkoa eta egokia zaio zuk eskaini diozun papera, ezen ez dudana zalantzarik egiten ez zaiola ezer kostako bera antzeztea. Baina nahiago nukeen berari eginkizun hau izendatu izan ez bazenio. Nahiko gauza izango zen berez zure hizketa mozteko bere etengabeko baina hoiekin. Orain bada, nahiko solas izan dugunez elkarrizketekin, nahiko nuke sermoiaren bideari jarraitzea hertsiki, eta edozein gauza argudiatzen edo aurreratzen den arren ez dadila erantzunik egon."

Onartu nituen baldintza guztiak eta esan nion Teokleri gogo onez izango nintzela bere entzulea. Gainera, benetan berak suposatzen zuen fedegabea izango banintz, ez nuke zorigaiztotzat joko, zeren seguru bainengoen berak erabat konbentzituko ninduela, bere ahalegina eskainiez gero.

Teoklek orduan kanpora irtetea proposatu zuen; ilunabarra atsegina zen, eta haize zabala (bere ustez) gela bat baino egokiagoa zen halako ihardunaldi baterako.

Horrela eman genuen gure ilunabarreko ibilaldia soroetatik, nekazari maratzek alde egiten zuten artean. Nekazal bizitza goraipatzea etorri zitzaigun eta laboraritzaz eta

lurraren izaeraz ihardun genuen apur batean. Gure lagunak han perfekzio handiarekin sortzen ziren landareak miresten hasi ziren. Eta, osabelarren izaerari buruz zerbait nekiela, gai horri buruz esan nuen zerbait besteez kemenez oniritzi zutenez, Teokle niregana zuzendu eta esan zidan: "Ene lagun sineskorra, zein argia eta zorionekoa den zure arrazoimena beste arazo batzuei dagokionean!; alabaina, nola liteke halako zuhurtasuna eta jujamendu zorrotza izanda naturaren izaki eta ekintza banakoez, ez juzgatzea hobeto gauzen egitura orokorrak eta naturaren inguruaz? Erakutsiko al du inork zuk baino hobeto landare eta animalia guztien egitura, hala nola euren zati eta organo guztien erabilpena, xedea eta abantailak? Nola, bada, oster, agertzen zara hain naturalista eskasa osotasunari begira? Nola ulertzen duzu hain gutxi lurraren eta naturaren anatomiarik buruz non ez duzun bereizten zatien arteko harreman berdina nahiz sendotasun eta erakidetasun berdina, unibertsoan?

"Gizaki batzuk, agian, euren pentsaera nahasiagatik eta euren barne heziera eragabetik, berezkoa deritzote erakuntza zabalago honetan akatsak aurkitzeari eta hamaika erru eta desiraupen bururatzeari. Suposa dezakegu ez zela natura orokorraren helburua edo interesa banako guztiak hutsezinezko eta akatsgabe bihurtzea. Ez zen bere asmoa gu imperfekzioaren adibiderik gabe uztea, haien adimenetan aurkitzen ditugun bezalakoak. Baina zu, ene lagun, adimen nobleagodun ugazaba zara. Jabetzen zara barrenean ordena hobeagoa dagoenaz, eta ikus dezakezu zure baitan, hala nola naturaren beste zati askotan, trebetasuna eta zehaztasuna. Sinetsi ala pentsatu ahal duzu osotasunak ez duela ez batasunik ez barne-loturarik izango, zatiak hain era askotara lotuak daudenean eta elkarren artean egokiturik lehiatzen direnena?; eta izaera menpeko eta banakoak perfektutzat hartzen badira, orokorrak perfekzioa faltan izango al du, eta pentsa daitekeen gauza denez, besterik ez, izugarri, zakar eta imperfektua izango al da?

"Harrigarria naturan perfekzioaren eta ordenaren ideia egotea eta natura bera horien faltan izatea! Harrigarria naturatik sortzen diren izakiak hain perfektuak izatea, non euren erakuntzan imperfekzioa aurkitzen duten eta eurak sortu dituen jakituria zuzentzeko gauza diren!

"Ez dago ezer, seguruenik, gure adimenari atxekiago, edo gure arimarekin hestukiago gurutzatua ordenaren eta neurriaren ideia edo zentzua baino. Hortik zenbakien, eta euren usu eta erabilpenean oinarritutako langintza ahaltsuen, indarra. Zer alde handia dagoen harmonia eta nahasketaren artean!, zer aldea higidura lasaia eta ordenatua eta araugabea eta ustekabearen artean!, arkitekto prestu baten eraikunde arautu eta eraberekoa eta hare eta harri moltso baten artean!, eta gorputz antolatua eta haizeak daraman laino edo hodei baten artean!

"Diferentzia hau berehala atzematen bada barne sentipen garbi baten bidez, era berean arrazoimenean ondoko azalpena aurkitzen da diferentzia horretarako: ordena duten gauza guztietan asmoaren batasuna dago eta bat egiten dira; osotasun baten zati dira ala, berez, sistema osoak dira. Hala da zuhaitza, bere adar guztiekin; animalia, bere gorputzadar guztiekin; eraikuntza bat, bere kanpoko eta barruko apaindurekin. Zer da, bada, soinu edo sinfonia bat, edo musika eresi bat, hotsen neurri edo sistema bat baino?

"Unibertsoa deitzen dugun horretan, sistema partikular batek izan dezakeen perfekzioa arren, edo edozein zati bakarrek, bere baitan, izan dezakeen neurria, batasuna edo forma arren -ez badaude orokorki sistema batean bilduak, baizik eta hare nahasiak, hodeiak edo lehertzen diren olatuak bezala harremanatzen badira elkarrekin- ezin da atera euren osotasunaren barne lotura faltatik ez ordenarik ez neurriarik eta, beraz, ez projekturik ez asmorik. Baina zati horiek ez badira burujabeak, itxuraz lotuak baino, orduan euren osotasuna sistema betea da, asmo bakun, tinko eta eraberekoaren arauerakoa.

"Hona hemen, bada, berriro esanda, gure gairik nagusia: gizakia nahiz beste edozein animalia, bakoitza bere baitan, zatiz osatutako sistema osoa kontsideratu ahal bada ere,

ezin da alde horretatik osotzat hartu bere kanpoarekiko; honetarako bere motakoen sistemarekin harremanean hartu behar da. Era berean, bere motakoen sistema hori animalia sistemarekin harremanatuko da, azken hau munduaren sistemarekin (gure lurrarekin), eta hau ere mundu handiagoarekin, unibertsoarekin.

"Mundu honetako gauza guztiak batuta daude. Hala nola adarra zuhaitzarekin batua dagoen, zuhaitza lurrarekin, airearekin eta urarekin dago batua, bera elikatzen baitute. Lur emankorra zuhaitzari egokitzen zaion heinean; haritzaren edo zumarraren enbor sendo eta lerdena mahatsondoaren eta untzaren enbor igokariari egokitzen zaion heinean; zuhaitz horien hosto, hazi eta fruituak animalia ugarientzat egoki diren heinean; animalioek, halaber, elkarri eta eurak bizi diren elementuei egokitzen eta lotzen zaizkie, horretarako baliabideak dituztelarik: bai hegoak airerako, bai hegatsak uretarako, bai oinak lurrerako eta beste zenbait zati apropos inguru eta egitura bitxiagotarako. Horregatik gauza guztiak lurrean kontenplatzen baditugu, ezinbestez dena batean ikusi behar dugu, multzo orokor batean bildua bezala. Eta berdin gertatzen da mundu zabalagoaren sisteman. Begira gauzen arteko elkarrekiko menpekotasuna, bata bestearekiko harremana, begira eguzkiaren lotura lur biztandu honekiko, eta lurra eta beste planetena eguzkiarekiko; osotasunaren ordena, batasuna eta barne-lotura; eta jakin ezazu, nire lagun burutsu horrek, ikerketa honen bidez onartu beharko duzula sistema unibertsala eta gauzen baneloturazko eskema frogatuta oinarritzen dela, naturaren lanen soegile zuzen eta arteza konbentzitzeko adinakoak. Zeren nekez sinetsiko bailuke inork batasun hori hain nabarmenki frogatuta ez badu aurretik antzezleku unibertsal hau ondo miatu, elkarrekiko egokitasun eta harreman kasu ugari eta sendoez baliaturik, izatearen maila eta ordena xeheenetatik esfera urrunenetaraino.

"Alabaina, ez da harritzekoa batasun ahaltsu honetan zatien elkarren arteko harremana aurkitzea nekeza izan dadila, gauzen xedea eta erabilpena ez dadila nongura agertu; izan ere ezinbestez gertatu behar dena dago munduan eta besterik ez, jakituria gorenak ezin baitzuen bera beste modu batez ordenatu. Zeren harremanaturiko gauza amaigabe batean, adimen batek ez badu amaigabeki ikusten, ezin baitu ikusi ezer osorik; eta banako bakoitza denarekin harremanatzen denez oro har, adimen horrek ezingo du ez perfektiorik, ez ezeren benetazko harremanik ezagutu, ez badu mundua perfektuki eta osorik ezagutzen.

"Berdin pentsa daiteke edozein animalia, landare edo lore zatituz; anatomista ez denak, edo natur historiaz jantzia ez denak, ikusten du zati desberdinak osotasunarekin harremanetan direla, hau begilauso batek ere ikus dezake eta. Baina zuk bezala, ene lagun, naturaren lanez ikusmina duenak, eta animalia eta landare munduaren ezagupena eskuratu duenak, horrek bakarrik adieraz dezake erraz zati guzti horien arteko elkarrekiko harremana, eta euren erabilpen desberdinak.

"Dena den, pentsamendu honetaz gehiago sakondu nahi baduzu eta kontsideratu nahi baduzu noraino heldu behar dugun, ez bakarrik gure burua asetzeko gauzen ikuspegi honekin, baizik eta baita bere argitasuna mirestek ere, irudika ezazu pertsona bat itsasketa kontutatik guztiz urrundua eta itsaso eta uren izaeraz ezjakina; bere burua unti baten gainean ikustean -itsaso zabalean ainguratua, lurra ikusten ez duela ezta urrutik ere, eta bare dagoela- benetan harrituta egongo litzateke makina ahaltsu hori irmo eta geldi ikustean ozeano leunaren erdian, eta baita ere bere azpiko oinarriaz pentsatzean, hala nola soke, mastez eta han goiko belez. Zein erraz ikusiko zuen osotasunaren egitura bateratua, gauza guztiak bata bestearen menpe: beheko gelen erabilpena, gizonen bizilekuak, erosotasunak eta biltegiak! Baina goiko gauza guztien helburuaz edo asmoaz ezjakina izanik, mastak eta sokak baliagabe eta eragozkarritzat joko lituzke, eta arrazoi honegatik kroskoa gaitzetsi eta arkitektoa arbuiatuko luke. Oi ene lagun!, ez gaitzala gure ezjakintasunak traditu, haatik, har dezagun kontutan non gauden eta zein

unibertsotan. Pentsa ezazu makina eskergaren zati ugariez; guk azaletik ikusten dugu eta bere xede eta erabilpena ezagutzea ezinezkoa zaigu, oihal handiak ikusi beharrean sotoan zerbait ikusten dugunean, eta zokoratuak gaudenean okela zati ilun honetan, ontziaren zoruan, bazter eskasenean.

"Behin, egitura erabereko eta tinko hau bereizi dugula, eta sistema unibertsala onarturik, adimen unibertsala aitortu behar dugu; eta ezingo du inongo gizon burutsuk berari lekua ukatzeko tentazioan erori, unibertsoan desordena bururatzan ez badu. Inor basamortu batean dagoenean, beste gizakiengandik urrunduta, entzuten badu musika sinfonia perfektu bat, edo ikusten badu lurretik arkitekturaren arauarako eraikuntza multzo bat sortzen dela, poliki-poliki, bere ordena eta neurriarekin, konbentzitu ahal izango ote dugu ez dagokiola asmo bat lotuta guzti honi funtsean, ez dagoela hor pentsamenduaren loratze bat, ez adimen ekintzaile bat? Ukatuko al du eskuaren lana ez duelako inon eskurik ikusten? Suposatuko al du halabeharrezko haize boladek, edo hareen iraulketek, moldatu dituztela sistema perfektu eta oso horiek, nonahiko ordena simetriko batean bildurik?

"Zerk eragotz dezake gure naturari buruzko ikuspegia, asmoaren batasuna eta adimen batek ezarritako ordena suntsiaraziz, nahiz eta hauek hain nabarmenak izan? Zeruan nahiz lurrian dakuskigun gauza guztiek ordena eta perfektzioa erakusten dute, eta zientziaz eta ikasketaz aberastutako adimenei, zureari bezala, kontenplaziorako gai bikainenak eskaintzen dizkiete. Dena da atsegingarria, lagunkoia, pozgarria, gizakiari eta bere gorabeherei dagokienean ezik, hor desberdin ematen du. Ezbeharrak eta gaitzak sortzen da eta berarekin inguru onberaren hondamena. Dena ahitzen da arlo honetan, eta unibertsoaren ordena, beste lekuetan hain irmoa, osoa eta mugiezina zena, hemen amildu eta galdu egiten da, gauzak geure buruari egokitzen dizkiogunean, osotasunaren interesa hain zati txikiaren interesari eta onari menperatzen diogunean.

"Nola kexa zaitezke, orduan, gizakiaren egoera dohakabeaz, animalien aurrean hain abantaila gutxi duela eta? Zer irrika dezake beste edozein sorkarik, hain alde txikia izanda gizakiarekin, edo honek hain meritu eskasa izanda bere gainetik, ez bada hain gutxi bereganatzen duten jakituria eta bertutea? Gizakia bertutetsua izan daiteke eta horrela zorientzua da. Bere meritua eta bere saria bat dira. Bertuteagatik irabazten du eta bertutean bakarrik aurki dezake zorientasuna. Baina bertutea bera baztertzen bada, eta hobena, joriagoa izanik, aukera onena bada; honetan baldin badatza gauzen izaera (zuk uste duzun moduan), orduan ordena osoa itzulikatua da benetan, eta jakituria gorena galdua; honela inperfektzioa eta araugabetasuna agertzen dira, zalantzarik gabe, baita ere mundu moralean.

"Pentsatu al duzu (hizketaldi honen aurretik, eta bakarrik bizitza honi begira), bertutearen eta hobenaren egoeraz, esan ahal izateko lain noiz, noraino, zein kasutan eta zein baldintzatan den zerbait ona edo txarra? Bai gizakiaren, bai naturaren beste egitura eta lan batzuetan trebea zarenez, pentsatu al duzu adimenaren egituraz, arimaren erakuntzaz, bere grina eta eraspen guztien lotura eta inguruaz? Ezagutzen al duzu, horren ondorioz, bere zatien ordena eta simetria, eta nola hobetzen den ala gaiztotzen; zein den bere indarra sano mantentzen denean; zertan bihurtzen den ustela eta gaizki erabilia denean? Nola juzgatu al izango dugu (ene lagun!) bai bertutearen indarra bai hobenaren boterea, hau guztia ondo aztertu eta ulertu arte? Nola jakingo dugu batak nahiz besteak gure zorientasuna edo galera dakartela?

"Hara hor lehenik burutu beharko genukeen ikerketa. Baina nor izango da gauza beharko zukeen bezala ekiteko lan horri? Zorionez izaera oneko jaiok bagara, heziketa liberal batek jite eta jarrera emankorra sortu badu guregan, hala nola ondo araututako irrikak, eta probetxuzko joerak, guretzako ongarria da eta benetan estimatzen dugu. Baina, nork kontsideratuko du hori dela bere kasua, edo arriskatuko du bere

zoriontasunaren zatia horretarako? Zeinek pentsatuko du bere partea hobetzea, edo are gordetzea, munduan derrigorrez hain arrisku handia hartu behar badu eta, dakigunez, izaera zuzena hain erraz usteltzen bada? Gurekin zerikusirik duten beste gauza guztiak arretaz zaintzen dira eta antzeren bati edo ekonomiaren bati erantzuten diote; asturuaren menpe dagoen gauza bakarra gu gara: gizakiok, gertuagotik ukitzen gaituena, eta gure zoriontasuna bere gain hartzen duena, eta gure jitea da araurik jasotzen ez duen gauza bakarra, berak beste gauza guztiak arautzen dituen artean.

"Horrela aztertzen dugu gure irrikeri ona edo egokia zaiena, baina ez da gure azterketan ukitzen zeintzuk irrika diren egokiak guretzat. Aztertzen dugu zer moldatzen zaion gure interesari, politikari, modari eta ohiturari, baina bitxia eta lekuz kanpo ematen du aztertzea zer moldatzen zaion naturari. Europako oreka hertsiki bilatzen da, bai merkataritzan bai boterean, aldiz gutxi entzun du zerbait euren grinaren orekaz, edo pentsatu du arlo honi heldzea. Gutxi dira eremu honetan trebatuak edo arazo hauetan jantziak. Baina gu gehiago izango bagina (ikerketa honek lagunduko digun bezala) edertasuna eta txukuntasuna ikusiko genuke hemen -naturan beste edozein lekutan bezala- eta mundu moralaren ordena naturazkoaren parekoa izango litzateke. Bertutearen edertasuna azalduko litzateke, eta horrekin batera (erakutsi den legez) edertasun gorena eta nagusia, guztien jatorria, ona eta maitagarria.

"Alabaina, azken finean ez dezadan entusiastiko baten antza eman, nahiago dut nire iritzia adierazi, eta bukatu berbaldi filosofiko hau zuk hainbat maite dituzun antzinako filologo horietako baten hitzekin. Jainkotasuna bera -dio hark- ederra da seguruena, eta edertasun guztietan distiratsuna, nahiz eta ez den gorputz eder bat, baizik eta gorputzaren edertasunaren jatorria; ez lautada eder bat, baizik eta lautadaren ederraren ikusmira. Ibaiaren ederra, itsasoarena, zeruarena eta zeruko izar multzoena, handik datoz denak betiereko eta suntsiezinako jarioaren gisa. Izakiek honetaz parte hartzen duten artean politikak, emankorrak eta zoriontsuak dira. Galtzen dutenean desitxuratuak, ahituak eta galduak."

Teoklek horrela hitz egiten bukatu ahala gure bi lagunak lausengu egin zioten. Bide beretik zerbait gaineratzera nindoan, baina berak geldiarazi ninduen esanaz eskandalizatuko zela kritikatu ez banu (nire nortasunari jarraituz) bere ihardunaldiaren zatiren bat, goietsi ordez.

"Horrela izan behar badu -ihardetsi nuen- utz ieza dazazu lehenik nire harridura azaltzen argudiapen bakar batean oinarritu zarelako jainkoaren existentzia frogatzeko, eskuarki erabiltzen diren ugarien ordez. Nik espero nuen hitz egingo zenuela, ohizkoa den legez, lehen zergatiaz, lehen izakiaz eta higiduraren hasieraz; substantzia ekaigabearen ideia argitasunaz; zein nabarmena agertzen zaigun, lehenago edo geroago, ekaia sortua izan dela. Baina guzti honetaz isildu egin zara. Onartuko dut esaten dena ekaizko substantzia ez pentsalari (zeinak ezingo zuen ekaigabeko izaki pentsalari bat sortu), onartzen bazait "ezerezetik ezin da ezer sortu" esaldi handia nire aldeko nola nire aurkariaren aldeko izan daitekeela; eta, nire ustez, munduak irauten duen artean aurkari horrek ez du jakingo nola adierazi ekaiaren sorrera eta ezingo du erakutsi bera deusezteko ahalbidea. Gizaki izpiritualetan zera adieraz diezagukete, nahi duteneino, hitz-jario oparoenenan: ekaia (mila azal desberdinetik kontutan harturik, elkarlotua eta banandua, betikotasuneraino aldatua eta desberdindua) ezingo da berez sekula pentsamendu bakar batera heldu, ezingo du ez zentzurik, ez ezagupenik, ekoitzi. Euren argudioak ondo iraungo du Demokrito edo Epikuroren aurrean: edozein atomistaren aurrean, antzinako nahiz orainagoko. Baina euren aurka bihurtuko du argudio hori akademista aztertzaile batek; eta bi substantziak garbi bereizten badira eta mota desberdinak bezala kontsideratzen badira, zentzu osoa izango du eta argudio ona izango da zera esatea, mota ekaigabeaz ere: "Egin ezazu gura duzuna berarekin, aldatu mila

eratan, gardendu, goretsi, sublimatu, torturatu nahi adina, xehetu pentsamenduarekin, ezingo duzu inoiz bere aurkako substantzia ekoitzi edo sorrarazi hortik. Ekai errukiaren hondar gaixoak ezin dira egin pentsamendu ekaigabearen substantzia huts eta bakunaz, hala nola pentsamenduaren edo arrazoiaren izpiritu gorenak ezin diren atera ekai astunaren substantzia zakarretik. Beraz egin bezate dogmatistek argudio honekin ahal dutena."

"Baina zuri dagokizunez -jarraitu nuen nik-, galdera planteatu duzun eragatik, arazoa ez da zer izan zen lehena edo aurrenekoa, baizik eta zer den izatea orain eta gure aurrean. Izan ere, jainkotasuna benetan existitzen bada orain, seinale on batek erakusten badu badela orainean adimen unibertsa, erraz onartu beharko da betidanik izan dela. Hona hemen zure argudioa: egiteetara zoaz (horrela esan badezaket) eta frogatuko zenuke gauzak egoera eta baldintzape batean daudela, eta benetan horrela balitz ez litzateke egiatan eztabaidatarako lekurik egongo. Batasuna da, orduan, zure euskarririk nagusiena. Baina nola frogatzen duzu bera? Zer erakuspen eman duzu? Zer eskaini duzu gertakortasun hutsa baino areago? Eskema bateratzaile hori bada jainkotasunaren aldeko argudiorik garrantzitsuen (zuk esan gabe onartu duzun bezala), hain urrutia zaude edozein gauza frogatzetik, ezen gehiago ematen duen frogatu duzula arazoa berez frogaezina dela. Zeren, esan zuk, nola ikus ditzake gauza guztiak adimen mugatu batek? Eta ez baditu benetan gauza guztiak ikusten, ez du ezer ikusten. Frogatzeko zegoena oraindik ezkutuan dago. Zeren, onartzen badugu gure ikusmiran edo ezagupenaren barruan datzana ordenatua eta bateratua dela (zuk suposatuta duzun legez), "guzti" ahaltsu hau puntu bat besterik ez da oraindik, ezer ez, hutsa, geratzen denarekin parekatuz. Esan dezagun "munduondo" banandu bat besterik ez dela eta agian hutsarte zabalean halakoak milioika egongo dira gehiago, gurea arauzkoa eta neurtua den eran ikaragarriak eta eragabetuak haiek. Denboran zehar, izakien amaigabeko lasterdura eta astinduen artean, agian mundu bakar eta berezi hau, halabeharrek jo eta forma batean moldekatua izango zen (amaigabeko aukeren artean, zer dago gertatu ezin dena?) Alabaina, gainerako ekaiari dagokionez desberdina da. Kaos aitona zaharra (poetek deitzen duten bezala) errege absolutua da espazio hezgabe horietan, eta bere iluntasunen erresuma funtsatzen du. Gure mugari gogor egiten dio bultza, eta, beharbada, noizbait, erasoaldi batean bere galdutako eskubideak berreskuratuko ditu, bere estatu matxinatua menperatu, eta gu jatorrizko banakuntzan eta nahasketan birbatuko gaitu."

"Hau da, Teokle -esan nuen nik nire ihardunaldia bukatuz -zure filosofiaren aurka esatera ausartzen naizen guztia. Benetan, pentsatzen nuen aukera zabalagoa emango zenidala, baina mugari estuagotara murriztu zara. Izan ere, uste dut, egia esan, zure teologia ez dela oro har gure betiko teologoena baino egokiago eta irekiagoa. Haiek hertsia dira, egia da, hizketari dagokionez, baina gauzei begira oso irekia dira. Nekez jasango dute jainkoari buruz eraso zuzena edo eztabaida garbia, baina, oster, naturaren aurka ihardutea libre uzten dute, eta honen erruei erronka egiteari on deritzote. Naturak huts egin dezake askatasunez, eta guk askatasun berdinarekin maisea dezakegu bera. Euren ustez, jainkoa ez da bere erantzule, baizik eta natura arduratu behar da bere buruaz. Alabaina, zu estuago eta zehatzago zara puntu honetan. Beharrik izan gabe natura sartu duzu auzian eta hain zurea egin duzu bere ohorearen defentsa, ez dakidala arriskutik kanpo egongo naizen bera zalantzatan jartzen badut."

"Ez zaitez horregatik kezka -ihardetsi zuen Teoklek- eta maisea ezazu askatasunez natura, berdin da zer ondorio dakarren horrek. Bakarrik nire hipotesiari egingo diozu kalte. Gaizki defendatzen badut nire lagunek ez dute eskandalizatu beharrik. Jainkoaren aldeko argudio irmoagoen indarra dute, zalantzarik gabe, eta arma metafisiko horiek ondo erabil ditzakete, zu horien ertzaz gutxi larritzen zaren arren. Gudu-leku honetaz zurekin liskartzea euren esku uzten dut, egoki deritzoten unerako. Nire argudioei

dagokienez, horren defentsan balioren bat dutela pentsa badaiteke, kontsideratu behar dira erraz menpera litezkeen indar aurreratuak edo lehen harresiak bailiran, babesleku nagusiena arriskutan jartzen ez delarik."

"Naturari bere alderdi guztietatik eraso diezaiodala gura duzun arren -esan nuen-, nahiago dut nik beste guztiak alde batera utzi eta gizakiaz bakarrik arduratzea. Nola gerta daiteke (esaidazu arren) bere sorkari prestuen eta baliozkoenean hain ahul eta ezindua agertzea, eta animalia hutsekin eta espezie arrazoigabeekin, aldiz, halako indarrarekin eta kemen handiarekin ahalegitea? Zergatik ahitzen da hain agudo gizaki ahularen, honek gaisotasun gehiago jasaten duelarik, eta sorkari basati gehienak baino denbora gutxiago bizi delarik? Hauek seguru bazkatzen dute eta, urtaroen eta eguraldiaren gorabeheren gainetik, ez dute antzeen premiarik; arduragabeko erosotasunean bizi dira, lanaren zamarik gabe, giza bizitza behartsuaren hatuaz aske. Gazte direnean gizakiok baino ahaltsuago, zahartzaroan indartsuago, zentzuak arinago eta jatorrizko bizkortasuna handiagoa: horrela euren interesa, atsegin eta jolasa bilatzen dute eta merke eskuratzen dute janaria eta mantenua; naturak berak jantzi eta hornitzen ditu, etzauntza nahiz babeslekua ematen dizkielarik. Horrela erabaki du naturak beste sorkari guztiei dagokienez. Bera da horien mardultasuna, indarra eta kementa. Zergatik ez da berdina gizakientzat?"

"Eta hemen gelditzen al zara zure kexarekin? -esan zuen Teoklek-. Nire ustez behin hasi zarela errazago izango litzateke jarraitzea, eta beste sorkari batzuen abantaila bakar batzuk eskatu beharrean denak eskatu beharko zenituzke, eta esan beharko zenuke gizakia naturak erdietsi zitzakeen abantaila eta fabore guztien gauzaketa izan beharko litzatekeela. Ez galdetu bakarrik zergatik dagoen gizakia biluzik, zergatik ez duen apatxik, zergatik ez diren bere anak animalienak bezain azkarak. Galdetu, halaber, zergatik ez duen hegorik airerako, edo arrainegalik uretarako, eta abar; horrela elementu guztien jabe eta errege izan dadin."

"Ez bata eta ez bestea -esan nuen nik-. Benetan gehiegi goratzea izango litzateke, berez gauza guztien ugazaba izango bailitzan; eta hau nik onartzen dudana baino gehiago da."

"Nahikoa da hori onartuta -ihardetsi zuen berak-. Zeren behin aitortzen dugula menpekotasun bat, natura ez bada gizakiarentzat, gizakia naturarentzat baino; orduan gizakia (bere oniritziarekin) naturaren elementuei menperatzen zaio eta ez elementuak gizakiari. Hauetatik gutxi egokitzen zaizkio, eta bata ere ez erabat ondo. Airean utzita buruz behera eroriko da. Uretan berehala itoko da. Sutan iraungiko da. Lur azpian arnagabetuko da."

"Beste elementuen gainean berez izan dezakeen nagusitasunaz ez naiz gehiegi kezkatzen, zeren antzearen bidez erraz gaindi baititzake baita naturak beste sorkari batzuei eman dizkien abantailak ere. Baina aireaz zera uste dut: bihotzez eskertuko liokeela naturari hegoak eman izan bazizkion."

"Eta zer irabaziko zuen horrekin? -ihardetsi zuen Teoklek -Kontutan izan zer itxura aldaketa emango zen horren ondorioz. Begiratu sorkari hegadunei: ez al dago euren organismo osoa helburu horren menpe, beste abantaila guztiak hegaz egiteari makurtuak? Sorkariaren anatomiak erakusten du hegoa besterik ez dela. Bere zatirik handiena neurrigabeko bi giharrek osatzen dute, besteen indarra ahituz, eta (horrela esan badezaket) organismo osoaren ekonomia betez. Horrela airearen lasterketari hauek gauza dira higidura azkar eta bortitza burutzeko, beste edozeinekin konparaziorik gabe, eta dituzten indar urrien gainetik; baina gorputzaren zati honek nagusi egiten dituzten neurri berean, beste alderdien ahuldura dakarkie. Eta giza gorputzari (hain desberdina izanik) hegaz egiteko tresnak atxekitzeak ez ote lieke, bada, beste organoei kalte egingo, zatien gehiketa honek guztien ahulketa ekarriz? Zer gertatuko zen burmuinarekin? Ez al

zen behartsu geratuko? Edo mantendu ahal izango litzateke, zure ustez, bere maila gorenean beste zatiei elikadura gehiena kenduaz?"

"Ulertzen dizut, Teokle -esan nuen nik bere iharduna moztuz-. Burmuinak indarra duenean ingurukoei gosea eragiten die, eta (nik uste) munduan pentsatzen dutenek, bereziki filosofo eta bertutetsuek, gorputzezko hobari gutxi beharko dute, euren beste zati eta ahalmenen probetxua dute kontutan eta. Mota bateko zatien ekonomia ez da ondo moldatzen beste zatienarekin. Baina bi alderdiekin zuzen jokatzeko azter dezagun gauza beste aldetik; arazoak berdin iraungo du gaurko Miloekekin, gorputzezko ausardia eta trebetasuna duten gizakiekin alegia. Alde batera utzita arruntenak: gatazkariak, jauzkariak, lasterkariak, ehiztariak alegia; zer esan dezakegu gure familia oneko zaldunez: zamaldunez, ezpatariez, dantzariez eta tenis- -jokalariez? Seguruena gorputza izango da gosea eragiten duena hemen, eta burmuina hain irensele izugarria izanik, badirudi gizaki mota honetan, oster, gorputzak eta gorputzaren zatiak mendekatzen direla."

"Beraz -esan zuen berak- bi gizakiren artean horrela gertatzen bada, zer gertatuko da gizakiaren eta guztiz desberdina den sorkari baten artean? Oreka hain samurra baldin bada eta edozein gauzak apurtzen badu, are tankera edo mota berdineko animaliangen, zer zorigaiztoko indarrek ekarriko du mota horren aldaketa eta ingurunearen funtsezko bestelaketa? Hartu kontutan, orain, zergatik maiseatzen dugun natura kasu hauetan eta antzerakoetan. Zergatik ez ninduen naturak egin zaldia adina indartsu? -dio batak-. Zergatik ez animalia hau adina kementsu eta zuharra, edo beste hori adina bizkor eta ekintzakorra? Eta begira, ordea, zer emaitza dakarkion gure espezieari gaineratzen badizkiogu aparteko indarra, arintasuna eta gorputzezko balentia! Horregatik Miloren konstituzio atletikoaz maiteminduta dauden horientzat hobe eta apalago litzateke, nik uste, euren kexa aldatu eta galdegingo balute: zergatik ez ninduen egin ni animalia hutsa? Egokiago izango litzateke horrela."

"Nik nahiago dut pentsatu -esan nuen- gizakiaren gorentasuna animalienaz bereizten dela nolabait, eta gure artean benetan gizaki direnek giza nolakotasunak bilatu behar dituztela, animalienak baztertuz. Alabaina, naturak, ni ohartzen naizenagatik, honetan asmatu egin du gizakia makurreraziz; material erikorrak hornitu baikaitu, eta egitura samurrarekin; eta horrela paregabeki eroso zaigu jasatea pentsamenduaren eta arrazoimenaren giza gorentasuna, baina zorigaiztoz eskasak eta baliagabeak bihurtzen gara beste asmotarako."

"Ulertzen dut -esan zuen Teokle-, zu ez zara eztabaidatzaile beldurti horietakoa; hauek euren iritzi edo sinesmenen aurkako edozein bainaren aurrean ikaratzen dira, besteari amore ematerik txikiena ere onartuko ez dutelarik. Zure umoreagatik gauza zara eztabaidan sortzen den edozein konturekin laketesteko, eta atsegin handiz indartzen dituzu zure aurkariak bere hipotesiaren alde ematen dituen argudioak. Jokabide hori benetan zuzena da, gaur egun ohizkoa dena baino zuzenagoa. Baina bakarrik zure izaerari moldatzen zaio. Eta eztabaida filosofiko batean lausenguak nahastearen beldur ez banintz, beharbada, esango nizuke zer deritzodan zure eszeptizismoaren era itxurosoari; modu hau eszeptiko itsuei kontrajartzen zaie, nortasun filosofikoaren eskubidea galtzen baitute hauek, eta nekez irauten dute zaldun edo lagun onak. Baina gatozen harira."

"Modu miresgarri honetan, bada -segitu zuen berak-, egiten du bere banaketa naturak, egokitzen du materiala edo ekaia itxura eta erarekin, baina baita ere itxura bera eta era bere zertzeladekin, lekuarekin, elementuekin edo giroarekin, hala nola eraspenak, irrikak eta sentsazioak elkarrekin eta hauek, era berean, ekaiarekin, erarekin nahiz ekintzarekin eta gainerako gauza guztiekin. Dena onaren bila doa, urritasun osoarekin eta kontu handiz; oparoegi izan gabe ezerekin baina beti eskuzabal; inoiz arduratu gabe

ezerekin behar baino gehiago; alferrikakoa baztertuz ekonomia zehatzaz, eta gauza guztietan garrantzizkoena den horren alde ahaleginak eginaz. Eta ez al da gizakiarengan garrantzitsuena pentsamendua eta arrazoia? Ez al du emendio bat izango hauei zuzenduta? Bere makinaren zati honetarako bat ere aurrezkirik? Ala material edo ekai berdinak, tresna edo organo berdinak, berdin balioko al du helburu desberdinetarako; balio berdina izango al dute ontzak eta librak? Ezinezko da hori. Zer gauza miresgarri itxaron daiteke ontzi meharrean jasotako, eta naturaren hain erresuma txikiari izendatutako, odol ontza bakar batzuez? Ez al du berak natura goretsiko, puska hori bere onerako gorde dionez, abantaila eman diolako, eta zorioneko emendio horrekin hornitu duelako (zorionekoa bera erabiltzen baldin badaki), berari esker organoez beste edozein sorkari baino hobeto baliatuko delarik? Berari esker bere arrazoimenari helduz gizaki delarik eta ez animalia?."

"Baina animaliek -esan nuen nik- badute gizakiak ez duen zenbait sen."

"Halaxe da -esan zuen berak- badituzte eurek hautemate, sentsazioak eta auresentsazioak (hitz hau erabil badezaket) gizakiak ez dituenak neurri berean. Animalia emeek ernaldu berriak direnean eta erditu aurretik euren egoeraren eta gertatuko denaren itxaropen eta auresentsazio garbia dute; badakite zertaz arduratu behar diren eta baita ere nola, nondik eta noiz. Zenbait gauza dute kontutan? Zenbaitez jabetzen dira bat-batean? Urtaroak, lurraldea, klima, lekua, ingurua, egoera, euren babeslekuaren oinarriak, materialak, arkitektura, bere kumeen janariak eta tratamendua; laburbilduz bere kumeen hazkuntzaren ekonomia osoa. Eta hau guztia hasieran, trebatu gabeak direnean, geroagoko bere bizitza osoan adina ondo. Eta zergatik ez da horrela -esango duzu zuk- gizadiarentzako? Baina, oster, galdegingo dizut nik, zergatik bai? Non dago bere egokitasuna edo erabilpena? Non bere premia? Zertarako behar du halako trebetasuna gizakiak? Ez al dituzte ahalmen onenak beste ikuspegi batzuetatik? Ez al dituzte arrazoimena eta iharduna? Ez al dute horien bidez ikasten? Zer gehiago behar dute orduan? Horrela bada, non egongo litzateke banaketa zuhurra? Non emendioa?"

"Beste mota askotako kumeak -jarraitu zuen- berehala dira gauza euren buruaz baliatzeko, sentikor, indartsu, badakite arriskuari ekiditen eta euren onaren bila doaz. Gizakumea da guztietatik babesgabeena, ahulena eta gaisoena. Eta zergatik ez zen haien era taxutua izan behar? Zein da gure espeziearen galera? Edo, hainbeste hornizioren artean, zergatik bihurtzen du akats honek gizakia guztietatik okerreana? Ez al du akats honek gizartearekin lotzen, eta ez al du behartzen gogoz onartzera arrazoiduna eta gizartekoia jaio zela, eta ezin duela iraun edo ugaltu ez bada gizarte lotura eta elkarbizitza honetan, zeina berezko egoera zaion? Ez al dira hemendik ondorioztatzen, ez al dira premia horietan oinarritzen, ezkon-maitasuna eta gurasoekiko maitasun naturala, hala nola epaileen esana egitea eta norberaren jaioterriarekiko, erkidegoarenganako edo aberriarenganako maitasuna? Zer izan daiteke akats hori baino zorionekoago, hainbeste on baldin badakarkigu? Zer hain ordain oparoa eta hainbeste gozamen jasotzen duen premia baino hobe? Orduan, aurkitzen baditugu gizakien artean batzuk, premia horiek izan arren -burujabetasun eskubide hori dela eta- lotsarik gabe gizartekoi izateari uko egiten diotenak, zertaz lotsatuko lirateke naturak premia horiek beste modu batera asetu izan balitu? Zer betebeharrak edo eginkizun hartuko lituzke kontutan? Zer errespetu edo begiramendu erakutsiko lieke bere gurasoei, epaileei, aberriari edo bere motakoei? Bere egoera ase eta buruonesleak ez ote lituzke bultzatuko, derrigorrez, natura alde batera utzi eta euren sorreraren helburu eta egilea ukatzera?."

Teokle naturari buruz horrela mintzatu zen artean jaun edadetuak, nire aurkariak, bere poza azaldu zuen bere ustez nire argudioa errefusatu zelako eta nire iritzia babesgabetea geratu zelako. Izan ere, pentsatu zuen nire iritzia sendoa zela ihardunaldian baina ximple

bezala azaldu nuela. Saiatu zen argudioa indartzen eskolastiko eta legegizonen zenbait gaietan oinarrituz. Gaineratu zuen, halaber, hobe izango zela niretzako nire sentimenak garbi adieraztea, seguru zegoelako guztiz nireganatua nuela honako hastapen hau: naturazko egoera gudu egoera zela alegia.

"Zuk zeuk onartu duzu ez dela aginpiderik edo giza legerik -ihardetsi nuen-."

"Halaxe da."

"Izango al zen, orduan, adiskidetasunik edo gizarte egoerarik?"

"Ez, zeren gizakia lehenengo aldiz gizarteratu zenean naturazko egoeratik adostasunean oinarritutako egoera berrira iragan zen eta."

"Jasangarria al zen lehen egoera hura?"

"Jasanezina izango balitz ez zen inoiz halakorik emango, eta ezingo genuke "egoera" deitu, ezta une batez ere, gauzatu edo iraun ezin duena."

"Beraz, gizakia gizartetik kanpo bizi ahal bada, eta egia bada, bizi ere bizi izan dela horrela naturazko egoeran, nola esan daiteke berez gizartekoia dela?"

Jaun edadetuaz aztoratu samar geratu zen nire galderarekin. Baina bere onera etorri zera erantzun zuen: "baliteke gizakiak ez izatea berez elkartzeko joera, eta aiherkunde hori zertzelada jakin batzuetatik sortzea."

"Dirudienez, hortaz, bere izaera ez zen hain ona -esan nuen nik-, zeren ez bazuen berezko eraspenik edo jatorrizko adiskidetasunerako aiherkunderik, gizarte egoera horretara behartua izan zen, bere gogoaren kontra. Eta hau ez letorkioke kanpoko gauzekiko premiatik (bizitza jasangarria izendatu baitiozu), baizik eta bere barrutik sortzen diren eragozpenetatik eta bere zima eta hastapen maltzurretatik. Eta benetan ez da harritzekoa izaeraz gizartegabeko ziren sorkariak era berean bihurri eta eragozkarriak izatea. Euren izaerari jarraiki, gizartetik kanpo bizi ahal badira, elkarlaguntzari begiratu gabe, egiantzekoa da adabagune batzuetan bata bestearengana jotzea. Euren zakarkeria dela eta ez badira maitasunerako elkartzeko, nahiko segurua da interesagatik konponduko direla. Eta horrela zure argudiotik ateratzen da naturazko egoera ez dela gudu egoeratik asko bereizi behar."

Bere keinuagatik bazirudien adorez erantzungo zidala, baina Teoklek moztu zuen zera esanaz: eztabaida hura berak sortu zuenez berari utzi behar geniola bukatzen, arazoa argi zuzenagotan jartzen saiatuko zelarik. "Ikusten duzu -esan zion berak jaun edadetuari- zer baliabide erabili dituen Filoklek zuk onar dezazun naturazko egoera eta gizarte egoera erabat desberdinak direla. Baina, galde diezaiogun berari, oster, eta begira dezagun ea frogaz diezagukeen egon daitekeela jatorrizko giza egoerarik gizartekoia ez dena."

"Zer da orduan -esan zuen jaun edadetuak- guk naturazko egoera deitzen duguna?"

"Ez behintzat -esan zuen Teoklek- batzuk iruditzen duten gizadiaren adeigabeko egoera hori, noizbait eman bada naturan bat ere iraupenik gabe izan da, edo ez da jasangarri gertatu, eta ez da izan giza arraza oinarritzeko baliozkoa. Gizamaila honi ezin zaio berez "egoera" deitu. Zeren hitz egiten dugunean mundura etorri berria den haur batez, jaiotze unean, bururagarria zaigu "egoera" deitzea honi, baina egokia al da?"

"Nekez, onartzen dut."

"Bada, horrelakoa izango zen gizakiaren egoera gizarteratu eta benetazko giza-sorkari bihurtu aurretik. Gizakiaren zirriborro kazkarra, naturaren lehen saio edo ahalegina, espeziearen jaiotza, mota eragabea; ez zen bere naturazko egoera izango, indarkeriazkoa baino; egonezinean perfekzio naturala lortu arte."

"Eta horrela izango zen derrigorrez -esan zuen Teoklek, bereziki jaun edadetuari zuzenduz-, nahiz eta suposatu noizbait eman dela gizakia maila edo egoera gizartegabetu eta ezjakinean, eta, beraz, hizkuntza eta arterik gabe; hala ere, ezingo da zentzuz onartu sekula bere naturazko egoera bakarka bizitzea izan zenik. Zeren

lehenago utziko baituzu giza-sorkaria beste edozein sentipen edo eraspenik gabe, gizarteratzeko (eta horren antzeko) joerarik gabe baino. Onartzen badugu berari nahi duzuna kentzeko ahalmena duzula; onartuta bere egituraren edozein zati edo gorputzadarrik gabe utz dezakezula: jarraituko al zenuke gizaki deitzen horrela aldatu eta gero? Eta, hala ere, errazago izango litzateke zuretzako hori guztia egitea bere eraspen naturalak erantztea baino, bere motakoez banantzea baino, eta intsektu bakarti bat bailitzan maskor batean sartu baino, eta oraindik, gainera, gizaki deitu. Neurri berean dei dezakezu giza arraultxea edo umekia gizaki. Errazagoa da tximeleta bihurtzen den beldarra dipterotzat jotzea, hegorik ez izan arren, irudimenezko sorkari hori gizakitzat jotzea baino. Zeren honek kanpotik giza itxura duen arren, bere grinak, irrikak eta organoak guztiz desberdinak izango direlako. Bere barne egitamua irauli behar da ekonomia bakartzale eta bizitza banandu horretara moldatzeko."

"Hau guztia pittin bat gehiago argitzeko -jarraitu zuen berak- azter dezagun ustezko naturazko egoera hau; nolakoa den eta zertan oinarritzen den. Gizakia betiereko da ala ez. Betierekoa balitz ez zen lehen edo jatorrizko egoerarik izango, eta, beraz, ez zen izango naturazko egoerarik, guk begi-bistan ikusten dugun hau baino. Betierekoa izango ez balitz bat-batean sortua izango zen bere osotasunean (eta hasiera hasieratik orain bezala izango zen), ala mailaka bilakaune eta baldintzape desberdinen bidez, gaurko honetara heldu arte, belaunaldiz belaunaldi luze dirauena."

"Eman dezagun, esaterako, antzinako poetek irudikatzen zuten bezala, sabel handiko haritz batetik sortu zela, orduan seguruez gero gehiago emango zuen urriloa gizakia baino. Eman dezagun ez zuela, hasiera batean, minbera deritzoten landareak baino bizitasun askoz handiagoa. Alabaina, haritz-ama erditzera ekarria izan zenean, eta sasijaiotza halabeharrez edo gailu baten bidez gauzatu zenean, gorputzadarrak guztiz hedatu ziren, eta sentipenen organoak garatzen hasi. Handik belarria agertu zen, hemendik begiak kirikatu zuen. Beharbada isatsa ere bazekarren. Izan ere, zaila da zehaztea zenbait alferrikako zati atxeki zion naturak. Dirudienez, denborarekin hauek guztiak galtzen joan ziren, eta, zorionez, azkenerako gauzak geratu dira ondo taxututa, eta (zer gauza miresgarria!) behar bezala hain zuzen."

"Hau da seguruen gizadiaren jatorrizko arazoei buruzko ikuspegi apalena. Zeren probidentziak eta ez halabeharrak eman bazion gizakiari bere izatea, bere izaera gizartekoiaren aldeko argudioa indartsuagoa izango da seguruez gero. Baina onartzen bada bere sorrera izan zela guk deskribatu dugun bezala filosofo batzuk jarraiki, naturak ez zukeen izango inolako helbururik, zentzurik edo asmorik arlo honetan. Horregatik ez dakit nik zer dela eta esan daitekeen zerbait naturala dela; nola esan daitekeen egoera bat naturazkoa dela, edo naturaren arauetako, edo beste egoera bat baino naturazkoagoa."

"Jarrai dezagun, eta azter dezagun, hipotesi horren arauera, zein egoeraz esan dezakegun naturari gehien dagokiona dela. Naturak ustekabez, aldaketa eta halabehar askotik pasata, sorkari bat sortu du. Hasieran ekaizko hazietatik loratuz aurrera egin du gaur egun dena bihurtu arte, eta horrela heldu da belaunaldi luzez iraun duen era honetara. Nire galdera hau da: zein izan zen naturazko egoera honen abiapuntua prozesu luze honen barruan (berau nahi adina luze izan daitekeela onartuz)? Giza sorkariak aldaketa ugari jasan zituen, eta, hazten zihoan artean, aldaketa bakoitza beste edozein adina naturala zen. Hori dela eta ehundaka egoera desberdin onartu behar dira naturazko bezala, bestela, bat hartu behar bada, perfektua dena izango da, natura bere osotasunean hazi denekoa. Egoera hori hemen aurkitu behar da, irautean duenean, bere xedera heldu den horretan, beste inon ez."

"Iraungo al du, zure ustez, nahigabeko egoera horretan gizarteratu aurretik? Mantendu eta ugaltu al dezake espeziea, orain den bezala, adiskidetasunik edo erkidegorik gabe?"

Erakutsiezaguzu halako kasu bat bakarra gizakion artean. Zeren kanpoko itxuragatik gure antzekoak izan daitezkeen sorkarien kasuan, euren erakuntza eta gurearen artean alde txikiena badago, euren barne- organoak geureez bereizten badira, euren azala eta xularmeak beste modu batera eratu badira, gorputzadar desberdinak badituzte, beste jite bat, berezko beste ohitura edo eraspen batzuk badituzte, ez dira izango gure mota berdinekoak. Bestalde, euren erakuntza gurea bezalakoa bada, euren zati naturalak edo barne ahalmenak gureak adina indartsuak, eta euren gorputz egitura gurea adina ahula; oroimena, sentipenak, eta eraspenak badituzte, organoak guk bezala erabiltzen badituzte, garbi dago ezin dutela euren onagatik gizartea utzi, hala nola ezingo duten seguruena bera gabe iraun.

"Eta hemen, ene lagunok, gogoratu beharko genuke arestian genioena, eta Filoklek berak ekarri duena harira: alegia, beste sorkariekin parekatuta giza gorputzen ahultasuna eta gizakiak jasaten duen egoera premiatsua. Bere haurtzaro luze eta laguntzagabeak, bere gorputz makal eta babesgabeak, hobeto prestatzen dute harrapakin izateko beste sorkarien harrapari izanaz bizitzeko baino. Ezin du iraun larre-abereek ahal duten bezala. Belar gordina baino elikadura hobea, eta aukera handiagokoa, behar du; lur soila eta zeru zabala baino etzauntza eta aterpe hobea. Ez al du askoz erosotasun gehiagoren premia? Ez al da beharrezkoa sexuen arteko lotura eta elkarketa hertsia umeak elikatu eta mantentzeko? Ezingo zaio ukatu gizakiari edozein animalia harraparirentzat egokitzen eta berezkotzen jotzen den gizarte mota hau. Onartuko al dugu alderdi gizartekoi hau areago joan gabe? Litekeena al da bikotzea eta lagunarekin maiteminduta eta adiskidantzan bizitzea, eta hala ere guztiz basati, hizkabe, gauzak biltzeko eta eraikitzeko trebetasunik eta beste edozein ekonomiarik gabe irautea, gizakiarentzat premiazkoak badira kastorearentzat, zinaurriarentzat eta erlearentzat adina? Nola hautsiko du gizarte honekin behin hasi eta gero? Zeren garbi dago sortzapenarekin batera hasi zela, eta etxea eta ekonomia sortu arte garatu zela. Ez zen hortik laster tribua aterako? Eta tributik nazioa? Edota tribu iraun arren, ez al zen hau elkarren defentsarako eta denen onerako gizarte bat? Laburbilduz, sortzapena naturala bada, geurezko eraspina eta umeen zaintza eta elikatzeko naturalak badira, gauzak horrela badaude ipinita gizakiarentzat, eta sorkariak orain duen itxura eta erakuntza bera badu, ondorioztatu behar da gizartea ere naturala zaiola, eta gizartetik eta erkidegotik kanpo ez dela inoiz bizi izan eta ezingo duela inoiz bizi.

"Bukatzeko, esan zuen bi adiskideei zuzenduz, hitz bat gaineratuko dut Filokleren alde. Jakitunek nozio horren lilura dutenez, eta irudimenezko naturazko egoera horri buruz hitz egitea gogoko dutenez, nire ustez ongarria izango da berari buruz ahalbait okerren hitz egitea. Eman dezagun egoera hori guduzkoa, lapurkeriazkoa eta bidegabekoa dela. Gizarte etsai denez eman dezagun baita ere ezerosoa eta beldurgarria dela ahal deneraino. Berataz ondo hitz egin nahi bada, erakargarria bihurtu behar da eta gizakiak eremutar bihurtzera bultzatu. Eman dezagun, gutxienez, ezagutzen den estatutik okerrera baino okerragoa dela. Zenbait eta gehiago beldurtzen gaituen anarkiak, orduan eta hiritar hobeak izango gara eta gehiago estimatuko ditugu gure legeak eta konstituzioa, zeintzu egoera eznatural horren indarkeria itzeletik babesten gaituzten. Honetan guztiz bat nator giza izaeraren eraldatzaile diren horiekin; hauek izaera hori abstraktuki eta estatutik eta gizartetik bananduta kontsideratzen dute, eta birraurkezten dute Herensuge eta Leviatanen aurpegi izugarrieekin edo ez dakit zein beste pizti irensleen bidez. Dena dela hobe zuten ikurritz nagusi egokiagoa aukeratu balute. Zeren gizakia mespreziatu nahian "gizakiarentzat otso" dela esateak zentzugabea ematen du kontutan hartzen badugu otsoak oso atsegin eta maitakor direla beste otsoekin. Bi sexuetaoak elkartzen dira kumeak zaindu eta elikatzeko, eta batasun hau iraunkorra egiten da gerorako. Ulu egiten diote elkarri laguntzeko bai ehizatzean, bai harrapakinari

erasotzean, bai gorpu gozo bat aurkitutakoan elkartzeko. Ezta zerriek ere ez dute galtzen elkarrekiko eraspen hau eta taldeetan hurbiltzen dira larrialdian dagoen kidearengana. Beraz, esaldi ospetsu honen esanahiak (esanahirik baldin badu) zera izan behar du: gizakia dela gizakiarentzat otsoa beste sorkari otzan batentzat dena, ardiarentzat dena adibidez. Baina hau esatea ez da zentzuzkoago zera esatea baino: giza espezie edo jite desberdinak direla. Guztiak ez direla izaera horretako otsoak, haatik, erdiak edo gehiago errugabe eta otzan direla. Eta horregatik esaerak ez duela ezer balio. Zeren ezingo baita proposizio gaizto hau baieztu natura gezurtatu gabe, eta natur historiaren, egiteen eta gauzen ihardueraren aldetik nabarmena dena kontraesan gabe, nahiz eta saiatu garen berari zentzu jasangarria ematen. Baina horrela da gizadia. Eta hemen giza izaera den bezalaxe agertzen da, ez perfektua, eta inola ere ez erabat arrakastatsua, joera zuzenekin eta hastapen berezi eta zuzenek eraginda baino. Filosofian, orduan, gertatzen da bizitzaren solasaldi arruntetan bezala. Gizakiek laguntasuna behar duten bezalaxe, eta beretik gozatzeko eta zorientasuna lortzeko gai ez diren bezalaxe, satirarako zaletasun aparta dute. Eta maisutasunez adierazitako, eta segurtasunez ahozkatutako, maiseo makurra umore zolitzat har daitekeen legez, ausarki adierazitako ikurritz pozointsua erraz onartzen da benetako filosofia bailitzan, nahiz eta pentsamendu okerrekoa izan."

V. Atala

Ihardunaldi hauekin joan zen arratsaldea, eta gaua zela itzuli ginen gure ibilalдитik. Afalorduan eta ondoan Teoklek ezer gutxi esan zuen. Iharduna bereziki bi lagunek eraman zuten, filosofi mota berri batera zuzenduz, zure baimenaz (on Palemon) gainetik azalduko dudana.

Luze, eta jakite ugarirekin, hitz egin zen izpirituen eta agerkundeen izaeraz. Zenbait eta harriarriago izan kontaketa orduan eta liluratuago zeuden gure lagunak, eta beti bata bestearena baino miresgarriagoa esaten saiatzen ziren, elkarren harridura areagotzen saiatuz. Ez zegoen eurentzat ezer xarmangarriagorik desatsegina eta bitxia zena baino, ez zegoen ezer gozagarriagoa izua sorrazten zuena baino. Laburtuz, arrazoizkoa, nabarmena eta erraza zena ez zuten gogoko, eta ez zegoen inongo eragozpenik naturaren kontra zihoana, arau eta ordenarik gabea eta beste gauzeekin neurririk edo harmoniarik ez zuenarentzako. Gure olgeta nagusiena ume itxuragabekoak, xarmaketak, harritzekoak, eta elementuen arteko gudu eta ikarak izan ziren. Bazirudien probidentzia eta naturaren arteko lehian azken andereño hau ahal zen itsusiena agertzen zela; bere itsusikeriagatik probidentziaren edertasunak hobetsi eta nabarraraziko zirelarik. Gure lagunekin zuzen jokatzeko onartu behar dut euren asmoa, nire ustez, benetan erlijiozalea zela. Baina erlijoaren azalera hau ez zen nik oniritzen nuena. Ez nintzen beldur guzti horrekin entusiastiko edo sineskeritsu bihurtzeko. Inoiz horretara bihurtuko banintz gehiago izango zen Teokleren erara. Monumentu eta elizinguruak ez ziren niretzako mendiak, lautadak, baso arranditsuak eta arboladiak adinako paraje erakargarriak; nahiago dut azken leku hauetako biztanleen berri izan beste haietakoena baino. Eta gertuago nengoen egia aurkitzeko Teoklek erabiltzen zituen fikzio poetikoetan, bere lagunak edozein ipuin ikaragarritan baino (hain handikiro azalduak, ohizko eran, autoritatezko tonu goratian eta ustezko egi itxura emanaz).

Irudika dezakezu, Palemon, ezin dudala hemen ahaztu nire eszeptizismoa (hain sarritan agirikatzen didazuna), eta ezin naizela geratu gure lagunak nahastarazi gabe, bereziki duela gutxi nirekin eztabaidatu duena. Jasan ninduen apur batean, baina pazientzia galdu zuenean esan zuen: "segurtasun handia izan behar du batek bere buruarekin mundu guztiaren iritzi arruntaren aurka joateko, eta ukatzeko gizadiaren gehiengoaren eskutik ezagutzen dena."

"Ez da hori nire kasua, ezta hurretik ere -esan nuen nik-. Ez nauzu oraindik entzun ezer ukatzen, gauza askotaz eztabaida egin dudana arren. Nire juizioa eskegiten badut besteek

baino asetasun txikiagoa dudalako da. Bada jendea, badakit, euren buruaz duten estima hain handiagatik euren ametsak ere sinesten dituztenak. Baina ni (nire loaldiko amets zoroei halako begiramenik ematen ez diedana) gertu nago, batzuetan, iratzarrita nagoeneko pentsamenduak aztertzeke eta galdegiteke ez ote diren hauek ere amets; izan ere, gizakiek batzuetan begi irekiekin amesteko ahalmena dute eta. Onartuko duzu ez dela gizadiarentzako plazer txikia izaten ametsak errealitatetzat jotzea; eta ez dela benetako egiarekiko maitasuna, berritasun eta txundidurarekiko grina eta inpresionatzeko eta miretsia izateko gogoia ematen duen erdietan ere. Hala ere, hain naiz eskuzabala, non pentsatzen dudan munduan ugariagoa dela ameskeri errugabea, nahitako gezurketa baino, eta gizadia gehien atzipetu dutenek alde aurretik euren burua atzipetzeko ahalmen bikaina izan dutela, eta horrela euren kontzientzia zuritzeko bidea dutela, eta arrakastatsuago izango direla zenbait eta era naturalagoan eta biziagoan bete ahal duten euren lana. Ez da hain gauza bitxia batzuetan gizakien ametsak egiazat hartzea, hartzen bada kontutan batzuetan ametsa baino ez zena, edo egiantzera kontatu zena, geroago, behin eta berriro kontatu duenak, sinetsi egiten duela."

"Beraz onar daiteke -ihardetsi zuen berak -, munduko iruzurlerik handiena egizalea dela."

"Bere gezurketaren muinari dagokionez, baliteke -esan nuen nik- alde batera utzita iruzur elizkoi batzuk, zeintzuk noizean behin erabiltzen diren ona eta osasungarria kontsideratzen den sinesmen baten alde. Eta nire iritziz hain naturala da hau, ezen erlijio guztietan, benetakoa ezik,ugarrik handiena gezurrak esateko joera sendoenarekin laguntzen den. Zeren egia asmoan edo helburuan datzanez, ez da zalantzarik egiten edo erreparorik izaten baliabideak aukeratzekoan. Hau egia den ala ez ikusteko azken garaiotako esperientziara deitzen dut; hemen ez da zaila izango aurkitzea adibide nabarmenak, non bat egiten diren, izaera batean, gezurketa eta sugarra, itsukeria eta toleskeria."

"Nolanahi ere -ihardetsi zuen berak- oro har pena handia ematen dit zu hain zima sinesgabeko ikustean."

"Zuzena da -esan nuen nik- zu nire ezbeharrak errukitzea, dakusadanagatik besteek gozatzen duten plazerraren faltan bainago. Zeren non dago gizakiarentzat atsegin handiagoa, zer ikasten dute lehenago, zer gogoratzen dute luzaroago, gauza bitxiak eta sinestezinak entzuteko eta kontatzeko duten zaletasuna baino? Zer zoragarria den miresteke eta mirespena sorrarazteko zaletasuna! Haurrek atsegin dute ikaratuko dituzten ipuinak entzutea, eta zaharren bizioa da joandako garaitako kontu xelebreez mintzatzea amaigabe. Mundura gatozenez gauza guztiez miresten gara, eta gauza arruntei buruzko mirespena gainditu dugunean zerbait berria bilatzen dugu zer miretsi. Gure bizitzaren amaieran gure buruaren gauza miresgarriak kontatzen dizkiogu sinetsi nahi dituen guztiari. Eta hau guztitik ez dago gaizki egia ateratzea, apur bat kutsatua besterik ez bada."

"Ondo dago -ihardetsi zuen berak- zure fede eratsu horrekin, nolabaiteko mirarietan sinetsi ahal baduzu."

"Ez dio axolarik -esan nuen nik- zein sinesgabe naizen mirari modernoek baldin eta sinesmen zuzena badut antzinakoei buruz; horrela ordaintzen dut nik Liburu Sakratuei zor zaien begirunea. Erne nago sinesberatasunaren aurrean, eta ez nago prest kontu diezadaketen miraririk handiena ere sinesteko, dagoeneko irakatsi didatenaren aurka baldin badoa. Eta hain egoki deritzot agindu hau betetzeari ezen seguru nagoen gogor eutsiko diodala nire fedeari, eta agintzen dut ez dudala sekula fedea hausiko."

"Baina agindu al daiteke hori?"

"Ezin bada, eta nire fedea ez badago guztiz nire menpe, zelan izango naiz ni horren erantzule? Nire nahia librea bada, nire ekintzengatik zigorra jasan dezaket, baina nola

izango naiz inork salatua nire sinesmenengatik, ez badut honetan askatasunik? Sinesberatasuna eta sinesgogortasuna juizio diferentziak besterik ez badira, eta munduko pertsonarik zentzuzkoenak ere huts egin badezake bi eratara, eta, artean, askoz gizaki gaiztoago batek, ahalmen hobeak dituela eta, askoz hobeto juzga badezake gauzen nabarmentasunaz: nola zigortuko duzu huts egiten duena, ez baduzu ahulezia zigortzen eta ez baduzu esaten zuzena dela gizakia zigortzea bere zorigaitzagatik eta ez bere erruagatik?"

"Pentsa dezaket -esan zuen berak- euren sinesgogortasunagatik zigortuak direnetatik oso gutxitaz esan daitekeela euren ahulezia dela eta sufritzen dutela."

"Onarturik -ihardetsi nuen nik- apaltasuna eta ahulezia sinesberen ezaugarriak direla sinestegabeenak baino gehiago; hala ere, nik ikusten dudana gauza bakarra da gure ahuleziagatik bere aurkakoagatik (adimen azkarregiagatik) adina sufri dezakegula. Zeren ezin badugu gure sinesmena menperatu, zelan defendatuko dugu gure burua profeta faltsuen eta euren sasimirarien aurrean, hauetaz hain arreta handia hartu dugun arren? Zelan salbatuko gara heresiatik eta erlijio faltsutik? Sinesberatasuna da mota honetako gezurketa guztietara garamatzana, eta, azken batean, jentil eta mahomatar mundua erruan eta sineskeria itsuan iraunarazten duena. Beraz, edo ez dago zigorrik sinesmen okerragatik, ezin dugulako sinestu guk nahi dugun eran, edo ahal badugu, zergatik ez dugu aginduko ez garela sekula oker egongo? Etorriko diren mirariei dagokienez, oker ez egoteko biderik seguruenak inoiz ez sinestea da. Zeren erlijioaren egia sinesteko nahikoa bazaizkigu iraganeko mirariak, gehiago behar ez dugularik, berriak sinesteak kalte egin diezaguke sarritan, baina sekula ez digu onik egingo. Horrela, kristau fededunaren ezaugarri berezkoena ikur edo mirari berririk ez bilatzea denez, horien eragina jasoko ez duena izango da kristautasunaren ikuspuntu seguruenak, mirarietatik salbu egongo delarik. Zeren miraria bere fedearen alde badoa, ez dio ezertarako balio, eta ez du bere premiarik; bere fedeari kontra egiten badio, nahi adina handia izan arren, ez dio begiratuko, edo gezurketatzat joko du, aingeru batengandik etorria bada ere. Beraz, nahiz eta sinesgogortasun handia destainatzen didazun gogorki, nik, ordea, nire burua kristau onen eta ortodoxoentzat jotzen dut. Ni behintzat zu baino seguruago nago horretan iraungo dudala; zu berriz, zure sinesberatasunarekin inongo aingerua ez den batek engaina zaitzake. Aurrejarrera hori duzunez, baliteke denborarekin zuk mirariak aldarrikatzen dituzten sekta desberdin horietako batenak sinestea. Horregatik konbetzituta nago jarraitzeko ikurriz egokiena ohizko hau dela, mirariak bukatu direla, alegia. Eta gertu nago nire iritzi hau gertakorrena eta kristautasunarentzat egokiena dela defendatzeko."

Gainontzeko eztabaidan gure bi lagunak banatu zituen arazo honek. Jaun zaharrenak, nire aurkariak, zioen gaur egungo mirariei uko egitea jainkogabeentzako abantaila handia izango litzatekeela. Jaun gazteenak, bere lagunak, galdegiten zuen ea horiek onartzea ez ote zen abantaila handia izango entusiastentzat eta alderdikorrentzat, eta ez ote zen eliza nazionalaren aurka joango; hau zen, bere ustez, Erlijioarentzako nahiz Estatuarentzako arriskurik handiena. Horregatik erabakita zuen aurrerantzean gaur egungo mirariak arretaz aztertzea, lehenago mirariak bilatzeko gogatsu ibili zen bezala. Oso gustura kontatu zigun zein abenturari handia izana zen honetan, zenbait taldetan bildua izana zen miresgai edo agerkunde berri baten nahiz ustekabeko errebelazio edo profezia baten irrikan zebilen jendearekin. Hau, bere ustez, fanatismo erratua besterik ez zen. Aski zuen ametsezko ehiza honekin, ez zen gehiago ibiliko noraezean munduko bazter ilunetan, lehenago egin ohi zuen bezala, mamu-lagunekin: izpiritu ehiztari, sorgin bilatzaile eta infernuko kontuen eta deabruen tratuen zabaltzaile ziren haiekin. Bere ustez ez zen beharrezko infernuko ezagupen hura infernuaren indarra, eta jainkoaren izatea frogatzeko. Eta orain, azkenean, hasi zen ikusten zein irrigarria zen gai hauei

halako garrantzia ematea: ezta probidentzia horien menpeko balitz edo erlijioa arriskutan egonda ere, gertakizun handi hauetakoren bat zalantzatan jartzen zenean. Bazekien kristau on asko zela iritzi honen aldeko biziak zirenak, nahiz eta orain, atzera begira, eta horretaz pentsatzen hasi zelarik, harrituta zegoen.

"Idazki Sakratuak ezagutzen ez zituzten jentilek -esan zuen berak- mirarietara joko zuten, eta, agian, orakuluak eta miresgaiak errebelazio modu inperfektu bezala onartuko zizkien probidentziak. Judutarrek ere, euren bihozgogortasunagatik eta ulermen gogorrangoagatik bazuten onarpen hau, temati ikurrak eta mirespenak bilatzen zituztenean. Baina kristauak, euren aldetik, errebelazio hobe eta egiazkoagoa dute; orakulu argiagoak, lege arrazoizkoagoa, eta Idazki garbiagoa, indarra bere baitan daramalarik, eta gainera hain ondo dago segurtatua ezen ez dagoen eztabaidarako lekurik. Eta -jarraitu nuen nik- zehaztu beharko banu zer momentutan bukatu ziren mirariak, iruditzen zait Liburu Sakratua gertatu eta burutu zenean izango zela."

"Hori gauzak asmatzea da benetan -ihardetsi zuen gizon serioak-, eta oso era arriskutsuan Idazki Sakratuarentzako, zure iritziz berez hain gauza segurtatua bada. Hil eta joan ziren gizakiek iraganeko eta ahitutako mirarien alde ematen duten testigutzak ezin du izan egungo mirarien indar berdina. Eta nik baieztatzen dut munduan badirela gaur nahiko mirari Jainkoaren existentzia bermatzeko. Egongo ez balira edonork pentsatu ahal izango luke ez direla sekula egon. Orainak iraganaren sinesgarritasunaz erantzun behar du. Honela Jainkoak bere burua testigatzen du. Jainkoa da bere buruaren lekuko, ez gizakia Jainkoarena. Zeren zeinek lekukotuko du gizakien alde, erlijioari dagokionez ez badu zeruko testigantzarik bere alde?"

"Gizakien kontaketa sinesgarria egingo duena -esan zuen gizon gazteenak- beste gauza bat da. Baina mirari hutsei dagokionez, nire iritziz, ezin da esan ez Jainkoaren alde ez gizakien alde lekukotzen dutenik. Zeren nork lekukotuko du mirarien alde? Zerk beti egia direla? Zer segurtasun daukagu deabruaren ekintza ez direnaz? Zer froga magiaz sortu ez direnaz? Laburtuz, nola fida gaitezke goiko, edo beheko, ezertaz ikurrek bakarrik boterea erakusten badute, eta ez ontasuna?"

"Eta hainbeste aurreratu al duzu zure maixu eszeptiko berriarekin -ihardetsi zuen lagun zorrotzak behatza nireganuntz zuzenduz- ezen hain agudo bazter ditzakezun mirariak baliagabe izateagatik?"

Ikusi nuenez, gizon gaztea ikaratu samar geratu zen bere lagunaren jokaera zakarragatik, azken hau bere irain gaiztoarekin jarraitzera zihoan artean. "Nire ustez -moztu nion- neu naiz gizon gazte honen orde (nire ikasle egin duzuna) erantzun behar duena. Eta bere apaltasunak, nire iritziz, utziko ez dionez hain bikain ekin duena bukatzen, ni neu ahaleginduko naiz berak baimena ematen badit."

Gizon gazteak baietza eman zuen, eta nik aurrera egin nuen, kontutan hartuz, lehenik, bere asmo garbia zera zela: gure fedea oinarri razional eta zuzenean ezarri, eta funtsatuko duten mirarien faltaren destainaz defendatu. "Hori egiteko -esan nuen nik-, zalantzarik gabe, berak erakutsiko zuen zein froga ona genuen gure Orakulu Sakratuarentzako hildakoen testigantza, zeintzuren izaerak eta bizitzak erantzun ahal izango zuen Jainkoaren izenean adierazten ziguten egiaz. Dena dela hau "Jainkoaren orde lekukotzea" zen, gizon sugartsuak berehala esan zuen bezala, gizakien nahiz mirarien ahalmenetik urrun geratzen zen eta. Ezingo zuen Jainkoak bere burua lekukotu, ez bere izatea gizakiei erakutsi, ez bazen horien arrazoimenean azalduz, horien juzgamenera joaz, eta bere eginbideak horien maiseoari eta gogoeta hotzei menperatuz. Unibertsoaren behaketa, bere legeak eta gobernuak ziren bide bakarra Jainkoarenganako sinesmen irmoa finkatzeko. Zeren, nahiz eta alde guztietatik kontaezineko mirariak erasoko baliote zentzuei, eta arima ikaratuari sosegu emango ez baliote; nahiz eta bat-batean zerua ireki eta mota guztietako gauza harrigarriak agertu, ahotsak entzun, eta

ikurrak irakurriko balira; honek erakutsiko lukeen gauza bakarra izango litzateke hori egin dezaketen botereak badaudela, besterik ez. Hala ere, zer indar ote ziren, bat ala gehiago, gorenak ala menpekoak, hilkorrek ala hilezkorrek, jakintsuak ala ergelak, zuzenak ala bidegabeak, onak ala txarrak, hori guztia oraindik misterioa izango litzateke, hala nola azaldutako botere horietako edozeinen benetazko asmoa, hutsezintasuna edo egiazkotasuna. Euren hitza ezingo litzateke lehenengo zentzuan ulertu. Gizakiak isilaraziko lituzkete beharbada, baina ez konbentzitu: boterea ezin da sekula izan ontasunaren froga, eta ontasuna da egiaren bermatzaile bakarra. Ontasunagatik sortu zen fidagarritasuna. Ontasunagatik lor dezakete sinesgarritasuna botere gorenek. Euren lana aztertua izatea eta ekintzak kritikatuak izatea zilegi behar dute. Eta horrela, bakarrik horrela, fida daiteke horietaz: euren ongura errepikatutako seinaleekin frogatuz eta euren izaera, zintasuna eta egiazkotasuna ezarriz. Beraz, nori agertzen zaizkion zuzen eta erakide unibertso honen legeak eta bere gobernua, hari hitz egiten dio berak zuzentasunaz, hari errebelatzen dio Jainkoa; eta lehen fede honen oinarria ezarriz, beste fede baterako gertatzen du. Errebelazio historikoari adi diezaioke, eta gertu dago, orduan (eta ez lehenago), zerutik edozein mezu edo berri miraritsu jasotzeko, zeren badaki alde zuzenetik han goian dena zuzen eta egiazko dela. Baina hau guztia ezingo dio jakinarazi edo atzematen lagundu ez mirarien botereak ez arrazoiak kanpoko ezein boterek."

"Alabaina -jarraitu nuen nik- orain arte bakarrik defendatzaile izan naizenez, eraso armak hartzea eta oldarkor izatea erabaki dut, betiere Teoklek ez badu txarrera hartzen ni bere hipotesitik abiatzea."

"Edozein aldetik hartzen duzula -ihardetsi zuen nire aurkariak- seguru alferrikaltzen duzula. Eta zure eskutan erabiltzean kontu eduki gure lagunari erantzuten diharduzula niri baino."

"Arriskatuko naiz -esan nuen-; hala ere, nire ustez, oinarriztat dituzun ikurriz gehienek zure helburua tradititzen dute, besterik ez. Zeren natura deserrotzen saiatzen zaren artean, zerua eta lurra miresgai bila arakutzen duzun artean eta dena miraritzeko asmoz aztertzen duzun artean, mundura nahasketa dakarzu, bere erakidetasuna hautsi eta ordenaren bakuntasun harrigarria -hastapen banako amaigabe eta perfektuaren ezaguerazlea- birrintzen duzu. Desadostasun betiraunkorrek, dardarek, indarkeriek, lege-haustetek, ordenaren aldaketa eta egongaitzasunek, erakusten dute naturan ez dela kontrolik, edo badiela menpekotasunik eta kontrolik gabeko botereak. Gure begi aurrean ditugu jainkogabeen anabasa eta atomoak edo politeisten magia eta deabruak. Unibertsoaren sistema nahasgarri honi heltzen diote sugartsu Jainkoa funtsatu nahi duten batzuek. Ezaugarri hauekin eta gauzen itxura honekin berraurkezten dute Jainkotasuna. Gure gazte azterkorrenen eta burutsuenen begiak zenbait eta arretatsuago bihurtzen diren honuntz, orduan eta gehiago behatuko dituzte gauzak ikuspegi harritu eta mireskor honetatik. Jainkogabetasuna izango bailitzan gauzen arauzko eta ordenazko egoeratik aterako den ondorio garbiena! Alabaina, naturaren trenkaketa eta desitxuraketa hau guztiaren ondoren, ikasle harritu horrek (sarritan gertatu ohi denez) bere onera etorritik eta naturaren bideak soseguz aztertuz berak uste baino ordena, erakidetasun eta egonkortasun handiagoa aurkitzen badu, jakina, Jainkogabetasunera joko du; hain zuen, arrazoigabeko sistema horretatik jaso dituen inpresioak direla eta, bere bidez ikasten baitu Jainkoa nahasketan bilatzen eta probidentzia mundu jarraigabe eta araugabea aurkitzen."

"Eta -ihardetsi zuen berak- behin gauza guztiak erakide, garbi, arauzko eta bakun bihurtu dituzula, azaldu berria duzun sistema horren bidez, bururatzen zait Jainkoa mekanismoan bilatzen jarriko duzula zure ikaslea; hau da, bere burua gobernatzen duen

ekai sistema bikainean. Zer beste izango da, ostera, zuentzat, naturalistentzat, mundua makina hutsa baino?"

"Ezer ez -ihardetsi nuen nik- makinari adimena ematen badiozu. Zeren honela ez baita makina burugobernatua Jainkogabernatua baino."

"Eta non dira -esan zuen berak- konbentzituko gaituzten seinaleak? Zer ikur eman behar digu makina mutu honek horrela gobernatzen denaz?"

"Emandakoak -ihardetsi nuen nik- aski dira. Seguruena ezingo du pentsamendu bizi eta irmoaren ikur sendoagorik eman. Pareka itzazu geure makinak beste handi horrekin eta begira haien ordena, erabilpen eta higidurek ea adierazten duten halako bizitza perfektua, edo halako adimen betea. Bata arauduna, irmoa eta iraunkorra da; besteak araugabeak, aldakorak eta iraupegabeak dira. Batarengan jakituriaren eta zehaztasunaren ikurak daude; besteengan apeta eta harrokeria. Batarengan zuzentasuna azaltzen da; besteengan fantasia bakarrik. Batarengan nahimena, besteengan nahikeria. Batarengan egia, segurtasuna, ezagupena; besteengan errua, zorakeria eta eromena. Alabaina, gure gainetik pentsatu eta ekiten duen zerbait dagoenaz limurtuak izateko, bigarengo ikur horiek behar ditugu dirudienez, eta suposatu behar dugu ez dagoela gurearen moduko pentsamendua edo adimena baino. Gauzen igarobide ordenatu eta arauzkoak gogaitu eta aspertzen gaitu. Aro eta lege mugatuek, iraultza zuzen eta neurtuek ez dute guregan eraginik, ez dute gure mirespena ixiotzen. Igarkizunak, miresgaiak, nahiz harritzeko eta izutzeko arrazoiak behar ditugu! Harmoniak, ordenak eta konkordiak jainkogabe bihurtzen gaitu. Araugabetasunak eta banakuntzak Jainkoaren existentziaz konbentzitzen gaitu. Mundua gertakari hutsa da ordenatua denean, eta jakituriaren emaitza, ostera, zoro dabilenean."

Beraz, jainkozale bizi baten papera hartuko dut, nire aurkaria gezurtatzen saiatzeko, bere hastapenek jainkogabetasunaren alde doazela erakutsiz. Gizon zaharra iraindu egin zen oso, eta eztabaida beroan segitu genuen gaua aurrera joan arte. Baina Teokle moderatzaile aritu zen, eta azkenean, baretuta eta adiskidetsu, atsedean hartu genuen. Dena dela, ez zen txikia izan nire poza entzun nuenean gure lagunak alde egin behar zutela hurrengo goizean, eta Teokle eta ni bakarrik geratuko ginela.

Hurbiltzear dago, jada, Palemon, nik hainbat irrikatu dudan goiza. Hala ere, badut arrazoirik beldur izateko zure antsiaren aurrean. Baliteke zure jakinmina ase izatea orain artekoarekin. Bururatu al daiteke iragandako bi egunen kontakizunaren ondotik, pazientzia izango duzula oraindik entzuteko bi horiek baino filosofikoagoa izango den beste batena? Hala ere agindu egin didazu, eta orain, asko kostata ere, datorrena onartu behar duzu.

HIRUGARREN ZATIA

Filoklek Palemoni

I. ATALA

Oraindik gau iluna zen (nire irudimenean) jende hotsak iratzarri ninduenean. Deitu egin nuen jakiteko zer gertatzen zen, eta esan zidaten Teokle bere lagunekin atera berria zela goizaldiko ibilaldia egitera, baina, euren ustez, laster itzuliko zela; horregatik agindu zuela bitarte horretan ez zezala inork nire atsedena asaldatu.

Hori entzutea nahiko asaldura izan zen. Izan ere, jaiki egin nintzen, eta muinoa ikusteko adina argi zegoenez, eta etxetik ez oso urrun izanik, haruntz abiatu nintzen berehala, eta behean Teokle harrapatu eta bere atsegintasun faltagatik kexatu nintzaion. "Ez bainaiz ni -esan nion- hain lagun ematua eta makala emakume tratua merezitzeko. Ez dut erakutsi zure bizikera edo solasarekiko halako higuina, ohe leun baten luxu ergelerako gertuago eta zaleago kontsidera nazazun, eta ez, aldiz, lagun goiztiar batekin lanerako, atsedenerako edo ikasketarako. Ez duzu inongo aukerarik izango zure errua zuzentzeko ez badidazu baimentzen, hemendik aurrera, zure pentsamendu sakonetan parte hartzea, erabakia baitut, ikusten duzun bezala, zure ordu eta lan horietan sartzea."

"Ahaztu egin al duzu -esan zuen Teoklek- atzo, hemen eta ordu honetarako ohianeko ninfekin geratu zinela?"

"Ez, benetan, -esan nuen nik-, eta dakusazun legez garaiz nator izendatutako lekura. Baina ez nuen sekula pentsatuko zu nirekin etorriko zinenik."

"Ederki -esan zuen Teoklek- denborarekin ni bezalako maitalea bihurtuko zarela itxaron dezakegu, jeloskortasuna azaltzen hasi zara eta. Ez nuen nik pentsatuko ninfak horiek halako grina sorraraziko zutenik zuregan!"

"Egia esan -esan nuen nik- aipatzen dituzun ninfak horietaz ez dut gauza handirik ezagutzen. Nire jeloskortasunak eta maitasunak zuri begiratzen dizu bakarrik. Beldur nintzen niri ihes egiteko asmoa ote zenuen. Baina dagoeneko berriz nirea zaitudalarik, ez dut hemen ninfarik nahi zoriontsu izateko; ez bada nirekin bat egin dezan zure aurka, zure poeta maitatuak Aegle ninfarekin egiten duen bezala, bere bi gaztetxoekin elkartzen baitu Silenus Jainkoari kantarazteko."

"Zure adeitasunaz fidatzen naiz -ihardetsi zuen Teoklek- eta pentsatzen dut halako lagunarte maitagarriarekin izango bazina, zure denbora filosofia ez den beste zerbaiti emango zeniola. Baina espero al duzu poetaren Jainkoa antzeratu behar dudala eta kantatu behar dudala atomoetatik sortutako gauza; nahasketatik sortutako ordena; batasunaren, harmoniaren eta Konkordiaren sorrera, anabas hutsetik eta halabehar itsutik? Kanta hau benetan egokia zen Jainkoarentzako. Zeren, zer egokituko zitzaion hobeto bere izaera alaiari kreazio horditu hori baino, sarritan goratzen duena bizitzara ekarrita? Baina kanta hau ere harmoniatsuegia zen gaueko lasaikeriarako. Hobe zuen gure poetak goizean sortu izan bazuen, Jainkoa oraindik edan gabe dagoenean. Zeren nekez sinestaraziko digu inork erritmo harmoniatsu horiek adimenaren anabasa hutsetik atera litezkeenik. Baina entzun behar dugu gure poeta hitz egiten erdijainko edo heroi ez hordi baten ahotik. Orduan gauzen oinarri desberdin bat aurkeztuko digu, eta aurrekotasun ordena aproposago batekin pentsamenduari emango dio lehentasuna. Gogo jarriko du gorputza gobernatzen jatorriz, eta ez alderantziz. Zeren gorputza balitz lehena anabasa betiraunkorra izango genuke, eta gauza guztiak anabasa egoera batean mantenduko lituzke gaur egunera arte eta betirako. Baina

Gogo ekilea, zabalguneko osoan isuria,
masa ahaltsuarekin batu eta nahasten da:
hortik gizakiak eta piztiak.

"Hemen aurkitu behar dugu, Filokle, gure jeinu goren hori; ahal badugu liluratu behar dugu leku honetako jeinua (zure Silenus hori baino garbi eta edan urriago) iradoki gaitzan naturaren kantu egiaziagoaz, irakats diezagun ereserki zerutiarra, eta erretiro leku itzaltsu honetan Jainkotasuna sentiaraz diezagun."

"Arindu zaitez, erregutzen dizut -esan nuen nik- on Teokle, eta ez zaitez une batez ere gelditu zeremonia edo erritoetan. Zeren garbi ikusten baitut, inongo prestakuntzarik gabe, Jainkotasuna guregana hurbildu dela, eta dagoeneko zure artean mugitzen dela. Hamadriadeko arboladi sakratuetara heldu gara, ziotenez orakuluak ematen zituen lekura alegia. Muinoaren lekurik ederrenetakoa gaude, eta eguzkiak, ateratzeko gertu, gauaren gortina alderatzen du eta hor beheko lautadetako naturaren ikuskizuna erakusten digu. Zeren badakit orain jainkozko pentsamenduez betea zarela, zeintzuk bakardade honetan aurkitzen dituzun. Jarri horiei hitzak eta tonuera. Ohizkoa duzun adinako bakardadean zaude; ez hartu kontutan nire presentzia, eman ez nagoela eta horren arauera jokatu."

Nik hau esan ahala, begirada urrundu zuen niregandik hausnarketa egiteko apur batez bere artean; berehala, bere eskua zabalduz, bere inguruko gaiei seinalatzen bezala, honela ekin zion:

"Zuek zelai eta basook, beharraren mundu neketsutik babesten nauzuenok, abegi nazazue zuen gordeleku baketsuetan eta lagun nire erretiroan eta bakardade pentsakorrean. Zuek lautada berdeok, zein pozez agurtzen zaituztedan!, Agur jauretxe zoriontsuok!, nire leku minok!, gozamenezko ikusmirok!, lur honen edertasun itzaltsuok, eta nekazal indar eta grazia guztiok! Bedeinkatua izan zaitez zu hilkor zoriontsuenen egoitza gardena; horiek errugabetasun baketsuan jainkozko bizitza ez bekaiztuaz gozatzen dute, eta Jainkotasunak bere lasaitasun bedeinkatuarekin aisia eta erretiro zorionekoa erdiesten du gizakiarentzako, zeinak (kontenplaziorako eta bere eta besteen izaerak aztertzeke egin) gauzen zergatiaz gogoetatu behar duen, eta naturaren ikusmira desberdinen artean kokaturik, hurbilagotik ikus ditzakeen bere lanak.

"Oi natura aintzagarria!, zuzentasun gorena eta ontasun bikaina!, guztiaren maitalea eta guztiz maitatua, guztiz Jainkoa!, zein egokiak eta grazia amaigabekoak diren bere begiradak!, zer jakituria dakarren beregandik ikasteak!, zer gozamen berari behatzeak!, Bere lan bakoitza ikusmira zabalagora heltzen da eta arteak inoiz erakutsi duen guztia baino ikuskizun nobleagoa da. Oi natura ahaltsua! probidentziaren ordezkari jakintsua!, indarrez beteriko eme emankorra!, Edo zu Jainko indarremailea, kreatzaile gorena!, Zuri egiten dizut dei, zu bakarrik gurtzen zaitut. Zuretzako sakratuak dira bakardade hau, leku hau, nekazal gogoeta hauek. Pentsamendu harmoniatsuak iradokitzen nau, eta hitzetara murritzu gabe, eta erritmo laxotan, izaki sortuetan kantatzen diot naturaren ordenari, eta zuregan zertzen diren edertasunak ospatzen eta jauresten ditut; zu edertasun eta perfekzio ororen iturri eta hastapena.

"Zure izatea mugagabea da, azterrezina, sartzina. Zure neurgabetasunean pentsamendu guztia galtzen da; fantasiak gelditzen du bere hegaldia, eta irudimen nekaturia alferrik ahalegiten da ozeano honetan itsasertzik edo mugarik bilatzen, ezin baitu aurkitu, hala nola ezin duen aurkitu, hegaz zeharkatzen duen eremu honetan, batere punturik zirkunferentziatik hurbilago egongo dena abialeku izan zuen erdigunea baino. Sarritan saiatu naiz horretan; hedadura zabalera atera naiz, eta nire baitara itzuli naiz izate murritz bat izatearen eta neurrigabeko izate horren betetasunaren irudipenarekin. Ez naiz gehiago begiratzera ausartzen sakontasun miresgarri horiek, ezta ere sondatzera Jainkotasunaren lezea.

"Orain, zuk (oi gogo gorena) naizen erakoa egin nauzunez, adimentsua eta razionala, nire izaeraren duintasun berezia zu ezagutzean eta behatzean datzanez, zilegi nazazu hornitu nauzun ahalmen hauek behar den askatasunez erabiltzen. Jasan ezazu nire

jarrera ausart eta oldarkoia. Zureganako maitasunak iradokitzen dizkit pentsamendu hauek, eta ez alferrikako jakinminak, ez harrokeria inozoak, ez beste edozeinen maitasunek; izan zaitez zu nire laguntzailea, gida nazazu nire bide honetan; natura zabalaren labirintora sartzen ausartu eta zu zure lanen aztarnetan bilatzen ahalegiten naizen artean."

Hemen eten egin zuen apur batez, eta amets batetik aterea bezala esan zuen: "Orain, Filokle, jakinaraz iezadazu zer iruditu natzaizun nire suminaldian. Eromen mota sentibera bat ematen al zuen, gure poetak harrapatzen dituen bezalakoa? Ala burutik egina egotea besterik ez zen?"

"Nik zera besterik ez nuen nahi -esan nuen- zu indar pittin bat gehiagorekin harrapatua izatea, horrela hasi zinen bezala jarrai zenezan, niri kasurik egin gabe. Zeren erakusten zenidan natura horretan gauza harrigarriak ikusten hasia nintzen, eta zure jainkozko egilearen eskua ezagutzen ere. Baina hemen gelditzen bazara agerpen atsegingarri horren gozamina galduko dut. Eta dagoeneko hasia naiz topatzen mila eragozpen zuk deskribatzen duzun moduko jeinu unibertsala irudikatzeko."

"Zer -esan zuen berak- zailtasun dago unibertsoa gauza oso bat bailitzan irudikatzeko? Pentsa al daiteke ikusgarria denari buruz beste era batera, ez bada dena elkarri lotuta, zati batean? Onar dezagun hau: zer darraio? Zera besterik ez: mundua benetan bat besterik ez dela esan badaiteke, egon beharko lukeela zerbait bere baitan bat egiten duena. Nola? Zuk gauza guztietan ikus dezakezun bezala, eta ez bestela. Adibidez, gure aurrean ikusten dugun honetan; badakit baso zabal honetako zuhaitzak elkarren artean desberdintzen dituzula; eta haritz garai hau, denen artetik sotilena, basoko bere lagun guztiez bereizten duzula. Horrela, nire ustez, zuhaitz bat eta berbera da, bere egurrarekin eta hedatzen diren bere abar ugariekin, hauetako bakoitzak zuhaitz bat dirudielarik. Hala ere, zurekin bat etorriko nintzateke eta ez nuke gehiago ihardunik egingo zera esango bazenit (ez eszeptiko baten eran, benetako gogoetatzaile baten eran baino): argizarizko edo antzeko beste zerbaitezko irudia benetazko bihurtuko litzatekeela, eta zuhaitz horren mota berdinekoa gainera, bere moldaera zehatza eta kolorea hartuko balu, eta substantzia berdinez hornituko balitz. Baina galdegiten badidazu zinez, eta jakin nahi baduzu zerk ematen dion, nire ustez, batasun hori eta berberatasun hori, edo zertan bereizten den argizarizko irudiaz, edo hodeietan nahiz itsasertzeko harean ustekabez egindako beste edozein irudiz, zera esan beharko nizuke: ez argizariak, ez hareak, ez hodeiak -gure eskuz edo irudimenez elkarrekin taxutuak- ez dutela elkarren arteko harremanik, edota ez dagoela hor izaerarik bata bestearekin lotzen dituen, zatitan sakabanatuta daudenean baino gehiago. Alabaina, zera baieztatu beharko nuke: nahiz eta gure benetako zuhaitzean, hemen zatien artean ikusten dugun adinako sinpatia egon; nahiz eta adostasuna egon xede bateratu batean, hala nola era egoki hori oinarritzeko, elikatzeke eta zabaltzeko, ezin gara oker egon esatean izaera berezi bat dagoela era horri dagokiona eta bere mota berdinekoekin amankomunean duena. Honegatik da gure zuhaitza benetazko zuhaitza: bizi da, loratzen du eta, hala ere, beti bat eta berbera da, nahiz eta hazieragatik eta substantzia aldaketagatik zati batek ere ez duen berdina irauten."

"Honela -esan nuen nik- bizileku ohiantsu hauek oso leku xarmant bilakatzeko modua topatu duzu. Zeren leku bakoitzeko jeinu biziaz gain, basoek ere, zure arauera bizidunak direlarik, euren zuhaitz-lamiak dituzte, zalantzarik gabe, eta iturri eta errekaetako ninfa ugari. Eta hauek ere, nik atzeman dezakedanez, substantzia ekaigabe eta hilezkorrez eratuak izan dira."

"Guk, hortaz, kaltetzen ditugu -ihardetsi zuen Teoklek- esaten badugu eurak zuhaitzei dagozkiela, eta ez, ordea, zuhaitzak eurei. Baina utz ditzagun eurak ardura daitezen euren hilezkortasunaz. Nik dakidan gauza bakarra da mundua baldinpetzen duen izaera

berak (eta ez beste ezerk) baldinpetzen duela horien izaeraren iraupena, eta baita ere beste izaera guztiena. Eta beste jeinu guztiak jeinu on honi menperatu behar zaizkiola, eta hau mundu honetakoa dela konbentzitzen ahaleginduko natzaizu.

"Utz ditzagun zuhaitz hauek -segitu zuen berak- bihur daitezen norbait eurek ahal duten eran, eta azter dezagun nortasunaren arazo hau zuri eta niri dagokigun neurrian; eta gogartu ezazu, Filokle, nola zu zaren zu, eta ni naizen ni. Zeren zentzuak irakatsiko digu, nik uste, geure irudi hauetan zatien arteko lotura bat dagoela, Fidia edo Praxitelek moldatutako marmoletan ematen denaz desberdina. Eta anatomista apalenak ere esan diezaguke geure marmola edo ekaia (edozein dela gu osatzen gaituena), zazpi urteren, edo, gehienera bi bider zazpi urteren buruan, agortuko dela. Orduan non aurkituko dugu, erregutzen dizut, norbera hau, suposatzen badugu ekaiaren baitan edo bere zati batean datzala? Zeren guztiz ahituta dagoenean, eta zatiska bat ere ez denean geratzen, gu lehen adina gara geu."

"Zaila izan daiteke zehaztea -ihardetsi nuen nik- zer zareten zuek filosofook; baina gizadiaren beste partaide guztiez ausartzen naiz baieztatzen oso gutxi irauten dutela berdin ezta zazpi urteren erdia ere. Zorionekoa baita egun batez edo bi egunez bat eta berbera irauten duen gizakia. Urte batean konta daitezkeenak baino iraulketa gehiago ematen baitira."

"Egia da -esan zuen berak- nahiz eta posible den hori gizakiren bati gertatzea, bereziki bere hoben gaiztoengatik sarritan bere buruarekin haserre dagoenari. Hoben horiengatik sufritu edo zigorra jasan behar badu, bere burua bat eta berbera igartzen du, ez banago oker. Eta, Filokle (filosofia onartzen ez duzun arren, benetan pirronismoaren jarraitzaile izanik), nik predikatzen dudan jeinuaren indarra nabaritzuz, jainkozko hipotesia onartuko bazenu eta, pentsaeraren aldaketa berri honekin, admitituko bazenu zure hastapen eta iritzi guztiak aldatzea, hala ere, zu berdina izango zinateke, eta orain baino hobe (onartzen baduzu nire judizioa), niretzako jadanik oso maitagarria eta estimagarria bazara ere. Badakusazu, beraz, "zu" eta "ni" hauetan bakuntasun bitxi bat dagoela, alegia benetan bat eta berbera izan beharra; nahiz eta ez egon ez gorputzaren atomorik, ez grinarik, ez pentsamendurik berbera dirauena. Eta erabat baztertu behar da izatearen identitate edo berberatasuna ekaizko partikula batetik ondorioztatzeko ahalegina, ekai horrek guregan irauten duela eta gainerako guztia aldatzen dela suposatuz; ekai hori, berez, ez baita bakuntasun horretarako gai. Izan ere, ausartzen naiz esaten onartuko duzula "zu" edo "ni" hauek ekai hutsezko ezer baino bakunago edo banakoago direla; ez baduzu, behintzat, zu zeu baino gauza ulergarriago eta seguruagotzat hartzen atomoaren nozioa."

"Berdin da zer iritzi dugun ekai bakunaz, (berez nahiko gauza zaila baita bururatzeko) -segitu zuen Teoklek-. Baina bera konposatzen bada gizakion egituran eta antzeko beste zenbaitetan antolatzen den era berdinean, elementu desberdinak elkarrekin lotuz, eta agertzen bada era banako ugarietan, eta banako hauek guztiak hastapen batez parte hartzen badute (euren ongizateari begiratuko dion guztia bizidun eta ekintza bihurtuko duena eta izaera propio bat atxekiko diena) nola ez dugu, bada, gauza bera osotasunean ikusiko? Nola ukatuko dugu munduaren batasun orokorra? Nola ez dugu onartuko jainkozko izaera, gu guztion ahaidea dena? Nola ukatuko dugu jeinu unibertsalaren eta gorenaren ezagupena?"

"Gorentasunek -esan nuen nik- ez dute behar inork ezagutu ditzatela ezkutuan dabilzanean, eta ezta ere omenaldirik ez badira prestatzen horretarako era egokian. Arrazoiz pentsa genezake gurekin atsekabetuko direla, gehiegi saiatzen bagara euren bila, guztiz ikustezinak bihurtzen direnean edo mozturoroketa iluntsu batekin ezkututzen direnean. Gure erlijioaren bide arruntetik botere ikustezin horiei buruz jasotzen dugun berriari dagokionez, baditugu gure gorentasun ikusgarriak gure izenean erantzun

dezaten. Gu bezalako nagusiek irakasten digute zer sinetsi behar dugun eta zer bete behar dugun gure erreguetan. Eta gure eginbeharra da horiek bete eta euren irakaspenari jarraitu. Baina ikuspegi filosofiko batetik ez dut ikusten arrazoirik hain titulu eztabaidagarria emateko. Edozein modutan eztabaida ulertzeko onartu egin behar da argudioetako bat behintzat, eta deskribatutako botere horien izaera ezagutu ere. Ezingo ote da galdezkatu zerezkoak diren substantziak, ekaidunak ala ekaigabeak?"

"Ezin al da, bestalde -ihardetsi zuen Teoklek- galdezkatu era berean, zein substantzia, edo biotatik zein substantzia, dagokizun zuri benetan eta zeurez? Ala ez duzu substantzia izan nahi eta aukeratzen duzu modua edo akzidentea?"

"Benetan -esan nuen nik-, nire bizitza guztiz akzidentala bada ere, edota bera gobernatzen duen tenorea ustekabekoa izanik, ez dut ezagutzen ezer nire burua baino benetazkoagoa edo substantzialagoa. Beraz, baldin badago zuk substantzia deitzen duzun ezer, segurutzat jotzen dut ni neu hori naizela. Baina gai honi buruz ezagutzen dituzu nire hastapen eszeptikoak; ez dut erabakirik hartzen ez alde batera, ez bestera."

"Emaidazu, orduan, on Filokle -ihardetsi zuen berak- eszeptizismoaren pribilegio berdina honi dagokionez; ez baitu zerikusi handirik gure arazoarekin nola erabakitzen dugun puntu hau, edota nola etortzen garen bat. Zeren handia izan arren zailtasuna, konturatuko zaren bezala, zaila da zure izateari dagokionean, eta baita ere nik zuri erakutsi nahi dizudan izateari dagokionean. Gogoko dituzun erreparo guztiak jar ditzakezu, bai alde batetik bai bestetik, eta zure dilema indar handikoa izan daiteke horrelako izaki goren baten existitzeko modua auzitan jartzeko. Baina guzti horren ondoren dilema bera zuregana itzuliko duzu, eta zure buruaz zalantzatan egongo zara. Modua eta substantziaren arazo metafisikoez nahiko gogoeta egin duzunean, eta hipotesi bakoitzaren zailtasunetatik ondorioztatu baduzu, ezin dela naturan izan horrelako batasun unibertsalik, ondorioztatu beharko duzu, halaber, ezin dela izan zu zeu bezalako batasun banakorik. Alabaina, espero dut zuretzako nahiko izango dela azken tankera honetako batasuna, zure adimena alegia, existi dadila. Eta adimen honetaz aski da zera esatea: gorputz baten gainean ekiten duela eta bere azpian zerbait pairakorra eta berari menperaturikoa duela: ez duela menperatzen bakarrik gorputza edo ekai hutsa, baizik eta, neurri batean, bere burua eta berarengandik datorren guztia ere: bere irudimenak, itxurak eta fantasiak gainbegiratu eta zuzentzen dituela, gorputzaren eta ulermenaren ordena konposatua ondoen deritzon eran aztertu, landu eta moldatzen duela, hala nola ahalbait eta ondoen apaintzen eta gauzatzen duela. Badakit badela nonbait, munduan, halako adimen edo zati gobernatzailea. Kontraesan diezadala Pirrok hala nahi badu, bera bezalako beste edozeinen laguntzaz. Bakoitzak ulerkuntza eta pentsaerak ditugu, berdin da nola heltzen garen horietara. Bakoitzak ulertzen du eta pentsatzen du bere helbururako egokiena dena: berak berea eta nik nirea; zeinek pentsatuko du, ordea, osotasunari begira? Esan, mesedez. Inork ez? Ezerk ez? Agian pentsatuko duzu mundua gorputz hutsa dela: aldarazitako ekaia. Gizakien gorputza, orduan, gorputz horren zati izango da. Gizakien irudimenak, sentipenak eta atzemaketak gorputz honetan biltzen dira, barneko ditu, berak ekoizten ditu eta bere baitara etortzen dira berriro; nahiz eta, dirudienez, gorputzak ez duen sekula horretaz ametsik egiten! Mundua berez ez da jakintsuago berak ernaltzen duen zentzu edo jakituriagatik! Ez du atzematen berak egiten diharduen guztia; ez du bere baitan gordetako pentsamendurik, bere erabilpenerako edo bere helburua betetzeko; ez du irudikapen edo gogoeta bakarra ere balioko diona jabetzeko berak eragiten dituen irudikapen edo asmaketa ugariez, hain oparo sortzen dituenak! Gorputzaz onberak, hain emankorra, atseгина eta eskuzabala beste guztientzat, ez du ezer gorde berarentzat, zorionez dena besteentzat xahutu du! Zer arrazoiengatik? Gustora jakingo nuke. Nola? Zein premiagatik? Zeinek ezartzen du legea? Nork ordenatzen du eta banatzen ditu gauzak horrela? Naturak, diozu zuk. Zer da

natura? Sentipena? Pertsona? Ba al du berak arrazoimena edo ahalmena? Ez. Nork ulertzen du, orduan, bere izenean? Nor interesatzen da ala kezkatzen da berataz? Inor ez; ezta arimarik ere ez; bakoitza bere buruaz kezkatzen da, ordea.

"Jarraitu, bada. Adi dezagun gehiago. Ez al da natura hau oraindik baita bat. Edo esaidazu, arren, zer dela eta zara zu bat? Zer ezaugarriengatik? Zeren poderioz? Zati batzuei datxekien hastapen batengatik, zeinak zati horien erabilpen eta helbururako pentsatu eta ekiten duen. Esan, beraz, zure sistema oso hori, zeren zati da? Ala ez al da zati bat, baizik eta berez osoa, erabatekoa, independentea eta beste ezerekin harremanatu gabea al da? Esan faborez, benetan zati bat eta zerbaitekin harremanatua baldin bada, zerekin harremanatuko da ez bada naturaren osotasunarekin? Ba al da naturan halako hastapen bateratzailerik? Horrela izanik, zelan izango zara zu norbait eta natura berriz ez? Zer dela eta izango duzu zerbait zure onerako eragiten duena eta zutaz arduratzen dena, eta, ostera, adimen hori eman dizun naturak ez du ezer izango bere onerako pentsatu edo aholku emango dionik, edo, edozein premiatan dagoela, lagunduko dionik? Izaki koitadua! Hain desegokitasun handia al dago munduan oro har? Nonahi eta ugariak izango al dira hastapen ezagule, eraginkor eta partikularrak, eta, ez al da egongo, ostera, guztia behatu pentsatu edo ezagutzen duenik? Dena administratu edo zainduko duen ezer?

"Ez, dio hipotesi berri baten jarraitzaileak, mundua betikotasunetik baitator, dakusazun bezala; eta ez da ikusten duzuna baino ezer gehiago: aldarazitako ekaia, mugitzen den masa, pentsamendua han hemenka, edo adimen desegingarriaren zatiska barreiatuak. Ez, esaten du antzinako hipotesi baten jarraitzaileak, zeren garai batean ez zegoen adimenik edo pentsamendurik munduan: ekai hutsa, anabasa, atomoen kokagunea zen, pentsamenduak, halabeharrez agerturik, inoiz bururatu ez zen harmonia sortu zuen arte. Bai burutazio miresgarria! Sinetsi beza ahal duenak. Nire aldetik, probidentziari esker, badut adimen bat balio duena harmoniatsu eta ordenean mantentzeko nire gorputza, nire eraspenak, nire grinak, nire irudimenak, ameskeriak eta gainerako guztiak. Baina unibertsoaren ordena, seguru nago, bi horietatik onena dela. Utzi Epikurori pentsa dezala, hala nahi badu, berea dela onena, eta -sinesten duenez ez dela jeinurik, ez jakiturarik berearen gainetik- jakinaraz diezagula zein halabeharrez sortatu zitzaion berea, eta nolatan bihurtzen diren hain jakintsu atomoak.

"Beraz -jarraitu zuen Teoklek bere ahotsa altxatuz eta keinua gogortuz- nire izateaz erabat konbentzituta nagoenez (baita eszeptizismoaren argudioaren bidez ere), eta nire norbait hori benetan norbait denaz, jatorrizko norbait behinenetik sortua eta bere kopia hain zuzen; ahalegingo naiz, ahal dudaneraino, berarekin bat egiten eta berari moldatzen. Nik deritzot masa orokor bat dela, osotasunaren gorputz bat; gorputz honi ordena bat dagokiola eta ordena honi adimen bat; adimen orokor horrekin harremanatu behar dela batasun partikular bakoitza -substantzia berdinekoa izanik, berdinki eragin behar duela gorputz batean-; bera bezala mugimenduaren eta ordenaren jatorria dela; bera bezala bakuna, konposatugabea eta banakoa; ondorio eta eragindura berekoa; eta berdinago dela oraindik parte hartzen duenean osotasunaren onerako, eta nahirik onenarekin bat datorrenean bere nahia. Horregatik naturala eman behar du, jakina, adimen partikularrak bere zoriontasuna bila dezala, orokorrarekin bat eginaz, eta ahalegin dadila antza hartzen bakuntasun eta bikaintasun handienarekin."

"Horregatik, orain -esan nuen nik-, on Teokle, izan zaitez berriro entusiasta, eta entzunaraz iezaidazu, atzera, lehen liluratu nauen jainkozko kanta hura. Nire barneko kezka gainditu dut dagoeneko eta hasi naiz, sekula baino hobeto, begitantzen lehen aipatzen zenuen izaera hura; nire burua oso interesatua ikusten baitut horretan, eta berarekin dena ondo eta zorioneko gerta daitekeela sentitzen baitut."

"Ez izan beldur, nire lagun -ihardetsi zuen berak-. Jakin ezazu izaera partikular bakoitzak berarentzako ona dena ekoizten duela etengabe, kanpotik zerbaitek aztoratu edo eragozten ez dion artean (bai bere barne indarrez menperatu eta ustelarazten duela, bai kanpotik erasotzen diola). Horregatik baita gure inguruan dakuski gun landare hauetan ere izaera partikular bakoitza hazten da, eta bere perfekziora heltzen da kanpoko ezerk traba egiten ez dion artean edo arrotza zaion ezerk indargetzen edo zauritzen ez duen artean. Eta, kasu honetan ere, ahalegin guztiak egingo ditu bere burua berrerosteko. Zer dira, bestela, naturaren ahultasun, bihurdura, eritasun, jaiotze imperfektu eta antzerako kontraizan eta gaizkeria guztiak? Zer gutxi jakin behar duen batek naturaren zergati eta eragiketez, pentsa dezan desantolaketa horiek izaera partikularren huts egitetik datozela, eta ez, oster, bera menperatzen duen izaera harrotz baten indarretik. Izaera partikular guztiak iraunkorki eta huts egin gabe egiak badira euren buruarentzako, eta bakarrik eurentzat ona dena ekoizten badute eta eurentzat zuzena den egoerara abiatzen badira, ez al du batasun orokorrak ere gauza bera egingo? Orokortasunak bakarrik egingo ote du huts? Ba al da zerbait berari arrotza zaiona eta, une batean, bere gainean indarra egin eta bere bide naturaletik aterako duena? Ez bada horrela, berak ekoizten duen guztia bere onerako eta mesederako da, gauza guztien onerako: eta gauza guztien onerako dena zuzena eta ona da."

"Halaxe da -esan nuen nik-, aitortzen dut."

"Orduan konforme geratu behar duzu -ihardetsi zuen berak -eta ez bakarrik hori, baizik eta pozik eta gustora gertatzen den guztiarekin, nondik datorren eta zer perfekziotarako balio duen ezagutzen duzu eta."

"Alajaina! -esan nuen nik-, Teokle, zer sineskeriatar eaman nahi nauzu! Orain arte pentsatu izan dut adimen sineskeriatsu baten ezaugarria dela probidentzia bilatzea bizitzaren gertakari arruntetan, eta jainkoen indarrei atxekitzea ezbehar arruntak. Baina orain ohartzen naiz dena batera azaldu behar dudala, eta gauzak kristal magiko baten bidez bezala begiraturik, gaitzik okerrean on bihurtuta ikusi behar dudala, eta miretsi, era berean, esku perfektua eta berak sortzen duen edozein gauza. Baina berdin da, dena gaindi dezaket. Jarraitu, Teokle, eta utzidazu zuri esaten, nire onerako, berriro piztu nauzunez, ez didazula atzera iraungitzeko astirik eman behar."

"Gustatuko litzaidake -ihardetsi zuen berak- jakin dezazun ez dudala nahi odolberoaldi batez probetxu ateratzea, ezta ere zure oniritzia lortzea zure zima eta irudimenetik. Beraz, urrats bat gehiago eman baino lehen, zurekin arrazoiketa hotzean ihardutea erabaki dut, eta galdegingo dizut ea onartzen duzun frogaz bezala nik atzo aurreratu nuen arazo honi buruz -alegia, gauzen batasunaz, barne loturaz eta sinpatiaz nioena-."

"Gertakortasunaren indarrez -esan nuen nik- nagusitu zintzaizkidan. Gauza banakoetan ikusten dugun adostasunaz eta elkartasunaz konbetziturik, arrazoigabea iruditu zitzaidan ez onartzea gauza bera osotasunean."

"Benetan arrazoigabea! -ihardetsi zuen berak-. Zeren batasunaren oinarriak ez duen amaigabeko hondakinetan, ia ezinezkoa emango luke gure inguruko gauzek tinko eta ordenatu irautea. Zeren amaigabea nagusituko bailitzateke."

"Hala ematen du."

"Esaidazu orduan -esan zuen berak-, batasun hori onartu eta gero, nola uka diezaiokezu frogapen izena adimen perfektuaren gobernu ezartzen duen argudiapenari?"

"Gaitzaren agerpenaz ematen duzun azalpena -esan nuen nik -ez da nahiko borobila frogapen izena jasotzeko. Eta kreazioan hobendun edo imperfektu ematen duen guztiak beste edozein ondorio eragozten du arazo hori konpondu arte."

"Ez al zentozen nirekin bat -esan zuen berak- baieztatu nuenean itxurak, ezinbestez, diren bezala agertu behar direla, eta gauzek imperfektu ematen dutela, are adimen goren eta perfektua existitzen dela onartuez gero?"

"Bai, ados nengoen."

"Eta ez al du orain balio arrazoi berdinak? Ez al da egia, gauzen amaigabe batean (elkarrekin harremanaturikoak), adimenak ez badu amaigabeki ikusten, ez duela ezer ikusten osorik, eta, horregatik, berez benetan perfektua dena imperfektuzat hartzen duela?"

"Arrazoi horrek balio du oraindik."

"Itxurak, orduan, gure hipotesiaren aurkako erreparoak al dira?"

"Ez itxura dirauten artean."

"Frogatu ahal duzu beste zerbait direnik? Zeren ezin baduzu, ez duzu ezer frogatzen. Eta garbi dago zu zaudela frogatu beharrean: zeren itxurak hipotesiarekin bat baitatoz, baina, gainera, bere ondorio beharrezkoak dira. Horregatik, kasu honetan, niri frogatzeko agintzea, amaigabea izateko agintzea da. Zeren bakarrik amaigabea denak ikus ditzake eta amaigabeko loturak."

"Aitortu behar dut -esan nuen nik- horrela argudiatzen duzunean suposapena zure alde jartzen dela. Alabaina, suposapen besterik ez da."

"Hona hemen frogapena -esan zuen berak-, gauza bazara argudio abstraktu eta idor hau jasateko. Zuk diozunez gaitzaren itxuran agertzen zaigunak ez du zertan benetazko gaitza izan."

"Onartzen dut."

"Horregatik eurek berraurkezten digutena ona izan liteke."

"Baliteke."

"Eta horregatik baliteke ez izatea benetako gaitza gauzetan, baizik eta dena interes bati zuzendua egongo litzateke erabat: batasun unibertsal horren interesari."

"Baliteke horrela izatea."

"Orduan, horrela izan ahal denean ondorioztatzen da horrela izan behar duela (batasun handi horren arauera, eta osotasunari atxeki diozun nortasun hastapen honen arauera). Zeren osotasunerako posible dena, osotasunaren izaerak edo adimenak gauzatu egingo du osotasunaren onerako: eta gaitza baztertu ahal badu baztertu egingo du. Horregatik, itxurak arren, posible bada gaitza benetan baztertzea, egin kontua benetan baztertua izan dela. Zeren pairakorra den ezerk ezin dio aurre egin unibertsalki eraginkorra den hastapen honi. Eraginkorra den zerbaitek egiten badio aurre, bera ere hastapen izango da."

"Onartzen dizut."

"Baina hori ezinezkoa da. Zeren egongo balira naturan bi hastapen, bat etorriko lirateke ala ez. Bat etorriko ez balira dena nahasketa izango litzateke bata nagusitu arte. Bat etorriko balira arrazoi natural bat egongo litzateke adostasun horretarako: eta arrazoi natural hau ez litzateke halabeharretik etorriko, baizik eta asmo, lanabes edo pentsamendu batetik, zeinak berriro hastapen batera itzultzen gaituen, eta beste biak menpeko bihurtzen dituen. Eta, horrela, hiru iritziak konparatu ahal ditugunean: hau da, ez dagoela hastapen eraginkor asmatzailerik; bat baino gehiago dagoela; edo bat bakarra dela, jabetu behar dugu iritzi mamitsu bakarra azkena dela. Eta iritzi hauetatik batek egia izan behar badu azkena dela erabakiko dugu, besterik ez, eta horrela izan beharko du froga daitekeelako. Frogatzen bada hiru iritzietatik batek egia izan behar duela, eta hiruetatik bi zentzugabeak direla, hirugarrenak izan behar du egia."

"Aski da, Teokle -esan nuen nik- nire zalantzak desagertu egin dira. Gaiztakeria eta halabeharra (alferrikako mamuak) makurtu egin dira zuk finkatu duzun jakituria gailenaren aurrean. Arrazoiaren bide hotzaz nagusitu egin zara, eta zure sen poetikoari ireki diezaiokezu berriro bide berotsua. Itzul zaitez berriz, arren, izatearen perfekzio horretara, eta zuzendu zaitez bertara lehen bezala, iradoki zaituen oihaneko eszenara

"Orduan segituko dut -esan zuen Teoklek- nire burua Jainko zaintzaile eta iradokitzaile horrenganantz zuzenduz, zeina bururatzen dugun hemen eta orain, baina ez bakarrik hemen. "Oi jeinu ahaltsua! Botere bizkortzaile eta iradokitzaile bakarra! Pentsamendu hauen sortzaile eta funtsapen! Zure eragina unibertsa da, eta gauza guztien muina zara. Zuri menperaturik daude euren ekintzen iturriak. Mugitzen dituzu ekidin ezineko eta ahitzen ez den indar batekin, lege sakratu eta ukiezinekoen bidez, izaki partikular bakoitzaren ona bilatuz, osotasunaren perfekzioari, bizitzari eta kemenari ahalbait eta ongien egoki dakizkien. Bizitzaren hastapena alde guztietara barreiatzen da amaigaberaino desberdinduz eta zabal-zabalik, eta ez da inon ahitzen. Dena bizi da eta berriro dator bizitzara etengabe. Denboran bizi diren izakiek hartutako forma galdu egiten dute, eta euren ondoren datozei ematen diete funtsezko substantzia. Belaunaldiz belaunaldi bizitzara datozenek argia dakusate, eta ikusiaz joaten dira, beste batzuk eszena bikain hau ikus dezaten eta gehiagok goza dezan naturaren onuraz. Eskuzabala eta handia izanik, bere burua banatzen du eta amaigabeak dira bere oparotasuna jasotzen dutenak. Ezerk ez du geldiarazten bere esku adoretua. Ez dago galtzen den denborarik edo perfekzionatzen ez den substantziarik. Era berriak sortzen dira, eta zaharra deusezten denean bera osatzen zuen ekaia ez da bazterten, baizik eta kontu eta trebetasun berdinarekin lantzen da, are ustelketan ere, naturak higuingarria eta xahutzailea dirudien arren. Egoera doilorra beste hobeago baterako iragapide hutsa bezala agertzen da. Baina hurbiletik eta axolagabe ikusi ahal izango bagenu (zentzuen antipatiarik gabe) gure mirespena handituko litzateke eta konbentzitzen ginateke bidea eta helmuga bat egiten direla. Naturaren lan guztietan agertzen den antzeari ere oniritzi behar diogu: gure begi ahulek antze mekanikuen laguntzaz ezkutuko ikuskizun harrigarriak aurkitzen baitituzte lan hauetan. Munduen barruan txikitasunaren txikitasuneko munduak ditugu, antzearen aldetik handienak adina direnak, eta sentipenik sarkorrenak bereizi eta azal ditzakeen miragarritasun guztiak gaintitzen dituztenak.

"Mugimenduaren lege bakar batzuk ezagututa, beste guztiak gureganatu nahi ditugu, baina alferrik da gorputz guztiak bilatzea. Gure hautemaketa geldoak huts egiten du, ezin duelako bere gorputza gainditu. Izate harrigarria! (hala deitu ahal badugu), zeina gorputzak ez duen sekula jasotzen ez bada izatea galdu duen beste gorputz batetik; eta sekula galtzen ez dena ez bada beste bati emanaz. Lekuz aldatu gabe ere indarra du, eta mugimenduaz hornitutako gorputzak higitzen ahalegiten dira, gure ulermenaren gainditzeko duen energia adieraziz.

"Alferrik ahalegiten gara espazioaren leizea (zure izate hedatuaren kokagunea) aztertzen, ez dago leku hutsik, ez hutsunerik, betea ez dagoena.

"Alferrik saiatzen gara ulertzen sentipenaren eta pentsamenduaren hastapena; honek higiduraren menpeko dirudi, baina, hala ere, desberdintzen da berataz nahiz ekaiaz; zaila baita guretzako bururatzea nola ateratzen den higidura horretatik pentsamendua, hala nola, alderantziz, pentsamendutik higidura. Baina gure ustez pentsamendua da behinena, eta izakirik benetazkoentzat hartzen dugu; berataz jabetzen garenez bere

existentziaz bakarrik dugu segurtasuna. Gainerako guztia ametsa edo geriza izan daiteke. Baina sentipen hutsa geratzen da, arrazoimenak irauten du, eta pentsamenduak gordetzen du bere izatearen lehentasuna. Horrela jabetzen gara, nolabait, jatorrizko eta betiereko pentsamendu existente honetaz, eta geurea horretatik ondorioztatzen dugu. Hortik sentigarritasunaren gainetik dauden izakien existentziaz dugun segurtasuna, eta baita ere zureaz (lan guztien eredu) eta zuregandik datorrenaz; egia osoa eta perfektua azaldu diguzu gure ariman biziz. Zu jatorrizko arima hori, hedakorra, gauza guztietan bizi zarena, guztiaren iradokitzaile!

"Naturaren miresgarritasun guztiek euren egilearen ideia hori goraipatzen eta osatzen dute. Horrela ematen digu bera ikusteko eta berarekin hitz egiteko aukera, gure ahultasunari egokiago zaion era batean. Zein den aintzagarria berari begiratzea guri agertzen zaigun lanik nobleenean, munduaren sistema handian!"

Dagoeneko onartu behar dut niretzako oso atsegingarria zela ohartzea gure gogoeta aurrera zihoala eta filosofia korapilatsu bat baztertzear geundela. Nik bururatu nuen Teokle, bere ihardunarekin jarraitzen zuelarik, naturari hurbiltzen ari zitzaiola, izan ere, munduaren mugetara heldua baitzen. Eta hemen nik ongi etorria emango niokeen, baina iruditu zitzaidan ez zela zuhurra bere esana moztea.

"Zein ugariak diren -jarraitu zuen berak-, ordu betetik hona hurbileko planetez gain distiratzten dakuskigun izar tinkoak, gau garbi honetan, eguna oraindik joan gabe dagoelarik! Zenbait gehiago aurkitzen ditugun antzearen bidez! zenbait geratzen diren oraindik aurkitu ezinik! Samaldatak ematen dute, baina euren arteko urruntasuna ezin da neurtu antzearen bidez, eta ezta ere eurak eta gure arteko urruntasuna. Horrela, berez ezaguna egiten zaigu izatearen neurgabetasuna; berak espazio neurgabe honetan gorputz kopuru amaigabe bat ipini du, bakoitza (suposa dezakegunez) gure mundua bezain osoak diren sistemei egokituz: zeren galaxia argitsu honetako txinpartarik txikiena gure eguzkiarekin lehia daiteke eta, berak bere distira osoarekin bizitza berria ematen digu, eta gure izpiritua goretsi eta Jainkoa hurbilago sentierazten digu halaber.

"Izar joria! Bero bizigarriaren iturri distiratsua, egunaren jatorria! Gar lehuna, baina benetan bizia eta eraginkorra! Substantzia hedakorra eta tokitsua, eta, hala ere, bere baitan bildua; masa gori batean planeten mundu honetan zokoratua! Izaki ahaltsua! Irudi argitsua, ahalguztidunaren ordezkatzailea! Gorputzezko munduaren gorentasuna! Grazia hilezkorraz eta ahitu ezineko gaztetasunaz hornitua! Zuzena, ederra eta hilezkorra! Zer bide ezkututik jasotzen ote duzu nekegabeko indarra eta agortzen ez den ohorea, alde batera utzita amaigabeko jarioak eta inguruko munduak argiztatu eta indartzen duten etengabeko altxor bizigarri horiek!

"Bere inguruan planetak gure lurrarekin batera gelditu gabe mugitzen dira, bakarka nahiz sateliteekin, bere berotasun argia eta biziaren bedeinkapena jasotzeko irrikatzen. Berari hurbiltzeko joera erakusten dute, euren erdipuntua bailitzan, baina zorionez beste bultzada bati esker zeruko ordenean irauten dute, eta betiereko birak ematen dituzte abiadura eta neurri zehatzetan.

"Baina, oi zu higidura desberdin horien egile eta aldatzailea! Oi nagusi eta higitzaile bakarra, zure lan gorenak gobernatzen ditu esfera iraunkorrak eta gure munduko gorputz miragarri hauen igarobide iraunkorrak! Oi ekonomilari jakintsua eta jaun ahaltsua, naturaren elementu eta botere guztiek zerbitzatzen dizute! Nola eman diezu bizitza mundu hiltzaileoi? Zer izpiritu edo arima eman diezu? Zer bultzada atxeki? Haize bizidunen arnasaren legez zuzenduz (eurak baitira mundu bihurri eta ahaltsu honetako aitzindari eta eragile nekegabeak) nola sartu duzu eter likidoan? Horrelako indar handiarekin mantentzen dira sistemak osorik eta interferentzia hilgarriak ekiditen dira. Horrela zuzentzen da gure mundu zuhurra bere urtez urteko abiabidean, egunero bere

erdipuntuaren inguruan biratuz gainera: eta ilargi adeitsuak lan bikoitza egiten du, gure planetaren inguruan biratuz hilabetero, eta, halaber, eguzkiari ohore eginaz.

"Horrela gure planeta hau, gizakien babesleku hau, gure sistemako beste erresuma batzuk baino zabalera urriagokoa da. Ez al du, bada, txikia emango bere eguzkiaren sistema zabalarekin konparatuta? Ez al du txikia emango, edo hutsa, beste ustezko eguzki sistemekin konparatuta? Eta, hala ere, zer neurrigabea ematen duen gure giza tankerarekin konparatuz, bere azalera aldakorren emaitza honekin konparatuz! Nahiz eta honek, zeruko izpiritu goren batek biziara duelarik, zureganako joera duen, zeruko jauna!; zu arimen erdipuntua, zuregana jotzen dute gure izpirituak berez, lurreko gorputzek eurei dagokien erdira jotzen duten bezala. Baina zuk bakarrik konpontzen dituzu gorputzezko munduaren nahasteak, eta elementu artaga eta borrokarietatik konkordia baketsu hau ateratzen duzu, eta beti emankor den kreaziotik edertasuna. Izaki adimentsuen elkarren kontrako mugimenduak alda eta atsedena bilatzera bultzatzen duzue une eta modu egokian, horrela unibertsoaren onari eta perfektioari (zure lan guztiz on eta perfektuari) lagunduko diotelarik."

Hemen berriro moztu zuen, eta begiratu zidan zerbait esango ote nuen zain; baina jabetu zenean ez zela horrela eta jarrera pentsakor batean jarraitzen nuela, esan zuen harridura itxurarekin:

"Zer Filokle? Zer esan nahi du zu niri adi-adi egote horrek, inolaz ere moztu gabe? Baztertu al duzu erabat zure filosofia kezkatua, eta uzten didazu nire gogora erratzen aireko espazioetan eta irudimenezko erresumatan, nire ameskeriak eta sineskeriak eraman nauten lekuetan zehar? Jakin ezazu, ene Filokle, ez zaitudala sekula bildu nahi izan nire sen edo entusiasmo honekin, haatik, espero nuela zuk bera piska bat hobeto gobernatzea."

"Uste dut -esan nuen nik nire jarrera pentsakorretik irtenda- erabili nahi ninduzula antzinako hizlari batek bere lagun musikaria erabiltzen zuen bezala: ahultzen zela ikusten zuenean, nota biziak joarazten zizkion; eta bere izpiritu oldartia gehiegi tiratzen zenean baretzeko notak joarazten zizkion."

"Ondo pentsatu duzu -ihardetsi zuen Teoklek- eta horregatik erabaki dut aurrera ez jarraitzea, ez badidazu agintzen besotik tira egingo didazula nabarmenkeriekin hasten naizenean."

"Horrela izango da -esan nuen nik-, nire hitza duzu."

"Baina nire garraioan gora egin beharrean apaldu eta nekatzen banaiz, zer egingo duzu? zer ziri edo instrumentu erabiliko duzu ni altxatzeko?"

"Alde horretatik -esan nion nik- ez da arrisku handirik."

Bere beta puztua zegoen eta ez zuen ematen entusiasmoak huts egingo zionik. Aztertzen ziharduen gaiak eta bere kemenak aterako zuten handik. Eta gure inguruko nekazal eszena hartan, eta bere prosa neurtuarekin, uste nuen kanta pastoralik onenerako giroa genuela. Zeren atsegina zen bezala artzain maiteminduak euren artaldeari arranguratzen entzutea, eta baso eta haitzetan gurtzen duten neskaren izena ozentzen aditzea, atsegina zen niretzako, nire narritaduragatik, berari entzutea hain grinatsu izarrei eta elementuei oles egiten.

"Ekin orduan -jarraitu nuen bera bultzatzen-. Ekin berriz eta eraman nazazu ausarki elementuen artetik. Arriskua dagoen bakoitzean, edozein aldetik datorrela, agintzen dizut ohartu ahala jakinaraziko dizudala."

"Has gaitezen beraz -esan zuen berak- lurrarekin; han dakusagu bera beheko lautadan dauden laborari goiztiarrek landuta kontu handiarekin. Zorigabeko eta egonezineko gizakiok, lan baketsuok lehenik erdeinatu zenituztenok; halako atseginarekin burutzen ziren eginkizun eztiak! Zer handinahi edo harrokeriak elikatu zuen mesprezu hau? Hortik datoz zure arrazaren zoritxarreko gaitz guztiak. Luxu itzelek eta janari umilen

mesprezuek zeharkatzen dituzte itxasoak eta lurrak, eta planeta bipiltzen dute; gizakiek euren premiek suspertuta lan astunagoak, antsia larriak eta atsekabeak sortzeko tresnak asmatzen dituzte. Lurraren azalera ongarria osorik goldatzen eta simaurtzen duten arren, ez dira asetzen eta industen dute ustezko aberastasunak bilatuz bere erraietan.

"Hemen, jakinminak eramanda, mota desberdinetako mineralak aurkitzen ditugu, eta bakunak diren arren, naturaren lanik konposatuena adina erakusten dute jainkozko antzeaz. Batzuek aldaketa harrigarrietarako ahalmena dute, beste batzuk hain dira iraunkorrak eta gogorrak, ezen ez suak, ez antzerik gorenena, ezin dituen suntsitu edo aldarazi. Ugariak dira guk behatzen ditugun gaiak, eta, lur azpiko munduan, naturaren aintzagabeko zatien azterketak ere kezka gai eta lan handia emango du giza izpirituarentzako, batek bere bizitza esperimentu hauetan eman nahi badu. Baina lurrak haitzulo ilun hauetan arnasten duen lurrin pozointsuak ez du uzten gizakiak luzaro iraun dezala ikerketa honetan.

"Zer eroso den hortik bizirik ateratzen direnentzat aire garbiagoa arnatea! Egunaren argi pozgarria ikustea! eta lur emankorra zapaltzea! Nolako pozez begiratzen duten lurraren azalera, euren bizigunea, eguzkiak berotua eta bizitzaz betea, eta haize freskoak epeldua! Landare bareak mugitzen ditu eta planeta geldoa garbitzen du. Eta eguzkiak hemendik lurrin hodeitsuak jasotzen dituenean, partikula kaltetuak xahutu eta gardentzeko da, eta aire bizira sartzeko, besterik ez; honek berehala bere izpiritu bizigarria emango dio, eta lurrera itzularaziko du, arnasketa adeitsuetan edo ihintz aberatsetan eta ur emankorretan. Aire bera, masa ahaltsuan zehar joan-etorriaz, bere xularmetan sartzen da, osotasuna kutsatuz. Eguzkiak eta aireak elkarlanean ama lurra biziarazten dute, eta beti hazten ari den arren, bere kementa handia da, bere edertasuna freskoa, eta bere itxura liluragarria, kreatzailearen eskuetatik atera berria izango bailitzan.

"Zein ederra den ura lurraren lan apalenen artean! Astuna, likidua eta gardena; ez du airearen kemen leuna, baina bai ekimena. Setatsu eta menperagaitz konprimitutakoan, baina indarkeriari ekiditen dio lasaiki, eta jario arinaz alde guztietatik zabaltzen da berriz. Lur astuna disolbatzen du, gorputz korapilatuak askatzen ditu, euren arteko lotura bilatzen du eta lurrezko partikula biziak erakartzen ditu soroetara; hauen arteko gatazkek batasun estuan bukatzen dutelarik berehala, guk dakuskigun forma desberdinak ekoitziz. Zein hedatsuak diren itsasoko leizak, haitzulo ilun horiek! bertan gordetzen da elementu leun hau, eta bertatik ateratzen dute eguzkiak eta haizeak, hodeiak sortzeko. Hauek euri bihurtzen dira berehala lur egarbera ureztatzeko, errekek eta ibaiak hornituz, inguruko lautaden onerako eta animaliei freskotasun gozoa ekarriz.

"Non bilatu behar ditugu argiaren iturburuak? Zein ozeanotan aurkitzen da espazio neurgabeetan hedatzen den ekai argitsua? Zer leku izendatuko diogu suzko elementu oldartsu horri, higikorregia baita eguzkiaren esparrura mugatua izateko eta lur astunaren erraietan ez faltatzeko? Aire bera makurtzen zaio eta bere tresna apalena bezala zerbitzatzen dio. Gure eguzki honek ere, beste eguzki guztiekin batera (zeruko egoile distiratsuak), ematen du berorretatik hartzen dituela hornizioak bere egoera zoragari horretan irauteko. Eterezko substantzia ikusezina, gorputz likido nahiz solidoetan barneratuz, unibertsoan barrena hedatzen da. Planetaren masa hotz eta inozoa estimatu, eta bere barreneraino berotzen du. Mineralak sortzen ditu; landareei bizia eman eta haziarazten die; ikusezineko gar leun bat pizten du sorkari bizidunen bularretan; itxura desberdinak moldatu, bizia eman eta elikatzen ditu, haien probetxurako gordez eta erabiliz euren osagarri diren ekai sulfuroso eta erregarriak. Onbera eta bihozleuna, zorioneko bakea eta konkordia hau mantentzen du euren egoera eta lege bereziak kontutan hartuz. Baina behin hauek hautsita arduragabeko izakiak bere bidea hartzen du araurik gabe. Oldarka abiatzen da amildegi hilgarritik, eta gar sutsu eta ikusgarritan

zatituta, garaile iragaten da forma malguen gainetik; dena bereganatzen du, lehenago sortu dituen sistema horiek deusestuz. Horrela gertatzen da..."

Hemen Teokle gelditu egin zen bat-batean, ni nire eskuarekin (berak imajinatu zuen bezala) bere mahukatik tira egitera nindoakionean.

"Oi Filokle -esan zuen berak- ondo egiten duzu gogoraziz. Gehiegi berotzen ari nintzen, nire ustez, elementu bero honetan. Eta hemen, agian era misteriotsuagoan hitz egingo nukeen, maitasunaren gar leunen era arruntaz gain, beste era batean pentsatzeko gai bazina. Agian entzungo zenituen era honetako miresgarritasunak: gauza guztiak sutik hartzen dutela euren izatea, eta euren helburu nobleena su horretara itzultzea, agortzea eta deuseztea dela. Baina hegaldi horietan nire hegoak erretzeko arriskutan egongo nintzen."

"Benetan -esan nuen nik- Ikaroren patua espero zenezakeen gehiegizko igoeragatik. Baina benetan ez nintzen horren beldur. Arriskua gaindituta baitzeunden, eta elementu irensle hori zure alde izanda, ez bakarrik eguzkia, baizik eta baita ere zure bidean aurkituko zenuen beste edozein gauza menperatuko zenuen. Beldurtzen ninduen zera zen: azkenean gatazkaldi unibertsala deitzen duten horretan bukatuko zenuela, ez baitakit zer gerta zitekeen gure jeinuarekin."

"Pozten nau -esan zuen berak- Filokle, zu hain kezkatua ikusteak. Baina ez larritu arduratzen zaituena baldin bada filosofo batzuk aipatzen duten aldizkako gatazka. Zeren orduan izpiritua alde guztietan egongo bailitzateke derrigorrez; eta dena Jainko izango litzateke forma eta espeziea Jainkoaren adimenean bakarrik (eta ez beste inon) existitzen diren kreazioaren tarteguneetan; dena batasuna, bere baitan bilduko dena, eta (haiek bururatzen duten eran) modu gehiagotan bidertuta dagoenean baino ximpleago eta perfektuago iraungo du; eta emankorra bilakatuta naturaren mapa desberdinetan zabalduko da, mundu eder ikusgarri honetan."

"Nire aldetik -moztu nion- askoz hobeto ikusten dut Jainkoa zabalduta, kreazioaren aurreko egoera bildu eta bakarti horretan baino. Gogoko izango nuke naturaren mapa horretan pixka bat aurrerago jarraituko bazenu nirekin, bereziki hegaldi gorati horietatik jaitsi eta lur zati apal honekin konformatzen bazara; hemen lagundu ahal izango zintuzket eramango nindukezun edozein lekutara."

"Baina -ihardetsi zuen berak- lur astun honetara mugatu nahi nauzun horrek, utzi behar didazu irudimenaren hego berdinak erabiltzen. Bestela, nola egin ahal izango nuke hegaz klima desberdinetan zehar, polotik polora, lurralde beroetatik hotzetara?"

"Helburu honetarako -esan nuen nik- poeten Pegaso utziko nizuke, edo gaurko poeta italiar batek bere heroietako bati eman zion grifo hegaduna. Baina baldintza batekin: ez duzula ilargirako hegaldi bitxia egingo, berak egin zuen gisan, haatik, lurraren inguruan geratuko zarela."

"Horrela nahi baduzu -ihardetsi zuen Teoklek- has gaitezen gure maparen zatirik iluntsuen eta imperfektuenetik, eta ikus dezagun nola jasaten duzun ikusmira: Zer zeharka eta ahul begiratzen dien eguzkiak urrun dituen giroei! Zer aspergarriak diren neguak bertan! Zer sakonak gaueko izuak eta zer atsekabea eguneko argi bera ere! Haize izoztuek euren arnas ankerrena erabiltzen dute, baina ez da agortzen euren putz egite hori. Itsasoa, beste leku batzuetan nekez mantentzen dena bere mugetan, hemen kristalezko hormatan ixten da. Elurak estaltzen ditu muinoak, eta haran beheetak ia gainezkatzen ditu. Zer zabal eta sakon datzan bera lautadetan! Ezkutatzen ditu ibai patxadatsuak, zuhaixkak eta arbolak, piztien gordelekuak eta gizaki larritu eta ahularen etxeak! Begira non dauden zokoratuak! Nekez babesten dira hotz biziaren aurka, edo pizti basatien erasoetatik (landa eremuaren jabeak hauek), eta oihan biluzietatik gosez kanporatuak dira. Alabaina, etsi gabe (halakoa baita giza bularretako indarra) eta antze eta zuhurtziaz hornituta, zeruko opari laguntzaileak hauek, gizakiek

eta euren abereek askatasuna espero dezakete. Zeren bere garaian eguzkiak, hurbilduz, elurra urtzen baitu, gizaki gutziatsua askatu, eta hornizioak lortzeko baliabideak eta denbora eskaintzen dizkio, berriro hotza etorri aurretik. Itsasoaren katea izoztuak apurtzen ditu, bertan itsasoko munstro izugarriak azaltzen dira ur azalean dauden uharteetan, kristalezko haitzari aurre egiteko moduko armekin: beste batzuk, bitartean, uhartealakoak direnak, euren tamaina hutsarekin nahiko armatuak daude edozeri aurre egiteko, gizakiari ezik; hau, sorkari handitzar eta indartsu horien gainean duen nagusitasunagatik, jabetuko litzateke arrazoimenaren abantailaz, eta honek behartuko luke marko zoragarri hauen, eta bere jakituria nagusienaren, egile handia gurtzera.

"Baina, hain fabore gutxi jasotzen duten giro iluntsu hauek utzita, aldaketa handia aurkitzen al dugu, eguzkia atseginagoa izanik, beti uda ematen dien eremu alaitsuagoetara joez gero? Bere argi gardenagoak nahasten ditu gizakien begi ahulak, argi izpi kiskalgarrien ziztadengatik. Nekez zapal dezakete lur gorria. Arnasten duten aireak ezin du gutxiagotu euren bular arnagabetua erretzen duen sua. Euren gorputza urtzen da. Menperaturik eta ahuldurik, itzala bilatu eta gaueko freskotasuna itxaroten dute. Kreatzaileak, oraindik oparotsu, beste freskagarri batzuk ematen dizkie. Hodei estalki bat botatzen du euren gainetik eta haize adeitsuak sortzen ditu: horien laguntzarekin gizaki eta animaliek euren eginbeharrak betetzen dituzte, eta landareek, ihintzaren eta euriteen freskotasunarekin, eguzki izpi beroenak jasan ditzakete.

"Eta eszena aldakorrak miragarritasun berriak eskaintzen ditu. Harribitxiz aberatsa den lurralde bat dakusagu, baina aberatsagoak dira bere lurrin usaintsuak. Zer geldiro mugitzen diren lurreko sorkari handienak ibai eder honen ertzetan! Zer beso ahaltsuak eta zer indar itzela! Zer ausardia eta beste piztien gainetik egotearen irudipena! Alabaina gizadiak otzantzen ditu, eta bere borrokataraz eramaten ditu aliatu edo konfederatu gisa, eta ez morroi gisa. Baina zuzen ditzagun gure begiak gai txiki eta bitxienetarantz: lautada zabal horietako zuhaitzetan bizi ziren intsektu ugari eta irenseleenganantz. Zer distiratsu, indartsu eta iraunkorrek diren euren aho artetsuekin iruten dituzten hari meheak! Nork irakatsiko ote zien, dena dakiena ez bazen izan, maskor leun eder horiek moldatzen, non bizirik bakarreratzen eta ehorzten diren, itxura aldaketa harrigarri bat jasateko -ez baditu gizakiak suntsitzen bere burua jantzi eta apaintzeko sorkari ahul horien lanarekin eta bizitzarekin-? Zein aberaski jantziak, zein alaiak eta zoragarriak diren erresuma bero honetako landarez elikatzen diren intsektuak! Zein ederrak landareak ere, euren aniztasunean, palmondo handitik hasita goroldiora arte!

"Ikus dezagun orain zorioneko lurraldea, non gomak eta balsamuak darizkien zuhaitzei, non naturak bere fruiturik gozoenak ematen dituen. Zein otzanak eta lagunkoiak, langileak eta jan gutxikoak, diren bertako sorkari handi horiek! Euren buru harroa altxatuz leku lehor eta bakarti hauek zeharkatzen dituzte. Euren itxura eta zimagatik ematen dute naturak gizakiaren menpe egoteko eta bere zerbitzurako egin dituela, eta honek bere nahiei eta jainkozko ontasunari gehiago begiratu behar die.

"Baina ikus ezazu guregandik hurbil lur emankorrena, erreka oparo batez ureztatua eta elikatua, itsasora hurbiltzen denean adar ugaritan zatitzen dena, simaur aberats eta emankorra hobeto banatzeko, garai egokian, inguruko lautadetan. Natura emankor eta biziaren irudi ederra, ontasunezko jarioarekin gauza guztiak bedekintzen dituena; guraso baten gisa bere semeentzako korrante elikatzailerak igortzen du bere bular ugariatatik, erreka desberdinetan zehar. Kontaezinak dira korrante lohitsuak edaten duten forma ezabatuak eta espezie ezezagunak, bai basamortu kiskalitik irtenda euren egarria asetzeraz datozenak arraza beldurgarri bat sorraraziz, bai (esaten den bezala) eguzkiaren berotasunak, lohi hartzigarrian eraginaz, ubide emankorretik, sortu dituen forma berriak. Begira uholdearen jauntzarra, bere ertzetako izua! Bat-batean bere forma

beldurgarria hedatzen duenean, landa inbaditzen du anfibio suntsitzaileak; bere uretako gordelekutik irten, eta ur sakonetik sortuta, izugarrizko lasterketa batean, lautada dardartia erratzezen du. Bertako semeek harriduraz behatzen dute urrutitik masa eskerga, hain arraultza txikitik sortzen dena. Naturaren munstro anker eta maltzurraz zera kontatzen dute: nola liluratzen dituen inozoak izugarrizko toleskeriarekin eta sasi malkoekin; eta nola hil egiten duen zurikeriaz, bihozberatasuna eta gupida atseginaren itxura eginaz. Izurrite izpiritual honen ikur tristea, sineskeria izugarri hori! Lur honetan jaioa; non erlijioa lehenengo aldiz bihurtu zen desgizartetsua, eta gurtzaile desberdinen artean elkarrenganako gorrotoa eta besteen elizekiko higuina ernaldu zen. Infekzioa zabaltzen da, eta nazioek jainkogabetzat jotzen dute bata bestea; elkarri gerla egiten diote basaki eta erlijioaren izenean gizatasuna ahazten dute; bitarteanugar basati batek, itxura otzan eta jainkozalearekin, sarraski beldurgarriak burutzen ditu; eta zeruaren aitzakiaz (nahi ikaragarria!) lurra errausten dute haiek.

"Utz ditzagun hemen munstro horiek (ze gustora zokoratuko genituzkeen bertan!) eta lur emankor ikaragarria erdeinatz hegalda gaitezen alderdi honetako basamortu hedatsuetara. Beldurgarri eta itsusi diruditen arren, ez dute edertasun faltarik. Euren itxura basatia atsegina da. Ematen du natura hutsean bizi garela. Bera ikusten dugu bere gordeleku ezkutuean, eta atsegin handiagoarekin begiratzen dugu leku basa hauetan jauretxeko labirinto artifizialean eta sasibasaguneetan baino. Leku honetako gauzak, suge ezkatadunak, piztiak, intsektu pozoitsuak, beldurgarriak edo giza izaeraren aurkako diren arren, ederrak dira berez, eta jainkozko jakituria miretsiarazten digute, gure ikusmira murrizta baino askoz gehiago baita. Unibertsoko gauza guztien balio edo erabilgarritasuna adierazi ezin dugun arren, osotasunaren perfektioaz seguru gaude, eta baita ere gaude seguru gauza guztiak menperatzen dituen ekonomia honen zuzentasunaz: bere arauera eragabeak ematen duten gauzak erakargarriak dira; desordena arauzko bihurtzen da; usteldura osasungarri egiten da; eta pozoinek (ikusi ditugun horien modukoak) sendabide eta ongarri direla erakusten dute.

"Baina begira! Aurrean dugun zeru zati eskerga horretatik Atlas ahaltsuak bere buru harroa altxatzen du, elurrez estalia, hodeien gainetik. Mendiko behekaldean lurralde harkaitsuak muinoak altxatzen ditu, gaineke masa astunaren oinarri egokia, non harkaitz itzelak datzaten, bata bestearen gainean, zeruko arku garaiari eutsiz. Ikusi! zein urrats dardartiz zapaltzen dituzten gizaki koitaduek amildegi sakonetako ertz estua! Bertatik, zorabiozko izuaz, behera begiratzen dute, eurak eusten dituen lurraz fidatu gabe; artean beheko ur handien durrunda entzuten dute, eta han ikusten dute ondoko harkaitzaren hondamena, hala nola zintzilik dauden zuhaitzak, erroak gora, hondamen handiagoa dakartela ematen dute. Hemen buru arineko gizakiak, gai horien berritasunak eragindako harriduragatik, pentsakor bihurtzen dira, eta gogotsu begiratzen diete mundu honen azalerako etengabeko aldaketei. Batera bezala ikusten dituzte iragandako garaietako iraultzak, gauzen iraupen gabeko itxurak, eta gure mundu honen zarbailketa; eta bere gaztaroaz eta lehen antolakuntzaz pentsatzen dute, nahiz eta mendi eremuen agerizko suntsidurak eta konponezineko hausturak mundua erakusten dien hondamendi bat bailitzan, honek bere amaiera hurbilaz pentsarazten dielarik. Baina hemen mendiko bide erdia eginda, baso itsu eta zabal batek babeska ematen die gure bidaiari nekatuei, zeintzuk beti orlegiak diren pinu garai, izai, eta zedro nobleen artera heldu diren. Eta izu desberdin bat jabetzen da babestutako bidaiariez, ikusten dutenean eguna laburtu egin dela baso eskergako itzal ilunengatik, gainean itxi-itxi eginda iluntasuna eta betiereko gaua hedatzen baitu azpian. Argi ahul eta goibelak beldurgarria ematen du, itzalak bezala, eta leku hauetako baretasun sakonak isiltasuna ezartzen dio gizakiari, hots guztien oihartzun lakarrek ikaratzen baitute basoko kobazulo zabaletan. Espazioa harritzen da hemen, isiltasunak ernari ematen du, bitartean indar ezezagun batek

adimenean eragiten du eta objektu zalantzarriek sentipen esnatiak mugiarazten dituzte. Ahots misteriotsuak entzun edo imajinatzen dira; eta badirudi jainkozko itxura desberdinak agertzen direla, eta nabarmenagoak ematen dutela oihaneko eszena sakratu hauetan; honelakoak izan baitziren tenpluak eraiki eta antzinako munduaren erlijioa faboretu zuten eszenak. Geuk ere, jainkotasuna lurreko zenbait zati argitako ikurretan irakur dezakegunok, leku iluntsu horiek aukeratzen ditugu adierazteko izaki misteriotsu hau, zeina gure begi ahulentzako hodeiezko estalki baten azpian agertzen den."

Hemen apur batez isildu zen, eta bere begiak mugitzen hasi, ordura arte puntu batean finkaturik eman bazuten ere. Lasaiago begiratzen zuen, aurpegi ireki batekin eta itxura askez; horregatik, eta beste ezaugarri batzuegatik, erraz ohartu nintzen gure deskribapenaren bukaerara helduak ginela, eta, Teoklek erabakita zuela, nik nahi ala ez, goientasuna uztea: goiza joana zen eta eguerdia aurrera zihoan.

II. Atala

"Nire ustez, Filokle, -esan zuen ahots arinagoa atereaz- hobe genuen utziko bagenitu irudimenak garraiatu gaituen leku gizagabe horiek, eta ekarriko bagenu berriro gure burua hona, baso gureganagarriago hauetara eta eguraldi epelagotara. Hemen ez gaituzte nekarazten gehiegizko beroek edo hotzek, ez gaitu harritzen ez amildegik ez urjauzik. Ez dugu bildurtu beharrik gure ahotsarengatik halako koru pozgarriaren notak, entzun eta bere oihartzun atseginak somaturik, hitz egitera gonbidatzen gaituenean."

"Aitortzen dut -esan nuen nik- ninfa atzerritar hauek (baso miragarri horien barrenean baten bat balego) ederregiak direla niri gustatzeko. Gure etxeko edo herriko ninfak niregandik hurbilago aurkitzen ditut. Hau guztiagatik ezin dut oraindik ulertu zergatik gelditu zaren, mundu erdia zeharkatu ondoren, gure etxerako bidean bakarrik Amerika utzirik alde batera. Europari dagokionez, barka diezazuket ez egitea buelta handiegia, hain barietate gutxi eskaini baitiezaguke; gainera oso zaila izango litzaziguke berari begiratzea arazoen alderdi politikoarekin topo egin gabe, gure hegaldi filosofikorako eragozgarri litzatekeena. Baina mendebaldeko lurrei dagokionez, ezin dut bururatu zergatik utzi dituzun alde batera han dauden hain gai nobleak, ez bada lur-ama hori urre eta zilarretan hain aberatsa izateak beldurtu zaituelako, iruditzen zaidanez horien arerio garratza baitzara. Lurralde hauek antzinako Esparta adina behartsuak izango balira metal hauetan, seguruena Peru eta Mexikori buruz Asia eta Afrika osoei buruz baino gehiago entzun ahal izango genukeela. Sorkari, landare, baso eta ibai gehiago izan genitzake, orain arte ikusitakoen gainetik leudekeenak. Erruki ni Amazona noblea galdu dudalako! Erruki ni!"

Honekin niharduela Teokleren aurpegian ikusi nuen keinu esanguratsuak geldiarazi ninduen jakinminez beterik, zertaz ari zen pentsatzen galdegin asmoz.

"Ezertaz ez -esan zuen berak-, arazo berorretaz besterik ez. Jarrai ezazu. Ikusten dut zuk bukatuko duzula nire lan hori. Profezia mota honetako izpirituek harrapatu zaituzte; eta Filokle, Filokle hotz eta aiherga hori, edertasun misteriotsu berdinarekin jarraitzaile bihurtu da."

"Egia da, Teokle -esan nuen-. Aitortzen dut. Zure jeinua, leku honetako jeinua eta jeinu gorenagarena nagusitu dira azkenean. Ez diot gehiago aurre egingo nire barruan gauza naturalekiko sortzen ari den grinari; ez antzeak, ez harrokeriak, ez gizakien nahikeriak ez dute naturaren benetazko ordena deuseztu bere jatorrizko egoera hautsiz. Harkaitz zakarrak, kobazulo goroldiotsuak, eragabeko haitzuloak eta bat-bateko urjauziak, basatasun hutsaren dohai izugarriekin, naturaren ordezkari erakargarrienak dira, eta lorategi printzetarren apaintasun farregarriak baino dotoretasun handiagoa erakusten dute. Baina esaidazu, arren, zer dela eta (zure moduko filosofo bakar batzuk kenduta) zure maitale arrunt eta behartsu horiek, eta ez beste, dira era horretara maiteminduta daudenak eta basoak ibaiak eta itsasertzak bilatzen dituzten bakarrak."

"Ez esan hori -ihardetsi zuen berak- maitaleez bakarrik. Ez al da berdin gertatzen poetekin, eta naturaren beste ikertzaileekin, eta bera antzeratzen duten arteekin? Laburbilduz, ez al da hau gertatzen zaiena musen eta grazien maitaleei?"

"Edozein modutan -esan nuen nik- kontsideratzen da, badakizun bezala, modu erromantiko honetan murgilduta dauden guztiak bere onetik aterata edo goibelaldiak eta entusiasmoak jota daudela. Beti ahalegiten gara horiek leku bakarti horietatik ateratzen. Eta aitortu behar dut sarritan nire irudimena bide horretatik abiatzen ikusi izan dudanean, nire burua geldiarazi dudala; jakin gabe zer jabetzen zen nitaz, mota horretako gaiei grinatsu atxekitzen nintzaienean."

"Ez harritu -ihardetsi zuen berak- nahasten bagara substantziari ordeztalei jarraitzen diegunean. Zeren arrazoimenak irakatsi digunaz fidatu behar badugu, naturan ederra edo xarmangarria den edozein gauza lehen edertasunaren itzal ahula da. Horrela, benetazko maitasun guztiak adimenaren menpeko dira, eta edertasunaren kontenplazioan datzate, bai bere baitan, bai sentipenezko gaitan inperfektuki agertzen den lege; nola geldituko da arrazoimenezko adimena hemen, edo asetuko da bakarrik sentipenetatik datorren gozamen zentzugabearekin?"

"Aurrerantzean -esan nuen nik- ez dut arrazoirik izango beldurtzeko nolabaiteko goibeltasuna sorrarazten duten edertasunekin: aipatu ditugun lekuekin eta zuhaitzi arranditsuekin, esaterako. Eta ezta ere ez diet itzuriko musika gozoaren doinu mugikorrei, ez hegaz egingo giza aurpegi ederrenaren mustupila liluragarrietatik."

"Trebea bazara dagoeneko maitasun berri honetan -ihardetsi zuen berak- eta seguru bazaude ez duzula miretsiko ordeztako edertasun hori, ez bada jatorrizkoaren zioz, eta ez duzula bilatuko arrazoimenezkoa ez den gozamenik, orduan zure buruaz seguru egon ahal izango zara. Ni horretan nago, eta horregatik uste dut nire buruaz erantzun dezakedala. Hala ere, gustorago geratuko nintzateke piska bat hobeto azalduko bazenit kezkatzen zaituen nire akats hori. Agian lagunduko dizu zuri esateak zentzugabekoa zera dela: gozamina bilatzea ez maite dugun gaian, beste zer baitetan baino."

"Gauza oraindik misteriotsua da, aitortu behar dut. Irudika ezazu, on Filokle, urrutitik ikusten duzun Ozeanoaren edertasunaz txundituta, bururatzen zaizula bere gainean agindu behar duzula, eta almirante ahaltsu baten gisa itsasoko nagusi izan nahi duzula; ez al zaizu iruditzen zentzugabe samarra?"

"Nahiko zentzugabea, benetan. Ondoren egin beharko nukeen gauza, eromen horretan, izango litzateke txalupa bat alogeratu, eta veneziar tankerako eztei ospakizun batean irten, itsasoarekin ezkontzeko, nirea dela esan ahal izango nukeelarik."

"Utz iezaiozu berea dela esan nahi duen guztiari -ihardetsi zuen Teoklek-; onartuko duzu mota horretako gozamina eta Ozeanoaren edertasunaren kontenplazio hutsetik ateratzen dena oso deberdinak izan behar direla. Itsasoaren jabeago da bere edertasuna harkaitz batetik, edo lurmutur garai bateko leku batetik, miresten duen artzaina, lasaitasun osoz etzanda, bazkan diharduen artaldeaz ahaztuz, bere Buzentauro bikainaren gainean bere Thetisaren altzoan flotatzen duen Duce-ezkongaia baino. Baina gatozen etxetik hurbilago, eta egin dezagun arazoa gureago. Burura ezazu, ene Filokle, gure azpian dakusagun haran zoragarri honen moduko lurralde saila ikusirik, beharrezkoa dela paisaiatzeko lurraren jabe izatea."

"Burutazio gutziatsa hau -ihardetsi nuen nik- beste handinahi hura adina zentzugabea izango litzateke."

"Oi Filokle -esan zuen berak-, ekarriko al dut hau oraindik hurbilago? Jarraituko al didazu berriro ere? Burura ezazu euren itzala ematen diguten zuhaitz hauen edertasunaz liluratuta egonda (zuk ematen duzun bezala), gehien irrikatzen duzuna dela euren fruitu gozoak dastatzea; eta naturak emango dien gustu berezi bat dela eta, basoetako ezkur eta baia hauek ortuko piku eta melokotoiak adina zapoetsu bihurtzen badira, aurrerantzean,

zuhaizti hauek berriro ikustatzen dituzun bakoitzean, eurez gozatzeko atsegintasun berri hauen bidez asetu nahi duzula zure burua."

"Horrelako burutazioak -ihardetsi nuen nik- likitsak eta, nire iritziz, besteak adina zentzugabeak izango lirатеke."

"Ezin al duzu bururatu orain -esan zuen berak- gure inguruko beste forma politen bat, non edertasunaren mirespenak beste horiek guztiak adinako ondorio ez arauzkoak ekarriko dituen?"

"Beldur nintzen -esan nuen nik- non bukatuko ote zenuen guzti honekin, eta zerak larritzen ninduen: giza izaeraren ezaugarri indartsu batzuez pentsatzera behartuko ninduzula, zeintzu gutizia, nahi eta itxaropen batzuk sorrarazten duten, egokitzen ez direnak (aitortu behar dut) edertasunari buruz duzun ikuspegi razional eta sotilarekin. Arkitektura bizidun honen proportzioak ikusgarriak diren arren, ez dute iradokitzen inondik ere mota ikaszale edo gogoetatsu horretako ezer. Zenbait eta gehiagotan ikusten diren, orduan eta gutxiago asetzen du eurak ikuste hutsak. Berdin da asetzen duena ondorio desproporzionatua izatea, edo bere zergatitik arras desberdina izatea, onartuko duzu, hala ere, naturala dela. Horrela zu, Teokle, nire iritziz, gozamen natural bat kondenatuz, naturaren salatari bihurtu zara."

"Urrun dezagun gure burutik -esan zuen berak- naturazko gozamina kondenatzea. Alabaina, baso eta paisaia hauen gozamenaz hitz egiten dugunean behe mailako sorkarien gozamenaz bereizten dugu erabat; hauek, leku hauetan barrena dabiltzanean, euren gogoko janaria bilatzean aurkitzen dute gozamina. Gure gustuko janariei esker bizi gara gu ere, eta horiek bezala sentipenezko beste gozamenak somatzen ditugu. Baina (ene Filokle!) ontasuna, eta beraz gozamina, ez dugu hemen kokatu behar; arrazoimenezkoak garenez, eta adimena dugunez, nire ustez adimenotan jarri behar dugu. Adimenok gaizki erabiltzen dira eta engainatuak izaten dira benetazko ontasunari dagokionean, bere gozamina sentipenezko gaietan bilatzera bultzatzen direnean, eta ez berezkotzat har daitezkeen gaietan, azken hauen artean, gogoratzen dudanagatik, benetan zuzena, eskuzabala eta ona den guztia bildu baitugu guk."

"Horrela -esan nuen nik- jabetzen naiz, Teokle, zuretzako edertasuna eta ontasuna gauza bat eta bera direla."

"Horrelaxe da -esan zuen berak-. Eta horrela berriro itzultzen gara atzo goizeko elkarrizketaren mintzagaira. Ez dakit bete dudan benetazko ontasuna erakusteko egin dizudan agintza. Baina, zalantzarik gabe, nire estasis poetikoan, edo beste ahalegin baten bidez, naturaren eta jeinu gorenaren ikusmen sakon batera eramán bazaitut, arrakastaz betea izango zen helburu hori. Jainkozko edertasunaren indarra frogatu a izango genuen; eta gure baitan benetazko gozamenerako gauza den gaia zertuta izango genuen."

"Oi Teokle! -esan nuen nik- ondo gogoratzen dut zer hitzekin erakarri ninduzun, goiz hartan zuzendu ninduzunean edertasun misteriotsu horretaz maitasuna erakustera. Ondo bete zenuen zure eginkizuna, eta orain proselitotzat har nazakezu. Bitxikeri antza badago ikuspegi horretan, nire burua lasaitu behar dut ahal dudan ondoen, eta pentsatu behar dut benetazko maitasuna eta mirespena entusiasmoa direla beti: poeten pozaldia, hizlarien goientasun, musikagileen lilura, musikajole trebeen doinu gorenak; guztiak entusiasmo hutsa, besterik ez! Ikastea ere, artea eta gauza bitxiak maitatzea, bidaiarien eta abenturazaleen izpiritua, adeitasuna, gerla, heroismoa; den-dena entusiasmoa! Aski da: poza ematen dit ni entusiasta berri hau izateak, orain arte ezagutzen ez nuen eran."

"Eta ni pozten naiz -ihardetsi zuen Teoklek- gure maitasun hau entusiasmo deitzen duzulako, eta bera bezalako beste grinen abantailak onartzen dizkiozulako. Zeren, beste zenbait gairi dagokionean (arkitekturán, pinturan eta musikan esaterako), egongo al da entusiasmo eder eta sinesgarria, extasis eta pozaldi arrazoigarria, eta ez al da, osterá, hemen egongo? Egongo al dira grazia eta perfekzio horiek atzemango dituzten zentzuak

eta ez, oster, perfekzio eta grazia garaiago hau ulertuko dutenak? Hain arrazoigabea al da entusiasmo hori honeratzea, eta bigarren mailako gai eskas hauetatik lehen mailako zabal hauetara ekartzea? Begira nola nabarmentzen den arazoa zientziazko eta artezko beste arloetan. Zein zaila den ezagutzea edozein mailatan! Zein luze hartzen duen benetazko dastamena lortzea! Zenbait gauza hasieran harrigarriak eta asaldagarriak direnak, gertatzen diren geroago ezagunak eta kontsideratzen diren edertasunik garaienak! Ez baititugu bat-batean gureganatzen edertasunak idorotzeko ahalmenak. Lana eta oinazea behar dira, eta denbora ere, jeinu naturala gaitua eta ausarta hezitzeko. Baina nork pentsatuko du lur hau lantzea, edo naturak eman duen mota honetako zentzu edo ahalmena hobetzea? Harritzekoa al da gu inozoak, nahastuak eta galduak izatea arazo hauetan, etaitsuak izatea eszena garaiago honetan eta antzezpen nobleago hauetan? Zer bide hartu behar dugu gauzak hobeto ulertzeko eta edertasun hauek ezagutzeko? Beharrezkoak al dira ikasketa, zientzia edo miaketa beste edertasun guztiak ulertzeko? Eta edertasun gorenenari dagokionez, ez al dira beharrezkoak trebetasuna eta zientzia? Pinturan badira itzalak eta marra bikainak jende arruntak ulertzen ez dituenak, eta akats bezala ikusten dituenak: arkitekturan baserriko estiloa badago, eta musikan doinu kromatikoa eta disonantzien nahasketa artetsua: egongo ez da, bada, osotasunean hauen pareko ezer?"

"Aitortu behar dut -esan nuen nik- orain arte jende arrunt horren artekoa izan naizela, eta ez nituela ulertzen itzalak, baserriko estiloa eta disonantzia horiek. Naturaz amets egitean ez dut sekula ikusi horrelako maisulanik. Ohituta nengoen gauzak lehen ikustaldian kritikatzera. Baina ohartzen naiz orain urrutiago joan behar dudala edertasunaren bila, ezkutuan eta sakon-sakonean dago eta; horregatik seguru nago nire orain arteko gozamenak oso arinak izan direla. Dirudienez hau guztia azaletik behatu dut eta azaleko edertasunaz gozatu dut, eta ez naiz sekula ibili bere baitango edertasunaren bila, nik edertasun bezala bururatzen nuenaren bila baino. Pentsatzen ez duen beste jende guztiak bezala segurutzat jo dut niri gustatzen zitzaidana zela ederra, eta nik gogoko nuena zela ona. Ez ninduen kezkatzen bururatzen nuen guztia maitatzeak. Eta nire helburu bakarra maite nuenaz gozatzea izanik, sekula ez nintzan arduratu nire maitasunaren gaiak zer ziren aztertzeaz."

"Hasi orduan -esan zuen berak- eta aukeratu. Begiratu gauzak zer diren; eta zein aukeratuko zenukeen, zure mirespenarekin, maitasunarekin eta estimarekin ohoretzeko. Horrela berak ere ohoretuko zaitu zu. Filokle, zenbait merezi duten zure lagunek, horren arauera estimatuko zaituzte zu ere. Hutsalkeria ala betetasuna, adiskidetasunean zer dagoen, zure gozamena ere horrelakoa izango da. Begira ezazu orduan non dagoen betetasuna eta non hutsalkeria. Begiratu norengan aurkitzen den bikaintasun nagusia: non nagusitzen den edertasuna: non den edertasun hori osoa, perfektua, erabatekoa; non, ordea, hautsia, imperfektua, murriztua. Begira edertasun lurtar horiei, eta bikaintasunaren itxura duen guztiari, eta erakarle den edozeri. Begira egiozu benetan gogokoa, ederra eta ona denari, edo tankera horretako denari: metal masa bat, lurzati bat, esklabu talde bat, harri pila bat, itxura eta neurri jakin batzuetako giza gorputz bat: hau guztia al da edertasunik gorenena? Gorputzean bakarrik aurkitzen al da edertasuna, eta ez ekintzan, bizitzan, edo lanean?"

"Egon! egon! on Teokle! -esan nuen nik- maila altuegira eramán duzu hau, niretzako gehiegi da. Nik zuri jarraitzea nahi baduzu, jaitsi piska bat, eta hitz egin ezazu era errazago batean."

"Ederki -esan zuen berak irribarrez-; beste zenbait edertasuni buruz grina erakuts dezakezun arren, badakit ez duzula aberastasuna miresten gehiegi, ez behintzat bertan edertasun handirik aurkitzeko adina, are gutxiago oraindik eragabeko multzo edo pila

batean. Baina, domina, txanpon, molde-lan, estatua, eta ondo taxututako edozein motatako piezatan edertasuna aurki dezakezu eta lana miretsi ere."

"Egia da -esan nuen nik- baina ez metalarengatik."

"Orduan, ez da metala edo ekaia ederra iruditzen zaizuna."

"Ez."

"Artea baino."

"Halaxe da."

"Artean da orduan ederra."

"Egiatan."

"Eta artean datza edertasuna."

"Halaber."

"Beraz, edertasuna sortzen duena, eta ez ederra bihurtzen dena, da benetazko edertasuna."

"Hala ematen du."

"Zeren eder bihurtzen dena ederra da ederreztatzen duen zerbait datorkiolako, eta zerbait hori aldentzen bazaio, eder izateari utziko dio."

"Baliteke."

"Gorputzei dagokienez, orduan, edertasuna etorri eta joaten zaie."

"Hori ikusten dugu."

"Eta gorputza berez ez da etortze horren edo iraute horren zergatia."

"Ez."

"Beraz ez da edertasun hastapenik gorputzean."

"Ez bada."

"Gorputza ezin baita edertasun beraren zergatia izan."

"Inolaz ere ez."

"Ez zaio nagusitzen, eta ez du arautzen ere."

"Hori ezta ere."

"Ez du ezta aipatzen, ezta adierazten ere."

"Ez bada".

"Bere edertasunaren hastapena ez al da, bada, izango bera aipatzen eta adierazten duena, bera arautzen eta gobernatzen duena?"

"Halabeharrez."

"Eta zer izango da hori."

"Adimena, nik uste; zer bestela?"

"Hona hemen -esan zuen berak- aurretik azaldu nahi nizun guztia: edertasuna, gogokoa, liraintasuna, ez daudela sekula ekaian, artean eta asmoan baino; ez gorputzean, eran edo indar eratzailean baino. Ez al du era ederrak hau erakusten, ez al dizu asmoaren edertasunak hitz egiten astintzen zaituenean? Ez al da asmoa astintzen zaituena? Ez al da adimena, edo adimenaren eragina, zuk miresten duzuna? Adimenak bakarrik eratzen du. Adimengabea den guztia izugarria da: eta eragabeko ekaia eragabetasun hutsa da."

"Zure pentsamoldearen arauera -esan nuen nik-, beste era batzuk ateratzeko ahalmena duten erak dira guztietatik maitagarrienak eta lehen mailako edertasunak. Beraz, nire ustez, era eratzaile dei daitezke. Dagoeneko, erraz etor naiteke bat zurekin, eta atseginez onar dezaket giza eraren lehentasuna, gizakiak sorturiko beste era horien aurrean. Jauregiak, tresneriak eta aziendak ez dira sekula parekatu behar haragi eta odolaren jatorrizko era biziekin. Eta, bestetik, nahiz eta baliotsu eta liluragarriak izan naturaren era hilak, metal eta harriak, erabakia dut euren handitasunari aurre egitea, eta gauza doilortzat hartuko ditut giza edertasuna apaindu nahi badute eta xarmantasunaren lagungarri bihurtzen badira."

"Ez al duzu ikusten -ihardetsi zuen Teoklek- edertasunaren hiru mota edo maila ezarri duzula?"

"Nola?"

"Lehenik era hilak, zuk hain egokiro deitu dituzun bezala, euren itxura eta era gizakiak nahiz naturak eman dizkietelarik; hauek ez dute ez indar eratzailerik, ez ekimenik, ez adimenik."

"Zuzen diozu."

"Gero, bigarren mota, eratzen duten erak; hau da, adimena, ekimena eta eragimena duten erak."

"Zuzen orain ere."

"Hemen bi bider dugu edertasuna; zeren era (adimenaren ondorioa) eta adimen bera baititugu: lehen motakoa apala eta erdeinagarria da bestearen ondoan, zeinarengandik era hilek edertasunaren distira eta indarra jasotzen duten. Zeren, zer izango da gorputz hutsa, nahiz eta gizakiarena eta zehazki moldatua izan, faltan baldin badu barne era, eta bere adimena izugarria eta imperfektua bada, ergelarena edo basatiarena den bezala?"

"Hau ere uler dezaket -esan nuen nik-; alabaina, zein da hirugarren mota?"

"Egon piska bat -ihardetsi zuen berak- eta begira ea atzeman duzun bigarren edertasun honen indar guztia. Nola ulertuko zenuke bestela maitasunaren indarra, edo izango zenuke gozamenaren ahalmena? Esaidazu, arren, hauek lehenengo aldiz era eratzailleak deitu dituzunean gogoan zenituen euren ekoizpenak ez al ziren jauregiak, txanponak, gizakiaren brontze edo marmolezko irudiak, edo tankerako mota hilak? Edo pentsatzen al zenuen bizitzatik hurbilagoko zerbaitez?"

"Erraz gainera nezakeen -esan nuen nik- gure era hauek beste era bizidun batzuk ekoizteko ahalmena zutela. Baina, nire ustez, ahalmen hori euren gainetik dagoen beste era batetik datorkie; eta beharko balitz arte gorenago bat edo artista antzeko zer bait, bere eskua zuzenduko lukeena eta lan honen tresna bihurtuko lituzkeena, ezingo litzateke esan zuzenki era bizidun horiek euren bertute edo arte direnik."

"Ondo pentsatuta! -esan zuen berak-. Nik bururatzen nuenez ekidin ezina gertatuko zitzaizun maiseo bati ihes egin diozu. Eta oharkabea edertasun hirugarren mota aurkitu duzu; honek eratzen ditu ez bakarrik era hutsak deitzen ditugun horiek, baizik eta era eratzailleak ere. Zeren geu ere ekaiaren arkitekto bikainak gara eta bizirik gabeko gorputzei era eta itxura eman diezaiekegu gure eskuekin; baina adimen hauek moldatzen dituenak, bere baitan ditu adimenok molda ditzaketen edertasun guztiak; eta, beraz, edertasun guztien hastapen, jatorri eta iturria da."

"Hala dirudi."

"Horregatik, edertasunaren hirugarren mota goren eta nagusi horretan badago, jadanik, gailenki, lehenik eta jatorriz, eren bigarren motan agertzen den edozein edertasun, edo hauetatik ateratzen dena, edo ekoizten dena."

"Egia."

"Beraz, arkitektura, musika eta giza asmaketa den guztia, azken mota honetan erabakitzen da."

"Zuzen diozu -esan nuen nik- eta horregatik beste mota guztietako entusiasmoa gure mota honetan erabakitzen da. Modazko mota guztiek guregandik hartzen dute edertasuna, eta ez dira ezer gu gabe. Guri dagokigu jatorrizkoak izatearen ohorea."

"Orain, beraz, -ihardetsi zuen Teoklek- esan ezazu berriz arkitekturaren eta eskulturaren lanak, eta mota horretako gainerakoak, gizakiak eratutako handienak diren, ala badiren handiagoak eta hobeak?"

"Ez nik ezagutzen dudala" -ihardetsi nuen-.

"Pentsa, pentsa ezazu berriz: eta alde batera utziz arestian beste esku baten ekoizpentzat jo dituzun maisulanak, pentsa ezazu zer den guregandik zuzenen datorrena, eta benetan gure lantzat jo daitekeena."

"Ez emankor nago oraingoan -esan nuen nik-, eta argiago hitz egin behar duzu bururatzen lagun diezadazun."

"Nola lagunduko dizut? -ihardetsi zuen berak-. Nahi al duzu ni jabetzea zeure buruaz, eta bakarrik zeure baitan dagoenaz eta zeure baitatik sortzen denaz?"

"Nire sentimenduak esan nahi duzu," -esan nuen nik-.

"Bai, eta zure sentimenduez gain, zure erabakiak, hastapenak, zehaztapenak, ekintzak; mota horretan galanta eta noblea den guztia; zure ulermen, zentzu, ezagupen eta nahi onetik isurtzen den guztia; zure bihotzetik sortzen den guztia, on Filokle!, eta zure adimena gurasotzat duena, sekula ahitzen edo indargabetzen ez den gurasoa, ekoitziz indarra eta kemena irabazten duena. Horrela frogatu duzu zuk, ene lagun!, lan askoren bidez, zati emankor honi nagi eta geldi egoten utzi gabe. Hara hor zeure baitango jeinutik eta hobekuntza egoki baten bidez jaso dituzun dohaiak. Eta hemen ezin dut jeinu emankorra eta edertasun gurasoa miretsi baino; ase bainago semearekin, zeina ederra den eta izango den beti."

Onartu nuen lausengua, eta esan nion espero nuela gauza berak bururatu zuen bezala izatea, eta bere estima eta maitasuna merezia izango nuela. Nire ardura izango zen nire burua ederra bilakatzea bere edertasunaren ulerkuntzaren arauera, eta ordutik aurrera nire ahalegin guztiak egingo nituen haur izpiritual haien arraza maitagarria zabaltzeko, zeintzuk zoriontsu sortuak baitziren gozamen handi horretatik, eta ederrena eta onena denarekiko batasunetik. "Baina zuk, Teokle, -jarraitu nuen nik- lagundu behar diozu nire adimenaren lanari, eta burutazio horien emagina izan; bestela, beldur naiz, galdu egingo dira."

"Ondo egiten duzu -ihardetsi zuen berak- niri emaginaren lana emanda besterik ez. Zeren adimenak berez sortzen du, eta erditzean lagundu ahal zaio bakarrik. Bere haurraldia bere izaeratik datorkio. Eta ezin du beste adimen batek ernaldu, bera hasieran sortu zuenak ezik, eta dagoeneko frogatu dugu hasierako adimen hori jatorrizkoa dela beste adimen guztietarako, nola beste edertasunetarako."

"Pentsatzen al duzu, orduan -esan nuen nik-, adimenezko haurrok, hau da, ederra, zuzena eta zintzotasunaren nozio eta hastapenak, nola beste ideia guztiak, sortzetikoak direla?"

"Anatomistek -esan zuen berak- dioskute gorputzaren jatorri diren arraultxeak sortzetikoak direla, umekian jaio aurretik eratuta daudela. Hala ere, gogoetarako interesgarria, baina garrantzi gutxiko arazoa da noiz sortu ote diren beste hastapenak, sentipenen organoak, edo sentipenak eurak: jaiotze aurretik, jaiotzean edo ondian, edo noiz geroago izan bada. Kontua da aipaturiko hastapenok artezkoak ala naturazkoak ote diren. Natura hutsetik sortu badira ez dago arazorik denborarekin, eta ez dut zurekin eztabaidatuko, nahiz eta zuk esan bizitza ez dela sortzetikoa, bururatzen duzulako jaiotze unearen ondokoa dela eta ez aurrekoa. Baina seguru nago zeraz: bizitza, eta bizitzari laguntzen dioten sentipenak, noiznahi sortzen diren, natura hutsetik datozela, eta beste inondik ere ez. Beraz, ez bazaizu gustatzen "sortzetiko" hitza, alda dezagun, eta jar dezagun bere ordeaz, hala nahi baduzu, "sena"; eta deitu "sena" naturak irakasten duenari arte, kultura eta heziketari buruz."

"Ederki" -esan nuen nik-.

"Gogoeta miresgarri hauek -ihardetsi zuen berak- artista trebeei, anatomistei eta teologoei utzita, baieztatu dezakegu, euren oniritziarekin, naturak eratu dituela organo desberdinak, eta bereziki sormenezkoak. Izango al dugu, zure ustez, naturazko sen bat

ere horien ondoko erabilpenerako? edo ikasketa eta esperientziak inprimatuko al digute erabilpen hori?"

"Inprimatua dago jadanik kontzientzian -esan nuen nik-. Hain irmoa da inpresioa, edo sena, ezen zentzugabea izango litzatekeen naturala ez dela pentsatzea, bai gure espeziean nola beste sorkarietan. Hauek (dagoeneko irakatsi didazun bezala) aurrezagutzen dute ez bakarrik nola erditu kumeak, baizik eta eurak zaintzeko makina bat baliabide eta metodo ere. Hau bereiz dezakegu sorkari basati horien prestaketa lan eta arteetan; hor frogatzen baitira euren irudimen aurrikuslea, aurreburutazioak, edo auresentipenak, zuk atzo irakatsi zenidan hitza erabil badezaket."

"Onartzen dizut hitza -esan zuen Teoklek- eta saiatuko natzaizu frogatzen aurreburutazio berdinak ematen direla gizadian, baina maila gorenagoan."

"Egin horrela, erregutzen dizut -esan nuen nik-, zeren hain gaitza gertatzen zait xarmaz eta edertasunaz (zuk ulertzen dituzun eran) aurreburutazioa aurkitzea nire buruan, zeren, nire ustez, ez dudan ezagutu orain arte horien antzeko ezer naturan." "Nola -esan zuen berak- ezagutuko zenuen xarma eta edertasuna gizaditik at, halako gai bat (haragizko gorputz bat) lehen aldiz gaur goizean, zuhaizti hauetan, agertu bazaizu bere edertasun osoarekin? Ala pentsatzen al duzu aurretik heziketa jaso ez bazenu, ez zenuela desberdintasunik aurkituko era honen eta beste edozeinen artean, eta axolagabe iraungo zenuela?"

"Ez dut ia eskubiderik iritzi honi eusteko -erantzun nuen nik- arestian onartu dudana kontutan izanik."

"Ederki -esan zuen berak-; zure gainean abantaila hartzen dudala eman ez dezan, alde batera utziko dut era nahasgarria, edertasun korapilatsuaren indarra biltzen duena; eta saiatuko naiz banaka kontutan hartzen edertasun bakun horiek, zeintzu elkaturik eragin zoragarri hori sortzen duten. Onartuko duzu, zalantzarik gabe, gorputzei dagokienez, edertasunaren adierazezintasuna, ulertezintasuna; "nik ez dakit zer" delakoa esatean ez dihardugula ezer misteriotsuaz, baizik eta irudiaz, koloreaz, higiduraz edo hotsaz. Azken hirurak eta euren menpeko xarmak alde batera utzirik begira dezagun bakunena denaren xarma, irudiarena alegia. Ez dugu zertan jo eskulturara, arkitekturara edo edertasunaren ikerketa honetatik hain arte lan laketgarriak sortu dituztenen diseinuetara. Aski da gogotan hartzea irudirik bakunena, esaterako pelota borobila, kubua edo dadoa. Zergatik haur bati ere zaizkio atsegin proportzio hauek lehen aldiz ikusten dituenen? Zergatik nahiago dira esfera, globoa, zilindroa eta obeliskoa; eta baztertu eta arbuatuko dira irudi eragabeak?"

"Prest nago -ihardetsi nuen nik- onartzeko badagoela berezko edertasuna irudi batzuetan, begiak objektua agertu bezain laster aurkitzen duena."

"Ba al da, orduan -esan zuen berak-, irudien edertasun naturalik? eta, ez al da ekintzena ere horiena adina naturala? Begia irudiari irekitzen zaionean, edota belarria hotsari, berehala agertzen da edertasuna, eta grazia eta harmonia ezagutu eta bereizten dira. Ekintzak ikusi ahala, giza eraspenak eta pairamenak atzeman ahala (eta gehienak sentitu bezain laster atzematen dira) barneko begi batek bereizi eta ikusten du ederra eta itxura onekoa, maitagarria eta miresgarria, eta bereizten du eragabetik, itsusitik, gorrotagarritik edo arbuiaagarritik. Nola liteke, orduan, ez onartzea bereizteko ahalmena naturazkoa dela, bereizketa hauek euren oinarria naturan badute?"

Nik esan nion gauzak berak esaten zituen bezala izango balira, nire ustez, ez zela sekula izango desadostasunik gizakien artean ekintza eta jokaerari buruz; ezta ere zitala, estimagarria, ederra eta eragabea denari buruz. Baina gizadian etengabeko aldaketak aurkitzen ditugu, diferentziak nagusiki iritzien desadostasunean datzatelarik: batak baieztatuz besteak ukatuz hau edo bestea zuzena edo onesta dela.

"Horrela izanda ere -ihardetsi zuen berak- badirudi badagoela ekintzetan egokitasuna eta onestasuna, egokia eta onesta auresuposatzen baitira eztabaida honetan. Eta gizakiak ez badatoz bat gai honetan, hala ere, gauza bere baitan denek onartzen dute. Era berean, beste edertasun batzuei buruzko juizioetan ez da adostasunik. Eztabaidatzen da zein den eraikuntzarik dotoreena, zein itxura edo aurpegirik maitagarriena; baina onartzen da, eztabaidarik gabe, mota bakoitzean edertasun bat badela. Hau ez du inork irakasten, ezta ere ikasten, haatik, denek aitortzen dute. Denek onartzen dute eredu, araua eta neurria, baina gauzei aplikatzen zaizkienean, nahasketa sortzen da, ezjakintasuna nagusitzen da, interesak eta grinak istilua ernaltzen du. Ezin da bestela gertatu bizitzaren arazoetan, gizakiari ona izateagatik interesatzen zaiona eta erakartzen diona, miretsi eta goraiatzat duenaz bereizten da zintzoa izateagatik. Baina guretzat, Filokle!, garbiago dago; jadanik ebatzia dugu ederra eta ona gauza bera direla."

"Gogoratzen naiz -esan nuen nik- zer behartu nauzun aitortzera lehenago, behin baino gehiagotan. Eta orain, on Teokle!, hain jarraitzaile saiatua bihurtu naizenez, ez dut behar konbentzitua izatea, nik uste, baizik eta segurtapena eta berrindarketa behar ditut. Eta nik espero azken lan hau zure eginkizun errazena izango dela."

"Ez, laguntzen ez didazun artean -ihardetsi zuen Teoklek- hori beharrezkoa eta egokia baita. Benetan lotsagarria da zuk denari amore eman diozula, ganorazko bainarik gabe. Norbera konbentzitua izaten laguntzeko beharrezkoa da arrazoimena erne izatea, eta errua eta iruzurra atzematea. Baina benetan konbentzitua izanez gero, bihotzez lotu behar gatzazkio nabarmena deritzogunari, eta irudipen hori indartu behar dugu; hori da arrazoimenari bihotzez laguntzea. Horrela esan daiteke limurtzen dugula gure burua oneski."

"Esan, orduan, nola limur dezakedan nire burua."

"Izan zaitez ausarta, Filokle! -esan zuen berak ahotsa altxatuz-. Eta ez zaitez iraindu esaten dizudanean: izan zaitez ausarta! Beldurkeriak bakarrik saltzen gaitu. Zeren nondik etorriko da sasilotsa ez bada beldurkeriatik? Ez da lotsatzekoa batek segurutzat duena, lotsa erabaki gabe dagoenetik etorri beharko da. Zuzena eta okerra gauzetan bilatzen dugu; ohoregarria eta lotsagarria dena aztertzen dugu, eta behin erabakita ez gara ausartzen geure juizioari eusten, eta lotsatzen gara aitortzean badela zerbait lotsagarria eta zerbait ohoregarria. Entzun niri (dio Filokle estimatu eta bere estima jaso nahi duen batek). Ezin da egon benetako merezimendurik edo baliorik; ezer estimagarria edo maitagarria, gorrotagarria edo lotsagarria. Dena iritzia da. Iritziak sortzen du edertasuna eta desegiten du. Gauzen dohaina edo dohain falta, begiramena eta bere aurkakoa, maitagarria eta ez maitagarria, hobena, bertutea, ohorea, lotsa, guztia iritzian oinarritzen da, besterik ez. Iritzizkoak dira legea eta neurria. Iritziaren arau bakarra halabehar hutsa da; horrekin aldatzen da, ohiturak aldatzen diren bezala; eta modaren poderioz, eta heziketaren eragin estimatuagatik, baliagarria gertatzen da orain gauza bat edo gero bestea pentsatzea. Zer esango diogu honi? Nola jabeaziko dugu bere zentzugabekeriaz eta xelebrekeriaz? Amore emango al du berehala? Aterako al diogu lotsa, lotsarik ezagutzen ez duen bati? Iseka egingo digu eta oihukatuko du: irrigarria! Baina zer eskubiderekin? Zeren izenean? Orduan, ni Filokle banintz, nire burua defendatuko nuke. Ni al naiz irrigarri? Zer dela eta? Zer da irrigarria? Dena, ala ezer ez? Benetan irrigarria! Baina zerbait, orduan zerbait, irrigarria da; eta gauzen lotsagarritasun eta irrigarritasunaren nozioa, dirudienez, zuzena da."

"Baina nola erabiliko dugu nozio hori? Zeren, bera oker erabiltzea ez al da irrigarria izango? Edo "lotsa zaitez!" oihukatzen duenak ez al du aitortuko lotsarik beregan? Ez al da bera sekula gorritzen, ez al da aztoratuta agertzen? Baiezkoa bada erantzuna, kasu honetan penaz eta beldurraz bereizten da. Berak sentitzen duen nahasketa berez lotsagarria eta gorrotagarria denaren sentipenetik datorkio, ez kaltegarria edo arriskutsua

denaren ondorioz. Zeren munduko arriskurik handienak ezin du lotsa sorrarazi, eta mundu guztiaren iritziak ezin gaitu horretara behartu, gure iritzia ez badator horrekin bat. Kezka gaitzake lotsagabe antza ematen badugu, eta apaltasuna erakutsiko dugu. Baina gorritu, bakarrik gorrituko gara benetan lotsagarria iruditzen zaigunagatik, hau da, gure interesak seguru egon arren, eta lotsatzen gaituen edozein gauzak sor dezakeen eragozpenetik urrun egon arren, gorriaraziko ligukeenagatik.

"Horregatik -segitu zuen berak- har dezadan aurea, eta nire burua defenda dezadan. Gizakien bizitzari, eta eurengan beti eragiten duenari, gertutik begiratu, nahiko froga izango dut nire artean zera esateko: "hitx egin dezala nire iritzia honen aurka argudiatu nahi duenak; era batera edo bestera aurkituko dut berak auresuposatzen duela bere argudioan, nirean erasotzen ahalegiten dena". Eskerrona ala erresumina, harrotasuna ala lotsa sentitzen al du? Edozein gauza dela, onartzen du zuzentasun edo zuzengabetasuna, duintasuna edo doilorkeria. Eskerronekoa bada edo eskerrona itxaroten badu, zergatik? edo, zeren kontura? galdegingo diot. Haserre badago, mendekua bilatzen badu, galdegingo diot: Nola?, Zer egoeratan?, Zeri?, harri bati edo zoro bati? Zein dago hain zoroa? Baina zer dela eta?: halabeharrezko zauri batengatik?, nahigabeko istripu batengatik?, Zein da hain bidegabekoa? Beraz, bada zuzentasuna eta zuzengabetasuna, eta horiekin loturik naturazko aurriritzi edo aurrerapen bat erresumina eta haserrea funtsatuko dutena. Zerk bultzatzen ditu, bestela, gizakien arteko gaiztoenak sarritan mendekuaren interesa hobestera beste edozein interesen aurrean, are bizitzaren gainetik ere, ez bada bidegabekeriaren zentzu bat (gizaki guztiei berezkoa zaiena), eta edozein momentutan bidegabekeria hori bilatzeko nahia? Ez euren probetxurako, izan ere euren bizia ere ematen baitute, baizik eta bururatzen duten erruaren gorrotoz, eta zuzentasuna maite dutelako; maitasun hau gizaki zuzengabearen ere euren bizitza propioaren maitasuna baino handiagoa da, adibidean ikusi dugun legez.

"Harrotasunari dagokionez, galdegiten dut nik: Zergatik harroa izan?, Zergatik handikeria?, Zertaz?. Bere buruaz harrotzen denak pentsatzen al du bere buruaz apaltasunez eta axolagabe? Ez, ohorez baino. Eta nola, bada, hori, ez bada auresuposatzen benetazko ohorerik edo duintasunik? Norberaren-estimak norberaren-balioa suposatzen du, eta bere benetazko balioaz jabetzen den pertsona batengan ez da harrotasunik, edo izanez gero zuzena eta noblea da. Halaber, norbera erdeinatzea norberaren akats edo erru batetik dator, eta izan daiteke apaltasun zuzena edo zuzengabeko ahalkea. Baina bai da egia harroa den edozein, zerbaitez harrotu behar dela. Eta badakigu harroa dena egoerarik larrienetan ere harroa izango dela, nahiz eta harrotzeko arrazoi nabarmenik ez izan; eurek, dena dela, merituren bat ikusten dute eurengan, eta hori da miresten dutena. Berdin zaie meritu hori eurengan dagoen, uste duten bezala, ala ez. Miresten duten balio, ohore edo meritua da, eta miretsiko dute ikusiko duten edozein lekutan, edozeinengan. Eta orduan, bakarrik orduan, makurtuko dira: ikusten dutenean besterengan, baina neurri handiagoan, eurengan miresten dutena.

"Hau guztia dela eta, gizakiengan haserrea edo mendekua, harrotasuna edo lotsa ikusten dudana bitartean lasai nago; ohorea eta ohoregabezia, erokeria eta zuhurtasuna nik bezala ulertzen dutelako. Berdin da non ipintzen duten, non ez; honek ez du itzaltzen nire segurtasuna baieztatzen dudanean nozio hori existitzen dela, eta orokorki onartzen dela, naturazko pentsamoldea dela, naturalki bururatzen dela, eta ezin dela artearen bidez deuseztu edo suntsitu.

"Zer esango didazu orain, Filokle, -jarraitu zuen berak- egiten ari natzaizun defentsa honetaz? Ikusiko duzun bezala suposatzen da helburu filosofiko honetan engaiaturik zaudela. Baina, agian, oraindik zailtasun ugari gainditu beharko duzu edertasunaren ezagupenera heltzeko, eta bera zure ontasuna bihurtzeko."

"Ez dut zailtasun handirik aurkitzen, denak gaindi daitezkeenak dira -esan nuen nik-. Nire joerak bide horretatik narama, ezinbestean, eta gertu nago onartzeko ez dela benetazko ontasunik, edertasunaren gozamina baino."

"Eta ni gertu nago, oster, onartzeko ez dela benetazko edertasunik ona dena baino -ihardetsi zuen Teoklek-."

"Bikain! Baina gogoeta eginez gero, beldur naiz ez dudala zure amore ematea nahiko eskertuko."

"Zergatik?"

"Zeren, ahaleginduko banintz edertasunaren gozamina lortzen adimenezko bide horretatik kanpo, uste dut gozamen hori zentzugabetzat joko zenuela, lehenago egin duzun bezala."

"Zalantzarik gabe. Zeren, adimena ez bada, zerk goza dezake, edo zerk emango luke gozatzeko ahalmena? Esan dezakegu: gorputzek gozatzen dute?"

"Sentipenen laguntzarekin agian bai, baina ez bestela."

"Edertasuna al da, orduan, sentipenaren gaia? Esan orduan nola, zer modutan? Bestela sentipenaren laguntzak ez du ezer balio. Eta gorputza ez bada gauza, eta sentipenak laguntzen ez badu edertasuna atzematen edo gozatzen, bakarrik adimena geratzen zaigu bera atzemateko edo gozatzeko."

"Egia da -esan nuen nik- baina erakutsi niri, orduan, zergatik ez den izango edertasuna sentipenaren gaia."

"Erakutsi zuk niri lehenik, arren, zergatik, non, edo zertan oinarriturik uste duzun horrela izan behar duela."

"Ez al du edertasunak pizten sentipena lehena, gero maitasuna deitzen den grina elikatuz?"

"Esango zenuke, era berean, edertasunak pizten duela sentipena lehena, gero gosea deitzen den grina elikatuz? Ez zenuke hori esango. Pentsamendu hori ez duzu gogoko, jabetzen naiz. Ondo jatearen plazerra handia izan arren, ez zenioke edertasunaren nozioa atxekiko berak sortzen dituen janari gozoei. Erromatar luxuzale batzuek atsegin handiagoa hartzen zuten frikasea dastatzean, bazekitenean eura osatzen zuten txoriek luma ederrekoak izan zirela, edo ondo kantatu izan zutela, baina zuk, ez zenituzke gizon horiek laudatuko. Zenbait eta gehiago murgildu sukaldaritzan, eta azertu bere mota desberdinak eta aldaketak, janariei buruzko kontakizun historiko honek, nire ustez, jangura kendu egingo lizuke, eman baino, nahiz eta mahai atseginkoi eta dotore horretan zerbitzatuko balizute. Baina sukaldaritza desberdinak beti hain zoritxarrekoak izango balira ere, onartu beharko duzu sukaldeko gaiak, baratzetik hartutakoak esaterako, euren tankerakoen artean benetan ederrak eta bikainak direla. Ez duzu ukatuko, ezta ere, landu gabeko zelaian, edo gure inguruan (etzantza berdeska hauetan) hazten diren lore hauen edertasuna. Eta maitagarriak diren arren naturaren eraok: belar distiratia, goroldio zilartsua, ezkaibelar loratsua, basoko larrosa, edo ezkerraihana; ez da euren edertasuna inguruko abeltaldeak erakartzen dituen, ez antxumeei edo oreinkumeei gozarazten diena, edo bazkan diharduten abeltaldeetan dakusagun poza zabaltzen duena. Erak ez du gozamina sortzen, era horren azpian dagoenak baino; bere zaporeak erakartzen du eta goseak bultzatzen du; eta egarria hobeto arintzen duenez erreka garbiak ur-putzu lohitsuak baino, nahiago izaten da ninfa ederra, bere era kontutan izan gabe. Era kontutan hartzen ez bada, ez bada juzgatzen, ez bada aztertzen, eta zirikatutako zentzua lasaitu eta abere alderdia asetzen duen zantzu edo ezaugarri akzidentala besterik ez bada, orduan ezin da benetazko indarra izan. Konbentzitura al zaude honetaz, on Filokle? edo abereei gozamenaren abantaila ukatzeaz gain, izendatuko al diezu adimena edo alderdi razionala?"

"Ez bada, esan nion nik."

"Abereak, orduan, abere diren neurrian, ez badira gai edertasuna ezagutzeko eta gozatzeko -esan zuen berak- eta bakarrik zentzumena (abere alderdia) dutenez, hortik atera behar dugu gizakiak ere ezin duela zentzumen berorrekin edo abere alderdi horrekin edertasuna bururatu edo gozatu; haatik, berak edertasuna eta ontasuna modu nobleago batean gozatzen du, eta nobleena denaren laguntzaz, bere adimen eta arrazoimenaz. Honetan datza bere duintasuna eta interes handiena, hemen bere ontasunerako eta zoriontasunerako ahalmena. Bere trebetasuna edo gaitasun eza, bere gozatzeko ahalmena edo ezintasuna, honetan bakarrik oinarritzen dira. Hori da bere sendotasuna, dotoretasuna, noblezia, balioa; horrela dira bere gaiak, ekintzak eta eginkizunak. Zeren adimen plazerzalea, sentipenen morroia dena, ezin baita sekula lehian aritu edertasunagatik arrazoimenezko eta kulturazko adimenarekin; eta lehena liluratzeko duten gaiak ezin dira parekatu bestea erakarri eta maitaxarmatzen dutenekin. Eta zein bikainagoak diren arrazoimenari eta kulturari lotzen zaizkion ekintzak bakoitzak bere burua atsegiten duenean dagokion gaiaz gozatuz eta bere jabe eginaz, horrela arimari eskuzabala eta ona denaren gozamina ematen baitio. Onartuko duzu gutxienez, Filokle, atsegina adimenetik at kokatzen duzunean, gozamina ez dela gai ederra izango, eta ezta ere itxura liraineko edo gogokoa. Baina pentsatzen duzunean nola gozatzen diren adiskidetasuna, ohorea, eskerrona, xalotasuna, onberatasuna, eta barne edertasun guztiak, nola gizarte plazerrak, gizarte bera eta gizadian baliozko eta zorioneko diren gauza guztiak; orduan edertasuna ekintzan aurkituko duzu, eta pentsatuko duzu merezi duela pozik den adimenak behin eta berriro begira diezaiola, zoriontsu jabetuko delako alderdi eskuzabalaz, eta bere aurrerabideaz eta hazkundeaz edertasunari begira."

Etenalditxo bat egin ondoren jarraitu zuen: "Horrela, Filokle, ausartu naiz edertasunaz iharduten zu bezalako epaile handiaren eta miresle trebearen aurrean. Zeren naturaren edertasunetik abiatuz, ni harrapatu nauena, areagotu egin dut; eta, bera gurekin harremanatzen den neurrian, lagundu zaitut edertasunaren ikerketa honetan, eta bere gozamen tolesgabe eta naturalean. Eta ez badugu denbora alferrik galdu, eta ez bagara noraezean ibili lurralde eremu hauetatik, emango luke ez dela ezer edertasuna adina jainkozkoa. Hau, gorputzari ez dagokionez eta bere existentziaren hastapena adimenean baino ez duenez, bakarrik gure jainkozko alderdiak atzematen du bere burua miatzen duenean, hau delako merezi duen gai bakarra. Zeren adimengabea dena hutsala eta iluna baita adimenaren begiarentzako; ahuldu eta goibeltzen da gai arrotzetan gelditzen denean, baina pizten da eta berezko kemena hartzen du erabiltzen denean bere legezko denari begiratzeko. Horrela, hobeagora doan adimena, beste gai batzuk aztertuz bere iturburura zuzentzen da arin-arin (kontutan hartu gabe gorputzak eta era arruntak, horietan edertasunaren itzala besterik ez dago eta), eta adimentsua den horretan ikusten du eraren eta ordenaren jatorria. Eta horrela, oi Filokle! aurrera egingo dugu eta arlo horretan artistak bihurtuko gara: ikasiko dugu gure burua ezagutzen, eta baita ere zer den, hobetzean, gure onerako eta intereserako aurreratzeko segurtasuna emango diguna. Zeren ezagupen hau ezin da eskuratu gorputzei edo itxurei begiratzuz, ikuskizunei so eginaz, edota egoera eta ohorea zainduz; ez da preziatua izango hauen kontura aberasten den artista. Gizon jakintsua eta dohaitua izango da benetazko artista; gauzoi azaleko begirada emanaz, beste arlo batzuez arduratuko da, harria edo marmola ez den ekaiarekin lana egingo du, eta bere begietan eredu zuzenagoak erabiliz bere bizitzaren eta ondasunen benetazko arkitektoa bilakatuko da, bere baitan ordenaren, bakearen eta gogaidetasunaren oinarri iraunkorrak ipiniz. Baina etxera itzultzea pentsatzeko garaia heldu zaigu. Goiza ia joan zaigu. Goazen hemendik eta utz ditzagun ezohiko gaiok berriro leku urrun eta aldendu hauetara bakarleratzen garenera arte."

Hitz hauekin Teoklek abiada arindu zuen, eta muinoan behera oso atzean utzi ninduen, nik behin eta berriro deitzen nion artean. Berriro berarekin elkartu nintzenean, erregutu nion pittin bat gehiago egoteko; edo erabakia bazuen baso haiek eta bertara eraman gintuen filosofia uztea, utz ziezadala horietatik poliki-poliki urruntzen, hurrengorako ahalbait eta irudipen onena gorde nezan. Zeren oso limurtuta nengoen arren, eta bere doktrinaren jarraitzailea bihurtu nintzen arren, nire arriskua handia zen oraindik -hala aitortu nion-; eta ikusten nuen leku haietako xarma eta bere laguntasuna desagertu bezain laster berriro eroriko nintzela, ahulki, munduaren xarma handiegiaren pean. "Esaidazu -jarraitu nuen-, nola liteke berari aurre egitea, eta gizadiaren iritzi orokorra jasatea, hain desberdina bada guk ona deitzen duguna? Esan egia, Teokle, bada ezer arraroagoa, edo jendearen iritzi arruntarekin desadosago, gai honetaz zehaztu duguna baino?"

"Nori jarraituko gatzazkio bada? -ihardetsi zuen berak- Noren judizioa edo iritzia onartuko dugu onari eta bere aurkakoari buruz? Gizadi osoa, edo zatiren bat behintzat, elkarrekin konpontzen badira eta bat baldin badatoz honetan, pozarren baztertuko dut filosofia eta eurei jarraituko natzaie; baina bestela, zergatik ez naiz izango erabaki dugun iritzikoa? Azter dezagun gai hau, orduan, beste ikuspuntu batetik."

III. Atala

Soseguz abiatu ginen etxeruntz (ia eguerdia zen) eta bere ihardunaldia jarraitu zuen berak.

"Bata heroia lotzen zaio, eta uste du bizitzaren onurarik handiena dela noizbait gudua ikustea eta gudu zelaietan aritua izatea. Besteak farre egingo dio honi, eta bitxikeriatzat eta erokeriatzat joko du; preziatuko du umorea eta zuhertasuna eta besteek menturazalea kontsidera dezatela ezbeharra iruditzen zaio. Delakoa merkatariaren izaerara hurbiltzen ahaleginduko da nekegabe. Besteak, haatik, gutxietsiko du hori, eta ez dio baliorik emango munduan ospea edo maila izateari; eta bere gogoz lizunkerian ibiliko da beti, eta ez da sekula aterako prostibuletatik edo tabernetatik, bere ustez hor gozatzen duelako ontasunik gorenena. Batari aberastasunak balio dio bere ahoa lausengatzeko eta ondo jateko. Besteak hori gorrotatuko du eta entzute eta izen ona izatea nahi izango du. Batak musika, pintura, beirarasetako bitxiak eta etxeetako apaingarriak miretsiko ditu; besteak belardiak, arkitektura eta eraikuntzen handikeria. Besteak, inolako gusturik ez duelarik, usteko du "artemaisu" deitzen dituen horiek erdi jota daudela. Hangoak gastu guztiei erokeria deritze, eta pentsatuko du bakarrik aberastasuna dela ona. Batak jolas egingo du, bestea jazteaz eta bere apainduraz kezkatuko da; bestea leinuz, ohorez, familiaz eta odolez betea dago. Batak galania eta azpikeria aholkatuko du; besteak ohizko adiskidetasun jatorra; besteak farrea, satira eta umore arrunta; besteak kirola eta mendia; besteak auzitegia; besteak bidaiatzea eta beste lurraldeak ikustea; besteak poesia eta gaurko ikasketak. Guztiok bide desberdinak hartuko dituzte. Batak bestea maiseatuko dute denek, eta bata bestearentzako erdeinagarria izango da. Noizbehinka ere euren burua erdeinatuko dute, eta umorez eta grinaz aldatu ahala harrotasuna galduko dute. Zerk kezkatu behar nau orduan? Noren maiseoak aztoratu behar nau? Edo, nork gidatu behar nau azken batean?"

"Nik galdegiten badut: "ona al da aberastasuna bakarrik pilatu egiten bada, erabili gabe?" Batak esango du: "bai" eta besteek ukatu egingo dute. Nola erabiliko da onari begira? Ez dator inor bat. Denek gauza desberdinak esaten dizkirate. Aberastasuna ez bada berez ona (gehienok diozuen bezala), eta adostasunik ez dagoenez zuen artean nola bihurtzen den ona esateko orduan, zergatik ez diot eutsiko nire iritziari esanaz ez dela berez ona eta ezta ere onaren zergati edo bide?"

"Ospea guztiz erdeinatzen duen jendea baldin badago, eta bera gutiziatzen dutenen artean arrazoi bategatik nahi duenak, beste bategatik erdeinatzen badu; zergatik ez dut nik esango ez dakidala zein ospez esan daitekeen ona dela?"

"Plazerra gutiziatzen dutenen artean zerbait gehiago badira mota batekoa miresten dutenak beste motakoa miresten dutenak baino; zergatik ezingo dut nik esan ez dakidala plazer horietatik zein den ona edo zeinez esan ahal den ona dela?"

"Bizitza hain sutuki gutiziatzen duten horien artean, batarentzat aukerakoa eta atseginkorra dena bestearentzat erdeinagarria eta doilorra bada; zergatik ezingo dut nik esan, ez dakidala zer dela eta pentsa daitekeen bizitza berez ona dela?"

"Artean nik zera dakit segurtasunez: gauzaok gehiegi estimatzearen ezinbesteko ondorioa esklabu eta esteiari izatea dela. Baina agian, Filokle, ez zaude arrazoiketa mota berezi honetara ohituta."

"Zuk burura dezakezuna baino gehiago -esan nuen nik-. Ohartzen naiz emakume onbera, zuk goraiapatutako edertasuna, niri agertzeaz dagoela berriro, eta erraz ezagutzen dut berriro askatasunaren aurpegia, behin bakarrik ikusi nuena emakume moral honetaz atzo marraztu zenuen irudian. Segurta diezazuket ahal den pentsaerarik gorenena dudala berataz, eta ikusten dut bere laguntzarik gabe, bai itxuran funtsezkoak diruditen ontasun horien gainetik altxatzeko norbera, bai bizitzarekiko nahiz ondasunekiko axolagabeago bihurtzeko, munduko gauzarik zailena izango dela gozatzea biotaz. Ardura, arreta eta artegasuna bidertuko dira, eta zorigaiztoko menpekotasun honetan beharrezkoa da limurtzea eta morroi izatea. Handikiei lausengu egin, irainak jasan, menperatu, koipatu, eta norberaren arrazoa eta gizatasuna lotsagarriro galdu; hau guztia adorez jasan behar du, eta itxura askearekin eta ahal den aldarte onenarekin burutu behar du batek, nahi baditu mota honetako gorentasunak aztertu, korteko jokaera orokorra ezagutzen badu eta baldin badaki ondasun iheskorra lotzen. Ez ditut aipatu beharrik bekaitzak, mesfidantzak eta jelosiak."

"Ez -moztu zidan berak-, ez duzu, egiatan, horren beharrik. Egoera dohakabe honetaz eta bere barne minez (berdin da zer itxura duten kanpotik) hain kezkatua aurkitzen zaitudanez, nola liteke zuk zorientasuna aurkitzea beste egoera horretan? Ezin duzu gogora ekarri naturaz erabaki duguna? Ba al da ezer nahigarriagoa berari jarraitzea baino? Edo, ez al gara unibertsoa ordena onberarekin birrelkartzen grina edo interes apal hauetaz askatuz? Ez al gara horrela harmonizatzen naturarekin? Ez al gara horrela bizi Jainkoarekin nahiz gizakiekin adiskideraturik?"

"Pareka ditzagun -esan zuen berak- egoera bakoitzaren abantailak, eta jar ditzagun euren alderdi onak bata bestearen aurrean: alde batetik ez direnak gure ustez segurtasun osoz onak, baizik eta patuaren, garaiaren, gora-beheren eta umorearen menpeko direnak; beste aldetik segurtasunez berez onak izanda, beste segurugaitz horien erdeinuan oinarritzen direnak. Ez al da ona giza askatasuna, eskuzabaltasuna eta bihotzanditasun? Ez al dugu zorientasuntzat hartuko bertutean soilik oinarrituriko guztitik sortzen den norberaren buruaren gozamina, esaterako: bizitzaren eta era onen sendotasunetik, eraspenen harmoniatik, lotsa edo erruaren sentipenaz aske izatetik, hala nola gizadiarentzako, gizartearentzako, herrialdearentzako eta adiskideentzako balio dugunaz eta gure merituaz jabetzetik sortzen dena? Ez al dira beti eta edozein sasotian onak arrazoimenari menperaturiko adimena, jite gizakioia eta eraspen naturalei egokiturikoa, etengabe adiskidantzan ihardutea, xalotasun eta ontasun osoa, izaera ona, segurtasun, lasaitasun eta orekatasun (hitz filosofiko hauek erabil baditzaket) iraunkorra? Bihur al daiteke hauetakoren bat bat-batean gogaikarria eta nekoso? Ba al da garai, sasoi, leku edo gora-behera bereziren bat atsegingarri izaten lagunduko dituen? Aldakor eta iraupegabeak al dira? Sortzen al dute asaldurarik edo miseriarik sutuki maitatzen edo bilatzen direlako? Larretsi al daitezke edo, hobe esanda, kendu edo eragotz al diezaguke

inork euren gozamina geuk ez bada? Nola goraipatuko dugu probidentziaren ontasuna, ez bada gure zorientasuna eta ontasuna kokatu duelako guk geure buruari atxeki diezazkiekegun gauzetan." "Hau horrela bada -esan nuen nik-, ez dut arrazoirik ikusten probidentziari errurik botatzeko. Baina gizakiak, beldur naiz, nekez bihurtu ahal izango dira jite on honetakoak, euren irudimena, naturala den legez, ontasun aldakor horiei begira baldin badagokie; eta, laburbilduz, honako esatera arruntaren menpekoak bagara: "Ontasuna guk bururatzen dugun bezala da. Irudimenak sortzen du. Iritzia eta irudimena besterik ez dago."

"Zergatik orduan -esan zuen berak- ekiten dugu edozein unetan? Zergatik aukeratzen dugu, edo nahiago dugu gauza bat eta ez bestea? Erantzungo didazu, nik uste, hala bururatzen dugulako dela, edo ontasuna gauza horren baitan dagoela bururatzen dugulako. Jarraitu beharko ote diogu, orduan, ontasunari buruzko edozein burutaziori, iritziri edo irudimeni? Horrela bada, une batean jarraitzen duguna bestean utzi beharko dugu; une batean gaitzesten duguna onetsi beharko dugu bestean; betiereko aldaketa batean iraungo dugu gure baitan. Baina ez baditugu jarraitu behar burutazio edo iritzi guztiak; onartzen badugu batzuk egiazkoak direla eta beste batzuk faltsuak; orduan burutazio guztiak aztertu beharko ditugu, eta egon beharko da arauen bat, zeinaren bidez juzgatu eta erabaki. Gizon baten burutazioa izan zen eliza eder bati sua ematea, horrela oroitzapen, edo ospe hilezkorra lortzeko. Beste baten burutazioa izan zen (arrazoi berarengatik edo beste antzerakoren bategatik) mundua menperatzea. Hauek izango balira benetan gizakiaren ontasunak, zergatik miretsiko genituzke? Burutazioa okerra bada, esan lasai non dagoen erru hori, edo zergatik gaia ez den bururatu zen adina ona. Beraz, ala gizaki bakoitzak bururatzen duena da ona, bururatzen duelako, eta horren faltan ez dagoelako pozik; ala, bestela, gizakiaren izaera asetzen duena da bere ontasun bakarra. Giza izaera asetzen eta pozten duena bada bere ontasun bakarra, eroa da eta bilatzen du kementsu gizakiak behar ez duena ase eta pozik egoteko. Era berean, eroa da ihes egiten diona gizakia iraunaraziko duenari ajetasuna eta poza emanaz. Alabaina, baliteke gizaki batek eliza bat errea ez izatea (Erostratok egin zuen bezala) eta hala ere pozik izatea; edo mundua menperatua ez izan arren (Alexandrok bezala) lasai eta pozik egotea ere; botere, aberastasun eta izen onik gabe gertatu ahal zaion bezala, bere bururamenak eragozten ez badu. Laburtuz, ikusiko dugu gizakia pozik egon daitekeela, eskuarki onak esaten diren gauza horietako bat gabe ere; hala nola, alderantziz, guztiak izan ditzakeela eta, hala ere, atsekabe izan, eta inondik ere ez zorientsuena. Horrela bada, ateratzen da zorientasuna barrutiko gauza dela eta ez kanpotikoa. Bururamen handia da garrantzitsuena. Eta, horrela, zurekin bat nator esatean iritzia dela lehena. Baina zer da hau, Filokle, zer jabetu da zutaz? Bat-batean gogoeta sakonean ematen duzu."

"Egia esateko -esan nuen nik- pentsatzen ari nintzen zer gertatuko ote zitzaidan, azkenean, zure eraginagatik, filosofo bihurtuko banintz."

"Aldaketa benetan ohigabekoa izango litzateke -ihardetsi zuen Teoklek-. Baina ez beldur izan. Arriskua ez da hain handia, eta esperientziak erakusten digu egunero, filosofiaz hitz egin edo idaztean, jendea ez dela filosofo izatera gehiago hurbiltzen."

"Baina -esan nuen nik- izena ere destaina modukoa da. "Idiota" hitza lehenago "filosofo"-ren aurkako zen, baina gaur egun filosofo bera izendatzen du, besterik ez."

"Eta -ihardetsi zuen berak- filosofia zorientasunaren azterketa bada, zer beste egiten dugu guk oro har filosofatu baino; trebetasun handiagoarekin edo txikiagoarekin izanda ere, ez al dugu denok filosofatu behar? Ez al dira filosofikoak gure interesari buruzko gogoeta guztiak, gure gustuen zuzenketa guztiak, aukera eta lehentasun guztiak? Zeren ez bada onartzen zorientasuna gure baitako eta barnetikoa dela, orduan, edo kanpotikoa bakarrik izango da, edo gure baitatik eta kanpoko gauzetatik etorriko da era batera."

Kanpoko gauzetatik bakarrik badator, erakusten digu, egitez, gizaki guztiak horren arauera direla zoriontsu; baina, dirudienez, hau inork ez du baietsi nahi, denek aurkakoa onartzen dute. Horregatik, zoriontasuna neurri batean norberaren baitatik eta beste neurri batean kanpotik badator, orduan kontutan hartu behar da barnekoa eta bakarrik baitaren menpekoea dena, eta balioren bat eman behar zaio. Horrela izanda, ez al dut filosofatzen pentsatzen badut nola eta zer hobetsi; noiz den garaia eta noiz ez; noiz ekin eta noiz amore eman? Baina, hala ere, hau nahikoa da edozein aterarazteko pentsatzeko era arruntetik, eta merkataritzako eta munduko arazoetatik urruntzeko.

"Ederki, zeren hau ere kontutan hartu eta baloratu behar da. Eta, beraz, filosofia da, halaber, aztertzea non eta zeri dagokionez galduko duen norberak gehiago; zeintzuk diren irabazirik handienak, zeintzu trukaketa onuragarrienak, trukean baitatza munduan dena. Ezer ez da ezeren truke. Faboreak lausengua behar du; interesa eskean ibiliaz lortzen da; ohorea arriskuarekin eskuratzen da; aberastasuna premien bidez; jakituria eta trebetasuna ikasketa eta ahaleginaren bidez; segurtasunak, atsedanak, soraiotasunak euren salneurria izango dute. Pentsa daiteke, agian, dohainik lortuko direla. Izan ere, zer zailtasun dago, bada? Non da gaitza? Nahikoa da ospea eta asturua alde batera uztea. Nahikoa da ohorea baztertu eta irabazia pixka bat gutxiagotzea. Hau erraza bada, dena zuzen doa. Eroapen piska bat beharrezkoa da, dakusazun legez. Bakardadea jasan behar da, eta baita ere iluntasuna eta erdeinua. Hauek dira baldintzak eta gauza guztiek euren baldintzak dituzte. Botereak eta bizitzan gehiago izateak prezio bat du; plazerrek beste bat; askatasunak eta zintzotasunak beste bat. Adimen argia izatea ordaindu beharra dago, gauza guztiak bezala. Baina hobe dugu kontu izatea, agian gehiegi ordaintzen dugulako. Egon gaitzen seguru erosketa abantailatsua dela. Ea bada! Atera ditzagun kontuak. Zenbait balio du adimen batek? Zer eman al da oparotasunez beregatik? Zer izan behar da bera eskuratzeko? Bera hartzen badut edo uzten badut ez da dohan. Balioren bat eman behar diet, derrigorrez, nire askatasunari eta nire barne izaerari. Badago zer bait guk meritu, egiberatasun eta bihotz garbi deritzogun horretan. Eraspen ordenatuak, pentsamendu eskuzabalak eta arrazoimen menperatzailea ondasun ederrak dira, eta ez dira erraz alde batera utzi behar. Kontutan hartu behar dut lehenik zer izan daitekeen euren baliakidea. Bilatu behar al dut nire kontua barne ardura hauei euren kasa abiatzen utziz? ala asturuaren aurrean segurtasuna bilatuko al dut nire baitan ordena ezarriz, eta ez kanpokoaz interesatuz, orain eragin handiko lagun bat, gero beste bat eginaz, nire egoera edo maila gero eta gehiago hobetzeko? Non geldituko naiz? Ekin eta erakutsi niri mugak. Emaidazu aditzera noraino heldu behar dudun, eta zergatik ez haruntzago. Zer da aberastasun neurtua, gaitasuna, eta eskuarki mintzagai diren beste maila horiek? Non geldiarazi behar dut nire haserrea, edo noraino utzi behar dut handitzen? Noraino engaiatu behar dut maitasunean? Noraino jaregingo ditut nire handinahia eta beste gurariak? Utzi behar al ditut denak aske? Euren erara ibiliko al dira grinak, inongo arretarik gabe, eta bakarrik euren kanpoko helburuez arduratuko al gara? Ala, arretarik beharko balute, zenbait emango genioke batari, eta zenbait besteari? Zer neurritan arduratu behar dugu gurariez, eta zenbait kanpoko gauzez? Emaiguzu neurria eta araua. Ez al da hau filosofatzea? Ez al du mundu guztiak filosofatzen horrela: nahita ala nahi gabe, jabetuta ala jabetu gabe, zuzenki ala zeharka? Zer desberdintasun dago orduan? zein da filosofatzeko modurik egokiena? Hor dago arazoa? Hori nahi nuen zuk aztertzea. "Baina azterketa nahasgarria da (diozu), eta nahiago dut ez burutu". Zeinek esan dizu horrelakorik? "Nire arrazoimenak (diozu), zeinaren indarrari makurtu behar natzaion". Esaidazu orduan: landu al duzu arrazoimen hori behar den moduan?, labaindu al duzu?, eman al diozu behar duen nekea?, trebatu al duzu gai hauetan? Edo erabaki al dezake berdin trebatugabea denean, hala nola aritua eta trebatua denean? Pentsa, arren, matematiketan, noren arrazoa da hobe eta fidagarriagoa: arituarena ala

aritugabearena? Norena guduan, edo politikan, edo gizarte arazoetan? Eta moralitatean eta bizitzan ere, galdegiten dizut oraindik, norena? Ez al da izango, beharbada, bizitza aztertzen duena eta arauren bat atera nahi duena, egokiena horietaz juzgatzeko? Ala azaletik aztertzen duena, eta halabeharrez eta oharkabean filosofatzen duena hartuko dugu, benetan, jakintsuentzat gai horretan?"

"Horrela, Filokle -esan zuen berak bere ihardunaldia bukatzeko-. Horrela oinarritzen da filosofia. Zeren denok pentsatu behar dugu eta, ezinbestez, ona eta txarra denaz gure zoriontasunerako. Arazo bakarra da, zeinek arrazoitzen duen ondoen. Zeren bere alderdi arrazoitzailea eta gogoetatzaila ukatzen duenak ere, ukatzen du "hori dela onena" pentsatzen duelako edo limurtua dagoelako."

Zegoeneko, ohartu gabe, etxera helduak ginen. Gure filosofia burutua zen, eta eguneroko bizitzara itzuli ginen.